– Industria lítica: más de centenar y medio de restos de talla, una veintena de láminas completas o fragmentadas, raspadores, geométricos (dos segmentos con retoques en doble bisel y dos trapecios de retoque abrupto), dorsos, denticulados y otras varias piezas retocadas.

– Industria cerámica: dos centenares y medio de fragmentos cerámicos, la mayor parte lisos y varios con decoraciones incisas e impresas en los labios y cuellos. Las pastas son heterogéneas en sus grosores, tratamientos y acabados y puede presumirse una cierta variabilidad formal.

– Otros: fragmentos de ocre y mineral de hierro.

– Restos óseos: supera el millar los fragmentos óseos recuperados y pertenecen a varias especies de ungulados.

IIIb: No se ha rebajado la totalidad de este horizonte, tan sólo sus primeros 30 centímetros. La matriz debe definirse como limosa-arcillosa, más compacta que antes, más húmeda y grasienta, recogiéndose bastante material quemado –huesos. sílex y carbones–. Su coloración se oscurece notablemente –marrón oscura– y permanecen tanto las colonias de caracoles como la intermitente presencia de clastos. Hay un aumento considerable de la colección arqueológica:

– Industria lítica: son unos 700 los restos líticos no retocados con una clara base laminar –ochenta láminas completas o fragmentadas denuncian una cierta estandarización industrial– y unos 60 los retocados. Entre estos la familia más numerosa es la de los geométricos, con 36 evidencias (33 segmentos con retoques en doble bisel, 2 triángulos y 1 trapecio) seguida de las láminas retocadas, 14, y los dorsos, 9, siendo minoritaria la presencia de muescas y denticulados, truncaduras, y raspadores.

– Industria cerámica: la presencia de la colección cerámica alcanza los cinco centenares, la mayor parte fragmentos lisos de panzas de recipientes inconcretos, sin que falten los fragmentos decorados por impresión de instrumento, en algún caso con motivos elaborados.

– Otros materiales: pitones de ciervos trabajados, fragmentos de concha, bloques de ofita, cristales de roca, ocre, mineral de hierro y un probable percutor.

– Restos de fauna: superan los cinco mil fragmentos óseos recuperados, pertenecientes a especies animales diversas (cérvidos y cápridos como mayoritarias).

Como se mencionó el cuadro V5 fue abierto a la manera de sondeo, que alcanza una profundidad de un metro, para ir delimitando la extensión del yacimiento y su potencia sedimentológica. La denominación de los horizontes estratigráficos adquiere su propia nomenclatura, habiendo diferenciado provisionalmente en este metro cuadrado los siguientes paquetes:

*Nivel a:* Nivel superficial de cobertura vegetal ubicada en ladera y con una desigual potencia, hasta un

zentimetro bitartekoa aldeen arabera. Sedimentu limotsu bat da, kolorez marroi argia, horiska samarra; harroa da baina landare-masa ugari du eta, horrenbestez, zokorretan agertzen da maizetan lurra. Ugari agertzen dira taila txikiko klastoak eta, noizean behin, blokeren bat. Haren barnean ez zen material arkeologikorik aurkitu.

*b maila:* Maila honen batez-besteko lodiera 20 zentimetrokoa da; limotsua da hasieran baina buztina nagusitzen da hondora goazen ahalean eta, horrenbestez, lurra idor eta harro izatetik heze eta zokorretan trinkotua egotera pasatzen da. Beste hainbeste gertatzen da kolorearekin, nabar argia hasieran eta marroi iluna ondoren (orban beltzak ere ageri dira, materiala erre zuen suak eraginak). Ugariago dira oraingoan klastoak eta blokeak, neurri handikoak batzuetan eta erruz ageri dira Helix nemoralis puskak, lehen sektoreko III multzoan oro har gertzen den bezala. Arkeologia-aztarnak ageri dira lehen aldikoz, baina gutxi.

- Harrizko tresneria: Oinarri laminarra duten 80 sukarri-zati. Alaka bikoitzeko ukituez dekoraturiko 3 segmentu ditugu aipagarri.
- Fauna-hondakinak: Zati txikiak, 300 ere ez.

*c maila:* Sedimentologiaren ezaugarrietan alde nabarmenak zeudenez, hiru ataletan banatu genuen 45 zentimetroko lodiera zuen multzo hau, eta c1, c2a eta c2b deitu genien hurrenez hurren. Behin-behineko erabakia izan zen hura, zabalera txikian (metro karratu batean) ikusitakoa baizik ez baikenuen horrela jokatzeko kontuan hartu, eta zabalera handiagoa landu ondoren berretsi egin behar dugu eginiko bereizkuntza.

*c1:* Honela deitu diogu lehen 10 cm-ko atalari. Marroi kolore ilunekoa da, oso iluna, lurra limotsu-buztintsua, emendatu egiten da klastoen kopurua –deskonposaturik ageri dira batzuetan– eta trinkoagoa da lurra, hezeagoa eta "zimurragoa" haren itxura, eta etengabe azaltzen dira lehorreko moluskoen oskolak. Gehiago agertzen da halaber material arkeologikoa, suak aldarazia maizetan.

- Harrizko tresneria: Oinarri laminarreko 130 sukarri-zati, eta horien artean 3 mikrolito geometriko (bi trapezio eta segmentu bat), 4 xafla ukituz dekoratuak, 2 koska eta arraskailu bat.
- Beste material batzuk: Littorina obtusata bat, zulatua, zintzilikario gisa erabiltzeko.
- Fauna-hondakinak: 500 puska inguru.

*c2a:* Izen hori egokitu diogu ondoko 25 zentimetroko atalari. Sedimentuen aldetik, areagotu baizik ez dira egiten aurreko atalean azaldu diren zantzuak. Kolorea gero eta ilunagoa da, erabat beztu arteraino (suaren presentziak ez du mugarik sukarri, hezur eta karrarietan, eta kiskaldurik agertzen dira azken hauek, deskonposizioan). Buztinak plastizidadea eransten dio lurrari eta zokorraldeak gero eta eremu handiagoa hartzen dute Helixen aztarnak urrituz joaten diren neurrian, erabat desagertzeraino.

- Harrizko tresneria: Oinarri laminarreko 225 sukarri-zati, eta horien artean trauskil ukituriko geo-

máximo de 30 centímetros y un mínimo de 5. Se caracteriza por su sedimento limoso de color marrón claro con tendencia a lo amarillento, suelto pero con abundante concentración de masa vegetal por lo que a menudo la tierra se cohesiona en terrones. Son frecuentes los clastos de pequeña talla y esporádicamente algún bloque. En su interior no se localizó material arqueológico alguno.

*Nivel b:* Horizonte de potencia media en torno a los 20 centímetros con un carácter inicial limoso pero ganando progresivamente en el componente arcilloso, de tal manera que de ser la matriz seca y suelta se torna húmeda y compactada en terrones. Así mismo la coloración se va oscureciendo de pardo hacia el marrón grisáceo con manchas negras producto de fuegos que afectaron también al componente material. Aumentan los clastos y los bloques, a veces de gran tamaño, y son numerosos los fragmentos de Helix nemoralis –al igual que en paquete III genérico del primero de los sectores–. Aparecen ahora por primera vez restos arqueológicos aunque en número discreto.

- Industria lítica: 80 restos de sílex de base laminar entre los que destacan tres segmentos con retoques en doble bisel.
- Restos de fauna: algo menos de 300 pequeños fragmentos.

*Nivel c:* Inicialmente se han subdividido los 45 centímetros de espesor de este paquete en tres tramos, denominados consecutivamente c1, c2a y c2b dado que se observan sensibles variaciones en los caracteres sedimentológicos. Se trata de una aproximación provisional según lo observado en la escasa extensión –un metro cuadrado– rebajada, todo lo cual deberá ser corroborado en una actuación de mayor amplitud.

*c1:* Así son llamados los primeros diez centímetros del paquete en cuya descripción se anota la coloración marrón oscura, muy oscura, el carácter limoso arcilloso de la matriz, el aumento de los clastos –a menudo descompuestos–, la mayor compacidad de la tierra y su aspecto más húmedo y "rugoso" y la constante presencia de cáscaras de moluscos terrestres. El material prehistórico ha aumentando siendo frecuente su alteración por fuego.

- Industria lítica: 130 restos de sílex de base laminar entre los cuales se describen 3 microlitos geométricos (dos trapecios y un segmento), 4 láminas retocadas, 2 muescas y un raspador.
- Otros materiales: 1 Littorina obtusata perforada para su uso como colgante.
- Restos de fauna: cerca de 500 fragmentos.

*c2a:* corresponde esa sigla a los siguientes 25 centímetros y sedimentológicamente va acentuando los rasgos del tramo anterior: La coloración es cada vez más oscura hasta alcanzar tonalidades negras (los rastros de fuegos son constantes en el sílex, hueso y calizas, estas normalmente deshidratadas y en descomposición), el componente arcilloso dota de plasticidad a la matriz y la fracción gruesa va ganando terreno, contrariamente los restos de Helix están en franco retroceso hasta desaparecer.

- Industria lítica: 225 restos de sílex de base laminar incluyendo un geométrico de retoque abrup-

metriko bat, zizel txiki bat, 2 dentikulatu, koska bat eta ukituz landuriko laska bat.

– Beste material batzuk: lapa bat eta beste baten puska bat.

– Fauna-hondakinak: 700 puska inguru, era anitzetako animalia-espezieenak.

*c2b:* Maila hau lehen 10 zentimetroetan baizik ez da induskatu eta oraingoz ez dugu haren benetako lodiera eta ezaugarriak zehazkiro ezagutzen. Sutondo bat agertu da (haren aztarnak agertu ziren aurreko atalaren behealdean), baina sedimentuen mugimenduaren ondorioa da eta, horrenbestez, arrazoi antropikoengatik ez dago aurreko atalean. Lurrean finkatu eta elkarren artean trabatu ziren kararri txikien artean eratu zuten sutondoa eta haren aztarnarekin batera ageri da sedimentu guztiz ilun bat, beltza batzuetan –errauts koloreko samarrak erantsi dizkio, halaber, lurrari– eta guztiz kiskali eta ikazturiko elementu batzuk. Hona hemen bertan aurkituriko material arkeologikoa:

– Harrizko tresneria: 80 sukarri-zati: haien oinarri laminarra galdu da dagoeneko, nabarmen emendatu baita lasken kopurua. Ukituriko piezak koskak eta dentikulatuak baizik ez dira.

– Fauna-hondakinak: 200 puska inguru, txikiak.

Estratigrafiaren (sedimentu-unitateen eta, zenbaitetan, unitateen barneko atalen arteko bereizkuntza), zeramikazko eta harrizko tresnek eskainitako datuen eta

to, 1 microburil, 2 denticulados, 1 muesca y 1 lasca con retoques.

– Otros materiales: 1 lapa y fragmento de otra.

– Restos de fauna: 700 fragmentos de especies animales variadas.

*c2b:* Este horizonte sólo ha sido despejado en sus primeros 10 centímetros, sin conocer su potencia real, ni sus peculiaridades concretas. El hallazgo de un hogar, cuyas primeras evidencias aparecieron en la semitalla anterior, es causa de las alteraciones sedimentológicas, por lo tanto su división del anterior tramo obedece en lo esencial a rasgos antrópicos. Un sedimento muy oscuro, negro en ocasiones, una matriz limosa, la presencia de calizas descompuestas por alteraciones térmicas –aportando motas blanquecinas-grisáceas a la tierra–, los elementos carbonizados acompañan a un semicírculo de pequeñas piedras calizas hincadas y calzadas entre sí que delimitan un antiguo hogar. El material arqueológico se desglosa:

– Industria lítica: algo más de 80 restos de sílex habiéndose perdido el carácter laminar de la colección debido al aumento considerable del número de lascas, las piezas retocadas se resumen a muescas y denticulados.

– Restos de fauna: dos centenares de pequeños fragmentos.

Con el apoyo de la estratigrafía (la distinción de las unidades sedimentológicas con subdivisiones internas en algún caso), más los datos que nos ofrecen las in-



Atxosteko harpea. Atxosteko III. mailako objektu laminarrak.

Abrigo de Atxoste. Productos laminares del nivel III de Atxoste.

Kanpanoste eta Kanpanoste Goikoa aztarnategi hurbiletan ezagututakoaren laguntzaz (nabarmenak dira hiru aztarnategi hauek sedimentu eta tresneria mailan duten antz handia) eta fauna, flora, ikatz eta kronologiaren gainean egin beharreko azterketa osagarrien zain gaudela, Atxosteko harpearen kultura-sekuentziaren eta gainerako ezaugarrien behin-behineko balorazio egiteko moduan gaude. Hona hemen, azaletik hasita:

a) Hilobi -maila bat dago harpearen leku babestuenean, hau da, Ekialdean; bertan aurkitu dira giza aztarnak, desordenatuak lur-azalean eta konexio anatomiko egokian sakonago zeudenak (1995eko zundaketako datuen arabera). Aurri-egoeran zegoenean erabili zen harpea hileta-erritoetarako eta babeslekuaren sabaitik erori ziren bloke handiek eragotzi zuten erabilera-mota hori mendebaldean eta ez zen, horrenbestez, ehorzleku gisa erabili. Zaila da eremu honetan aurkitu diren material arkeologikoen (aizkora pulitu bat eta kaiku batzuk dira pieza esanguratsuenak) funtzionaltasuna zehaztea; inoizko bisitaldi baten aztarnak edo ehortzitakoekin lotu zitezkeen piezak izango ziren.

b) Bigarren maila bat, II maila, zehaztu da ondoren. Bizilekua da eta, hartan jasotako bilduma arkeologikoaren arabera, Kalkolitos Aroaren garaietan egokitu beharko litzateke, bertako harrizko tresneria aurreratu samarra den (ofita-zati ugari, Kanpanoste Goikoako II. mailaren goialdean gertatzen den moduan) eta zeramika-hondakinen kalitatea eta formak kontuan hartzekoak diren aldetik.

c) Beste bizileku bat agertzen zaigu ondoren IIIa, IIIb eta, beharbada (etorkizunean berretsiko dugu hau) V5 koadroko b mailetan, antzekoak baitituzte sedimentu eta arkeologia-ezaugarri batzuk. Nagusi dira mikrolito geometrikoak (berrogeita hamar guztira, alaka bikoitzeko segmentuak gehienak. Lekuaren nolabaiteko industria eta funtzio-espezializazioaren erakusgarri garbia genuke datu hau). Aipagarri da honez gainera, ukituriko xaflak, dortsoak eta arraskailuak, eta esanguratsuak dira era berean zeramika-zatiak, hasierako Neolitos Arora garamatzatenak (700 puska inguru. Inprimaturiko dekorazioa duten piezek gidatzen gaituzte une horretako kultura-diagnostikoa egiterakoan).

d) Aurtengo interbentzioan ez dugu IV. maila landu, lan-hipotesi gisa V5 koadroko c1 eta c2a estratuak harekin bat datozela uste dugun arren; izan ere, antz handiak somatu ditugu horien artean tresneria mailan: zeramikarik eza, mikrolitoak, harrizko tresneriaren izaera laminarra.

e) Azkenik, c2b estratuan landu dugun azalera oso txikia den arren, hartan azaldu den tresneriaren izaera ez laminarrak, mikrolito geometrikorik ezak eta Campigny moldeko koska eta

dustrias cerámicas y líticas (su evoluciones tipológicas y tecnológicas), el apoyo de lo conocido en los cercanos yacimientos de Kanpanoste y Kanpanoste Goikoa (con quienes comparte una similitud de rasgos sedimentológicos e industriales significativos) y a falta de los análisis complementarios de fauna, flora, carbones y cronología, estamos en disposición de ofrecer una valoración provisional de la secuencia cultural y sus caracteres que guarda el abrigo de Atxoste. De arriba hacia abajo:

a) Un primer nivel funerario, restringido a la parte más resguardada del yacimiento, es decir hacia el Este, que incluye tantos restos humanos desordenados, los más superficiales, como otros en conexión anatómica correcta (según los datos del sondeo de 1995). El uso funerario del abrigo tiene lugar cuando el mismo se hallaba prácticamente arruinado, de hecho las presencia de grandes bloques desprendidos del techo refugio, en el oeste, impidió su utilización para acoger nuevas inhumaciones. Es difícil conocer la funcionalidad de los materiales arqueológicos localizados en esta área –un hacha pulimentada y sendos cuencos como piezas más representativa– que bien pudieran ser vestigios de una visita esporádica o relacionarse de alguna manera con los enterrados.

b) Un segundo horizonte, nivel II, ahora de habitación cuya colección arqueológica deberá incluirse en tiempos Calcolíticos, dada la presencia de una industria lítica evolucionada, los abundantes fragmentos de ofita –en concordancia con el tramo superior del nivel II de Kanpanoste Goikoa– y la calidad y formas del cuerpo cerámico.

c) Un segundo tramo de habitación en el que englobamos los horizontes IIIa, IIIb y quizá –lo que deberá ser corroborado en un futuro– el b del cuadro V5 dado que comparten algunos rasgos sedimentológicos y arqueológicos. El dominio de los microlitos geométricos –medio centenar con predominio neto de los segmentos de doble bisel en lo que parece ser un claro síntoma de especialización industrial y funcional del sitio–, la presencia de láminas retocadas, dorsos, y raspadores más la importancia y caracteres de la cerámica –en torno a los 700 fragmentos entre los cuales aquellos con decoración impresa guían el diagnóstico cultural del momento– nos hace pensar en un Neolítico inicial.

d) En la intervención de este año no se ha incidido sobre el nivel IV, si bien como hipótesis de trabajo puede considerarse que los horizontes c1 y c2a del cuadro V5 se corresponden con aquel, dada varias similitudes industriales observadas –ausencia de cerámica, localización de microlitos, naturaleza laminar de la industria lítica.

e) Por último, aunque es muy escasa la superficie retirada para el estrato dicho c2b, el carácter no laminar de su industria, la falta de microlitos geométricos y la presencia de muescas y den-

dentikulatuen presentziak Kanpanoste Goikoako behealdeko III. mailaren antzeko une batera garamatzate. Aldakuntza teknologikoa nabarmena da beraz. Hau da Atxosten orain arte aurkitu dugun tresneria-kontestu zaharrena eta oraingoz ez dugu haren benetako lodiera ezagutzen.

ticulados de estilo campiñoide asemejan al horizonte con el nivel IIIinf. de Kanpanoste Goikoa, notándose por tanto un cambio tecnológico marcado siendo el complejo industrial más viejo de los hasta ahora identificados en Atxoste, desconociéndose por el momento su potencia real.

### *3. Etorkizuneko lana:*

Itxuratua da dagoeneko Atxosteko goialdeko mailen sekuentzia estratigrafikoa, azalera zabal batean. Halatan, bidezkoa da lanean jarrai dezagun proposatzea behealdeko estratuak zetan diren zehaztu ondoren, babeslekuaren tamaina eta historian barrena egin duen kultura-bidea ezagutu ahal izateko. Mailen deskripzio zehatza egin ondoren, laginak hartuko ditugu erradiokronologia, sedimentologia, palinologia eta beste mota batzuetako azterketei begira. Bi hezurrrezko lagin bidali ditugu dagoeneko haien azterketa erradiokronologikoa egin dezaten: III. mailan aurkitu dugu lehena, eta maila hartan agertu ziren zeramika-zati inprimatu batzuen ondoan zegoen, horregatik da interesgarria; bigarrena hurbil dagoen Kanpanoste Goikoako harpean jasoa da eta aztarnategi horretako II. mailaren kronologia zehaztu nahi da haren bitartez.

### *3. Perspectivas de trabajo futuro*

Consolidada la identificación de la secuencia estratigráfica de Atxoste, para lo que se refiere a sus tramos superiores, dentro de una superficie amplia, es lógico proponer la continuación de los trabajos incidiendo en la identificación de los estratos inferiores, para conocer así la potencia del refugio y establecer su recorrido histórico cultural. Una vez asegurada la descripción exacta de los niveles habrá que recoger muestras para los análisis radiocronológicos, sedimentológicos, palinológicos y otros. Dos muestras óseas han sido remitidas para su análisis radiocronológico: la primera se refiere al nivel III, y fue recogida en las proximidades de algunos de los fragmentos cerámicos impresos del horizonte, de ahí su alto interés; la segunda es una muestra del próximo abrigo de Kanpanoste Goikoa, con el fin de concretar la situación cronológica de su nivel II.

*Alfonso Alday Ruiz*

## A.1.1.2. **Santa Kolomako Lezea (Aprikano, Kuartango)**

II. Indusketa-Kanpaina

Blanca Pastorrek eta
Carmen Grimak zuzendua

Arabako Foru Aldundiak
subentzionatua

## A.1.1.2. **Cueva de Santa Coloma (Aprícano, Cuartango)**

II Campaña de Excavaciones.

Dirigida por Blanca Pastor
y Carmen Grima.

Subvencionada por la Diputación Foral
de Álava.

***Santa Coloma Cave (Apricano, Cuartango). Directed by Blanca Pastor y Carmen Grima.***
*The second campaign of excavations at the Santa Coloma cave has permitted the confirmation of data obtained in the 1994 campaign as well as adding to them. The main objective has been achieved, i.e. reaching the rock hardcore in a single quadrant. In this way the considerable depth of the site has been confirmed (2.5 m. of which 2 m. were archaeological rich revealing a complex sequence of occupations from Proto-history to the Middle Ages).*

*The archaeological material is not abundant but, nevertheless, there is a notable presence of man-made structures: a total of 12 hearths, one post-hole and two very large hollows the function of which has not been determined.*

Santa Kolomako aztarnategia Badaiako mendilerroaren mendebaldean dago eta 1994an bideratu zen hartako lehen indusketa arkeologikoa. Depositu handi bat azaldu zen, eta okupazio-momentu ugari, elkarren gainean mailakatuta: Brontze Aroko une zehaztu gabe batetik Erdi Arora bitarte.

El yacimiento de Santa Coloma, situado en el flanco occidental de la Sierra de Badaya, fue objeto de una primera campaña de excavación arqueológica en 1994, revelando un potente depósito con numerosos momentos de ocupación escalonados desde un momento impreciso de la Edad del Bronce hasta la Edad Media.

Indusketa-metodo gisa, G. Laplaceren koordenatu cartesiarren bidezko metodoa aplikatu dugu. Aurtengo honetan, ordea, kontzeptu eta terminologia alorreko aldaera batzuk bideratu ditugu estratigrafiaren azterketan, 1996ko urtarrilean Estratigrafia Analitikoa bideratzeko eratu zen taldeak zehaztu zituen burubideei jarraiki. Lehenik, konbentzio terminologiko berri batzuk erabaki ditugu eta, horrenbestez, aldatu egin dira 1994an definitu ziren maila batzuen izenak. Bestalde, kontzeptu-aldaketei dagokienez, lehengo mailak bestela hartu eta "egitura estratigrafikoak" dira oraingoan, lehengo faseak hemendik aurrera "egitura-multzoak" izango diren bezalaxe. (Krei, 1, 1996: 69-82).

## *Eginiko lanak*

Bigarren indusketa-kanpaina honetan aurreikusiriko helburua aztarnategia sakon induskatu eta haren sekuentzia estratigrafiko osoa ezagutzea zenez gero, koadro gidari batera, A1 koadrora, bildu ziren hasiera batean lan guztiak. Osorik altxatu zen sedimentua oinarriko harri naturalarekin topo egin arteraino; bederatzi egitura estratigrafiko bereizi ziren multzo honetan, 2,5 m-ko lodiera guztira.

Lehen helburu hori bete ondoren, A1aren ondoko A3 eta Z1 koadroetara zabaldu ziren indusketa-lanak. Induskaturiko azalera zabaldu nahi zen eta behealdeko mailak landu nahi ziren bereziki, une protohistorikoei buruzko datu gehiago lortzearren.

Lehen kanpainan jasoriko datuen arabera, garbi zegoen okupazio-garaia Brontze Arotik Burdin Arora luzatu zela baina ez zuten une bakoitzari zegozkion kronologia eta kulturari inolako zehaztasunik eskaintzen. Halatan, oraingo honetan zehaztasun handiago bat espero dugu, bigarren kanpaina honetan jasoriko aztarnak aztertu eta Groningengo Centrum voor Isotopen Onderzoedke instituziora bidali diren 3 hezurrezko laginen C14 bidezko datazio absolutuak ezagutu eta gero.

Bestalde, A3 koadroa induskaturik, hormaren ondoko koadro bat aztertzeko parada izango genuen eta horma horren sakonera nolakoa zen ikusi ahal izango genuen era horretan.

## *Sekuentzia estratigrafikoaren deskripzioa*

Bigarren kanpaina honetan, biziki zabaldu dugu Santa Kolomako estratigrafiaren ezagutza, orain arte ezagutzen ez genituen egitura estratigrafiko batzuk bereizteaz gainera, 1994ko kanpainan sumatu genituen datu batzuk baieztatu ahal izan ditugulako. Hona hemen sekuentzia hau, egitura estratigrafiko desberdinen arteko harremanak zehaztuta. Estuak dira batzuetan harreman horiek eta facies edo egitura-multzo berezitan elkartu ditugu egitura horiek.

Abmk (Azaleko lur buztintsu marroi klastoduna) (100-108 cm)

Azaleko maila, kolorez marroi argia, lur harroa, kararrizko klasto txiki ugari eta sustrai gutxi.

El método de excavación ha continuado siendo una aplicación del método de las coordenadas cartesianas de G. Laplace. Este año, sin embargo, se han introducido en el análisis de la estratigrafía algunas variaciones a nivel conceptual y terminológico, siguiendo las directrices marcadas por el grupo de Estratigrafía Analítica creado en enero de 1996. En primer lugar, se han adoptado una serie de convenciones terminológicas que han llevado a modificar la denominación de algunos de los niveles definidos en 1994. Por otro lado, respecto a las modificaciones conceptuales, el principal cambio reside en la consideración de los antiguos niveles, ahora denominados "estructuras estratigráficas" y de las antiguas fases, actualmente designadas "conjuntos estructurales". (Krei, 1, 1996: 69-82).

## *Trabajos realizados*

Dado que el principal objetivo programado para esta 2.ª campaña de excavación era conocer la secuencia estratigráfica íntegra del yacimiento, completando su excavación en profundidad, los trabajos se centraron, en una primera fase, en un cuadro guía: el A1. Se levantó la totalidad del sedimento hasta alcanzar la roca base, reconociendo en este paquete otras nueve estructuras estratigráficas que cierran una estratigrafía de 2,5 m. de potencia.

Una vez cumplido este primer objetivo, las tareas se dirigieron hacia la excavación de dos cuadros colindantes con el A1: A3 y Z1. Se pretendía ampliar la superficie excavada, con especial incidencia en los niveles inferiores, a fin de obtener más datos sobre los momentos protohistóricos.

Los materiales recuperados en la primera campaña hablaban de un prolongado periodo de ocupación desde la Edad del Bronce a la Edad del Hierro, pero no permitían determinar con precisión su cronología ni su adscripción cultural. En este sentido, se espera lograr una mayor concreción tras el estudio de los restos procedentes de esta segunda campaña y la obtención de las dataciones absolutas por C14 de las tres muestras de huesos enviadas al Centrum voor Isotopen Onderzoekde Groningen.

La excavación del cuadro A3 cumplía, al mismo tiempo, el propósito de excavar un cuadro adyacente a la pared, observando, de este modo, cuál es el desarrollo de la misma en profundidad.

## *Descripción de la secuencia estratigráfica*

Gracias a esta segunda campaña, el conocimiento de la estratigrafía de Santa Coloma se ha visto ampliado con la identificación de nuevas estructuras estratigráficas y la confirmación de datos ya observados en la campaña de 1994. A continuación se describe esta secuencia, anotando las relaciones intrínsecas entre las diferentes estructuras estratigráficas, que llevan en algunos casos a su agrupación en facies o en conjuntos estructurales.

Amcs (Arcilloso marrón con clastos superficial) (100-108 cm.)

Nivel superficial de color marrón claro, muy suelto, con gran número de clastos calizos de pequeño tamaño y escasas raíces.

### *Tornuz, erreketa-nerbioaz, landuriko zeramikazko egitura-multzoa*

Multzo honen ezaugarri amankomuna dira erreketa-nerbioaz eta tornuz landuriko zeramika laranjak.

Bb (Lur buztintsu beigea) (108-120 cm)

Izenak adierazten duen bezala, buztinezko lurra da, kolorez argia. Trinkotasuna eta klastoen presentzia urria dira lur honen beste sedimentu-ezaugarri nagusiak.

Bmgk (Lur buztintsu marroi-grisaska klastoduna) (120-130 cm)

Buztinazko sedimentua, marroi-grisaska, harroa, orban zuriskak kararrien deskonposizioaren ondorioz eta klasto txiki eta zapal ugari.

8.S (8. Sutondoa) (132-138 cm)

Bmgk mailaren eta hurrengoaren (Bgbo) artean dago egitura estratigrafiko hau. A3 koadroaren barneko sutondo bat da eta hezurrezko aztarnak dira bertan aurkitu diren material arkeologiko bakarrak.

### *Terra sigillata zeramika egitura estratigrafikoan*

Bgbo (Lur buztintsu grisa buztinazko bolatxoekin) (130-153 cm)

Sedimentologia aldetik, tonu grisaskaren, zementaturiko buztinazko bolatxo grisen presentzia handiaren eta klasto presentzia ugariaren poderioz bereizten da egoera estratigrafiko hau. Bestalde, gai antropiko esanguratsu bat erantsi behar diegu sedimentuaren ezaugarri hauei: terra sigillata berantaren presentzia.

### *Eskuz landuriko zeramiken goialdeko egitura-multzoa*

Eskuz landuriko zeramika protohistorikoaren presentzia da egitura estratigrafiko hauen ezaugarri amankomuna.

Bh (Lur buztintsu horia) (153-164 cm)

Multzoko lehen egitura estratigrafikoa da, aurrekotik nabarmen bereizten dena, sedimentuaren kolorea aldatu delako (hori-marroiska da orain) eta buztinazko bolatxoak desagertu direlako.

Bh-1. z (Lur buztintsu horia - 1. zuloa) (157-195 cm)

Izen hau eman zaio 1994an induskatu eta sedimentuen aldetik Bh mailarekin lotu den zuloari.

Bmg (Lur buztintsu marroi-grisaska) (164-175 cm)

Goialdeko egitura estratigrafikoaren aldera, tonu marroi-grisaska hartu du honetan lurrak.

### *Conjunto estructural de cerámicas a torno con nervio de cocción*

El denominador común de este conjunto son las cerámicas a torno anaranjadas con nervio de cocción.

Ae (Arcilloso beige) (108-120 cm.)

Caracterizado por una matriz arcillosa de color claro, como indica su denominación. La compacidad y la presencia de pocos clastos completan los rasgos sedimentológicos relevantes.

Amgc (Arcilloso marrón-grisáceo con clastos) (120-130 cm.)

Presenta un sedimento arcilloso, marrón-grisáceo, suelto, con manchas blanquecinas producto de la descomposición de las calizas y con muy numerosos clastos pequeños y aplanados.

H8 (Hogar 8) (132-138 cm.)

Esta estructura estratigráfica, localizada entre el nivel Amgc y el siguiente –Agbo–, corresponde a un hogar centrado en el cuadro A3 cuyos únicos materiales arqueológicos son restos óseos.

### *Estructura estratigráfica con cerámica terra sigillata*

Agbo (Arcilloso gris con bolas de arcilla) (130-153 cm.)

Sedimentológicamente esta situación estratigráfica se individualiza por su tonalidad grisácea, por la existencia de numerosas bolas grises de arcilla cementada y de abundantes clastos. Por otro lado, a estos caracteres sedimentológicos se asocia un tema antrópico significativo: la presencia de Terra sigillata tardía.

### *Conjunto estructural superior de cerámicas a mano*

El nexo de unión entre las estructuras estratigráficas de este conjunto es la existencia de cerámicas a mano protohistóricas.

Am (Arcilloso amarillo) (153-164 cm.)

Constituye la primera estructura estratigráfica del conjunto, claramente diferenciada de la anterior, además de por la coloración del sedimento, ahora amarillo-marronáceo, por la desaparición del fenómeno de las bolas de arcilla.

Am-ag1 (Arcilloso amarillo-agujero 1) (157-195 cm.)

De este modo se ha denominado al agujero relacionado sedimentológicamente con el nivel Am, excavado en el 94.

Amg (Arcilloso marrón grisáceo) (164-175 cm.)

El único cambio observado respecto a la estructura estratigráfica superior es la adopción de una tonalidad marrón grisácea por parte de la matriz fina.

Bmg-0. s (Lur buztintsu marroi-grisaska - 0. sutondoa) (165-170 cm)

Bh mailaren azpian agertu zen sutondo hau eta 0 izena egokitu zitzaion indusketan agertu zen lehen sutondo aipagarria zelako.

Bmg-1. s (Lur buztintsu marroi-grisaska - 1. sutondoa) (168-176 cm)

1. sutondoa Bmg mailaren oinarrian dago. Zaila da haren guztizko azalera kalkulatzea, ez baita osorik induskatu. Halaz ere, 2 metroko diametro du gutxienez.

### *Eskuz landuriko zeramiken erdialdeko egitura-multzoa*

Aurrekoak bezala, irizpide arkeologiko bati jarraiki bereizi dugu multzo hau. Kasu honetan egitura estratigrafiko hauetako eskuz landuriko zeramiken elkarren antza da ezaugarri amankomuna. Gainera, sedimentologia aldetik aipagarria da frakzio finaren ehundura pikordun samarra dela eta legar-multzoak agertzen direla batzuetan.

Blm(Lur buztintsu-limotsu marroia) (177-188 cm)

1. eta 2. sutondoen artean dagoen sedimentu marroi-horia, buztintsu-limotsua, trinkoa, plastizitate urrikoa eta kararrizko klastoak han eta hemen.

Blm-2. s (Lur buztintsu-limotsu marroia) (184-188 cm)

Kubeta baten itxurako sutondo bat da, 1994an induskatua, 35x45 cm-ko erradioa eta 7 cm-ko sakonera gorena. Suak izaten dituen hiru kapa bereizten dira argi eta garbi: errautsak, ikatzak eta gorituriko aldeak.

Blmk (Lur buztintsu-limotsu marroia eta klastoduna) (188-205 cm)

Sedimentologiaren aldetik, klastoen presentzia ugariak, haren izaera harroagoak, deskonposaturiko kararriaren orban zuriskek eta arkeologia-aberastasun handiagoak (hezur-aztarna gehiago bereziki) bereizten dute Blmk Blm mailatik.

Blmk-9. s (Lur buztintsu-limotsu marroia eta klastoduna - 9. sutondoa ) (193-196 cm)

Z1 koadroan azaldu zen sutondo txikia.

Blmk-11. s (Lur buztintsu-limotsu marroia eta klastoduna - 11. sutondoa ) (195-201 cm)

A3 koadroan azaldu zen sutondoa.

Blmk-3. s (Lur buztintsu-limotsu marroia eta klastoduna - 3. sutondoa ) (200-208 cm)

A1 koadroan azaldu zen sutondo honen bazterralde bat. Oraindik induskatu gabe dauden B1 eta B2 koadroetan zabaltzen da sutondoa.

Lau sutondo hauek facies bat osatuko dute agian, baina oraindik ez daude garbi elkarren arteko loturak.

Amg-h0 (Arcilloso marrón grisáceo-hogar 0) (165-170 cm.).

Inmediatamente por debajo del nivel Am, se encontró este hogar que recibió el número 0 por ser el primero de entidad que apareció en la excavación.

Amg-h1 (Arcilloso marrón grisáceo-hogar 1) (168-176 cm.).

El hogar número 1 se localiza en la base del nivel Amg. Resulta difícil calcular su extensión total al no haber sido excavado por entero, sin embargo, alcanza al menos 2 m. de diámetro.

### *Conjunto estructural medio de cerámicas a mano*

Este conjunto se individualiza, como los anteriores, siguiendo un criterio arqueológico, que en este caso se refiere a las semejanzas que presentan los materiales cerámicos manufacturados procedentes de estas estructuras estratigráficas. Además, sedimentológicamente debemos destacar la textura algo granular de la fracción fina y la aparición aleatoria de concentraciones de grava.

Alm (Arcillo-limoso marrón) (177-188 cm.)

Sedimento marrón-amarillo, arcillo-limoso, compacto, poco plástico y con clastos calizos aislados, localizado estratigráficamente entre los hogares 1 y 2.

Alm-h2 (Arcillo-limoso marrón) (184-188 cm.).

Se trata de un hogar en cubeta, excavada en el 94, con 35x45 cm. de radio y 7 cm. de profundidad máxima, en la que se identifican perfectamente las tres capas –de cenizas, de carbones y de rubefacción– que suele presentar un fuego.

Almc (Arcillo-limoso marrón con clastos) (188-205 cm.)

Sedimentológicamente el Almc se diferencia del Alm por el abundante número de clastos, su carácter más suelto, la existencia de algunas manchas blanquecinas de caliza descompuesta y su mayor riqueza arqueológica, sobre todo en restos óseos.

Almc-h9 (Arcillo-limoso marrón con clastos - hogar 9) (193-196).

Hogar de reducida extensión localizado en el cuadro Z1.

Almc-h11 (Arcillo-limoso marrón con clastos - hogar 11) (195-201).

Hogar excavado en el cuadro A3.

Almc-h3. (Arcillo-limoso marrón con clastos - hogar 3) (200-208).

Se localiza en el A1 una zona marginal de este hogar que se extiende hacia cuadros aún no excavados -B1 y A2–.

Estos cuatro hogares podrían formar una facies, pero aún no están claras las vinculaciones.

## *Eskuz landuriko zeramiken behealdeko egitura-multzoa*

205 cm-ko sakoneratik aurrera, kanpoaldeko tratamendu berezi batez agertzen dira eskuz landuriko zeramikak: ore zeramikoa aplikatu zitzaien, paretei bukaera zimur bat ematearren.

Blmk behe (Behealdeko lur buztintsu-limotsu marroia) (205-210 cm)

Behealdeko hitza erabili dugu oraingoan oraindik bete-betean agertu ez den sedimentu-aldaketa bat adierazteko. Hurrengo gune estratigrafikoan, Bgk delakoan, agertuko da.

Bgk (Lur buztintsu gris klastoduna) (210-235 cm)

Honela izendaturiko lur-geruzak erraz bereiz daitekeen gune estratigrafiko bat eratzen du. Frakzioaren ikuspegiaren aldetik, aipagarria da kararrizko klastoen presentzia ugaria eta tonu grisaska. Arkeologiaren aldetik, hau da zeramika-zati gehien jaso diren egitura estratigrafikoa.

Bgk-10. s (Lur buztintsu gris klastoduna - 10. sutondoa) (223-235 cm)

Sutondo sendo hau induskaturiko guztietako handiena da eta ondozkatu egiten dira hartan errauts, ikatz eta buztin gorri gorituen geruzak, sutondoaren gutxienez bi erabilera-momentu islatuz.

## *Conjunto estructural inferior de cerámicas a mano*

A partir de los 205 cm. de profundidad, comienza a aparecer sobre las cerámicas a mano un tratamiento exterior característico: la aplicación de pasta cerámica, proporcionando a las paredes una acabado rugoso.

Almc inf (Arcillo-limoso marrón con clastos inferior) (205-210 cm.).

En esta ocasión se utiliza la palabra inferior para expresar la existencia de un cambio sedimentológico, aún muy matizado, que se concretará en el siguiente núcleo estratigráfico: el Agc.

Agc (Arcilloso gris con clastos) (210-235 cm.)

La capa de tierra denominada de este modo forma un núcleo estratigráfico fácilmente reconocible. Desde el punto de vista de la fracción, sobresale la gran cantidad de clastos calizos y la tonalidad grisácea. Arqueológicamente, esta es la estructura estratigráfica donde se recoge un mayor número de fragmentos cerámicos.

Agc-h10 (Arcilloso gris con clastos-h10) (223-235 cm.)

Este potente hogar, el mayor de todos los hallados en la excavación, se compone de una sucesión repetitiva de capas de cenizas blancas, carbones y arcillas rojizas rubefactadas, que reflejan al menos dos momentos de utilización del hogar.



Santa Kolomako Lezea (Aprikano). Ikuspegi orokorra.

Cueva de Santa Coloma (Aprícano). Vista general.

Bgk-4. s (Lur buztintsu gris klastoduna - 4. sutondoa) (235-237 cm)

Aurrekoaren taxukoa da. A1 koadroan induskatuko zen sutondo txiki hau.

2. Z-Bgk eta 3. Z-Bgk Facies (2. eta 3. zuloak - Lur buztintsu klastoduna) (235-280 cm).

Bgk egitura estratigrafikoarekin loturiko zulo-facies bat aurkitu zen. Bgk egituraren behealdeko estartu bat da eta bertan egin ziren bi zulo, 45 bat cm diametro eta beste hainbeste sakonera, 60 bat cm-ko tartea batetik bestera. Morfologiaz gainera, haien arteko harreman estua salatzen digun beste alderdi bat dugu betegarria, lur buztintsu marroia, oso harroa eta kararrizko blokeak pilatuta.

## *Zeramika gabeko egitura-multzoa*

Kolore marroia eta legar ugaria dira multzo estratigrafiko honen ezaugarri nagusiak. Ikuspegi antropikotik, aipagarria da zeramikarik ez dagoela eta sukarri-ale banaka batzuk agertzen direla.

Bmk (Lur buztintsu marroi klastoduna) (235-245 cm)

Gainerakoetatik argi eta garbi bereizten den egitura estratigrafikoa, tonu marroikoa delako, gorrizta batzuetan, eta oso trinkoa delako.

Bmgb (Lur buztintsu marroi-grisaska blokeduna) (245-255 cm).

Sedimentu buztintsu marroi-grisaskan tarteka agertzen diren bloke-geruza txikien presentzia da egoera estratigrafiko honen bereizgarria.

12 Z-Bmgb, 5. Z-Bmgb eta 6. Z-Bmgb Facies

Kronologia berean, elkarren gainean gertatu ziren sutondoen facies bat da. Jarduera-eremu guztiz berezi bat zehazten dute aztarnategiaren barnean.

Bmgk2 (Lur buztintsu marroi-grisaska klastoduna 2) (255-270 cm).

Lurra Bmgk egiturakoaren antzekoa da, baina ez du blokerik.

Bml (Lur buztintsu marroi legarduna) (270-300 cm)

Sakondu ahala, gero eta legar gehiago azaltzen da lurrean eta horrexegatik aldatu zaio izena.

Bml-7. s (Lur buztintsu marroi legarduna - 7. sutondoa) (278-285 cm).

32x60 cm-ko zirkulu beltza da induskaturiko azalera eta 4 cm-ko lodiera baizik ez du. Klasto handi ugari agertzen dira nahasian, halako ordenarik gabe, itxuraz behintzat.

Agc-h4 (Arcilloso gris con clastos-h4) (235-237 cm.)

En relación con el anterior, podría estar este hogar de escasa entidad excavado en el cuadro A1.

Facies Ag2-Agc y Ag3-Agc (Agujeros 2 y 3- Arcilloso gris con clastos) (235-280 cm.).

También asociada con la estructura estratigráfica Agc fue localizada una facies de agujeros, es decir, un horizonte en la parte inferior del Agc donde se abrieron dos hoyos circulares, de unos 45 cm. de diámetro y otros tantos de profundidad, situados a 60 cm. de distancia el uno del otro. Otro aspecto que muestra su relación intrínseca, además de su morfología, es su relleno, formado por arcilla marrón muy suelta y una acumulación de bloques calizos.

## *Conjunto estructural sin cerámica*

El nuevo conjunto estratigráfico se caracteriza por su tonalidad marrón y por la abundancia de grava. Desde la perspectiva antrópica, destaca la desaparición de la cerámica y la presencia aislada de algunos restos de sílex.

Amc (Arcilloso marrón con clastos) (235-245 cm.)

Estructura estratigráfica claramente diferenciada del resto por su tonalidad marrón, en ocasiones algo rojiza, y por su compacidad.

Amgb (Arcilloso marrón grisáceo con bloques) (245-255 cm.).

El elemento que distingue esta situación estratigráfica es la presencia de una serie de capas de pequeños bloques intercaladas en el sedimento arcilloso marrón grisáceo.

Facies H12-Amgb, H5-Amgb y H6-Amgb.

Se trata de una facies de hogares yuxtapuestos y sincrónicos que determinan un área de actividad del yacimiento claramente diferenciada.

Amgc2 (Arcilloso marrón grisáceo con clastos 2) (255-270 cm.).

La matriz es similar a la de la Amgb, si bien desaparecen los bloques.

Amgv (Arcilloso marrón con grava) (270-300 cm.)

Al profundizar, se constata un extraordinario incremento de la cantidad de grava, que justifica el nuevo cambio de denominación.

Amgv-h7 (Arcilloso marrón con grava-hogar 7) (278-285 cm.).

La superficie excavada está formada por un círculo negro de 32 x 60 cm., de apenas 4 cm. de potencia, en el que se encuentran numerosos clastos de gran tamaño mezclados sin orden aparente.

### *Harri naturala deskonposatu den estratua*

0 planotik 300 cm-tara ikus daiteke sekuentzia estratigrafikoa erabat eteten duen estratua. Multzo erabat antzu baten hasiera adierazten du: harri naturala deskonposizioan.

Kbg (Klastoak buztin grisarekin) (300-315 cm)

Sedimentologiaren aldetik, klasto-itxura duten frakzio lodiak dira nagusi; honez gainera, lurra harroagoa da eta legarrik ez dago. Arkeologia aldetik, mikrofaunako hezur batzuk besterik ez dira ageri.

Kbh (Klastoak buztin horiarekin) (315-350 cm)

Besteetan baino areago, frakzio lodia fina baino askoz ere ugariagoa da egitura estratigrafiko honetan. D estratua deitzen zaio sedimentologian, harri naturalaren deskonposizio-geruza delako. Antzua da erabat.

Azkenik, 323 eta 350 cm bitarteko sakoneran ageri da harri naturala. Azalera irregularra da eta neurri desberdineko arraildurak ditu.

### *Azken kontsiderazioak*

Estratigrafia Analitikoa metodo benetan eraginkorra gertatu da Santa Kolomako aztarnategiaren dinamika estratigrafiko konplexua ulertu eta zehazterakoan. 32 egitura estratigrafiko bereizi ditugu orain arte eta sei egitura-multzotara bildu ditugu guztiak, irizpide nagusiki antropiko batzuen arabera. Bihurriagoa da oraindik konplexutasun hori, sutondo eta zulo ugari azaldu baitzaizkigu. Halatan, bi egitura-multzotan kronologia bereko bi momentu bereizi ahal izan ditugu jarduera-eremu desberdinei dagozkien neurrian: zulo-facies bat, alde batetik, eta sutondo-facies bat, bestetik.

Badaiako mendilerroko gune honetan egiaztatu den okupazio-sekuentzia zabal honek habitataren iraunkortasun handia salatzen digu; azpimarratu egin behar da, horrenbestez, leze honen posizio estrategikoari garai desberdinetan eman zaion garrantzia, Iparraldeko eta Hegoaldeko lurraldeen artean dagoen Tetxako mendatean barnako pasabidearen kontrolgunea baitzen.

Bigarren kanpaina honetarako helburu nagusia bete den arren (aztarnategiaren oinarrira iritsi nahi genuen gutxienez koadro batean), ezin emango dugu bukatutzat bertako jarduera arkeologikoa, induskaturiko azalera ez baita lezearen errealitatea benetan ezagutzeko aski. Datorren kanpainan osorik induskatu nahi ditugu beste bi koadro, behealdeko mailen datuak egiaztatzeko, eta osatuko dugu, halaber, koadro bat baino gehiago hartzen dutelarik, soilik neurri batean induskatu ditugun egitura batzuk.

### *Horizonte de descomposición de la roca madre*

A 300 cm. del plano 0 se vislumbra un horizonte que produce una acusada ruptura en la secuencia estratigráfica. Este horizonte marca el comienzo de un paquete totalmente estéril, correspondiente a la descomposición de la roca madre.

Cag (Clastos con arcilla gris) (300-315 cm.)

Sedimentológicamente, el carácter definitorio es el predominio de la fracción gruesa, en forma de clastos; además la matriz es mucho más suelta y desaparece la grava. Arqueológicamente se recogen únicamente algunos huesos de microfauna.

Ca (Clastos con arcilla amarilla) (315-350 cm.)

La tendencia observada hacia un predominio de la fracción gruesa sobre la fina llega a su máximo desarrollo en esta estructura estratigráfica, denominada horizonte D en sedimentología, por corresponder a la capa de descomposición de la roca madre. La esterilidad es ahora absoluta.

Finalmente, la roca madre aparece entre los 323 y 350 cm. de profundidad, presentando una superficie irregular con diversos sumideros.

### *Consideraciones finales*

La Estratigrafía Analítica se ha revelado como un método sumamente eficaz para abordar y comprender la compleja dinámica estratigráfica del yacimiento de Santa Coloma, en el que se han distinguido hasta el momento 32 estructuras estratigráficas, articuladas en seis conjuntos estructurales diferenciados en base a criterios fundamentalmente antrópicos. La complejidad aumenta, a su vez, debido al elevado número de hogares y a los hoyos constatados. Así, en dos conjuntos estructurales, se han podido reconocer dos momentos sincrónicos que configuran áreas de actividad concretas: una facies de agujeros y otra de hogares.

Esta amplia secuencia de ocupación refleja una larga perduración del hábitat en este punto de la Sierra de Badaya, lo que viene a subrayar la importancia concedida en distintas épocas a la posición estratégica de la cueva, como punto de control del paso entre las tierras del Norte y Sur a través del Portillo de Techa.

Aunque se ha cumplido el principal objetivo propuesto para esta 2.ª campaña –alcanzar la base del yacimiento en un cuadro–, no puede darse por finalizada la actuación arqueológica puesto que la superficie excavada no es lo suficientemente representativa. En una próxima campaña, se pretende completar la excavación en profundidad de otros dos cuadros, con el fin de comprobar los datos de los niveles inferiores y completar la excavación de algunas estructuras exhumadas sólo parcialmente por situarse en más de un cuadro.

*Blanca Pastor, Carmen Grima*

## A.1.1.3. Karastako Aztarnategia (Kaizedo Goikoa, Erribera Goitia)

IV. Indusketa-Kanpaina

Idoia Filloy Nievak zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua

## A.1.1.3. Yacimiento de Carasta (Caicedo Sopeña, Ribera Alta)

IV Campaña de excavaciones.

Dirigida por Idoia Filloy Nieva.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

***Carasta site (Caicedo Sopeña, Ribera Alta). Directed by Idoia Filloy Nieva.***

*The archaeological site at Carasta is one of the most interesting settlements for the study of the Iron Age and its first contacts with Roman influence. A continuous human occupation has been recorded from at least the Late Bronze Age (around the 1st millennium b.c.) until the beginning of the II century AD and well into the late Roman Empire period. In the 1996 excavation campaign the work concentrated on a specific zone at the site with the aim of furthering the investigation of the II Iron Age necropolis discovered in the previous campaign.*

Karastako Aztarnategian egin den IV. arkeologia indusketa-kanpainan, aztarnategia dagoen muinoaren gainaldeko eremu zehatz batera bideratu ditugu lanak, aurreko Kanpainan aurkitu zen nekropoliaren gaineko azterketan sakontzearren: Xede honetan zabaldu genuen hilobi-depositizuak erregistratu ziren sektorea eta beste batzuk ere landu genituen, ehorzlekuen eremua ahal neurrian mugatzearren.

### *21. Sektorea*

Aurreko kanpainan, 1994an, sektore honetan agertu ziren II. Burdin Aroko bi hilobi-depositu, Azken Brontze - Lehen Burdin Aroko okupazio-maila guztiz interesgarri batez gainera. Arma-izaerako tresneria agertu zen nagusiki bietan. Kronologia hartako nekropoli baten aztarnen aurrean geundelakoan, sektorea zabaltzea erabaki genuen, molde hartako depositu gehiago bazen ala ez ikusteko, eta aztertu nahi genuen, halaber, depositu horiek atzemaniko bizileku-mailetan zuketen eragina.

Aurtengo Kanpaina 15 metro karratu gehiago eman diogu 1994an induskatu zen sektoreari eta harrizko substratuarekin topo egin dugu azalera guztian. Metodologia aldetik, unitate estratigrafikoak landu ditugu eta banan-bana bereizi ditugu haietako bakoitzean aurkitu ditugun material-aztarnak; U.E. bakoitzak eskainitako datuak (kokalekua, estratigrafia eta deskripzioa) bildu ditugu horretarako sortu ditugun fitxa berezi batzuetan, sekuentzia estratigrafikoa zehazten joan garen aldi berean. Bestalde, indusketa-prozesu guztia dokumentatu dugu era grafikoan, eta egituren eta gainerako U.E. eraiki gabeen planoak egin ditugu 1/20 eskalan; honez gainera, lan-prozesu guztia fotografiatu dugu kolorezko negatiboan eta diapositiban. Koordenatuak ardatz cartesiar baten arabera zehaztu ditugu; ardatzaren sorburua sektorearen HM-ko angeluan zehaztu zen eta puntu topografiko batez adierazi zen terrenuan. Induskaturiko eremua zehazkiro kokatzeko erabiltzen da puntu hori indusketa arkeologikoekin ba-

Durante la IV Campaña de excavaciones arqueológicas desarrollada en Carasta, nos hemos centrado sobre una zona concreta del yacimiento, situada en la parte alta del cerro en que se ubica, con objeto de incidir en el estudio del área de necrópolis localizada en la anterior Campaña. Con este fin se trabajó en la ampliación del sector en el que se habían registrado los depósitos funerarios, así como en otros nuevos para acotar –en la medida de lo posible– la zona de enterramientos.

### *Sector 21*

Éste es el sector sobre el que ya habíamos trabajado en la anterior Campaña del 94, y en el cual habíamos localizado –además de un interesantísimo nivel de ocupación del Bronce Final/I Edad del Hierro–, dos depósitos funerarios del Hierro II compuestos fundamentalmente por ajuar de carácter armamentístico. Dado el evidente indicio de encontrarnos ante los restos de una necrópolis de esta cronología, se proyectó una ampliación del sector, de cara a determinar la presencia o no de más depósitos de este tipo, y su incidencia postdeposicional en los niveles de habitación detectados.

En la Campaña de este año, hemos ampliado este sector un total de 15 metros cuadrados sobre la superficie excavada en el 94, habiéndose llegado al sustrato rocoso en toda su extensión. Metodológicamente se ha procedido a trabajar por unidades de estratificación, individualizando las evidencias materiales localizadas en cada una, y recogiendo los datos –de localización, estratigráficos y descriptivos– proporcionados por cada U.E., en fichas específicas e individualizadas creadas al efecto, procediéndose de forma paralela al establecimiento de la secuencia estratigráfica. Por lo demás, todo el proceso de excavación ha quedado totalmente documentado de forma gráfica, con planimetrías a escala 1/20 de las estructuras y del resto de las UU.EE. no construidas; y con un fotografiado sistemático del proceso de trabajo, en negativo color y diapositiva. La toma de coordenadas, se ha realizado en base a un eje cartesiano cuyo origen estaba en el ángulo SW del sector, marcado en el terreno median-

tera eta Euskal Herriko Unibertsitateko Topografia Eskolaren bidez egiten diren kartografia-lanak.

Sektore honetako indusketa-lanen bitartez lorturiko emaitzak oso positiboak izan dira ikuspegi arkeologikotik. II. Burdin Aroko hilobi-depositu gehiago azaldu dira eta zehaztu ahal izan dugu depositu horiek Azken Brontze / I. Burdin Aroko bizigune-maila batean izan duten eragina. Honez gainera, beste bizigune-maila bat zehaztu dugu, Erromako Goi Inperioaren garaikoa oraingo honetan. Ez zen aurreko Kanpainan azaldu, beste kokaleku topokronologiko batean zegoelako.

Estratigrafia aldetik, honako maila hauek bereizi ziren: landare-geruza bat, 30 cm lodi eta U.E. arkeologiko batzuk, 3 okupazio-une desberdinei zegozkienak eta elkarren arteko segidarik gabe azaldu zirenak; biziguneak ziren haietako bi eta hilobi-depositua bestea.

te un punto topográfico, utilizado para ubicar de forma precisa la zona excavada, en los trabajos de cartografiado llevados a cabo de forma paralela a las excavaciones arqueológicas, a través de la Escuela de Topografía de la Universidad del País Vasco.

Los resultados obtenidos con la excavación de este sector han sido muy positivos desde el punto de vista arqueológico, confirmándose la aparición de nuevos depósitos de carácter funerario de la II Edad del Hierro, así como su incidencia en un nivel de habitación del Bronce Final/Hierro I, habiéndose registrado además otro nuevo, correspondiente a cronología romana altoimperial, no localizado en la anterior Campaña por una ubicación topocronológica diferencial.

Estratigráficamente, se identificaron bajo un manto vegetal de unos 30 cm. de potencia, una serie de UU.EE. de carácter arqueológico, adscribibles a 3 momentos de ocupación cronológicamente diferentes y sin solución de continuidad, 2 de ellos de carácter habitacional y el tercero correspondiente a los depósitos funerarios.



Karasta. 21. sektorea, induskatu eta gero.

Carasta. Sector 21 tras su excavación.

– Erromako Goi Inperioaren garaiko okupazio-maila. 1994an agerian geratu zen hormaren hegoaldean azaldu zen eta honako unitate estratigrafiko hauek bereizi ziren hartan: betegarri bat zorua berdintzeko, hormaren eraikuntza (hau da, horma bera eta haren zimentazio-kutxa) eta, azkenik, okupazioaldi honetako deposizio-hondakinak. Maila hau terrazaren hegoalderantz okertzeko joera du, baina eutsi egiten dio neurri batean lurrean berdintzeko harriz zehaztu zen egitura batek. 40-55 cm bitarteko lodiera du maila honek.

Zera esan genezake, behin-betiko azterketa oraindik egiteke dagoela, estratigrafiaren aldetik okupazio-maila hau sartu egin zela haren azpiko deposizio-unitateetan (horma eraiki ondoren batez ere) eta sarrera horrek eragina izan zuela Azken Brontze / I. Burdin Aroko okupazio-mailan (haren bi aldeetan) eta II. Burdin Aroko hilobi-depositUetan.

– II. Burdin Aroko hilobi-depositUen maila. Honako U.E. hauek bereiziko genituzke honetan: substratuaren indusketa harri naturalarekin topo egin arteraino, hilobi-depositua bera eta haren ondoko estaldura. Eragina izan zuen honek guztiak aurrez estratifikatu zen azpiko mailan, Azken Brontze / I. Burdin Arokoa hain zuzen ere. 1996ko indusketa-lanetan, molde honetako beste depositu bat azaldu da 60 cm-ko sakoneran: 20 cm.ko lodiera zuen, eta tresneria lur naturalean zulaturiko kubeta baten barnean agertzen zen. Erromatarren garaian horma bat eraiki eta lekua berriro egokitu zelarik, eremu hartako substratuak eragin berri batzuk jaso zituen eta baliteke hilobi-depositu batzuk garai hartan desagertzea. Hormaren ondoan kontserbatu ziren beste batzuk.

– Azken Brontze / I. Burdin Aroko okupazio-maila. Induskaturiko sektore osoan agertu da, atzeman den hormaren bi aldeetan. Ia ukitu gabe azaldu da Iparraldean, eta honako U.E. hauek bereizi ziren hartan: zoru-maila eta okupazioaldi hartako betegarria. 30 cm-ko lodiera zuten guztira estratu haiek eta harri naturalaren gainean zeuden. Hormaren hegoaldean, aldiz, maila honen aztarna batzuk baizik ez genituen jaso, zoruaren harrizko subastratuaren gaineko 10 cm-etan; izan ere, hilobi-depositUez gainera, Goi Inperioko okupazio-mailak ere zuzeneko eragina izan zuen haietan.

– Aipagarria da, azkenik, eremu honetako harrizko substratuaren okermendu handia. Izan ere, sektorearen Iparraldean substratua 57 cm-ko sakoneran agertzen den bitartean, hegoaldean 120 cm-tan baizik ez zen sumatzen. Horrexegatik agertu dira estratu arkeologikoak sektore honetako zoruen betegarrietan eta lurra berdintzeko mailetan, eta arrazoi berberagatik eraikiko zuten horma bat terrazari eutsi eta hartan biziguneak eraikiko ahal izateko. Argi eta garbi ikusi da hori erromatarren garaiko mailan, horixe baita harriaren okermendu-alde handienean hoberen kontserbatu den maila.

– Nivel de ocupación de época romana altoimperial. Localizado al sur del muro puesto ya al descubierto en el 94 y compuesto por una serie de unidades de estratificación correspondientes a un relleno para la nivelación del suelo, a la construcción del muro (esto es, el propio muro y su caja de cimentación), y finalmente a los restos de deposición de esta fase de ocupación. Se trata de un nivel que sigue el buzamiento hacia el sur de la terraza, si bien salvado en parte mediante un lecho de nivelación de piedras, siendo su potencia variable entre los 40 y 55 cm. aproximadamente.

A la espera del estudio definitivo, podemos señalar que esta ocupación, supondría a nivel estratigráfico, una incidencia sobre las unidades de deposición subyacentes, sobre todo por la construcción del muro, que incidió tanto en el nivel de ocupación del Bronce Final/Hierro I –detectado a ambos lados del mismo–, como sobre los depósitos funerarios del Hierro II.

– Nivel de los depósitos funerarios de la II Edad del Hierro. Se adscribirían a éste una serie de UU.EE. correspondientes a la excavación del sustrato hasta la localización de la roca base, al propio depósito funerario, y a su posterior cubrición, lo cual habría incidido en el nivel subyacente del Bronce Final/Hierro I, estratificado allí con anterioridad. En la excavación del 96, se ha localizado a unos 60 cm. de profundidad, un nuevo depósito de este tipo, que ocupaba unos 20 cm. de potencia, al haberse colocado el ajuar al interior de una cubeta excavada en el conglomerado natural. La construcción de un muro en época romana y el acondicionamiento del lugar, habría producido una nueva afección en el sustrato de esta zona, de forma que es muy posible que parte de los depósitos funerarios desaparecieran, conservándose algunos junto al muro.

– Nivel de ocupación del Bronce Final/Hierro I. Se ha registrado de forma generalizada en todo el sector excavado, a uno lado y otro del muro detectado. Prácticamente intacto al norte del mismo, en el que se identificaron una serie de UU.EE. correspondientes tanto al nivel de suelo como al relleno resultante de su fase de ocupación, que ocupaban una potencia de unos 30 cm. asentándose directamente sobre la roca. Sin embargo, al sur del muro, sólo se pudieron identificar restos de este nivel, en los últimos 10 cm. sobre el sustrato rocoso del terreno, ya que sobre él había incidido, además de la instalación de los depósitos funerarios, la fase de ocupación altoimperial.

– Finalmente señalaremos el gran buzamiento que presentaba el sustrato rocoso en esta zona. De hecho, en tanto en el límite norte del sector comenzaba a detectarse a los 57 cm. de profundidad, en tanto que en el sur llegaba a aparecer a los 120 cm. Lógicamente este hecho sería una de las causas fundamentales de la presencia de estratos arqueológicos de relleno y nivelación para la preparación de suelos, y posiblemente de la construcción de un muro para crear una zona aterrazada y aprovecharla para la edificación de las viviendas; lo cual se ha registrado claramente en el nivel de época romana, al ser el mejor conservado en la zona de mayor buzamiento de la roca.

Eraikuntzari dagokionez, 1994ko kanpainan E-M norabidean azaldu zen horma ekialderantz luzatzen zela ikusi genuen. 4,5 m-ko luzeran azaldu da orain arte: haren zabalera gorena 70 cm-koa da, eta haren lodiera 9 eta 14 cm bitartekoa. Induskaturiko eremuaren ekialdeko ertzean hasten da horma hausten, lerroa galtzen eta harriak galtzen, ondoko jarduera baten eraginez zalantzarik gabe. Horma hareharri handiz egina da; tartean konglomeratuak ere erabili ziren eta harriak ororik gabe trabatu zituzten. Ilara bakarra du, harrizko substratuaren eta, alde batzuetan, lur naturaleko buztin gorriaren gainean da jarria, zuzenean. Hobe landu zuten hormaren alde bat, hegoaldekoa hain zuzen ere. Horma zimentazio-egituratzat hartu beharko genuke: mazela-alde bat terrazatzeaz gainera, adobaz eta zurez eginiko pareta bati eutsiko zion. Pareta hura izango zen barruti haren itxituretako bat.

Egitura-mailako aztarnatzat har liteke, halaber, hilobi-depositua egokitu zen hobia. Azpiko estratuak zulatuko zituzten eta harrian agertzen zen kubeta natural txiki batez baliatuko ziren depositua egiteko.

Esan dezagun, azkenik, lodia den arren, Azken Brontze / I. Burdin Aroko okupazio-mailak ez duela betegarri estratigrafikoak zehazteko biderik eskainiko ligukeen inolako egitura-aztarnarik eskaini sektore honetan. Halaz ere, zera pentsa genezake, arrokaz baliatuko zirela erdi-haitzetako egiturak egokitzeko (aztarnategiko beste eremu batzuetan egiaztatu den bezala) eta ondoko garaietan eraikiko zen hormak eta erromatarren garaiko okupazio-mailak ezkutatu egin zituela egitura haien arrastoak.

Material-aztarna ugari aurkitu dira:

– Erromatarren garaiko mailan, okupazio-maila bateko ohiko deposizio-aztarnak erregistratu dira. Zeramika: Terra Sigillata, Hispanica batez ere (T.S.H.); oso interesgarria da azaldu den hondo-zati zigiludun bat (sigillum planta pedis), Italian landuriko ontzi batena (T.S.I.); mahaiko zeramika arrunta, ore dekantatuak eta oxidazioz erreak; sukaldeko zeramika, desgrasanteak orean, azalak oro har findu gabe eta erredukzioz eta oxidazioz erreak, tornuan landuak batzuk (sukaldeko zeramika arrunta) eta eskuz beste batzuk (modelatuak. Herrigunean aurrez erabiltzen zen etxeko tresneriak ere bizirik zirauela erakusten digu zeramika-mota honek). Ontzi hauez gainera, zeramikazko argi-mutik batzuk, beiraz ontziak, brontzezko elementuak (botoiak, zirrindolak, orratzak) eta burdinazko elementuak (xaflak, hagatxoak, puntak, iltzeak, clavus caligae, tresnaren bat). Fauna-hondakinak agertu dira material hauen ondoan. Jasotako materialen arabera, K.o. I. mendearen erdialde ingurukoa da maila honen kronologia, Goi Inperioa bere gorenean zegoen garaikoa hain zuzen ere.

– II. Burdin Aroko nekropoliari dagokion mailan beste hilobi-depositu bat erregistratu dugu; arma-tres-

A nivel constructivo, se comprobó la continuación hacia el este, del muro E-W localizado en la campaña del 94. De él se han descubierto por tanto un total de 4,5 m. de longitud, siendo su anchura máxima 70 cm., y su potencia de entre 9 y 14 cm. Mostraba una evidente afección postdeposicional justo en el límite este de la excavación, en el que comenzaba a perderse la alineación y se identificaban piedras claramente desplazadas del muro. Realizado con piedras de arenisca de tamaño grande, así como con algún canto de conglomerado, calzados en seco. Conservaba una única hilada asentada directamente sobre el sustrato rocoso, y zonalmente sobre un pequeño paquete de arcillas rojas de deposición natural. El muro presentaba una cara mejor careada, concretamente la sur. Habría que interpretarlo como una estructura de cimentación, que además de aterrazar una zona en ladera, serviría de sustentación para una pared de adobe y madera, que constituiría propiamente uno de los cierres de un recinto.

También podríamos considerar como evidencia estructural, la fosa correspondiente a la instalación del depósito funerario, que habría supuesto la excavación de los estratos subyacentes para la instalación del depósito funerario, aprovechándose para su colocación, una pequeña cubeta natural excavada en la roca.

Finalmente señalaremos, que el nivel correspondiente a la ocupación del Bronce Final/Hierro I –pese a su potencia–, no ha proporcionado en este sector, evidencia estructural alguna a la que adscribir los rellenos estratigráficos. Ahora bien, es muy posible que tuviera lugar un aprovechamiento de la roca para la instalación de estructuras semi-rupestres (como se ha constatado en otras zonas del yacimiento), enmascaradas por la construcción de un muro y la instalación del posterior nivel en época romana.

Las evidencias materiales localizadas han sido abundantes:

– En el nivel de época romana, se han registrado los ítems característicos de la deposición de un nivel de ocupación. Cerámica: Terra Sigillata, sobre todo Hispánica (T.S.H.), siendo muy interesante la localización de un fragmento de fondo con sigillum in planta pedis, correspondiente a un recipiente de producción itálica (T.S.I.); cerámica común de mesa de pastas decantadas y cocciones oxidantes; cerámica de cocina, con desgrasantes en la pasta, superficies en general sin afinar y cocciones tanto reductoras como oxidantes, fabricadas unas a torno (común cocina), y otras a mano (modeladas) –evidenciando en este caso la continuidad en el uso de un tipo de ajuar doméstico ampliamente utilizado con anterioridad en el propio poblado–. A ello habría que añadir en menor proporción, la presencia de lucernas de cerámica, recipientes de vidrio, elementos metálicos en bronce –botones, arandelas, agujas– y hierro –chapas, varillas, puntas, clavos, clavus caligæ, algún instrumento–. Junto a estos materiales, se han localizado restos de fauna. Estas evidencias materiales apuntan claramente hacia una cronología en torno a mediados del siglo I d.C., en plena etapa altoimperial.

– En el nivel correspondiente a la necrópolis de la II Edad del Hierro, se ha registrado un nuevo depósito

neriaren elementuak dira guztiak: bi lantza, gondera bat, galburu itxurako giderra duen sastakai bat bere zorroarekin, frontoi-sastakai bat eta bere zorroaren aztarna batzuk, eta brontzezko apaingailu batzuk pieza batzuetan (zorroetan eta soin-uhal batean) itsatsiak. Arma-tresneria honen ondoan azaldu ziren hilobi-depposituen berezko elementu batzuk: fauna-hondakinak eta modelaturiko eta torneaturiko zeramika-zatiak, molde zeltiberiarrekoak. Elementu hauek guztiek zituzten erreketa gogor baten aztarnak, garai hartako hileta-erritoetan erraustu egiten baitziren gorpuak. Oso datu interesgarria da depositu bakar batean, "gerlari baten hilobiaren" barnean, bi sastakai-mota desberdin aurkitu izana.

– Azken Brontze / I. Burdin Aroko mailan 1994ko kanpainan aurkitu zirenen antzeko materialak azaldu ziren, 1996an induskatu zen eremuan ondoko mailen eragina oso handia zen arren. Zeramika modelatua da guztia. Neurri ertaineko ontziak dira, desgrasante ugari dutenak orean, koartzozkoak batez ere, eta erredukzioz, oxidazioz edo bitariko formulak erabiliz erreak; bukaeran findu gabeko piezak dira, edo espatulaz finduak, edo –askoz ere gutxiago dira hauek– leunduak. Metalezko elementu batzuk ere azaldu dira, brontzezkoak batzuk (lepoko-gondera bat, botoiak, xaflatxoak) eta burdinazkoak besteak (xaflatxoak, iltzeak, hagatxoak, tatxetak). Harrizko tresna batzuk aurkitu ditugu, sukarrian landuak (laskak), baita fauna-hondakinak ere.

Hona hemen sektore honetako indusketa-lanen emaitzei buruz esan genitzakeen gauza batzuk:

– Erromako Goi Inperioaren garaiko okupazio-maila bat azaldu da aztarnategiaren okupazioaldi berantenean, Karastako aztarnategia dagoen munioaren alde gorenean. Ez genekien bizilekuak garai hartan ere iraun zuenik. Jaso ditugun aztarnen arabera, bizigune bat zen hura.

– Eremu horretan berean azaldu dira bizilekuaren okupazioaldi zaharrenari dagozkion okupazio-mailak, Azken Brontze / I. Burdin Arokoak hain zuzen ere. Horixe da, eta hala egiaztatu dugu, aztarnategian azalera zabalen hartu zuen okupazioaldia.

– Beste hilobi-depositu bat aurkitu dugu aurreko kanpainan erregistratu zirenen ondoan. Arestian adierazi ditugun bi okupazioaldien arteko garai batekoa da, II. Burdin Arokoa hain zuzen ere, eta kronologia haietan erabiltzen zen errauste-erritoen aztarnak nabariak dira depositu honetan ere.

– Egiazta dezakegu, horrenbestez, okupazioaldi desberdinak izan zirela aztarnategi-alde honetan: bizileku gisa erabili zen hasieran, ehorzleku gisa ondoren eta bizileku gisa azkenik. Okupazioaldi hauen artean eten batzuk gertatu ziren.

funerario, compuesto por elementos de ajuar de carácter armamentístico: dos lanzas, un regatón, un puñal de enmangue en espiga con su vaina, un puñal de frontón y posibles restos de su vaina, un tahalí, un umbo de escudo con sus abrazaderas, todo ello en hierro, con algunos elementos decorativos en bronce sobre algunas piezas (vainas y tahalí); ajuar al que se añadían lo que podríamos interpretar como elementos de depósito funerario: algunos restos de fauna, así como fragmentos de cerámica modelada y torneada de tipo celtibérico. Todos estos ítems presentaban evidencias de una fuerte cremación, como resultado de la aplicación de la incineración característica del ritual funerario de este período. Ha sido muy interesante la localización de dos tipos diferentes de puñal en un mismo depósito, al interior de una "tumba de guerrero".

– En el nivel del Bronce Final/I Edad del Hierro, y a pesar de que en la zona excavada en el 96, se registraba una mayor afección postdeposicional, se han localizado evidencias materiales similares a las de la campaña del 94, evidenciando una deposición fruto de una fase de ocupación. La cerámica corresponde en su totalidad a una producción modelada, con recipientes de tamaño medio, que presentan abundantes desgrasantes sobre todo de cuarzo en la pasta, y cocciones reductoras, oxidantes o mixtas, siendo sus acabados sin afinar, afinados mediante espatulado, o –en menor medida– bruñidos. También se han localizado algunos elementos metálicos sobre bronce –cuenta de collar, botones, chapitas–, o hierro –chapitas, clavos, varillas, tachuelas–, o industria lítica sobre sílex –lascas–, así como restos de fauna.

A modo de conclusiones preliminares sobre los resultados de la excavación de este sector, podemos señalar las siguientes:

– Localización de un nivel de ocupación de época romana altoimperial, esto es, de la fase de ocupación más tardía del yacimiento, en una zona situada a bastante altura dentro del cerro en el que se emplaza el yacimiento de Carasta, en la cual no se tenía constancia de la extensión del poblado en esa época. Correspondería a juzgar por los ítems recuperados, a un ámbito de vivienda.

– Localización en la misma zona, de niveles de ocupación correspondientes a la fase más antigua del poblado, en torno al Bronce Final-Hierro I, confirmándose cómo se trata del momento de mayor expansión del mismo, en cuanto a superficie ocupada.

– Localización de un nuevo depósito funerario en las proximidades de los registrados en la anterior campaña, correspondiente a una fase situada cronológicamente entre los dos momentos de ocupación anteriormente señalados, concretamente en la II Edad del Hierro, evidenciando la presencia del ritual incinerador característico de estas cronologías.

– Constatación por lo tanto de una serie de etapas sucesivas de ocupación en este área del yacimiento, que primero fue utilizada como zona de habitación, después como área de enterramiento, y de nuevo como lugar de vivienda, fases entre las que no habría solución de continuidad.

## *24., 25. eta 27. Sektoreak*

Aztarnategiaren hedadura topokronologikoa baloratzearren, zundaketa batzuk egin genituen arestian deskribatu dugun indusketa-eremuaren ondoan. Nekropoliaren eremua mugatu eta beste maila arkeologiko batzuen presentzia egiaztatu nahi genuen horrenbestez, eta zundaketa-eremu horiei dagozkie sektore hauek.

2x2 m-ko zundaketak egin genituen eta arkeologiari dagokionez antzu gertatu ziren guztiak. Zera esan dezakegu horrenbestez, herrigunea erabili zen okupazioaldi guztietan han eta hemen, barreiaturik, egokitu zirela biziguneak.

Datuak jaso, argazkiak egin (diapositibak eta kolorezko negatiboak) eta ateratako lur berberaz estali genituen zundaketa-eremuak.

## *26. Sektorea*

21. Sektorearen ekialdean induskatu genuen alde hau, nekropolia eremu hartara zabaltzen zen eta, bidenabar, beste maila arkeologikorik ba ote zuten ala ez jakiteko.

2x2 m-ko koadro bat ireki zen hasieran, baina eraikitako egitura interesgarri bat azaldu zen haren barnean eta 2x1 m-ko zabalpena egin genuen hegoalderantz. Zundaketa honetan, eremuko harrizko substraturaino induskatu genuen. Metodologiari dagokionez, 21. sektorean bezala jardun genuen.

## *Sectores 24, 25 y 27*

Se trata de una serie de sondeos estratigráficos, realizados en el entorno del área de excavación anteriormente descrita, con objeto de delimitar el área de necrópolis, y/o constatar la presencia o no de otros niveles arqueológicos, de cara a valorar la extensión topocronológica del yacimiento.

Sondeos de 2 x 2 m., que en todos los casos han resultado arqueológicamente estériles, permitiendo confirmar la existencia de un hábitat de tipo disperso, en todas las fases de ocupación del poblado.

Tras la toma de los correspondientes datos y fotografías (diapositiva y negativo color), se ha procedido a cubrir estos sondeos con la propia tierra previamente desalojada de los mismos.

## *Sector 26*

Area de excavación abierta al este del sector 21, para la comprobación de la extensión o no de la necrópolis en esta zona, y de la existencia de otros niveles arqueológicos subyacentes.

Inicialmente se abrió un cuadro de 2 x 2 m., pero la localización de una interesante estructura construida en su interior, nos ha llevado a realizar una ampliación de 2 x 1 m. hacia el Sur. Se ha excavado este sondeo hasta la localización del sustrato rocoso del terreno. Metodológicamente se ha procedido de igual manera que la descrita en el caso del sector 21.



Kartografiatze-lanak karastako Aztarnategian.

Trabajos de Cartografiado en el Yacimiento de Carasta.

Arkeologiaren aldetik, guztiz positiboak izan dira sektore honetan lorturiko emaitzak: II. Burdin Aroko okupazio-maila bat zehaztu dugu, ezbairik gabeko bizigune baten barnean.

Estratigrafiari dagokionez, unitate batzuk bereizi dira akulturazio zeltiberiarraren aztarna garbiak dituen II. Burdin Aroko okupazio-maila bakar horretan. Honenbestez, 35 cm-ko lodiera duen landare-geruzaren azpian (kolore marroiko lur buztintsua da, oso organikoa), esparru baten ipar, mendebalde eta hegoaldeko hormak azaltzen hasi ziren; lehen bi hormen arteko harrizko geruza batek ezkutatzen zituen neurri handi batean horma horiek: lur jotako materialen maila bat zen, 15 cm-ko lodiera zuena. Kendu eta argiro azaldu ziren berriz hormak. Eraikitako unitate bat (horma bera eta zegokion zimentazio-kutxa) zehazten zuen horma bakoitzak, eta barrunbe bat mugatzen zuten guztiek, Bi unitate estratigrafiko bereizi ziren haren barnean: goialdekoak 50 eta 56 cm bitarteko sakonera zuen eta okupazio-mailari zegokion; lur buztintsu harroa zuen, errautsaren kolorekoa, eta arkeologia-aztarna ugari. Behealdekoak 56 eta 65/70 cm bitarteko sakonera zuen eta hegoalderantz okertzen den harrizko subastratuaren gainean bermatzen zen zuzenean; lur buztintsu harroa zuen, kolorez gorri-horia, eta oso material gutxi zeukan, zoruaren prestaera-mailari baitzegokion. Barrunbearen kanpoaldeko unitate estratigrafikoak modu partzialean baizik ez dira induskatu, mendebalde eta hegoaldeko hormen eta zundaturiko eremuaren ertzaren artean hain zuzen ere, eta ezin dugu oraingoz haren izaera zehaztu.

Eraikuntzari dagokionez, hau izan da bizigune-egiturei buruz datu interesgarrienak eskaini dizkigun zundaketa, 1,70 metroko aldea zuen barrunbe nabarmen baten inguruko harrizko hiru horma azaldu baitira. Mendebaldeko horma 2,60 cm luze eta 60 cm zabal zen, eta ezin izan da ipar eta hegoaldeko hormen luzera zehaztu, zundaketa-sektorearen mendebaldeko eremuan barneratzen baitziren; aurrekoa baino estuxeagoak dira, 48 bat cm zabal hain zuzen ere. Kareharri handiz eginiko hormak dira, karkoskoren bat nahasian han eta hemen, eta ororik gabe trabatuak. Ilara bakarrean antolatu ziren, eremuko harrizko substratuaren eta, tarte batzuetan, lur buztintsu naturalaren gainean. Horma hauek barrunbe baten itxitura-paretei eutsiko zieten zimentazio-egituratzat har genitzake; itxitura-pareta horiek zurezkoak izango ziren beharbada, ez baita adoba edo bestelako estalduraren arrastorik agertu. Barnean aurkitu ditugun aztarna arkeologikoen arabera, aztarnategiaren II. Burdin Aroko okupazioaldikoak dira egitura hauek.

Materialen alorrean ere emaitza esanguratsuak eskaini ditu zundaketa honek, ugari izan ez diren arren. Hain zuzen ere, garbi dago bizigune-maila bat dagoela orain arte soilik aztarnategiaren estratigrafian erregistraturik geneukan kronologia-une honetan. Zeramika

Los resultados obtenidos en este sector, han sido muy positivos desde el punto de vista arqueológico, con la localización de un nivel de ocupación de la II Edad del Hierro, al interior de un clarísimo recinto de habitación.

Estratigráficamente se han identificado una serie de unidades todas ellas adscribibles a un único nivel de ocupación, correspondiente a la II Edad del Hierro, con claras evidencias de aculturación celtibérica. Así, bajo una capa correspondiente al manto vegetal, de unos 35 cm. de potencia, compuesta por una tierra arcillosa, muy orgánica, de color marrón; se comenzó a detectar la aparición de los muros norte, oeste y sur de un recinto, los dos primeros parcialmente enmascarados por un lecho de piedras que ocupaba el ángulo entre ambos y que correspondía a un nivel de derrumbe, que ocupaba unos 15 cm. de potencia. Una vez eliminado, quedaron definidos claramente los muros. Cada uno de ellos definía una unidad construida (compuestas por cada muro y sus cajas de cimentación), y delimitaban un recinto, en cuyo interior se detectaron dos unidades estratigráficas: la superior entre los 50 y los 56 cm. de profundidad, correspondiente al nivel de ocupación, y que se componía de una tierra arcillosa y suelta de coloración cenicienta y con abundantes evidencias arqueológicas; y la inferior entre los 56 y y los 65/70 cm. de profundidad, asentada directamente sobre el sustrato rocoso –que buzaba hacia el sur–, y compuesta por una tierra arcillosa de coloración ocre y textura suelta, con muy poco material, atribuible al nivel de preparación de suelo. Las unidades estratigráficas situadas en el exterior del recinto, sólo han sido excavadas parcialmente, en el espacio entre los muros oeste y sur y el límite del sondeo, por lo cual no es posible precisar su naturaleza.

A nivel constructivo, éste ha sido uno de los sondeos más interesantes en lo que a detección de estructuras de habitación se refiere, debido a la localización de tres muros de piedra delimitando un clarísimo recinto de habitación de unos 1,70 m. de lado. El muro del oeste medía 2,60 m. de longitud y 60 cm. de anchura; no siendo medible la longitud de los ubicados al norte y al sur –ya que se introducían en el cantil oeste del sondeo–, siendo su anchura algo menor, en torno a los 48 cm. Muros compuestos de piedras areniscas de tamaño grande, con algún pequeño canto, calzadas en seco. Conservaban una única hilada asentada directamente sobre el conglomerado que constituye el sustrato rocoso del terreno, y puntualmente sobre un nivel arcilloso de formación natural. Estos muros habría que interpretarlos como estructuras de cimentación que soportarían las paredes de cierre de un recinto, tal vez de madera, ya que no se han localizado aún restos de adobe o manteado. Sería adscribible, en base a los datos proporcionados por las evidencias arqueológicas localizadas en su interior, a la fase de la II Edad del Hierro del yacimiento.

A nivel de materiales, este sondeo también ha sido muy significativo, ya que –a pesar de no haber sido muy abundantes– ponen de manifiesto la existencia de un nivel de habitación, adscrito a un momento cronológico que hasta el momento sólo habíamos registra-

modelatua azaldu da (desgrasanteak erabili zituzten haien orean, azal gehienak findu gabe utzi zituzten eta metodo desberdinez erre zituzten), baita molde zeltiberiarreko zeramika torneatua ere (ore dekantatuak, tonu laranjak eta oxidazioz erreak). Kronologia oso garbi adierazten digu azken datu honek: barrunbea II. Burdin Aroa dela esan dezakegu. Fauna-hondainak agertu ziren zeramikaren ondoan.

Konklusio gisa, esan dezagun sektore honetako indusketa-lanek datu esanguratsuak eskaini dituztela aztarnategiaren ezagumenduari begira:

– II. Burdin Aroko okupazio-maila bat aurkitu dugu Karastako aztarnategia dagoen munioaren alde gorenean. Maila hori hiru alde guztiz zehazturik dituen bizileku baten barrunbean zehaztu da.

– Akulturazio zeltiberiarraren presentzia zehaztu dugu bizilekuaren okupazioaldi honetan. Orain arte, modu puntual batez baizik ez zen dokumentatu fenomeno hau.

– Garai honetan ere, barreiaturik antolatu zen bizileku honetako habitata.

Halatan, Karastako aztarnategian 1996an bideratu zen IV. indusketa-kanpainaren ondoren, aipagarria da lanak muinoaren goialdeko terraza batzuetan egin direla eta orain arte ez genituela haien okupazio-sekuentzia nolakoa zen. Egiaztatu ahal izan dugu (eta hal salatzen digu erregistro estratigrafikoak) eremu horretan historiaurre, protohistoria eta erromatarren garaiko bizilekuak egon zirela. Loturarik gabeko okupazioaldiak izan ziren haiek. Harrigarria bada ere, hilobi-depositu batzuk ere azaldu dira: II. Burdin Aroko garai zehatz batekoak dira, eremu hartan bizilekurik ez zegoen tarteko garia batekoak hain zuzen ere.

Indusketa-lanen aldi berean, jarraia eman zaio aztarnategiaren kartografiatzearen 2. faseari, Euskal Herriko Unibertsitateak Gasteizen duen Topografia Eskolaren eskutik. Karastako goi-erdialdeko eremuak landu dira fase honetan. Aurrez ikusitako lan-prozesuari jarraiki, puntu asko erradioaren arabera zehaztu eta planoaren gainean jarri ondoren, zehazkiro mugatu ahal izan dira terraza-aldeak, tumuluak, induskaturiko aldeak, eta abar. Puntuen arteko kurbak zehaztu dira ondoren, kartografia osatu ahal izateko.

do puntualmente en la estratigrafía del yacimiento. Consisten en evidencias de cerámica modelada –con desgrasantes en la composición de sus pastas, superficies en general sin afinar, y cocciones variadas–, así como de cerámica torneada de tipo celtibérico –de pastas decantadas, tonos anaranjados y cocción oxidante–, que constituye un indicador cronológico muy claro, por el que el recinto puede adscribirse a la II Edad del Hierro. Junto a la cerámica, se localizaron también restos de fauna.

Como conclusión, podemos señalar que la excavación de este sector, ha aportado importantes datos para el conocimiento del yacimiento:

– Localización en una zona situada a bastante altura del cerro en el que se ubica el yacimiento de Carasta, de un nivel de ocupación de la II Edad del Hierro, al interior de un recinto de habitación, bien delimitado en tres de sus lados.

– Confirmación de la existencia de aculturación celtibérica durante esta fase de ocupación del poblado, que sólo se había detectado de forma puntual.

– Comprobación del carácter disperso del hábitat del poblado también durante este período.

Así en la IV Campaña de excavación llevada a cabo en el 96 en el yacimiento de Carasta, destacaríamos el hecho de que los trabajos se han centrado en una zona ubicada en las terrazas superiores del cerro, en las cuales se desconocía hasta el momento su secuencia de ocupación. Así se ha podido comprobar cómo en este área se continúan localizando niveles de habitación de cronología pre, protohistórica y romana, conservados en el registro estratigráfico. Corresponderían a fases sin solución de continuidad. Sorprendentemente se han puesto al descubierto también una serie de depósitos de carácter funerario, adscribibles a un período muy concreto del Hierro II, e instalados en una de las interfases en que la zona no se encontraba habitada.

Paralelamente a los trabajos de excavación, se ha llevado a cabo la 2.ª Fase de Cartografiado del yacimiento, a través de la Escuela de Topografía de Vitoria-Gasteiz, de la Universidad del País Vasco. En esta fase se ha trabajado sobre la zona medio-alta del emplazamiento de Carasta. El proceso de trabajo ha supuesto radiar un elevado número de puntos que, colocados sobre el plano, han permitido definir de forma precisa las zonas de aterrazamiento, los túmulos, las áreas excavadas, etc.; tras lo cual se ha realizado el curvado de dichos puntos para obtener la cartografía propiamente dicha.

*Idoia Filloy Nieva.*

## A.1.1.4. Lastrako Kastroak (Karanka, Gaubea)

XXII. Indusketa-Kanpaina

Paquita Sáenz de Urturi Rodríguezek zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua

## A.1.1.4. Poblado de los Castros de Lastra (Caranca, Valdegovia)

XXII Campaña de Excavaciones.

Dirigida por Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

*Castros de Lastra Village (Caranca, Valdegovia). Directed by Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez. The investigation has centred exclusively in Sector II which includes all the stratigraphic phenomena of the site. Two cylindrical and oval intrusions excavated in the proto-historic level and two new tombs (totalling 60 in its entirety) were all uncovered in the medieval phase. In the Second Iron Age phase a porticoed structure supported by 5 stones or pilasters has been discovered. In the oldest levels a room with a flattened earth floor and a hearth have been discovered. The evolution of the settlement described after the 1994 campaign is confirmed with some adjustments.*

Aurreko kanpainetan bezala, herriguneko II. Sektorera mugatu dira aurtengo lanak eta osorik sakondu dira 1994an landu ziren koadroak.

1993an berregituratu ziren eredu estratigrafikoei jarraiki (ikus *Arkeoikuska 1993*) eta 1995eko lan-etenaldiaren ondoren, kanpaina honetan II. Sektorea baizik ez da landau Azken Brontze, I. eta II. Burdin Aro eta Erdi Aroko mailak dituen herrigune honetan. Eta hain zuzen ere, II. Sektore hori landu dugu, eremu zailean egoteaz gainera, oinarrizkoa baita herrigune osoaren estratigrafia eta bilakaeraren interpretazioa egiterakoan.

Aurtengo kanpainaren helburuak ere xede horretakoak ziren eta lana behealdeko mailetan bideratu zen nagusiki, herrigunearen hiri-egitura aldatzen den D izeneko multzo estratigrafikotik abiatuta. Harri naturalarekin topo egin nahi genuen, halaber, Sektorearen mendebaldean irekitako koadro batzuetan. Arrazoi hauengatik landu ditugu aurreko kanpainetako koadro berberak.

Lorturiko emaitzak onak izan dira benetan eta, aipaturiko leku horien oinarriraino iritsi ez garen arren, ezagutu ahal izan dugu aztarnategiaren hiri-bilakaeraren parte handiena. Era berean, 1993an zehaztu genuen estratigrafia egiaztatu dugu, xehetasun batzuk egin baditugu ere. Txosten hau behin-behinekoa den arren (kontuan har bedi kanpainaren azterketa osoaren zain gaudela eta, ondoren, geroko kanpainetan egingo diren aurkikundeen baitan egongo garelarik betiere, aurrekoekin bateratu behar ditugula) laburkiro aurkeztuko ditugu emaitza horiek, koadroz koadro eta eskema kronologiko baten arabera.

X-4, V-5, V-1, Z-4, Z-3, Z-2, Z-1, C-9, C-8 eta C-7 koadroak landu ditugu. Ez dugu beste hainbeste egin koadro guztietan zeren batzuk, C-9, C-8 eta Z-1 koadroak esate baterako, azken mailetaraino induskatu behar izan ditugun arren, lehen koadroak oinarriaren gainean baitzeuden, lan askorik behar ez zutela. Beste koadro batzuetan, V-5, C-7 eta Z-2aren alde batean adibidez, garrantzitsua da aztertu gabe multzo estratigrafikoa.

Al igual que en campañas anteriores los trabajos se han restringido al Sector II del poblado, profundizando en la totalidad de los cuadros en que se actuó en el año 1994.

Siguiendo las pautas estratigráficas reestructuradas en 1993 (Ver *Arkeoikuska 1993)* y tras el parón de 1995, en la presente campaña, en este poblado con niveles del Bronce Final, Hierro I y II y Edad Media, se ha trabajado únicamente en el Sector II dada la problemática que plantea esa zona y que es básica para la interpretación estratigráfica y evolutiva de todo el conjunto del poblado.

Los objetivos de la presente campaña también respondían a esta finalidad, por ello los trabajos se centraron prioritariamente en los niveles inferiores, a partir del paquete estratigráfico denominado D, que suponen un cambio en la estructura urbana del poblado. También se trataba de alcanzar la roca en algunos de los cuadros abiertos en la franja occidental del Sector. Por esas razones se ha trabajado en los mismos cuadros que en campañas anteriores.

Los resultados obtenidos han sido verdaderamente satisfactorios y, aunque no se ha llegado a la base en los lugares citados, han permitido conocer buena parte del desarrollo urbano del yacimiento, confirmando la estratigrafía fijada en la campaña de 1993 con nuevos matices. Dado el carácter provisional de este informe al hallarse pendiente del estudio completo de la campaña y conjuntarlo con las anteriores a la espera de los datos que se consigan en las posteriores, expondremos brevemente esos resultados siguiendo un esquema cronológico y por cuadros.

Se ha trabajado en los cuadros X-4, V-5, V-1, Z-4, Z-3, Z-2, Z-1, C-9, C-8 y C-7. No se ha actuado por igual en todos ellos, ya que en algunos como C-9, C-8 y Z-1 se ha procedido a finalizar de excavar los últimos niveles, que en el caso de los primeros cuadros prácticamente se hallaban ya sobre la roca base sin signos de trabajo. En otros puntos, como el V-5, C-7 y una pequeña parte del Z-2, todavía el paquete estratigráfico es importante.

Erdi Aroko fasea: a priori, bukatutzat emanak ziren historiako garai horri zegozkien lanak, baina aztarnategiaren egitura konplexua dela-eta, garai horrekin loturiko beste egitura batzuk aurkitu ditugu.

Kanpaina honetan, agerian geratu dira, halaber, protohistoriako mailak aldarazi dituzten Erdi Aroko intrusioak. Z-3 eta V-5 koadroetan aurkitu ditugu horrelakoak eta berezitasun txiki batzuk dituzte hauek aurrez aurkitu ziren beste seien aldera. Z-3 koadroko intrusioa zilindro-itxurakoa da eta Z-4 koadroko Barrunbe Zirkularraren hegoaldeko pareta eta E mailetan aurkituriko bizigune zolatu bat ukitu ditu.

V-5 koadroko intrusioak arrautza-itxurakoa da, estutu egiten da goialdetik eta handiagoa da hondorago sartzen den neurrian. 1987an ermitaren barnean aurkitu zen Erdi Aroko putzu bat ekartzen digu gogora. Antzin Aroko zeramika puskak eta hegazti-hondakinak aurkitu dira haren barnean.

Kronologiari dagokionez, Goi Erdi Arokotzat (B mailak) jo ditugu bi intrusio hauek, kontuan harturik bertan zegoen zeramika aurreko kanpainetan fase horietan aurkiturikoaren antzekoa dela.

Erdi Aroko nekropolia: Aurreko kanpainetan bukatutzat emanak genituen fase honetako nekropolia mugatzeko lanak, ez baitzen II. Sektoreko eremu irekian beste hilobirik aurkitu. Kontuan hartu beharra dago, ez zela lan egiteko eremurik zabaldu sektore horretan.

Fase medieval: a priori se consideraban como finalizados los trabajos correspondientes a esta etapa histórica pero por diferentes causas motivadas por la problemática del yacimiento, se han descubierto estructuras atribuibles a esa época.

Las intrusiones medievales que han alterado los niveles protohistóricos, también se han puesto de manifiesto en esta campaña. Se han localizado en las cuadrículas Z-3 y V-5 y presentan ligeras variantes en relación con las otras seis ya descubiertas. La intrusión del Z-3 de forma cilíndrica ha afectado a la pared sur del Recinto Circular del Z-4, y a una habitación pavimentada en los niveles E.

La intrusión del V-5 presenta forma ovalada con estrechamiento en la parte alta y que se va agrandando a medida que se profundiza. Recuerda a uno de los pozos, de esta misma fase medieval, que se localizó en 1987 en el interior de la ermita. En su interior se han recogido restos de cerámicas medievales antiguas y restos de aves.

Cronológicamente las ubicamos en la Alta Edad Media, en los niveles B, basándonos en el material cerámico aportado similar al hallado en campañas anteriores en esas fases.

Necrópolis medieval: En campañas anteriores habíamos dado por finalizados los trabajos de delimitación de la necrópolis de esta fase, ya que no se habían localizado nuevas sepulturas en el marco de la zona abierta del Sector II, debido en parte a que no se han efectuado nuevas ampliaciones espaciales.




Lastrako Kastroak (Karanka, Gaubea).
Orein-adarra, E-1ean.

Poblado de los Castros de Lastra (Caranca, Valdegovía).
Cuerna de ciervo en E-1.

1987ko kanpainan mugak zehazturik zeudela pentsatu genuen, eremu batean itxuraz erabili ez ziren hilkutxa batzuk aurkitu zirelako. Kanpaina honetan berriro aztertu dugu eremu hori azaldu ziren egitura haien gaineko zalantzak argitzearren eta beste bi hilobi agertu dira aurrez induskatu genuen gunearen alde banatan; zera zen, hain zuzen ere, aurreko egitura hura, bi hilobien arteko banatze-gunea. Orain arte azaleratu diren hilobi gehienak bezala, bertikalean finkaturiko hartxabalez eginak ziren bi haiek, eta horizontalean zehazturiko hartxabalek estaltzen zuten hobia. Ikaztegi batzuk egokitu zituzten eremu honetan eta eragin negatiboa izan zuten hilobietan. Estalkiak galdu dira ia guztiak; hartxabal batzuk geratu dira 59.an eta besean, 58.an, ez da eskeletoaren goialdea azaldu, orain berri egin diren obra batzuek ukitu zutelako edo, hilobia eremuaren gainbeheratik gertu dagoelarik, amildu egin zelako.

Hilobi hauen ezaugarriak nekropoliko gainerakoetan ikusitako berberak dira. Halatan, oso kontuan hartzekoa da nekropolia hasieran uste baino zabalagoa izateko aukera.

60 ehorzleku agertu dira dagoeneko nekropoli honetan: 59 hilobi eta eskeleto bat, zaborralde batean.

Bigarren Burdin Aroko fasea edo C Mailak: Erdi Aroko mailetan gertatzen zen bezala, garai hau ez da ia landu ez baita beste koadrorik induskatu. Baina aurreko kanpainetan utziriko lekuko batzuk kendu eta garai horretako aztarnak azaldu dira. Horixe dugu Z-2 koadroko korredorearen eta V-5 koadroko lanen kasua.

Azken koadro honetan agertu dira aztarna aipagarrienak, harri gaineko zutoin-euskarri batzuetarako egitura agertu baita. Arkupe baten gaineko eraikinaren oinarria izan zitekeen hura. 1993ko sekuentziaren arabera, c-3 Mailako egiturak genituzke hauek.

Lehen Burdin Aroko fasea: D izeneko multzo estratigrafikaoren barnean, beren horretan diraute aurrez zehazturiko ereduek. Landu egin da bereziki V-5 koadroa eta zera esan beharra dago honi buruz, berebiziko eragina izan duela arestian aipatu dugun Erdi Aroko intrusioak maila hauetan eta azpikoetan. Geruza horiek berak ikertu ditugu C-7 eta Z-2 koadroetan; Putzuaren eta Ermitaren artean zegoen betegarria kendu eta obra honen benetako izaera egiaztatu ahal izan dugu.

Maila hauetako lurra gorria da eta harri ugari du tartean, lubetatik hurbilen dagoen aldean bereziki. Eremua jendearen hiri-beharretara moldatu zen garaikoa dira mailak: badirudi bertako biztanleria nabarmen hazten ari zela. Betegarri handi horren bitartez zabaldu nahi izan zuten hiri-espazioa, etxe berriak egin ahal izateko. Une hartan, I. Burdin Aroaren gorenean, eraiki zituzten egun ikusten ditugun harrizko barrunbe handiak.

Z1 eta Z2 koadroetan agerian utzi dugu, harriaren gainean, bertan agertu zen erdi-haitzetako egitura. Egiaztatu ahal izan dugunez, betegarri bat egin zuten bizilekuaren lurra berdintzeko.

En la campaña de 1987 se había creído dar con su límite al revisar una zona en la que se descubrieron posibles cajas para tumbas pero sin utilizar. En esa campaña se volvió a revisar la zona al tener dudas sobre la finalidad de esas estructuras, con el resultado de hallar dos nuevas sepulturas que se encontraban a ambos lados del punto en que se había excavado anteriormente y que resulto ser la zona de separación de las dos sepulturas que, al igual que la mayoría de las descubiertas, responden al esquema de tumbas de lajas verticales cubiertas por otras horizontales. En esta zona instalaron varias carboneras que afectaron negativamente a los enterramientos. Las cubiertas prácticamente habían desaparecido, quedando algunas lajas en la 59 y en la otra, 58 no se halló la parte superior del esqueleto que fue afectado tanto por esas obras recientes como por su cercanía al desnivel del terreno.

Responden a las mismas características observadas en el resto de la necrópolis, y plantean la posibilidad de ser de mayor extensión de lo que se había calculado.

El total de sepulturas descubiertas en esta necrópolis suman ya 60: 59 tumbas y un esqueleto en zona de escombro.

Fase de la Segunda Edad del Hierro o Niveles C: lo mismo que ocurría con los niveles medievales, prácticamente no se ha trabajado en esta etapa al no haberse ampliado la excavación a nuevos cuadros. Pero la retirada de algunos testigos de campañas anteriores han descubierto restos de esa época. Es el caso del pasillo existente en el Z-2 y los trabajos en el V-5.

Es en este último cuadro donde ha adquirido cierta relevancia al descubrirse una estructura de apoyos de postes en piedra que puede conformar un edificio porticado. Basándonos en la secuencia del 93, corresponderían estas estructuras al Nivel C-3.

Fase de la Primera Edad del Hierro: Dentro del paquete estratigráfico denominado D, se mantienen las pautas marcadas anteriormente. Se ha trabajado ampliamente en los cuadros V-5, en el que hay que señalar que tanto estos niveles como los siguientes del paquete han sido afectados por la intrusión medieval allí localizada. También se han excavado estas mismas capas en el C-7/Z-2, retirando el relleno que se situaba entre el Pozo y la Ermita y que ha confirmado la verdadera entidad de esta obra.

Estos niveles caracterizados por una tierra rojiza con abundante piedra, especialmente en la zona más cercana al terraplén, corresponden a un momento en que se acomoda de nuevo el terreno para las necesidades urbanas de la población que parece ir en aumento. Este gran relleno que efectúan tiene como finalidad la ampliación del espacio urbano para la habilitación de nuevas casas. Es el momento en que se construyen los grandes recintos de piedra que vemos en la actualidad, ya en un momento pleno de la 1.ª Edad del Hierro.

En los cuadros Z-1/Z-2 se ha dejado exenta, a nivel de roca, la estructura semi-rupestre que allí se apreciaba. Se ha comprobado la existencia de un relleno para nivelar el suelo de la habitación.

Azken Brontze / I. Burdin Aroko fasea, E mailak: Estratigrafiari edo materialei dagokienez, maila hauetan ez dago aurkikunde berririk egin aurreko kanpainetan eginikoen aldera, baina hiri-egituraren aztarna batzuk azaldu dira eta okupazioaldi honetan betegarri bat egin zutela egiaztatu dugu. Orain arte ikertutakoaren arabera, okermendu nabaria aurkezten zuen fase honek egungo mailaren aldera; alabaina, multzo estratigrafiko honen azkeneko estratuetanegin dugun azterketak argi eta garbi erakutsi digu egitura horizontalak ere bazirela. Z-3 koadroan zorua zanpaturiko lurraz atondurik zeukan barrunbe bat aurkitu dugu; hormatxo bat zuen burualdean, eta sutondo bat ondoan. Zeramika-arrastoak agertu dira sutondoaren aztarnetan.

V-1 koadroan egitura horizontal batzuk agertu dira, baina ez dira oraino osorik aztertu.

Garai honetako material ugari duten lur beltzezko estratu sendo batzuk agertu dira plano inklinatuan egi-

Fase del Bronce Final /Hierro, niveles E: Correspondiente a estos niveles no se han dado novedades en lo referente a campañas anteriores a nivel estratigráfico o de materiales, pero si se han descubierto restos de su urbanismo y la existencia de un relleno en esta fase. Hasta ahora esta etapa presentaba un fuerte buzamiento en relación con el nivel actual; pero la revisión llevada a cabo en los estratos finales de ese paquete estratigráfico ha puesto de relieve la existencia de estructuras en plano horizontal. Se ha descubierto un recinto con suelo o pavimento de tierra apisonada en el Z-3 rematado por un pequeño murete, junto a un hogar con restos cerámicos en su composición.

En V-1 también se aprecia la existencia de estructuras horizontales que no se han estudiado en su totalidad.

Los fuertes estratos de tierra negruzca con abundante material adscrito a estas épocas se localizan en

Lastrako Kastroak (Karanka, Gaubea). Hiri-egituraren fase desberdinak: Erdi Aroko intrusioa; E mailako zoruak eta harrizko zoladura.



Poblado de los Castros de Lastra (Caranca, Valdegovía). Diferentes fases urbanísticas: intrusión medieval; suelos de E y empedrado.

tura hauen ertzetan, bizileku haien zabortegi handien modura. Ez dezagun ahantzi garai haietan lubeta orain baino barnerago zegoela.

Hasierako fasea edo F mailak: C-8 eta C-9 koadroak landu dira, azkeneko estratua induskatu gabe zutelako. Herrigunea sortu zenekoa da fase hau. Oso aztarna gutxi azaldu da, bai zeramikan bai faunan; ez da egituraren aztarnarik atzeman, ezta une hartan bizileku bat izan zela erakutsiko ligukeen beste frogarik ere. Gaineko mailetan, betegarrietan, lortu ditugun datuen arabera, lubeta izango zen alde hau Azken Brontzeko une hartan.

Induskatu eta harri naturalera iritsi orduko lurrez estali ditugu koadroak harrizko egiturak ez daitezen berehala desegin, ez baitago alde horretan inolako euskarririk. Sare berde bat jarri dugu arrokaren gainean, maila horretaraino iritsi garela adierazteko; hutsak saihestuko ditugu horrenbestez etorkizunean. Gauza bera egin dugu berriro bete ditugun koadro guztietan.

Materialen alorrean, zeramika-hondakin batzuk jaso ditugu, azken faseetan bereziki. Aipagarriak dira, halaber, Erdi Aroko intrusioetan agertu diren zeramika-zatiak.

Aipatzekoak ebakiz eta ildo batzuez dekoraturiko zeramika leunduak, S perfilean moldatuak. Gainerako (hezurrezko nahiz metalezko) tresnei dagokienez, testimonialak izan dira jaso ditugun aztarnak.

Fauna-hondakin ugari jaso dugu, orein-adarrak hiru gunetan.

plano inclinado al borde de esas estructuras, a modo de grandes basureros de esas viviendas. No se debe olvidar que en esos momentos el terraplén estaba ubicado más al interior que en el momento actual.

Fase inicial o niveles F: se ha trabajado en los cuadros C-8 y C-9, en los que quedaba el último estrato por excavar, corresponde a una fase que podríamos considerar de fundación. Los restos han sido muy escasos, tanto a nivel cerámico como de fauna, no se han detectado restos de estructuras, ni de otras evidencias que prueben que en ese punto hubo habitación. Por los datos obtenidos en los niveles superiores –rellenos–, esta zona en ese momento del Bronce Final correspondería al terraplén.

Una vez que se ha llegado a la roca en la zona excavada de esos cuadros se han vuelto a recubrir con tierra para evitar la destrucción rápida de las estructuras pétreas, al no tener ningún tipo de contención por ese lado. Sobre la roca se ha instalado una malla verde, que señala que se ha alcanzado ese nivel, pera evitar errores futuros. Está actuación la venimos repitiendo en todos los puntos en que se ha procedido a efectuar rellenos.

En cuanto a los materiales se han seguido recuperando restos cerámicos principalmente de las últimas fases, salvo los restos medievales recogidos en las intrusiones.

Destacan las cerámicas bruñidas con decoración acanalada e incisa y perfiles en S. En cuanto a otras industrias, tanto óseas como metálicas, los restos han sido prácticamente testimoniales.

Los restos faunísticos han sido abundantes y en tres puntos se han recogido cuernas de ciervo.

*Paquita Sáenz de Urturi*

## A.1.2. *ZUNDAKETAK*

### A.1.2.1. Ameztutxoko bizilekuko aztarnategia (Ilarduia - Asparrena)

III. Indusketa-Kanpaina

Mikel Beorlegi Ereñak zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua

## A.1.2. *SONDEOS*

### A.1.2.1. Yacimiento de habitación Ameztutxo (Ilarduia-Asparrena)

III Campaña de sondeos.

Dirigida por Mikel Beorlegi Ereña.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

***Ameztutxo dwelling space site (Ilarduia-Asparrena). Directed by Mikel Beorlegi Ereña.***
*Ameztutxo (ARYA-48), is an open-air dwelling place with a chronology between the Neolithic and the beginning of the Bronze Age. In this, the third archaeological survey campaign, it has been possible to better identify the occupation stages thereof.*

*The site reveals a series of building structures such as walls, pavements, post-holes, piles of material linked with lithic industry and with the manufacture of common smoothed pottery and which gives an interesting new insight into the techniques used in the human occupation at the source of the Ebro river during recent pre-history.*

ARYA-48 aztarnategi-multzoa Ilarduia eta Albeniz artean dago eta 1991. urteko abenduan aurkitu zen espazio-ikusketa batzuetan.

Haize zabaleko aztarnategi batzuk dira, Kukuma errekaren bazterreko kolubioi-terrazetan, haran txiki baten erdian, egokituak eta artikulatuak. Laborantza-

ARYA-48 está situado entre Ilarduia y Albéniz y fue localizado en diciembre del 1991 en el curso de las revisiones espaciales.

Se trata de una red de yacimientos al aire libre articulados y asentados en las terrazas coluviales del arroyo Kukuma, en el marco de un pequeño valle. En



Ameztutxo (Ilarduia - Asparrena). Hormaren bi tarteak elkartzen diren gunea. Enkatxoaren alde bat ikus daiteke eskuinaldeko angeluan.

Ameztutxo (Ilarduia-Asparrena). Punto en el que se articulan los dos tramos de muro. En el ángulo derecho, parte del encachado.

lanen poderioz zorupetik ateratako Historiaurreko material-multzo batzuk agertzen dira haietan. Gune horietako batean eginiko hiru zundaketa arkeologikoen ondoren (1992-1994-1996), aurkikundeen balorazio bat egin ahal izan dugu eta, era berean, epe labur eta luzerako ikerketa-dinamika baterako lan-ardatzak ere aitzinatu ditugu, aurkientza horren ezaugarrien arabera.

Honako helburu nagusi hauei heldu genien kanpaina honetan:

Deposituaren bilakaeraren ikerketan sakondu eta, horretarako, ahalik eta datu gehien biltzea behar genituen aztarnategiaren sekuentzia estratigrafikoari buruz.

Aztarnategiko mailetako kultura material, kronologia eta karakterizazio ekonomiko-kulturalari buruzko ikuspegia osatu ahal izateko adina aztarna biltzea.

Inguruko eremuaren indusketaren ondoko datuak 1992. eta 1994. urteetako jardueretan lorturiko datuekin alderatzea, II. mailako egituren interpretazioa ahalik eta hoberen zehazteko.

Prozesu guztia ikerturiko unitateetako sedimentuak ahalik eta zehatzen aztertuko zituen txosten arkeologiko batean islatzea, jasoriko aztarnen erakusgarri esanguratsu bat aurkeztuz eta kultura materiala egokiro aztertuz (tresneria: teknologia, tipologia, funtzionaltasuna, esanahi sozio-ekonomiko-kulturala, eta abar).

Hori guztia metodo arkeologikoa azterketa-interpretazio-ezagutarazte prozesu osoan zuzen aplikatuta, aurkikundeen erregistro xehe eta kontserbazio egokirako irizpideei orekan eutsiko dieten oinarri batzuen arabera hain zuzen ere.

Arkeologia modernoaren metodologia-ereduei jarraiki bideratu ditugu indusketa-lanak, koordenatu cartesiarren metodoaren bidez, eta egitura eta tresna berezi batzuen "in situ" erregistroak ere bideratu ditugu (erregistro orokorra, geruzen fitxak, eremuaren koadernoa eta eguneko orokorra, argazkiez eta bideo-filmazioez osatua). Tresneriez gainera, aztarna paleobotanikoak bereizi ditugu flotazio-baheketaren bidez. Datu guztiak informatizatu ditugu datu-base baten bidez.

Hasierako interfacies-eko eta nahisi gabe dagoen multzo estratigrafikoko lur gehiena tratatu dugu flotazio-baheketaren bidez.

"Munsell soil color charts" (1992) izeneko kolore-gama erabili dugu unitate estratigrafikoen kolore desberdinak zehazteko, zoru hauen karakterizazio kromatikoak zehaztasun handiagoa eskatzen duen arren kode berean.

Landa-lanetan hasi aurretik, bildu egin zen talde-lana lanerako estrategia diseinatu eta zehaztearren. Hiru lan-talde osatu ziren, laupabost partaide bakoitzean, arlo jakin bati eta helburu eta lan-dinamika berezi batzuei lotuak, lanak egokiago kontrolatzearren. Talde bakoitzak bere egunekoa erredaktatu du, alor bakoitzeko ohar aipagarrienen lekukotasunak gorde ahal izateko.

éstos aparecen concentraciones de material prehistórico, extraídos del subsuelo por las tareas de labranza. Tras el desarrollo de tres campañas de sondeos arqueológicos en uno de estos puntos (1992-1994-1996), se ha llegado a esbozar una valoración de los hallazgos y, asimismo, diseñar nuevas líneas de trabajo sobre las que orientar una dinámica de investigaciones a corto y largo plazo, adaptada a las características y exigencias del lugar.

Para esta tercera campaña nos habíamos planteado los siguientes objetivos generales:

Profundizar en el análisis de la evolución del depósito recuperando al máximo información sobre la secuencia estratigráfica del yacimiento.

Recuperar un número suficiente de evidencias que permitan completar la visión sobre la cultura material, cronología y caracterización económico-cultural de los niveles del emplazamiento.

Integrar la excavación del área inmediatamente circundante a la estudiada en las actuaciones (sondeos) de 1992 1994, con el propósito de llegar a una mejor interpretación de las estructuras del nivel II.

Materializar el proceso en un informe arqueológico en el que fueran analizados con una mayor precisión los sedimentos de las unidades de asentamiento estudiadas, recuperación de una muestra significativa de evidencias y análisis de la cultura material: industrias (tecnología, tipología, funcionalidad, significado socio-económico-cultural, etc.).

Todo ello dentro de una correcta aplicación del método arqueológico en el proceso completo de análisis-interpretación-difusión en base a unas premisas orientadas a equilibrar los criterios de un registro minucioso y de una conservación rigurosa de los hallazgos.

Se excava siguiendo las pautas metodológicas de la arqueología moderna, operando con las directrices del método de coordenadas cartesianas, contando con formas de registro "in situ" de estructuras y de herramientas especiales (registro general, fichas de lecho, cuaderno de zona, diario general apoyado por la fotografía y la filmación con cámara de video) Además de las industrias, los restos paleobotánicos, se vienen recuperando por el sistema de cribado por flotación. Todo ello viene a ser informatizado en bases de datos.

La tierra procedente de la interfacies inicial y del paquete estratigráfico no revuelto, ha sido en su gran mayoría sometida al proceso de cribado por flotación.

Para la descripción de la variabilidad de color de las diferentes unidades estratigráficas se ha utilizado la gama propuesta por "Munsell soil color charts" (1992), aunque la caracterización cromática de estos suelos exige una mayor precisión dentro del mismo código.

Previamente al inicio de las tareas de campo, el equipo de trabajo se ha reunido para diseñar y concretar la estrategia de trabajo. Se han formado tres grupos de trabajo compuestos por cuatro y cinco personas adscritas a un área y sujetas a unos objetivos y a una dinámica de trabajo diferenciada, con el fin de controlar mejor el proceso de control de las labores, que han redactado a su vez tres diarios de grupo con las observaciones más relevantes de su sector de trabajo.

## *Mailak*

Bi maila bereizi ditugu orain arte. N-I edo maila nahasia (laborantza-lanen poderioz iraulia), bere baitan aztarnategiaren azken okupazioaldeko faseetako kontestu jakin gabeko aztarnak gordetzen dituena, eta N-II maila, edo unitate estratigrafiko batzuk ageri dituen depositua; fase desberdinak bereizten dira deposito horretan eta hurrengo jardueretan zehaztuko dira.

### *N-I (gainaldeko maila nahasia)*

Lur limotsua da, trinkoa eta kolorez marroi iluna; neurri desberdineko harkosko ugari ditu tartean. Eraikuntza-ore multzo txiki batzuk eta ikatz-zati txikiak agertzen dira han eta hemen. N-II mailaren gainean dago; iragaitzezko alde hori progresiboa da, ez dago etenik bi mailen artean. Maila honen lodiera 23 eta 51 cm bitartekoa da, aldeen arabera.

Ikuspegi arkeologikotik, garbi dago maila hau inguru hurbilen azaleran (II-a sektorea), gutxienez 15 m-ko erradioan, eginiko aurkikundeekin lotu beharra dagoela.

Honako material hauek azaldu dira maila honetan:

Harrizko tresneria: 162 pieza, honela sailkatu ditugunak:

Ukitu gabeko pieza tailatuak, 110; laskak, xaflak eta ukitu gabeko montura-zatiak, 38, eta molde gabeko zatiak, 72.

## *Los Niveles*

Venimos diferenciando dos niveles, el N-I o nivel revuelto (por las tareas agrícolas) en el que se recogen por una parte evidencias no incardinadas de las últimas fases de ocupación del emplazamiento, y un N-II, o depósito en el que se estructuran distintas unidades estratigráficas y en el que se aprecian distintas fases, que en próximas actuaciones deberán ser esclarecidas.

### *N-I (Superior revuelto)*

Compuesto por una matriz limosa, compacta, de color marrón oscuro, con abundantes cantos de diferentes tamaños. Aparecen esporádicamente algunas masitas de manteado de construcción y pequeños fragmentos de carbón. Se superpone de forma progresiva y sin una delimitación clara sobre el N-II, y aproximadamente tiene una potencia que oscila entre los 51 cm. y los 23 cm.

Desde el punto de vista arqueológico parece evidente que se debe asociar con el conjunto de hallazgos de superficie de un entorno inmediato (sector II-a) en un radio mínimo de 15 m.

En este nivel se han recuperado los siguientes materiales:

Industria lítica: 162 piezas organizadas de la siguiente manera:

Productos brutos de talla 110: lascas, láminas y fragmentos de montura sin retocar 38; trozos informes 72.



Ameztutxo (Ilarduia - Asparrena). Hormaren ezkerraldean, harkoskoz eginiko zoladura ikus daiteke. Eskuinaldean, kolubioi-betegarria.

Ameztutxo (Ilarduia-Asparrena). A la izquierda del muro se aprecia el pavimento de guijarros. A la derecha relleno coluvial.

Nukleoak: 4

Ukituen bidez apainduriko materiala: 6 arraskailu (apainduriko lasketan landuak, horietako hiru). Zulagailu bat. 20 dentikulatu (laska dentikulatuak gehienak). Xaflatxo bat, dortsoa bildua. 2 trunkadura. Ukitu soil etengabe batez apinduriko munturak, 13.

Zeramika: Eskuz landuriko zeramika, oso gastatua, 4 zati. Ugari da garai historikoko zeramika (Aro Modernokoa).

Munta txikiko aztarnak: kararrizko zintzilikario luze bat, zilindro itxurakoa (katatik hurbil jaso zen beste baten antzekoa).

*II. Maila*

Oro har, eraikuntza-unitateak dituen sedimentu-depositua da H-II maila eta N-I mailatik eta depositua oinarritzat duen kolubioi-betegarriraino hedatzen da.

Kolore marroi gorriska iluneko limo trinkoez eratu da depositua eta eraikuntza-ore bolatxoak eta ikatz-zatiak ageri ditu han eta hemen. Azaleko kotetan bi pareta edo zokalo-tarte agertzen dira "y" bat eratuz; zoru naturaleko hare-harrizko bloke handien gainean zimentatu dira kararri eta hareharri handiz eginiko horma hauek, landuak dituzte aldeak eta zuzendu egin da ilaren horizontaltasuna. Hareharri, kararri eta koartzitazko harkoskoak pilatu dira haien gainean. Ugari agertu dira erretako lur eta zurezko zatiak eta zera uste dugu, datu honen arabera, eraikin hauek zurezko bilbeen bitartez altxatu eta lurrez (adobaz eta eraikuntza-orez) luzitu zirela.

Hormen bi aldeetara eta altuera desberdinetan estratifikatuak ageri dira zoladuraren hondakinak (sutondoez eta zutoinetarako ziriez gainera), neurri deberdineko harkoskoen ondoan. Garbi azaltzen digu datu honek, historiaurrean elkarretarik hain urrun izan ez ziren bi garaitan erabili zela gutxienez leku hura.

Honako material hauek jaso ditugu maila honetan:

Harrizko tresneria: 204 pieza, era honetan sailkatu ditugunak:

Ukitu gabeko pieza tailatuak, 145; ukitu gabeko laskak eta xaflak, 28; ukitu gabeko muntura-zatiak, 20; zizel-ukaldiz landuriko pieza bat eta molde gabeko zatiak, 76.

Nukleo bat, mailu gisa erabiltzen zena (perkutorea).

Ukituen bidez apainduriko materiala: arraskailu bat (apainduriko laska batean landua). 2 zizel. 4 zulagailu. 23 dentikulatu (laska dentikulatuak gehienak). 9 Lda-lda. 3 trunkadura. Geometriko bat (zirkulu-segmentu baten erdialdeko zatikia, alaka bikoitz eta lau batez apaindua). Pieza ezkatatsu bat. Ukitu soil etengabe batez apinduriko munturak, 14.

Hareharri finean landuriko leungailu-zorroztailu bat da pulituriko azaldu den elementu bakarra. Arteka bat du zulaturik, erabilerari begira.

Zeramika: Eskuz landuriko zeramika-zatik, 66, eta ontzi baten zatiki txikiak, 4 multzotan. Azalera leuneko zeramika arrunta da nagusi eta, oso gaizki kontserba-

Núcleos: 4

Material retocado: Raspadores 6 (tres de ellos sobre lasca retocada). Perforadores 1. Denticulados 20 (alta presencia de lasca denticulada). Laminita de dorso abatido 1. Truncaduras 2. Monturas con retoque simple continuo 13.

Industria cerámica: 4 fragmentos de cerámica a mano, muy rodada. Abunda la cerámica histórica (moderna).

Restos menores: colgante cilíndrico alargado en caliza (similar a otro recogido a poca distancia de la cata.

*Nivel II*

Consideramos de forma general N-II a la parte del depósito sedimentario donde comienzan a aparecer una serie de unidades constructivas entre le base del N-II y el relleno coluvial en el que parece asentarse.

El depósito está formado por limos compactos de tonalidad marrón rojizo oscuro salpicada de bolitas de manteado y partículas de carbón. En las cotas menos profundas aparecen dos tramos de pared (o zócalo) conformando una "y". Estos muros cimentados sobre grandes bloques de arenisca del terreno, están realizados con grandes piedras calizas y areniscas con sus caras aplanadas (trabajadas), favoreciendo la horizontalidad de las hiladas sobre las que se amontonan cantos de arenisca, caliza y cuarcita. La abundancia de fragmentos de barro calentado y de madera quemada nos hacen pensar que el alzado de estas construcciones se realizó utilizando tramas de madera y enlucidos a base de barro (adobe y manteado).

A ambos lados de los muros y estratificados a diferentes alturas, se extienden restos de pavimentación (además de hogares y cuñas para poste), con guijarros de diferentes calibres que muestran que el lugar fue ocupado al menos en dos fases no muy lejanas de la prehistoria.

En este nivel se han rescatado los siguientes materiales:

Industria lítica: 204 piezas organizadas de la siguiente manera:

Productos brutos de talla 145: lascas y láminas completas sin retoque 48; fragmentos de montura sin retocar 20; golpes de buril 1; trozos informes 76.

1 núcleo aprovechado como martillo (percutor).

Material retocado: Raspador 1 (sobre lasca grande retocada). Buriles 2. Perforadores 4. Denticulados 23 (alta presencia de lasca denticulada 12). Lda-lda 9. Truncaduras 3. Geométricos 1 (fr. medial de segmento de círculo con retoque plano en doble bisel) Escamoso 1. Monturas con retoque simple continuo 14.

Como único elemento pulimentado un alisador-afilador de arenisca fina que presenta una acanaladura de utilización.

Industria cerámica: 66 fragmentos de cerámica a mano, y 4 conjuntos de fragmentos menores correspondientes al mismo recipiente. Predomina la cerámi-

tu diren zati dekoratu batzuk ere agertu dira (oraingoz nahiago dugu haiei buruzko datu zehatzik ez ematea). Oso egoera txarrean daude pieza gehienak.

ca común de superficies alisadas y, en algunos casos, se conservan restos de decoración muy mal conservados (por el momento preferimos no aventurar descripciones). El estado de conservación es, por lo general, pésimo.

Historia-aroetako zeramika-hondakin batzuk agertu dira eta iltze itxurako piezak N-I eta N-II mailen arteko iragaitzaldean.

Aparecen restos de cerámica histórica y algunos claviformes en la zona de transición del N-I al N-II.

Aztarnategi honek badu bere garrantzia zeren, Penintsulako lurralde honetan garai hartako finkamendu batean espero genezakeenaz bestaldera, eraikuntza-egitura multzo oso bat agertu baita bertan. Izan ere, 5,30 eta 6,70 m-ko luzera duten bi horma-ilara zuzenek (edo zokaloak) "Y" handi bat eratzen dute, eta egitura hau sakon induskatu beharko dugu barrunbeen egitura eta haien arteko artikulazioa hobekiago ezagutzeko.

La importancia del yacimiento radica en que, lejos de lo que se podría esperar para un asentamiento de este momento en este área peninsular, presenta un elaborado conjunto de estructuras constructivas. En efecto, dos tramos de muro rectilíneo (o zócalo) de más de 5,30 y de 6,70 metros de longitud conforman una gran "Y" que debe seguir siendo excavada para conocer mejor la estructuración y articulación de los recintos.

*Mikel Beorlegi Ereña*

## A.1.2.2. Reñanillako herri hustua (Bilar)

I. Indusketa-Kanpaina

Luis Gil Zubillagak zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua

## A.1.2.2. Despoblado de Reñanilla (Elvillar)

I Campaña de Sondeos.

Dirigida por Luis Gil Zubillaga.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

***Reñanilla (Elvillar) uninhabited settlement. Directed by Luis Gil Zubillaga.***
*By means of a short stratigraphic survey campaign in the uninhabited settlement of Reñanilla (Elvillar), together with an intensive prospection of the site, we have been able to obtain new data about the medieval occupation of small rural villages in what is known today as the Rioja Alavesa.*

*This data refers to the initiation, the development and the demise of these villages, to their topo-chronological evolution and to the exact description of the recovered remains.*

### *Aztarnategiaren aurkezpena eta kokapena*

Reñanillako herri hustua muino batean dago, Kantauriko mendien oinean, Bilarko hirigunearen Iparmendebaldean, kilometro t'erdira. Labore-lurra da gaurko egunean.

Arabako Errioxako Erdi Aroko aztarnategien zundaketa estratigrafikoak Reñanillan hastea erabaki genuen, biziki interesgarri baitzen finkamendu hori, aldez aurretik igartzen zitzaizkion ezaugarrien arabera. Hona hemen ezaugarri horiek: aztarnategia kontserbazio-egoera onean egongo zen itxuraz, arkeologia-material ugari agertzen zen bertako lur-azalean eta Erdi Aroko kronologia-arku zabala eskaintzen zuen material horrek.

Honetaz gainera, *Arabako Arkeologia Kartan* (3206. zenb.) aztarnategian jasoriko hilobi-epigrafe bat jaso zen. Goi Erdi Arokoa zen gainera, zalantzarik gabe. Bada, halaber, leku honi buruzko dokumentazio idatzia, Behe Erdi Arokoa hain zuzen ere, Reñanillako he-

### *Presentación y localización del yacimiento*

El despoblado de Reñanilla se localiza en un altozano, dedicado al cultivo cerealístico, situado al pie de la Sierra de Cantabria, a un kilómetro y medio al Noroeste del casco urbano de Elvillar.

Decidimos comenzar en Reñanilla nuestro programa de sondeos estratigráficos en yacimientos medievales de La Rioja Alavesa, ya que este asentamiento en concreto ofrecía una serie de características potenciales que lo hacían particularmente interesante. Entre dichas características, señalaremos su aparente buen estado de conservación, la abundante presencia de material arqueológico en superficie, así como el amplio arco cronológico medieval que ofrece éste.

Recordemos además la existencia de un epígrafe funerario procedente del yacimiento, recogido en la *Carta Arqueológica de Álava* (n.º 3206), y cuya datación altomedieval está fuera de discusión. Asimismo, existe documentación escrita bajomedieval, que

rriska Biasteriko hiriaren menpeko herria zela zehazten duena. Dokumentu honen arabera, herria XIV. mendearen erdialdean hustu zela esan genezake.

Honenbestez eskatu genion Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Sailari leku horretan zundaketa estratigrafikoak egiteko baimena, eta halaxe eman ziguten.

### *Zundaketa-kanpainaren helburuak*

Aztarnategiaren tamaina baloratzea zen kanpaina honetako helburu nagusia; bereziki landu nahi genituen finkamenduaren kronologia, hedadura eta okupazio-moduak.

### *Lan-metodologia*

Zundaketan erabili genuen metodologia E. Harris-en erregistro estratigrafikoan oinarritu zen eta gisa honetako interbentzio arkeologiko puntual hauen beharretara moldatu genuen, informazio aztarnategian bertan biltzeko aukera eskaintzen duen erregistro-sistema informatizatu baten bidez.

### *Landa-lanen emaitzak*

Lau zundaketa egin genituen landa-lanen garaian. Hona hemen, labur, zer eskaini zuten:

*1. Zundaketa*

Hilobi-erabilerako eremu bat da, ustez Reñanillako ermita izan zenaren aurrien ondoan dagoena. Hartan, terraza geologikoaren gainean, azaldu ziren hilobi bakun baten hondakinak, oso egoera txarrean laborantza-lanen ekinagatik.

*2. Zundaketa*

Habitat-alde bat da eta bertan azaldu ziren neurri ertain eta handiko harriz atondu zen zoru baten aurriak (2003. UE); zanpaturiko lurraz estali eta bizileku-egitura bateko zorua izango zen. Zoru harekin batera agertu ziren Erdi Aroko sukalde-ontzi batzuk.

*3. Zundaketa:*

3. zundaketak ez zuen emaitzarik ekarri, ez baitzen inolako maila arkeologikorik azaldu. Hala eta guztiz ere, aztarnategiaren miaketa sistematikoaren ondorioz lorturiko informazioarekin batera, aukera eman zigun finkamenduaren benetako hedadura iparraldetik mugatzeko.

*4. Zundaketa:*

Hau da, bat ere zalantzarik gabe, zundaketa interesgarriena, herri hustuaren okupazioaldien arku kronologiko osoa (VIII.-XIV. mendeak) hartzen duen estratigrafia eskaintzen baitu.

muestra la pertenencia de la aldea de Reñanilla a la comunidad de aldeas de Laguardia, y que permite situar su abandono definitivo a mediados del siglo XIV.

Con estas premisas, solicitamos y obtuvimos del Departamento de Cultura y Euskera de la Diputación Foral de Álava el oportuno permiso de realización de sondeos estratigráficos.

### *Objetivos de la campaña de sondeos*

Los objetivos básicos de esta campaña de sondeos serían los de valorar la potencialidad del yacimiento, haciendo especial hincapié en los temas de cronología, extensión y fórmulas de ocupación del asentamiento.

### *Metodología de los trabajos*

La metodología empleada en los sondeos se basa en los principios de registro estratigráfico de E. Harris, adaptado a las necesidades concretas de este tipo de intervenciones arqueológicas tan puntuales, a través de un sistema de registro informatizado que nos permite recoger la información en el mismo yacimiento.

### *Resultados de los trabajos de campo:*

Durante los trabajos de campo realizamos cuatro sondeos cuyos resultados pasamos brevemente a comentar:

*Sondeo n.º 1*

Corresponde a una zona de uso funerario, situado en las cercanías de lo que consideramos son los restos de la ermita Reñanilla, y en el mismo localizamos los restos, muy deteriorados por efecto de los trabajos agrícolas, de un enterramiento en fosa simple (UE 1003) asentado sobre la terraza geológica.

*Sondeo n.º 2*

Corresponde a una zona de hábitat, en la cual concretamente localizamos los restos de un preparado de suelo construido con piedras de tamaño medio y pequeño (UE 2003), que una vez recubierto de tierra apisonada ofrecería aislamiento a una estructura de habitación. Asociado a este preparado de suelo localizamos una serie de recipientes de cocina de cronología plenomedieval.

*Sondeo n.º 3:*

El sondeo número 3 fue negativo, al no detectarse nivel arqueológico alguno, aunque nos permitió, junto a la información procedente de la prospección sistemática del yacimiento, delimitar por el norte la extensión real del asentamiento.

*Sondeo n.º 4:*

Se trata sin duda del sondeo arqueológico más interesante, al proporcionarnos una completa estratigráfica que abarca todo el arco cronológico de ocupación del poblado (siglos VIII-XIV).

### *Zundaketen emaitzen balorazioa*

Interbentzio arkeologiko honetan lorturiko informazioa garrantzitsua da eta hartaz baliatuz hurbildu ahal izango gara Reñanillako Erdi Aroko herriaren bilakaera topokronologira.

Gure ustez, Goi Erdi Aroan finkamendu bat izan zen leku hartan, hego-mendebaleko mazelean hain zuzen ere, 4. zundaketa egin den eremuan. Haizearen ekinetik gerizatzen duen muino bat zuen herrigune hark iparraldean eta San Gines erreka igarotzen da hegoaldetik. Kantauriko mendietatik jaisten da erreka hori.

Goi Erdi Aroko lehen herrigune hark 0,3 Ha-ko azalera izango zuen gutxi gora-behera eta neurri txikiko eltze globularren eta metalezko pieza batzuen (brontzezko ditare bat, esate baterako) presentzia litzateke hartan jasoriko materialen ezaugarri aipagarriena.

### *Valoración de los resultados de los sondeos*

El caudal de información obtenido a través de esta intervención arqueológica es los suficientemente importante para permitirnos ofrecer un acercamiento a la evolución topo-cronológica de la aldea medieval de Reñanilla.

Podemos sostener la existencia de un primitivo asentamiento altomedieval en la ladera suroeste del asentamiento, donde se localiza el sondeo cuatro, en un área limitada al norte por un altozano que le resguarda del viento, y por el sur por el arroyo San Ginés, que baja de la Sierra de Cantabria.

Este primitivo asentamiento altomedieval, caracterizado en lo material por la presencia de ollas de cocina globulares de pequeño tamaño, así como algunos elementos metálicos –por ejemplo, un dedal de bronce–, tendría una extensión máxima aproximada de 0,3 Ha.



Reñanillako herri hustua (Bilar).
Atonduriko zoruaren ikuspegia,
2. zundaketaren eremuan (2003. UE)

Despoblado de Reñanilla (Elvillar).
Vista del preparado de suelo
(U.E. 2003) localizado en el sondeo 2.

Lehen gune hartatik aldendu gabe, herriska iparralderantz zabaldu zen (1. eta 2. zundaketak), ermitaren aurriak zeuden eremurantz hain zuzen ere. Milurteko berriaren atarian gertatuko zen zabaltze hura eta hedadura hura izango zuen herriak XIV. mendean erabat hustu zen arte. Material gehiago eta koalitatez aberatsagoa agertu da eremu honetan: eltzeak, pitxerrak, goporrak, eta abar. Landa-lanetan jaso diren pieza material gehienak azaldu dira hemen.

Behe Erdi Aroko beirazko zeramika-zati gutxi batzuk ere agertu dira; badirudi herri honetan bizi izan zen jendeak biziki eutsi ziela lehengo zeramika-molde tradizionalei.

Eraikitako egiturei dagokienez, Erdi Aro beteko okupazioaldiko lagin bat baizik ez dugu jaso (XI-XIII. m.), arestian aipatu dugun harrizko zoladura, habitat-eraikinetan halako isolamendu-nahia erakusten duena; nolabaiteko planta duten eraikinei buruz ari gara zalantzarik gabe. Zoritxarrez, zundaketa-kanpaina honen helburuetatik kanpo zegoen egitura honen indusketa sakona.

Zera esan dezakegu, Reñanillako herri hustuan bideratu dugun zundaketa estratigrafikoen kanpaina bakar honen ondoren, datu garrantzitsuak lortu ditugula Kantauriko mendien inguruetan Goi Erdi Aroan zegoen giza okupazioari buruz, landa-herriskei dagokien alorrean.

Herri hau tradizio idatziaren azterketak dioskun baino lehenagokoa da itxuraz eta milurtekoaren sarreran hasi zen zabalera handienean hedatzen.

Badirudi Nafarroako erresumak XIV. mendean jasan zuen krisia dela Reñanilla eta haren antzeko beste herriska asko hustu eta galtzeko arrazoi nagusia; izan ere, mende hartan bideratu zen espazio-banaketa berriaren arabera, irabazian atera ziren biztanle-multzo handienak, hau da, foru-hiriak, eta galduan landa-herriska txikiak.

Sin abandonar este núcleo original de hábitat, la aldea se expansiona hacia el norte (sondeos 1 y 2), englobando la zona donde se localizan los restos de la ermita, en un momento que puede datarse en torno al cambio de milenio y que se mantendrá sin cambios hasta su abandono definitivo en la primera mitad del siglo XIV. El repertorio material se enriquece cuantitativamente y cualitativamente, con la presencia de ollas, jarras, cuencos, etc. que constituyen la mayor parte del material recuperado en los trabajos de campo.

Destacamos la presencia muy anecdótica de material cerámico vidriado en época bajomedieval, lo cual nos está hablando de una comunidad humana aferrada a unas tradiciones cerámicas anteriores.

En lo que a estructuras construidas se refiere, sólo la fase de ocupación plenomedieval (siglos XI-XIII) ha proporcionado una muestra, que es el citado preparado de suelo de piedra, que muestra un interés en obtener un aislamiento en las construcciones destinadas al hábitat, lo cual nos está hablando de unas edificaciones de cierto porte. Lamentablemente, la excavación en extensión de este interesante estructura escapaba de los objetivos de esta campaña de sondeos.

A modo de conclusión, señalaremos que a través de esta única campaña de sondeos estratigráficos en el despoblado de Reñanilla, hemos logrado obtener importantes datos de la ocupación humana de las estribaciones de la Sierra de Cantabria durante la época medieval, en lo referido a la fórmula de las pequeñas aldeas rurales.

Su origen parece ser anterior a lo tradicionalmente aceptado a través del estudio de la documentación escrita, y en su momento de mayor expansión parece comenzar en el cambio de milenio.

La causa de la desaparición de muchas de estas aldeas, como es el caso concreto de Reñanilla, será la reorganización del espacio producida por la crisis que azota al Reino de Navarra en el siglo XIV, y que parece beneficiar a los núcleos de hábitat más pujantes, como es el caso de las villas aforadas, en detrimento de los pequeños asentamientos de carácter rural.

*Luis Gil Zubillaga*

## A.1.2.3. El Molino (Alcedo, Lantaron)

I. Indusketa-Kanpaina, 1996.

Esther Rodríguez Vallek zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua

## A.1.2.3. El Molino (Alcedo, Lantarón)

I Campaña de sondeos, 1996.

Dirigida por Esther Rodríguez Valle.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

*El Molino (Alcedo, Lantarón). Directed by Esther Rodríguez Valle.*
*The work carried out within this first campaign of archaeological surveys forms part of an investigation into the form of human occupation in the Late/Mid-Bronze Age in the geographical area of the site and known as El Encinedo.*

1996ko abuztuan egin genuen El Molinoko aztarnategian (Alcedo, Lantaron) Zundaketa estratigrafikoen 1. Kanpaina. Aztarnategi hau miatua zen aurrez, El Encinedoko (Villambrosa, Erribera Goitia) aztarnategiaren inguruan egin ziren ikerketetan.

Orban ilun bat da, "ilargi erdi" baten itxura duena, eta material arkeologiko ugari jaso zen haren barnean, zeramika nagusiki. Haren ezaugarriei erreparatu ondoren, Erdi - Azken Brontze Aroan kokatuko genuke material hori, Cogotas I munduarekin loturik hain zuzen ere (bokikea, galburu-dekorazioa, sigi-sagak…).

1x1 m-ko zundaketak egin ziren, lau guztira.

### *Estratigrafiaren deskripzioa*

2. zundaketan izan ezik (orbanaren mugetatik kanpo induskatu zen), ukitu gabe agertu zen maila arkeologikoa beste zundaketetan; kolorez beltza zen eta lurra oso trinkoa.

Material arkeologikoa oso ugaria da, zeramika batez ere. Asko ezezik, oso kalitate oneko zeramika agertu da: ore ona, ongi bukatua eta dekorazio ederrez apiandua (sigi-sagak, galburuak, ebakiak, inprimazioak, dekorazio plastikoa, bokikeak…). Eraikuntza-ore puska batzuk ere agertu dira han eta hemen.

1. eta 4. zundaketetan estratu arkeologikoa lodiagoa da (60 cm-koa, lodiera gorena) eta neurri ertaineko harriz eraturiko geruza bat, oso barreiatua eta trinkotasunik gabea, agertu da. Harrizko geruza honen aurretik eta ondotik da ugariagoa material arkeologikoa, eta ez dirudi gainekoa eta azpikoa estratu desberdinak direnik.

### *Emaitzen balorazioa*

Hona hemen aurten El Molinoko aztarnategian egin dugun zundaketa-kanpainan lorturiko emaitzak:

– Orbanaren barruan lodiera handiko (60 cm bitarte, 1. zundaketan) maila arkeologiko bat agertu da ukitu gabe eta material arkeoogiko ugarirekin. Zeramika da gehiena eta kalitate handikoa gainera.

– Oraingoz ez da egitura-hondakinik agertu, baina atzeman dugun maila arkeologikoaren ezaugarriak

En agosto de 1996 se ha llevado a cabo la I Campaña de sondeos arqueológicos en el yacimiento de El Molino (Alcedo, Lantarón). Este yacimiento forma parte de los prospectados con motivo de los estudios realizados en torno al yacimiento de El Encinedo (Villambrosa, Ribera Alta).

Se trata de una mancha oscura en forma de "media luna", dentro de cuyos límites se recogió abundante material arqueológico, principalmente cerámico, que podría contextualizarse, por sus características, dentro del Bronce Medio-Final, relacionado con el mundo de Cogotas I (boquique, decoración en espigas, zigzags...).

Se han realizado 4 sondeos de 1x1 m.

### *Descripción de la estratigrafía*

A excepción del sondeo 2, excavado fuera de los límites de la mancha, el resto de los sondeos presenta un nivel arqueológico intacto, de color negro y tierra muy compacta.

El material arqueológico es muy abundante, sobre todo el cerámico, que no sólo destaca por la cantidad, sino también por la calidad de la pasta, su terminación y las decoraciones que presenta (zig-zags, espigas, incisiones, impresiones, decoración plástica, boquique...). También se han localizado fragmentos de manteado de forma dispersa.

En los sondeos 1 y 4, donde además la potencia del estrato arqueológico es mayor (60 cm. de espesor máximo), se ha localizado una capa de piedras dispersas de mediano tamaño y poco compacta. Es inmediatamente antes y después de esta capa de piedras donde el material arqueológico es más abundante, aunque no parece marcar diferenciaciones en el estrato.

### *Valoración de los resultados*

Los resultados obtenidos en esta campaña de sondeos realizados en el yacimiento de El Molino son los siguientes:

– En el interior de la mancha se ha detectado la existencia de un nivel arqueológico intacto de gran espesor (hasta 60 cm. en el sondeo 1) y con abundante material arqueológico, sobre todo cerámico, de gran calidad.

– No se han localizado, por el momento, restos de estructuras, aunque dadas las características del nivel

kontuan hartu eta horrelakoren bat agertuko dela uste dugu.

– Indusketan agertu den material zeramikoa El Encinedoko aztarnategian (Villambrosa, Araba) induskaturiko zuloetan agertutakoaren kronologia berekoa da, Cogotas I kulturaren garaikoa hain zuzen ere.

arqueológico detectado nos parece probable su existencia.

– El material cerámico localizado en la excavación corresponde al mismo momento cronológico de los hoyos excavados en El Encinedo (Villambrosa, Alava), correspondiente al horizonte cultural Cogotas I.

*Esther Rodríguez Valle, María Dolorez Muñoz del Valle, Ana Jesús Ibisate Arregui*

## A.1.2.4. El Huerto (Kaizedo Behekoa, Lantaron)

I. Indusketa-Kanpaina, 1996.

María Dolores Muñoz del Vallek zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua

## A.1.2.4. El Huerto (Caicedo-Yuso, Lantarón)

I Campaña de sondeos, 1996.

Dirigida por M.ª Dolores Muñoz del Valle.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

***El Huerto (Caicedo-Yuso, Lantarón). Directed by M.ª Dolores Muñoz del Valle.***
*The work carried out within this first campaign of archaeological surveys forms part of an investigation into the form of human occupation in the Late/Mid-Bronze Age in the geographical area of the site and known as El Encinedo.*

*We proposed studying sites containing superficial material similar to that of El Encinedo in order to describe its function and establish spatial inter-relationships.*

1996ko abuztuan egin genuen El Huertoko aztarnategian (Kaizedo Behekoa, Lantaron) Zundaketa estratigrafikoen 1. Kanpaina. Aztarnategi hau miatua zen aurrez, El Encinedoko (Villambrosa, Erribera Goitia) aztarnategiaren inguruanegin ziren ikerketetan.

1x1 m-ko zundaketak egin ziren, hiru guztira.

### *Estratigrafiaren deskripzioa*

Bi maila bereizi dira aztarnategi honetan, azalekoa, laborantza-lanetan iraulia, eta material arkeologiko ugari duena (zeramika batez ere), eta harri naturaleko maila.

Halatan, ez dago ukitu gabeko maila arkeologikorik.

### *Emaitzen balorazioa*

Material arkeologikoak leku hau okupatu egin zela salatzen digun arren, laborantza-lanen poderioz galdu dira maila arkeologikoak eta guztiz galdu dira, baziren, egituren hondakinak.

Horrenbestez, aztarnategi honek ez du inolako interes arkeologikorik.

En agosto de 1996 se ha llevado a cabo la I Campaña de sondeos arqueológicos en el yacimiento de El Huerto (Caicedo-Yuso, Lantarón). Este yacimiento forma parte de los prospectados con motivo de los estudios realizados en torno al yacimiento de El Encinedo (Villambrosa, Ribera Alta).

En él se ha realizado un total de 3 sondeos de 1 x 1 m.

### *Descripción de la estratigrafía*

Este yacimiento presenta únicamente dos niveles, el superficial, revuelto por el arado y con abundante material arqueológico (sobre todo cerámico), y el nivel de roca natural.

Por tanto, no presenta nivel arqueológico intacto.

### *Valoración de los resultados*

Aunque la presencia de material arqueológico nos esté indicando la existencia de ocupación en este lugar, los niveles arqueológicos han sido destruidos por las actividades agrícolas, habiendo desaparecido los posibles restos de estructuras.

Por lo tanto, es un yacimiento que no presenta ningún interés arqueológico.

*María Dolorez Muñoz del Valle, Esther Rodríguez Valle, Ana Jesús Ibisate Arregui*

## A.1.2.5. El Encinedo (Villambrosa, Erribera Goitia)

I. Indusketa-Kanpaina, 1996.

Ana Jesus Ibisate Arregik zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua

## A.1.2.5. El Encinedo (Villambrosa, Ribera Alta)

I Campaña de sondeos, 1996.

Dirigida por Ana Jesús Ibisate Arregui.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

*El Encinedo (Villambrosa, Ribera Alta). **Directed by Ana Jesús Ibisate Arregi.** The work carried out within this first campaign of archaeological surveys forms part of an investigation into the form of human occupation in the Late/Mid-Bronze Age in the geographical area of the site.*

*Our proposed objectives were: to localise intact hollow structures of the type already excavated or related to them (floors, ...), analyse their stratigraphy and thus obtain data which would allow a functional interpretation of the excavated structures to date and to study sites containing superficial material similar to that of El Encinedo in order to describe its function and establish spatial inter-relationships.*

1996ko abuztuan egin genuen El Encinedoko aztarnategian (Villambrosa, Erribera Goitia) Zundaketa estratigrafikoen 1. Kanpaina.

1x1 m-ko zundaketak egin ziren, lau guztira, material arkeologikoa (sukarria eta, batez ere, material zeramikoa) zuen orban ilun baten barnean. Interesgarria iruditu zitzaigun orban hura, aurreko kanpainetan induskatu genituen hiru zuloren ondoan zegoelako (ikus *Arkeoikuska, 92, 93 eta 95*)

Honako helburu hauek genituen kanpainan:

- Leku hartako estratigrafia ezagutzea.
- Ukitu gabeko maila arkeologikorik ba ote zen egiaztatzea
- Egiturak aurkitzea.

Helburu hauek zehaztu genituen aurrez induskatu genituen zuloen kontestua eta helburua zehazterakoan laguntza eskainiko ziguten datuak lortzearren. Gure hipotesiaren arabera, zulo haiek finkamendu zabalago bateko elementuak ziren eta orban hura haiekin loturiko bizileku bati ote zegokion jakin nahi genuen.

### *Aztarntegiko estratigrafiaren deskripzioa*

Aztarnategiak 30 cm-ko maila bat du azalean, laborantza-lanen poderioz iraulia. Material arkeologikoak zeuden bertan, zeramika batez ere.

Lur iluneko maila bat agertu zen ondoren; material arkeologiko ugari zeukan, eta neurri txiki-ertaineko harriz eraturiko geruza bat, sendotasunik gabeko egitura bati legokiokeena. Ez ditugu harrizko zoladura honen mugak zehaztu, oso zundaketa txikiak bideratu baititugu.

Harrizko zoladura honek 22 cm-ko lodiera du batez beste eta harri naturalaren gainean agertzen da 1. eta 2. zundaketetan. 3. eta 4. zundaketetan, ordea, buztin naturaleko geruza bat agertzen da bi maila horin artean; ez du material arkeologikorik.

Se ha realizado en agosto de 1996 la I Campaña de sondeos en el yacimiento de El Encinedo (Villambrosa, Ribera Alta).

Se trata de 4 sondeos de 1 x 1 metros que se realizaron en el interior de una mancha de coloración oscura en la que se había localizado material arqueológico (sílex, y sobre todo, material cerámico) y que creímos de especial interés por encontrase cercana a tres hoyos que habían sido también excavados por nosotras en campañas anteriores (Ver *Arkeoikuska, 92, 93 y 95*...).

Los objetivos que nos planteamos eran los siguientes:

- Conocer la posible estratigrafía del lugar.
- Constatar la presencia o no de niveles arqueológicos intactos.
- Localizar posibles estructuras.

Estos objetivos se marcaron con el fin de obtener información que nos permitiese contextualizar los hoyos excavados anteriormente y conocer su funcionalidad. Partíamos de la hipótesis de que los hoyos formaron parte de un asentamiento más amplio y nos proponíamos conocer si esta mancha correspondía a un lugar de habitación relacionado con ellos.

### *Descripción de la estratigrafía del yacimiento*

El yacimiento presenta un nivel, de unos 30 cm. de espesor, revuelto por las labores agrícolas, en el que se localizan materiales arqueológicos, sobre todo cerámicos.

A continuación aparece un nivel de tierra oscura en el que se localiza abundante material arqueológico y un lecho formado por piedras de pequeño y mediano tamaño que parecen pertenecer a una estructura de poca consistencia. En ningún caso se han encontrado los límites de este empedrado, dadas las pequeñas dimensiones de los sondeos realizados.

Este empedrado, que presenta un grosor medio de unos 22 cm., aparece apoyado directamente sobre la roca natural en el caso de los sondeos 1 y 2, mientras que en los sondeos 3 y 4 se detecta una capa de arcillas naturales intermedias, en la que no aparece material arqueológico.

### *Emaitzen balorazioa*

El Encinedoko aztarnategian egin dugun zundaketa-kanpaina honi esker egiaztatu dugu ukitu gabeko maila arkeologiko bat dagoela eta haren barnean Brontze Arakotzat har litezkeen bizileku-egiturak ere badaudela.

Sendotasun eskaseko egiturak dira, eta ezin jakin dugu nolakoa zen eta nolako neurriak zituen, bideraturiko interbentzioa oso pùntuala baitzen. Nolanahi ere, jaso diren material arkeologikoen kopuruak eta kalitateak argiro erakusten digute leku hartan giza okupazio bat izan zela.

Garai berari buruzko ikerketa batzuek argi erakutsi dute aro hartako bizileku gehienak ez zirela sendoak.

Aurreko interbentzioetan induskaturiko zuloen eta zundaketa hauetan agertu den maila arkeologikoaren arteko erlazio horri dagokionez, oraingoz ez dugu gure lan-hipotesia baietsi edo ezetsiko digun daturik.

### *Valoración de los resultados.*

La realización de esta campaña de sondeos en el yacimiento de El Encinedo ha permitido constatar la existencia de un nivel arqueológico intacto en el que se localizan posibles estructuras de habitación, enmarcables en la Edad del Bronce.

Se trata de estructuras de poca consistencia de las que no podemos saber su morfología ni dimensiones debido al carácter puntual de la intervención, aunque la cantidad y la calidad de los materiales arqueológicos nos indican la existencia de ocupación humana en el lugar.

Otras investigaciones sobre esta misma época también ponen de manifiesto la falta de consistencia de la mayor parte de las estructuras de habitación.

Respecto a la posible realización entre los hoyos excavados en intervenciones anteriores y el nivel arqueológico localizado en estos sondeos, no disponemos de datos suficientes que nos permitan, por el momento confirmar o desestimar la hipótesis de trabajo que nos planteamos.

*Ana Jesús Ibisate Arregui, Esther Rodríguez Valle, María Dolores Muñoz del Valle*

## A.1.3. *MIAKETAK*

### A.1.3.1. **Araia ibaiaren arroa**

VIII. Begi-Miaketa Kanpaina

Mikel Beorlegi Ereñak zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua

## A.1.3. *PROSPECCIONES*

### A.1.3.1. **Cuenca del Río Araia**

VIII Campaña de prospecciones visuales.

Dirigida por Mikel Beorlegi Ereña.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

***Araia river valley. Directed by Mikel Beorlegi Ereña.*** *From 1989 a team of investigators has been working on the localisation, characterisation and analysis of prehistoric sites in the north-east zone of the Alavese Plain. This study has implied tasks of visual prospection which, in the past year, has revealed several open-air sites as well as the checking of sites localised during previous campaigns.*

Aurtengo kanpainan aztarnategi berriak aurkitu ditugu ikerketa-proiektu global batez aztertzen ari garen eremu honetako landa-lanetan. Horrez gainera, handiagotu egin dira aurreko urteetan aurkituriko aztarnategietan jaso diren tresna-multzoen kopurua eta zuzendu dugu eskualdeko bizilagun batzuek emaniko berrietatik jaso ditugun datuen kokaera kartografikoa.

Bizilagun batzuekin mintzatu gara Zalduondon eta Araian, zutarri eta mugarriei buruz, haien kokaera hobekiago zehazteko eta beste megalito batzuei buruzko informazio gehiago lortzeko.

Las labores de campo desarrolladas en el curso de esta campaña en el área donde venimos aplicando un proyecto global de investigaciones, han generado la localización de nuevos yacimientos, la ampliación de los lotes de industrias recogidas en la revisión de yacimientos localizados durante años anteriores así como la rectificación e incardinación cartográfica de otras noticias procedentes del testimonio de una serie de vecinos de la zona.

En Zalduondo y Araia hemos conversado con una serie de vecinos sobre monolitos y mojones para concretar aún más la ubicación de los mismos y obtener más información sobre posibles megalitos.

Marrubia, Sarri, Musulaza, Corral del Guano, La Balsa de Santa Lucía, Gipuzarrate Sarribil, Apina Madariko eta Beraña (Zalduondo) izeneko lekuak miatu ditugu.

Sarriko mendian (Zalduondo) harrizko tresneriaren hondakinak aurkitu dira, zoruko orban ilun gorriska baten ondoan. Harrizko multzo bat baizik ez da aurkitu Sarribilen: ukitu bakuneko monturak eta pfitazko pieza konkabo pulitu bat.

Egilazko Bidea, Barrota eta Dos Aguas (Zalduondo) izeneko lekuetan, harrizko hiru multzo txiki miatu ditugu. Leku horiek miatu beharko ditugu agian berriro, zorua oso idorra baita.

Zalduondoko Kurzemendi, Txaragorri eta Ilarra izeneko lekuetan ez da harrizko multzo interesgarririk aurkitu. 6 sukarri-zati eta abrasio-planoak landurik dituzten hareharrizko harkosko batzuk agertu dira Ilarran. 15 sukarri-zati agertu dira Apina izeko lekuan (Zalduondo). Laborantza-sailak dira guztiak eta ez da haietan harri-multzorik agertu.

Madinabeitiaren arabera, Arbarako aztarnategian (Egino), lur-sail eta harri tresneriako multzo ugari daude, Arabako eta Nafarroako mugalerroaren bi aldeetan. Aztertzen ari garen lur-sailetako bat dago Ariata deitu lekuan. Material ugari agertu da sail hartan, hiru eremuetan gutxienez. Adieraz dezagun, bestalde, bertakoen arabera Arbara toponimoaz deitzen zaiola Eginoko Haitzetan ekialdetik mendebaldera zabaltzen den oihanpe guztiari. Hainbat alditan miatu da bide ondoan dagoen multzo horietako bat eta sukarrizko tresna-

Hemos revisado los términos de Marrubia, Sarri, Musulaza Corral del Guano La Balsa de Santa Lucía, Gipuzarrate Sarribil, Apina Madariko y Beraña (Zalduondo).

En el promontorio de Sarri (Zalduondo) se han localizado restos de industria lítica asociados a una mancha oscura y rojiza del terreno. En Sarribil se ha localizado tan sólo una concentración lítica, compuesta por monturas con retoque simple y un elemento cóncavo pulimentado (de ofita).

En Camino de Egilaz, Barrota, Dos Aguas (Zalduondo), se ha prospectado en tres concentraciones líticas de escasa entidad. Tal vez lo reseco del suelo nos obligue a revisar de nuevo estos lugares.

Los topónimos prospectados de Kurzemendi, Txaragorri e Ilarra (Zalduondo) no han aportado concentraciones líticas de interés. Únicamente en el término de Ilarra han aparecido 6 frg de sílex y algunos cantos de arenisca con posibles planos de abrasión. En el topónimo de Apina (Zalduondo) se han recogido 15 frg. de sílex. Se trata de parcelas de labranza en las que no se han localizado concentraciones líticas.

El yacimiento de Arbara (Egino), según Madinabeitia, engloba a un amplio grupo de parcelas y de concentraciones de industrias líticas, ubicadas a ambos lados de la divisoria entre Nafarroa y Araba. Una de las parcelas que venimos estudiando se ubica en el topónimo de Ariata. En ésta se recoge abundante material en por lo menos tres zonas. Es preciso aclarar que el topónimo de Arbara,según los lugareños, se extiende de este a oeste por todo el sotobosque de las Peñas de Egino. En el área situada junto al camino, en una



Arbarako aztarnategiaren ikuspegi orokorra.

Vista general del yacimiento de Arbara.

multzo garrantzitsu bat (415 pieza inguru) eta anfibolitazko aizkora pulitu bat agertu dira. Eremu hau miatzen segitu behar dugu.

Harrizko tresna-multzi interesgarri bat agertu da Mostraspil izeneko lekuan (Araia). Araiako Labaiota eta San Migel izeneko lekuen artean errotarri ugari daude etzanik, horietako batzuk zuhaitz-enbor baten barnean, baten batek hor jarriak. Kezkatzekoa da Araian Txuriturri izeneko herrigunearen egoera, ezponda eta horma batzuk erori baitira kausa naturalen eta giza ekinaren poderioz. Hiru luebaki natural daude bertan eta aztarnategiaren lodiera ikus daiteke hartan. Mendiskaren tontorraldean, gazteluaren atzealdean (ongi argitzen du lekua toponimoak: Gastolepo) ikus daitezke finkamendu honen baldintzak.

Eginoko Labraga, Arkaia Haitz eta Karabide izeneko lekuetan miatu ditugu Entziako mendietako oihanpean dauden muinoak. Tumulu izaerako egitura batzuk eta monolito batzuk aurkitu ditugu. Zuhur jokatu beahrr dago harri-multzo horien izaera zehazterakoan, ugari baitira eremu honetan bertan behera etorritako aldeak eta gainera oso alde erabilia da. Mazelaren goialdea miatu dugu bereziki, Peña Caida haitzetik Nafarroako mugaraino. Basoan soilduriko gune lauangeluar bat da mugalde hori eta sukarri-multzoen bila miatu genuen.

Arretamendi izeneko lekuan (Egino), N-1 errepidea bikoizteko eginiko lur-mugimenduen ondorioz, arraskailu bat agertu zen, barreiaturiko material gisa. Ez da inolako aztarna arkeologikorik azaldu leku hartan.

Txorrokulo izeneko sail zabala miatu dugu Eginon eta saiatu gara material-multzo esanguratsuren bat aurkitzen. Ikusketa xehe baten ondoren, itxuraz Paleolitos Arokoa izan litekeen harrizko tresna-multzo bat agertu da.

Ameztutxoko aztarnategian (Ilarduia), Amezuko toponimoan (ARYA-48 Z-IIa, IIb, IIc) aztarnategia nola dagoen aztertu eta indusketa-katen inguruak miatu dugu. Harri, zeramika eta zeramika pulituko tresnen erakusgarri eder bat agertu da.

Lizuardi (Ilarduia), Mariturri, Isasia, Ilarduia Bidea (Albeniz) deitu lekuetan Lizuardi, Mariturri, Isasia, Ilarduia Bidea izeneko lur-sailak miatu ditugu, material arkeologikoko multzoak, laborantzarako makineriak lurra agerian utzi ondoren, kokatu eta mugatzeko xedean. Material arkeologikoa (harrizko tresneria batez ere) jaso dugu hiru lehen lekuetan; nahikoa barreiaturik agertu da material hori.

Azkeneko lekuan ere jaso diru harrizko tresneriaren aztarna batzuk, baina gutxiago, kontuan harturik miatu den sailaren hedadura.

de estas tres concentraciones, se ha prospectado en varias ocasiones recogiéndose un conjunto de industria lítica en sílex (alrededor de 415 piezas y un hacha Pulimentada de anfibolita. Debemos proseguir la prospección en este área.

En el término de Mostraspil (Araia) se ha localizado un interesante lote de industria lítica. Entre los términos de La Baiota (Araia) y San Miguel (Araia) hemos localizado numerosas muelas durmientes de molinos, algunas de ellas depositadas por algún vecino en el interior del tronco de un árbol. El estado de este poblado genéricamente denominado como Txuriturri (Araia), es preocupante en algunos de los taludes y muros desprendidos por causas naturales y la acción humana. Se siguen constatando tres cortes accidentales en los que se comprueba parte de la potencia del yacimiento. En la parte superior del promontorio, tras el castillo (como bien aclara el topónimo, Gastolepo) se advierten los elementos de acondicionamiento de este emplazamiento.

En La Barga, Peña Arkaia, Karabide (Egino) han sido revisadas las lomas situadas en la parte del sotobosque de la sierra de Encia. Localizamos varias estructuras de tipo tumular, así como monolitos. Debemos extremar la prudencia a la hora de definir estas acumulaciones de piedras ya que en el área abundan las zonas de derrumbamiento y además ha sido intensamente explotada. Hemos recorrido la parte alta de la ladera, justo desde la base de la Peña Caída hasta la divisoria con Navarra, identificable por un gran claro cuadrangular en el bosque con el propósito de localizar nuevas afloraciones de sílex.

En el término de Arretamendi (Egino), las remociones del terreno relacionadas con el desdoblamiento de la N-1, han removido parte del suelo donde apareció parte de un raspador, como material disperso. No se ha identificado en el lugar evidencia arqueológica alguna.

En Txorrokulo (Egino) se ha prospectado esta extensa parcela de labranza, intentando localizar alguna concentración significativa de materiales Después de una revisión pormenorizada se ha recuperado un lote significativo de industria lítica de aspecto paleolítico.

En el yacimiento de Ameztutxo (Ilarduia) en el topónimo de Amezu ARYA-48 Z- IIa, IIb, IIc, se ha procedido a comprobar el estado del yacimiento y a prospectar los alrededores de las catas de excavación recogiendo una interesante muestra de industria lítica, cerámica y pulimentada.

En Lizuardi (Ilarduia) Mariturri, Isasia, Camino de Ilarduia (Albéniz) han sido prospectadas las parcelas de Lizuardi, Mariturri, Isasia y Camino de Ilarduia con el objetivo de localizar y delimitar las concentraciones de material arqueológico una vez que la maquinaria agrícola ha puesto al descubierto el terreno. En los tres primeros topónimos se ha recogido material arqueológico (básicamente industria lítica) presente de una forma más bien dispersa.

En el último topónimo también se han recogido evidencias de industria lítica aunque en menor proporción, teniendo en cuenta la extensión del terreno prospectado.

*Mikel Beorlegi Ereña*

# A.2. **BIZKAIA / BIZKAIA**

## A.2.1. *INDUSKETAK*

### A.2.1.1. **Gastiburuko Santutegi Protohistorikoa (Arratzu)**

XIV. Indusketa-Kanpaina

Luis Valdesek zuzendua

Bizkaiko Foru Aldundiak subentzionatua

## A.2.1. *EXCAVACIONES*

### A.2.1.1. **Santuario Protohistórico de Gastiburu (Arratzu)**

XIV Campaña de excavaciones.

Dirigida por Luis Valdés.

Financiada por la Diputación Foral de Bizkaia.

***Proto-historic Sanctuary of Gastiburu (Arratzu). Directed by Luis Valdes.*** *This campaign started with the earth moving tasks on the area of East Lóbulo and has confirmed the archaeological complexity of the Sanctuary. In 1991 and 92 the geophysical prospection of the entire site was carried out. Excavation was preceded by a repeat of this task during which new field-study data was compiled in order to study the variation and the influences of the different constructed layers. The correlation between the geophysics and the structures that were found was very high.*

Gastiburuko santutegian 1996an bideratu genuen kanpaina arkeologikoan ekin genion Ekialdeko Lobuloaren (E.L. hemendik aurrera) indusketa sakonari, haren ekialdean. Iparraldeko Lobuloak (I.L. hemendik aurrera) eskaini zuen sekuentzia estratigrafikoari buruzko informazio osagarria jasotzeko bideratu genuen jarduera hau. Lobulo honen gaineko lana erabaki genuen, gune hartako desegokieren banaketen irudi geofisikoak, H-ko eta M-ko Lobuloetakoen aldera (H.L. eta M.L. hemendik aurrera), desberdintasun batzuk aurkezten zituen arren. Zera kontsideratu genuen, eraiki zen itxuragatik eta hartarako bereizi ziren materalen izaeragatik, I.L.ak H.L. eta M.L.en geofisikak eskaintzen dutenaren antzeko itxura eman beharko zuela. Interbentzio honi begira zehaztu ziren oinarrizko helburuak ziren I.L.a berritxuratzea eta I-ko eta E-ko Lobuloen arkitektura-motak alderatzea, gogoan edukirik eraiki ziren bi mazelen inguruko problematika. Halatan, iparraldeko mazela hegoaldekoa baino leunagoa da, erdiko malda gutxi gora-behera, higaduraren poderioz harrizko substratuak azalera jo eta sasi-zelai estu bat eratu duelako. Malda handieneko mazelean eraiki ziren

Con la campaña arqueológica en el Santuario de Gastiburu de 1996 se ha iniciado la excavación en profundidad del Lóbulo Este (a partir de ahora L.E.) en su sector oriental. Esta actuación fue planteada para adquirir información complementaria a la secuencia estratigráfica proporcionada por el Lóbulo Norte (a partir de ahora L.N.). Se decidió el trabajo sobre este Lóbulo a pesar de que la imagen geofísica presentaba diferencias en la distribución de las anomalías con las de los Lóbulos S y W (a partir de ahora L.S. y L.W.). Se considera que el L.N., por la forma construida y la selección que de los materiales se hizo, debería haber generado una imagen similar a la que nos ofrece la geofísica en los L.S. y L.W.. Los intereses establecidos como criterios base para esta intervención son la reconstrucción del L.N. y la comparación de la arquitectura de los Lóbulos N y E, considerando la problemática que generan las pendientes de las dos laderas en las que se han construido. En este sentido tenemos que la pendiente de la vertiente norte es menos pronunciada que la sur, del orden de la mitad, debido a la forma de los afloramientos del sustrato rocoso provo-

E-ko eta H-ko Lobuloak. I.L.ak sasi-zelaia okupatzen du, 1. Egitura Txikiarekin (1. E.T.) batera, eta M.L.a ardatz luzeko malda aldatu eta bi mazelak elkartzen diren gunean (ikus plano orokorra).

I.L.a induskatu eta behe mailatik hasi eta eskalinatan bukatzen den eraikuntza-prozesu etengabe bat zehazten dela ikusi dugu; arkitektura-elementu desberdinak ageri dira sekuentzia korapilatsu batean. Antza denez, desberdina da egoera E-ko Lobuloan, eta txandaka agertzen dira I.L.an agertzen ez ziren Unitateak eta Egitura-Unitateak, barnealdeari sasi-zelaien bidez eusteko eta maldan elementuak elkarren gainean ezarriz. Perimetro-horma batek inguratzen du barnealdeko multzoa, ferra-itxura emanez. Multzoa bertan behera etorri ondoren, monumentua ez da mazelatik lerratu; bertan gelditu da, geroago deskribatuko dugun barnealdeko sare-egiturari esker. Eskalinataren perimetroaren indusketari buruzko txostenetan aurreratu genuen bezala, desberdinatsun batzuk egiaztatu genituen, agerikoak ere bazirelako. Honetan ez zen bigarren eustormarik agertzen, I.L.an dagoen bezala, eta honez gainera, euskarri funtzioa betetzen zuen boloeraztuna ere falta zen eta, itxuraz, haren ordez ez zegoen ezer. Halaz ere, desegokiera elektrikoen irudiak erresistntzia handiko multzo baten presentzia salatzen zuen E.L.an. Espero baino linealagoa zen eta geroago hitz egingo dugu hortaz.

Aurten induskatu ditugun E.U.etan, ez da harri landua (hartxabalak, harlanduak, dekorazioa) beste material arkeologikorik agertu eta, horrenbestez, ezin zehaztuko dugu orain arte induskatu eta argiro ezagutu dugun multzoaren osagarri bakoitzaren kronologia erlatiboa eremu aski zabalean eta garapen bertikal osoan zehazterik izan (US - eskalinata, US - goialdeko lerrokadurak, US - horma-sarea).

Gure ikuspegitik, lur-iraulketa bidezko edozein interbentzio arkeologikoren aurreko ezagutza-sistema garrantzitsu gisa agertzen ari dira aspaldidanik kanpaina geofisikoak. Haren papera are garrantzitsuagoa da, gainera, ondarearen gestioan eta hirigintzan. Metodologia honek ekarritako datuei esker salbatu ahal izan dira aztarnategi garrantzitsu batzu (gogora dezagun, esate baterako, Deobrigulako aztarnategia Burgosen), saihestu ahal izan dira ekonomia eta zientziaren aldetik beharrik ez zuten indusketa-lanak, eta laguntza eman dute baliabideak planifikatu, landu beharreko eremuak aukeratu (Cuevasko hiria, Soria) eta, areago, egin beharreko ahalegina neurtzen. Gastiburuko Santutegian era guztietako mugak zituzten ikerketa fisikoetarako baldintza teorikoek, ekonomia alorrean izan ezik. Lortu ziren emaitzek balio eta interes handiko euskarria eskaini digute hasi ondoko bost urteko honetan. Guztiz interesgarria izan liteke emaitzak datu geofisikoen arabera aurkeztea Gastiburuko Santutegiko urtebeteko jarduera azalduko duen agerkari honetan, kontuan harturik beste Lobulo baten indusketa sakonari ekiteko zorian gaudela.

cada por la erosión que ha creado un estrecho falso llano. En la ladera de mayor pendiente, se construyeron los Ls E. y S. El L.N. ocupa el falso llano junto con la Estructura Menor 1 (E.M.1) y el L.W., se sitúa en el cambio general de pendiente del eje longitudinal y la unión de las dos laderas (ver plano general).

La excavación del L.N. nos permite establecer la conclusión de un proceso de construcción continuo desde el nivel inferior hasta la coronación con la escalinata, en el que intervienen elementos arquitectónicos varios en una secuencia entrelazada, en el Lóbulo E., parecen darse unas circunstancias diferentes, con alternancias de Unidades y Unidades Estructurales que no eran usadas en el L.N., en búsqueda de una contención en el interior en falsos llanos, apoyándose en la pendiente mediante la superposición de elementos. Todo este complejo interno tiene como límite un muro perimetral, en forma de herradura. El derrumbe del mismo no ha significado el deslizamiento del monumento por la ladera, sino que éste se ha mantenido por el efecto de la estructuración de retícula interna que presenta y que describimos más adelante. Ya habíamos avanzado en los informes correspondientes a la excavación del perímetro de la escalinata que había diferencias constatadas y constatables. A la ausencia de un segundo muro de contención perimetral, existente en el L.N., se añadía, también, la falta de un anillo de bolos con función de sustentación, que parecían no sustituirse por nada. La imagen de las anomalías eléctricas, sin embargo, mostraban en el L.E. la existencia de un paquete altamente resistivo de ordenación mas lineal que lo esperable y del que hablaremos más adelante.

La falta de materiales arqueológicos diferentes a los obtenidos por la manipulación de la piedra (lajeado, canteado, decorado) dentro de las distintas UU.EE. excavadas este año, no permiten establecer una cronología relativa para cada uno de los distintos elementos del conjunto que hasta ahora hemos excavado y conocido con claridad, US-escalinata, US-alineaciones superiores, US-reticular de muros, en un área suficiente y en todo su desarrollo vertical.

Desde nuestro punto de vista, las campañas geofísicas se han confirmado, desde hace tiempo, como un importante sistema de conocimiento previo a cualquier intervención arqueológica con remoción de suelos. Su papel es aun más relevante en la gestión patrimonial y la urbanística. Los datos aportados por esta metodología han salvado de la destrucción importantes yacimientos como el de Deobrígula en Burgos, han evitado excavaciones innecesarias desde un punto de vista económico-científico por su oportunidad y han ayudado a planificar recursos, decidir áreas donde intervenir (Villa de Cuevas de Soria) e incluso ayudado calcular el esfuerzo a realizar. En el Santuario de Gastiburu las condiciones teóricas para realizar investigaciones geofísicas se encontraban con todas las limitaciones posibles a la investigación, salvo la económica. Los resultados que se obtuvieron han sido un soporte de gran valor e interés a lo largo de los 5 años que han pasado desde que se acometiesen. En esta publicación de difusión de la actividad de un año en el Santuario de Gastiburu y al inicio de una excavación en profundidad de un nuevo Lóbulo, consideramos muy interesante presentar los resultados vertebrándolos según los datos geofísicos.

MATH Geofísica-Consultores ikerketa-taldeak Gastiburuko Santutegian aplikatu zuen prozedura geofisikoak M.L. eta H.L.aren eta E.L.aren artean alde garrantzitsu bat dagoela adierazi zuen (Foru Aldundiaren aurrean aurkezturiko txostenak, 1991-1992). Horrenbestez, berrikusi egin zen ordura arte pilaturiko informazio guztia, hala estratigrafikoa nola geologikoa, eta aztertu egin zen ondoren, E.L.aren azpiko mazelako herrigunea eta paleozoruaren egoera teorian ezagutzeko. Berriro aztertu zen geofisika elektrikoaren bidezko kanpainetako landa-informazioa, 1991. eta 1992. urteetan azterketetan erabilitako programen bertsio gaurkotu batzuen bitartez. Prozesu honi esker, infor-

El procedimiento geofísico aplicado en el Santuario de Gastiburu por el equipo de investigación MATH Geofísica-Consultores, revelaba (informes a la Diputación Foral de 1991-92) una importante diferencia entre los L.W y L.S. con respecto al L.E. Por ello, se procedió a la revisión de toda la información recopilada durante estos años, tanto estratigráfica como geológica, procediendo a su examen para conocer en teoría la aldea y la situación del Paleo suelo en esa ladera bajo el L.E. La información de campo de las campañas de geofísica eléctrica, fue recalculada por versiones actualizadas de los programas de análisis usados en 1991 y 92. Este reprocesado ha permitido acceder a la mayor informa-




Gastiburuko santutegi protohistorikoa. Arratzu. Bizkaia.

mazio gehiago bildu dugu eta emaitzak sistema grafiko desberdin batez (degradaturiko kolore-masak) aurkeztu ditugu. Indusketa-eremua landu dugu bereziki.

Ekialdea aukeratu genuen lanerako eta halaxe proposatu genion Bizkaiko Aldundiari; izan ere, alde hartako erdi/behe-mailako desegokierek proiekzio angeluzuzeneko egitura ortogonal karratu bat eratzen zuten (ortogonala zen, halaber, proiekzioa). Ekialdea erdi/goimailako eta goi-mailako eremuetan dago, eta ez da hori gertatzen Lobuloaren M-ko sektoreak eskainitako irudian, errsistentzia handiagoko mailak baitaude honetan. Informazio hau aldendu egiten da beste bi Lobuloetan lortu denetik eta urruntzen da, halaber, I-ko Lobuloaren indusketan lorturiko datuetatik; hori bai, bi egitura lauangeluarrak oro har elkarren antzekoak ziren, eta joera oboideko espazio baten barnean zeuden betiere.

Miaketa geofisikorako lanak garai desberdinetan egin izana (eta honekin batera kontuan hartu behar da garai horien aurreko hiru hilabeteetako euri-erregimena oso desberdina izan zela), ez zen inoiz aintzat hartu desegokieren banaketa desberdina azaltzerakoan, nahiz, eta hau ukaezina bezain egiazkoa da, errealitate horrek eragina izan duen zoruaren konduktibitatea zehazterakoan. Dispositibo geoelektrikoak zorutik metro betera edo bi metrora lorturiko irudiek oso antzeko desegokierak eskaintzen dituzte sakonera desberdinean. Argiro zehaztu dira antzekotasun horiek 1. eta 2. irudien isoerresistibitate-kurbetan.

E sektoreko indusketa-lanek geofisikaren bitartez lorturiko irudiekin bat datozen barne-egitura eta banaketa utzi ditu agerian. Emaitzak hor daudela, kontsiderazio garrantzitsuak egin ditzakegu lan geofisikoen eta berauen interpretazioaren aurrean. Esan dezagun lehenik, arestian aipatu eta 1991 eta 1992ko txostenetan zehaztu zen bezala, aztarnategi honek ez dituela azterketa geofisikoetarako baldintza hoberenak betetzen, maldak handiengatik eta azaleran dauden zuhaitz eta harri ugariengatik. Emaitzek, halaz ere, beta ematen digute E.L.an lorturiko irudiak eta emaitza arkeologikoak orain arte bat datozela esateko.

Ohar interesgarri bat egin behar dugu Santutegiko eraikuntza-egitura bati buruz, eskalinatei buruz hain zuzen ere. Indusketaren ondoan, lehenengo kanpainetako datuak, sakonerak eta datu geofisikoak, eta aurtengo kanpainan hartu ditugun neurri osagarriak eskuetan ditugula, garbi esan dezakegu azaleraren azpian eskalinataren egitura ez dela geoelektrikoki islatu bertikalean ia garatu ez den maila horizontala delako, eta horrez gainera, eten garrantzitsu batzuk, horizontalak eta bertikalak, dituelako. Halaz ere, egitura horrek badu eragina, zalantzarik gabe, zorupeko eraikuntza-sekuentziaren araberako desegokieren irakurketetan.

Eskalinata hau induskatu eta xehe aztertu ondoren, agerian utzi da eraiki aurretik haren planoak egin zituztela eta beste hainbeste gertatu zela Santutegia osatzen duten gainerako elementuekin. Halatan, eskalinatak modulu-sistema bat islatzen du eta sistema baten arabera banatu ziren, halaber, dekoraturiko hartxabalak. Lurrean finkaturiko hartxabalak eta lur gainean zabalduriko hartxabalak txandaka atontzeko erak baieztatzen digu I.L.ko eskalinatan deskribaturiko irudia (*Arkeoikuska 95*). Hartxabal bertikaletan bakarrik, era sistematikoan agertzen dira intentsitate desberdineko

ción y representar los resultados bajo un sistema gráfico distinto (masa de color degradadas), centrándonos especialmente en el área de excavación.

La zona seleccionada para realizar el trabajo y propuesta a la Diputación Foral de Bizkaia, fue la zona Este, por observarse que las anomalías de rango mediobajo formaban una estructuración ortogonal cuadrada con una proyección rectangular, así mismo ortogonal. Su localización entre áreas de rangos medios-altos y altos supone una variación con respecto a la imagen ofrecida por el sector W. del Lóbulo, de mayores rangos resistivos. Esta información difiere de la obtenida en los otros dos Lóbulos y se desmarca con respecto a la excavada en el Lóbulo N, si bien quedaba la similitud general de estructuras cuadrangulares dentro de un espacio de tendencia ovoidea.

La distintas épocas en las que fue realizado el trabajo de prospección geofísica, con una importante diferencia en el índice pluviométrico de los tres meses anteriores, no había sido considerado nunca motivo suficiente para explicar la distinta distribución de las anomalías, aunque, es innegable y obvio, que este hecho haya influido en la conductividad del suelo. Las imágenes obtenidas con los dispositivos geoeléctricos dispuestos a 1 y a 2 m. reflejan un paralelismo de las anomalías a diferente profundidad. Estas similitudes están representadas en las figuras 1 y 2 de curvas de isorresistividad.

La excavación del sector E., ha desvelado una estructuración y compartimentación interna coherente con las imágenes obtenidas en geofísica. Dados los resultados, podemos hacer consideraciones importantes a los trabajos geofísicos y a su interpretación. En primer lugar, reiterar, tal y como ya hemos citado y como se expuso en los informes de 1991 y 1992 que este yacimiento no presenta las mejores condiciones para realizar estudios geofísicos debido a las pendientes, al arbolado y la pedregosidad existente próxima a la superficie. Los resultados, sin embargo, nos permiten afirmar que la imágenes obtenidas para el L.E. son hasta el momento coincidentes con los resultados arqueológicos.

Tenemos que hacer una notación de interés en cuanto a una de las estructuras constructivas del Santuario, como son las escalinatas. Después de la excavación y con los datos de las primeras campañas, profundidades y datos geofísicos, y las medidas eléctricas adicionales realizadas esta campaña, establecemos, que bajo la superficie, la estructura de la escalinata no queda reflejada geoeléctricamente por ser un nivel horizontal con escaso desarrollo vertical e importantes discontinuidades, tanto horizontales como verticales, pero que indudablemente influencia las lecturas de las anomalías provocadas por la secuencia constructiva subyacente.

La excavación de esta escalinata y su estudio pormenorizado ha puesto de relieve la existencia de una planificación previa a su construcción, aspecto extensivo al conjunto de elementos que forman el Santuario. De esta manera, la escalinata reproduce un sistema modular y una sistemática en la distribución de las lajas con decoración. La forma de alternar lajas hincadas en filas y lajas a plano, configuran la imagen ya descrita para la escalinata del L.N. *(Arkeoikuska 95).* En las lajas verticales encontramos, de formas sistemática y exclusiva, un conjunto de rayados de distinta

marradura batzuk, bi norabidetan: bertikalean eta zeharka, eskuin-ezker azken hauek. Horrela estaliriko aldea zoruaren mugaraino zabaltzen da eta sakoneran gainditzen du muga hori zenbait tartetan. Dekoraziomota hau Lobuloaren kanpoaldera, hegoaldera kasu honetan, orientatzen da beti. Zabalean lerrokaturiko hartxabalen kasuan, azalera pikatuz bideratu da dekorazioa: ez da osorik pikatu, ez da pikaturiko guztia intentsitate, lodiera edo zabalera berberean egin ere. Oso gutxitan agertzen dira bi dekorazio-molde hauek nahasian, baina bai erabili beharreko motiboa aldiro hautatu zela konturarazteko adina alditan. Guztizkoaren %30etik gora da in situ dekoraturiko materiala. Dekoraziotzat hartu dugun marka-multzo honi, lan-marka

intensidad con dos orientaciones, verticales u oblicuos, estos últimos a derecha o a izquierda, llegando el área cubierta hasta el límite del suelo y en algunos casos sobrepasándolo en profundidad. Esta decoración se sitúa siempre orientada hacia el exterior del Lóbulo, en este caso al sur. En el caso de las filas a plano, la decoración es un repicado de la superficie, no toda, ni en la misma intensidad, grosor y profusión. Estas dos formas decorativas en pocos casos se mezclan, pero si en los suficientes como para corroborar la idea de selección del motivo a usar. El conjunto de material in situ decorado representa más del 30%. A este conjunto de marcas que consideramos decoraciones, hay que sumarle la presencia de marcas de




Gastiburuko Santutegia: E. Lobuloa. Geofisika 2 m-tara eta aurkituriko hormekiko loturak.

Santuario de Gastiburu: Lóbulo E. Geofísica a 2 m. y correlación con los muros hallados.

batzuk erantsi beharko genizkioke: zizelen muturren arrastoak, abrasioaldeak eta hartxabalen ertzak, dauden lekuan egonda, aldarazi dituzten jarduerak (ebakiak edo pikadak, edo biak).

Lobuloaren osagarri hau induskatu eta erretiratu ondoren azaldu zen buztinazko behe-maila, eta hartan agertu ziren hartxabal-lerroak zabal luzatuak edo lurrean finkatuak, zabal gehienak, eta buztinen mailaren azpian. Eskalinataren arkuaren arabera ordenatu ziren, eta batetik bestera bazen gutxienez 20 cm-ko tartea.

Ikuspegi geofisiko batetik aztertuta, egitura hau "gardena" gertatzen zen, hartxabalak eskas samarrak baitziren, eskalinatan bezala; izan ere, bertikalean ia garatzen ez den maila horizontala da, eten handiak dituena, baina eragina izango du behealdeko desegokieren irakurketetan; kontuan hartu behar dira, gainera, eskalinata hor dagoela.

Ilara hauen azpiko sekuentzian gainetik estaltzen duen lur buztintsu berbera agertzen da. Maila honen azpian gertatzen da aldaketa garrantzitsu bat. Buztinak eta hartxabalek bidea utzi diote multzo erregularretan banaturiko lutita eta hareharrizko eremu guztiz trinko bati; ondoren ikusiko dugu aurrez bereizturiko eremuak direla horiek.

Hegoaldeko mazelaren malda patartuek euste eta sendotze-lan konplexu bat eskatu zuten Lobuloa bertan behera etor ez zedin. Bistan denez, gaurko egunean mazelako gune gorenetik 3,5 m-ra, eta perimetroaren erdialdeko puntuan 4 m-tik gora, igotzen den elementu batek eutsiko dion egitura konplexu bat behar du, soil-soilean hormaren gainean berma ez dadin. Egitura hura horma ortogonalen bilbe bat zen eta horma horiek sare bat osatzen zuten erdialdeko espazio angeluzuzenaren bi aldeetara. Datu geofisikoek baieztaturiko hipotesia da simetriarena. Sare honek 1,2 x 2,1 m-ko moduloak zituen eta 50-70 cm bitarteko altueran igaotzen zen. Haren betegarrian erabili zen materiala hormetakoa ez bezalakoa zen eta datu hori nabarmena zen, halaber, datu elektrikoen bidez sorturiko planoetan (ikus irudiak).

Orain arte argi eta garbi frogatu dugu erdi/behemailako zantzuek lutita-multzoak adierazten dituztela eta, zehazturiko balioen segmentuaren arabera, bi mota bereizten ziren: maila handikoak, lur buztintsu gutxi eta lutita handiak eta beste puska txikiago batzuk dituzten espazioak; maila txikikoak, segmentuaren barnean betiere, lur buztintsu ugari eta lutita eta hareharri degradatuak (gutxi) eta lutita ertain/handi gutxi batzuk. Erdi/goi-mailako desegokiera-aldeetan hareharrizko egitura bertikalak eta hareharrizko-boloz eginiko betegarriak ikus daitezke; erdi/goi-mailako eta behe-mailako desegokieren arteko mugan daude lehen egiturak. Desegokieren eta egituren arteko erlazioa 2D-3D irudietan ikus daiteke eta eraikinen gainezarpena, berriz, desegokieren plano batean.

Sare honen azpitik sakondu genuen zundaketa baten bidez eta argi egiaztatu ahal izan genuen oraindik ere paleozoruaren gainetik ari ginela, beste eraikuntza-

trabajo, huellas de bocas de cinceles, zonas con abrasión y actuaciones que modifican los cantos de las lajas, sea cual sea su posición, con incisiones o repiqueteados o ambos.

La excavación y retirada de este elemento del Lóbulo, permitió alcanzar un nivel inferior de arcillas entre las que se hallaban dispuestas filas de lajas a plano o hincadas, la mayoría a plano, por debajo del nivel de esas. Se hallan ordenadas siguiendo la pauta de arqueo de la escalinata, si bien entre una y otra hay 20 cm. de distancia, al menos.

Desde un punto de vista geofísico esta estructuración es igualmente "transparente" debido a la escasez de entidad de las lajas, al igual que en la escalinata, por ser un nivel horizontal con escaso desarrollo vertical e importantes discontinuidades, pero que influenciará las lecturas de las anomalías inferiores, debiéndose, además, tener en cuenta la existencia de la escalinata.

La secuencia por debajo de estos alineamientos es un paquete de arcilla de la misma apariencia que la que los cubre. Es por debajo de ellos cuando se encuentra un cambio importante. La presencia de arcillas y de lajas da paso a un terreno muy compacto de lutitas y areniscas dispuestas en paquetes localizados con aspecto regular; con posterioridad se verá que son zonas seleccionadas.

Las fuertes pendientes de la ladera sur han motivado un complejo trabajo de sustentación y afianzamiento contra el deslizamiento del conjunto del Lóbulo. Es evidente que un elemento que mantiene una altura de 3,5 m. aproximadamente sobre la ladera en el punto más alto conservado hoy, pero que podría ser mayor a 4 m. en el punto medio del perímetro, necesita de una estructura compleja que lo soporte y haga que no descargue exclusivamente sobre el muro. Esa estructura va a ser un entramado de los muros ortogonales entre ellos que forman una retícula a ambos lados de un espacio rectangular central. La simetría es una hipótesis soportada en los datos geofísicos. Esta reticulación en módulos múltiplos de 1,2 y 2,1 m. tiene una altura de 50 a 70 cm. El material usado en su relleno es diferente al de los muros, aspecto que se apreciaba en los planos generados por los datos eléctricos (ver figuras).

Hasta el momento se ha comprobado que los rasgos medios-bajos se corresponden con la presencia de paquetes de lutitas en los que diferenciamos, para el segmento de valores establecidos, dos tipos que serían, los de mayor rango para rellenos con escasa matriz arcillosa de lutitas de tamaño grande y fragmentos de menor entidad rellenando espacios; para los de rango menor, dentro del segmento, encontraríamos una matriz arcillosa mas abundante con lutitas y areniscas degradadas (pocas) y escasos fragmentos de entidad media-grande de lutitas. En las zonas de anomalías medias-altas se encuentran tanto estructuras verticales de areniscas como rellenos de bolos de arenisca, siendo las primeras límites de anomalía entre medias-altas y bajas. La correspondencia entre las anomalías y las estructuras se pueden ver en las imágenes 2D-3D y la superposición de las construcciones sobre un plano de anomalías.

La profundización por debajo de esta retícula, mediante un sondeo, puso de manifiesto que aún estamos por encima del paleosuelo, ya que se hallaron

sekuentzia batzuk agertu baitziren. Eraikuntza-sekuentzia hau aztertuko dugu 1997ko indusketa-kanpainan.

Aspektu interesgarria zen erdialdearen eta kanpoaldeko mugaren artean bolo-multzo bat ote zegoen egiaztatzea, goi-erresistentziako eremu lineal honek ez baitio sarearen ereduari segitzen baizik eta bira egiten du perimetroko hormaren orientabideari jarraiki. Indusketa garaian, molde horretakotzat har litekeen bolo-multzo bat agertu zen, baina bertikalean oso lodiera eskasekoa zen eta plano inklinatuan, Lobuloaren erdialderantz, garatzen den UE baten gainean bermatzen zen. Multzo hori buztintsuagoa da itxuraz eta 1997ko kanpainan induskatuko da. Halaz ere, itxura horrengatik ere, elementu honek erresistentzia-maila handia du, boloen lodiera eskasa den arren eta lurazaletik oso hurbil dagoen arren, eta ez dago alderik bi dispositiboek eskaini dizkiguten irudietan. Aurrez esan bezala, zera da eremu honen eta I.L.ko bolo-eraztunaren arteko desberdintasuna, oraingo eremua perimetrotik urrun dagoela, erdi-mailako eta erdi/behe-mailako desegokieren arteko mugatik hurbil.

Indusketa-lanetan frogatu ahal izan dugun bezala, erlazio estua dago aurkituriko egituren eta geofisikak eskainitako datuen artean. Datu hau aurreratu eta egiaztatu zen halaber Bizkaiko Foru Aldundian Gastiburuko Santutegian aurre-miaketa geofisikoaz bideratu ziren beste eremu batzuei buruz aurkeztu ziren txostenetan. Indusketa garaian jardueran jarri dugu berriro miaketa interpretatzeko sistema, eguneratu ditugu aurreko interpretazioak eta informazio berria kargatu dugu sistematikoki induskatu beharreko edo induskatzen ari garen eremuen aldez aurreko ezagutza zabaltzeko, dagoeneko landu diren eremuetan jasotako datuekin alderatzeko. Horretarako, datuak hartu ditugu lan-prozesu guztietan eta haien bidez ebaluatu ahal izan ditugu desegokierak atzeman diren eremuen sakonera-mailak. Prozedura honi esker, ±1,5 m-ko balioak lortu ditugu Gastiburuko Santutegi aztarnategian aplikaturiko dispositibo geofisikoaren bidez.

Eremuaren topografia ikertu eta E.L.an aztarnategiak 3 bat metroko sakonera duela kalkulatu genuen. Datu hau egiaztatu ahal izan dugu aurten aurkituriko hormen oinarrian harturiko neurri puntualen eta arkitektura-egitura berriak badirela erakutsi digun zundaketaren bitartez.

Aurtengo indusketa-kanpainan neurri handian zabaldu da aztarnategiaren gainean dugun ezagutza. Ezagutu dugu nolako aldea dagoen itxuraz antzekoak diren kanpoaldeko bi elementuren artean (topografia, teknika eta geologia mailan) eta haien barne-egiturarako bide desberdinak erabili zirela era berean. Bi arrazoi nagusi izango zuen alde honek: alde batetik, multzoari eutsi behar zioten bi elementu hauek baina malda desberdineko mazeletan, eta beste aldetik, haien barnealdea gorde behar zen, haien barnealde guztietan gorde beharreko zerbait bazela dioen hipotesia egiazkoa bada bederen.

nuevas secuencias de construcción. Esta nueva secuencia constructiva quedó pospuesta a su excavación en la campaña de 1997.

Un aspecto que resultaba interesante es la posibilidad de una existencia de un acúmulo de bolos entre la zona central y el límite exterior, zona de alta resistividad de aspecto lineal pero que no sigue la pauta de la retícula sino que se presenta girada siguiendo la orientación del muro perimetral. Durante la excavación, se apreció la existencia de una acumulación de bolos que podría ser considerada de esa forma si no fuese por que posee una escasa potencia vertical y se asienta sobre una UE que se desarrolla en plano inclinado en dirección hacia el centro del Lóbulo. Presenta un aspecto bastante más arcilloso y su excavación ha quedado pospuesta a la campaña de 1997. Sin embargo, a pesar de su apariencia, este elemento sigue teniendo una alta resistividad, a pesar de lo escaso de la potencia de los bolos y de lo próximo que se halla de la superficie, no hay diferencia en la imagen proporcionada por los dos dispositivos. Esta zona, como se ha apuntado con anterioridad, se diferencia del anillo de bolos del L.N. en que su presencia se detecta en una zona alejada del perímetro y junto a los límites de las anomalías medias y medias-bajas.

Tal y como se ha comprobado a lo largo de la excavación existe una importante correlación entre las estructuras halladas y los datos de la geofísica. Este aspecto había sido adelantado y expuesto en los distintos informes que sobre el Santuario de Gastiburu se han presentado a la Diputación Foral de Bizkaia de otras zonas en las que se había trabajado con prospección geofísica previa. Durante la excavación se ha reactivado el sistema de interpretación de la prospección, pudiendo actualizar las interpretaciones y proceder de forma sistemática a la recarga de información que amplía el conocimiento previo de las zonas que se van a excavar, o que se están excavando, en relación al conjunto del área trabajada. Para ello, hemos realizado tomas puntuales de datos durante los procesos de trabajo lo que nos proporciona la posibilidad de una evaluación de los niveles de profundidad a los que han sido detectadas las anomalías. Este procedimiento nos ha facilitado estimar que con el dispositivo geofísico aplicado en el yacimiento del Santuario de Gastiburu, hemos alcanzado ±1,5 m.

El estudio de la topografía de la zona nos permitió calcular que el yacimiento podría tener una profundidad en el L.E. de aproximadamente 3 m. Este aspecto queda confirmado por las medidas puntuales tomadas este año en la zona de base de los muros hallados, y por el sondeo realizado que ha descubierto nuevas estructuras arquitectónicas.

Esta campaña de excavaciones ha aportado un considerable aumento del conocimiento de este yacimiento. Podemos resumirlas en el conocimiento de la diferencia entre dos elementos formalmente similares en el exterior (topográfica, técnica y geológicamente) y las distintas soluciones en su estructura interna, muy posiblemente debidas a dos causas, la función de contención del conjunto en pendientes de distinto porcentaje de inclinación y la de preservación del interior, si la hipótesis de que hay algo preservable en todos ellos, es cierta.

*Luis Valdés*

## A.2.1.2. Pareko Landako haize zabaleko aztarnategia (Busturia-Bermeo)

II. Indusketa-Kanpaina

Juan Carlos López Quintanak zuzendua

Bizkaiko Foru Aldundiak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuak eta Busturiako Udaleko Kultura Arloak subentzionatua

## A.2.1.2. Yacimiento al aire libre de Pareko Landa (Busturia-Bermeo)

II Campaña de Excavaciones.

Dirigida por Juan Carlos López Quintana.

Subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia, Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y Area de Cultura del Ayuntamiento de Busturia.

***Open-air site at Pareko Landa (Busturia-Bermeo). Directed by Juan Carlos López Quintana.***
*Pareko Landa (Busturia-Bermeo) site is on the west bank of the Urdaibai river basin in the Sollube small mountain range. It is an open-air human occupation below the south-orientated sandstone strata. The stratigraphy of the Pareko Landa reflects the first appearance of a tendency to Neolithic techniques amongst the hunting and gathering Mesolithic populations and attributable to the non-geometric Epipaleolithic period. The enlargement of these industrial activities in the higher area does not appear to alter its socioeconomic background.*

Pareko Landako (Busturia-Bermeo) aztarnategia Sollubeko mendilerroan dago. Urdaibai arroa mugatzen du mendilerro horrek mendebaldetik. Haize zabaleko okupazio bat da, eta Sollube Txikerra eta Tribis Buru tontorren artean dago, hegoalderantz orientaturiko hareharrizko estratu batzuen azpian, itsas mailatik 526 m gora. Ikusmira zabaleko lepo batean dago eta, beraz, balio estrategiko handiko lekua da. Litologiari dagokionez, Sollubeko ia mendi guztia osatua dago hareharri-lutitazko flysch-alternantzia batez. Zoruak lodiera eta garapen eskasekoak dira, 0 eta 40 cm bitartekoak oro har.

Pareko Landako indusketa sistematikoa Paleolitos Aroaren ondoko Atlantiko aldeko Euskal Herriko populazioa aztertzeko proiektu baten barneko interbentzioa da, eta haren arabera zehaztu nahi dira tokian tokiko finkamendu-motak, garapen kronoestratigrafikoa, esparru geografikoa eta paleogiroa. Landa-lanak bi kanpaina intentsibotan garatu dira (1995-1996), eta lau eta bi hileko iraupena izan dute biek hurrenez hurren. Indusketa-lanak bukatu dira eta 17 metro karratu landu dira guztira. Halaz ere, beste zundaketa-kanpaina bat programatu da aztarnategiaren hedadura zehatz-mehatz mugatzeko.

Indusketa koordenatu cartesiarren metodoaren bidez arautu da (LAPLACE, G; 1971) eta aztarna arkeologikoen kontrol tridimentsionala bideratu da. Depositua altxatzeko, 1994ko zundaketa-kanpainan zehaztu zen estratigrafian oinarritu gara eta 5 cm-ko lodierako erdi-tailak egin ditugu, geruza bakoitzaren okermendua kontuan harturik eta sakonerak zehazki erregistratuz. Sedimentua 3 mm-ko metalezko bahe batez bereizi da eta lagin batzuk hartu dira indusketa-prozesuan zehar: erradiokarbonometria, Arkeobotanika, Palinologia eta Sedimentologia. Estratigrafia Analitikoaren printzipioen arabera aztertu da depositu arkeologikoa.

Zundaketa estratigrafikoen kanpainan (1994) sei metro karratu landu ziren eta edukin arkeologikoa zuten bi egitura estratigrafiko bereizi ziren:

El yacimiento de Pareko Landa (Busturia-Bermeo) se localiza en el cordal de Sollube, barrera montañosa que limita por el Oeste la cuenca de Urdaibai. Se trata de una ocupación al aire libre bajo una línea de estratos de arenisca orientada al Sur, situada entre Sollube Txikerra y Tribis Buru, a 526 m. s.n.m. Su emplazamiento en un collado de gran visibilidad le confiere al sitio una situación estratégica. En cuanto a la litología, prácticamente la totalidad del monte Sollube está compuesto por una alternancia flyschoide de areniscas y lutitas. Los suelos son de escaso espesor y desarrollo, oscilando, de forme general, entre 0 y 40 cm.

La excavación sistemática del sitio de Pareko Landa forma parte de un proyecto de estudio del poblamiento postpaleolítico en el País Vasco atlántico, y se ha orientado a definir el tipo de asentamiento, el desarrollo cronoestratigráfico y su marco geográfico y paleoambiental. Los trabajos de campo se han organizado en dos campañas intensivas (1995-96), con una duración de cuatro y dos meses respectivamente. La excavación propiamente dicha se ha dado por concluida, habiendo excavado un total de 17 metros cuadrados. No obstante, se ha programado una campaña de sondeos para delimitar con precisión la superficie del yacimiento.

La estrategia de excavación se ha regulado por el método de coordenadas cartesianas (LAPLACE, G.; 1971), con control tridimensional de las evidencias arqueológicas. El levantamiento de la masa del depósito, en base a la estratigrafía detectada en la campaña de sondeos de 1994, se ha realizado en medias tallas de 5 centímetros de espesor, siguiendo el buzamiento de cada capa y con riguroso registro de las profundidades. El sedimento se ha cribado con cedazo metálico de 3 mm. y se han tomado una serie de muestras durante el proceso de excavación: radiocarbonometría, Arqueobotánica, Palinología y Sedimentología. El depósito arqueológico se ha analizado desde los principios de la Estratigrafía Analítica.

Durante la campaña de sondeos estratigráficos (1994), desarrollada sobre seis metros cuadrados, se individualizaron dos estructuras estratigráficas con contenido arqueológico:

– Hbk: hondar beltzeko sedimentu klastoduna. Harrizko tresnak agertu ziren, Neolitos Aroaren antzinako garai batekoak.

– Hlmb: hondar-limo marroizko sedimentu blokeduna. Dortso-xaflatxoak dira bertan aurkitu diren harrizko tresna gehienak.

Indusketa-eremua 11 metro karratu zabaldu ondoren, zundaketa-kanpainan atzemanikoa baino sekuentzia estratigrafiko konplexuago bat azaldu da eta osatu behar izan dugu 1994an proposatu genuen eskema estratigrafikoa. Sedimentuen garapena ez da homogenoa aztarnategiaren azalera guztian eta egoera estratigrafiko desberdinak ikus daitezke. Honen arrazoi nagusia da bertako geologia-geomorfologia: hareharri eta lutita-multzoak, substratu litologiko nahasia eta irregularra sortarazten dutenak. Depositatuaren estratigrafiaren arabera, hiru egitura bereiz daitezke bi multzo handitan: goi-mailako multzoan (Hb) nagusi dira koalitatiboki datu antropikoak; behe-mailako multzoan (Hlm) nagusi dira sedimentuetako elementuak eta bi egitura estratigrafiko bereizten dira hartan (Hmtr eta Hmbl).

### 1) *Hb egitura estratigrafikoa (Hondar beltzeko sedimentua)*

Hondarrezko geruza beltza, grisa aztarnategiaren ekialdean, neurri ertaineko harri-puska lodiak kopuru handian, klastoak (Hbk) nagusi 15/13 bandetan eta blokeak (Hbbl) 11/9 bandetan. Geruza honen lodiera

– Arnc: sedimento arenoso negro con clastos e industrias líticas encuadrables en un momento antiguo del Neolítico.

– Armb: sedimento areno-limoso marrón con bloques. La industria lítica queda caracterizada por el grupo de las laminitas de dorso.

Tras ampliar la superficie de excavación en 11 metros cuadrados se ha constatado una disposición estratigráfica de mayor complejidad que la detectada en la campaña de sondeos, completando el esquema estratigráfico propuesto en 1994. El desarrollo sedimentológico no es homogéneo en toda la superficie del yacimiento, apreciándose diferentes situaciones estratigráficas. Esto es debido, en gran parte, a la geología-geomorfología del lugar: bancos de areniscas y lutitas que constituyen un sustrato litológico accidentado e irregular. La articulación estratigráfica del depósito podría sintetizarse en tres estructuras comprendidas en dos grandes conjuntos: en el superior (Arn) destacan cualitativamente los datos antrópicos; en el inferior (Arlm) predominan los atributos sedimentológicos, distinguiéndose dos estructuras estratigráficas (Armk y Armb).

### 1) *Estructura estratigráfica Arn (Sedimento arenoso negro)*

Capa arenosa negra, grisácea en el área oriental del yacimiento, con presencia relevante de fracción media-gruesa, predominando en las bandas 15/13 los clastos (Arnc) y en las bandas 11/9 los bloques (Arnb).



Pareko Landa (Busturia-Bermeo). Hb egitura estratigrafikoa, 4. erdi-taila.

Pareko Landa (Busturia-Bermeo). Estructura estratigráfica Arn, 4.ª semitalla.

aldatu egiten da aztarnategiaren garapen topografikoan zehar (10-30 cm). Geometrismoa da hartan azaldu den tresneriaren ezaugarri nagusia, eta kopuru handian agertu dira alaka bikoitzez apainduriko segmentuak. Haren barne-egitura osatzen dute elementu paletnologiko antolatu batzuk (hobia, blokeak haren inguruan banatuak, azalera gorrituak, eta abar), multzo estratigrafikoa era koalitatiboan zehazten dutenak. Egitura antropiko gisa azaldu da guztia oraingoz.

1.1) Hob-Hb: Hmk eta Hmb egiturak (11D, 11C eta 11Baren parte bat) mozten duen hobia. Hondarrezko sedimentu beltz bat du, material paleobotaniko ugari, puska handiak goialdean (Hobgoi-Hb) eta finagoa behealdean (Hobbehe-Hb). Hobi honi loturiko bloke batzuk (Hbbl) agertzen dira era berean.

1.2) BeheSut-Hb: Hb egituraren behealdian dauden azalera gorrituak (13B eta 11B koadroak), hondarrezko sedimentu oso trinko batean, kolore gris-laranjaz. Gorritze-zeinuak dituzten hiru plaka bereizi ditugu; elkarren ondoan daude eta askotan erabiliko zen sutondo bat mugatzen dute.

Bestalde, egitura estratigrafiko global honek desberdintasun sedimentologiko batzuk ageri ditu bere garapen topografikoan. Izaera berezia ematen diote multzo estratigrafikoari gune batzuetan.

- Hbk: klastoak 15/13 bandetan.
- Hbbl: blokeak nagusi 11/9 bandetan, hobiaren inguruan.
- Hghau: sedimento gris hauts kolorekoa 7D, 5D eta 3D koadroetan.
- Hb-N: eremu nahasia 9B koadroan, mikrougaztunen ekinaren ondorioz.

## 2) Hlm multzo estratigrafikoa (Hondar-limozko sedimentu marroia)

### 2.1) Hmtr egitura estratigrafikoa (Hondar-limozko sedimentu marroi trinkoa)

Horizontalean aztarmategiaren eremu txiki bat (9C, 9B, 11C eta 11B koadroak bereziki) hartzen duen unitate estratigrafikoa da hau. Oso multzo homogenoa da, habitat-espazio bati dagokion sakongune txiki bat betetzen duena. Lur fina da nagusi, hondar trinkoak (limo bihurtzeko joeraz), oro har, kolore marroi-laranja dutenak. Neurri txikiagoan ageri dira puska lodiak, blokeak eta klastoak. Egituraren garapen topografikoaren lodiera desberdina da guneen arabera: geruza fin bat kubetaren ertzetan eta 30 cm-ko lodiera haren erdialdean (9B/9C koadroak).

Hmtr egitura estratigrafikoa oso aberatsa da material arkeologikoei dagokienez: aztarna paleobotaniko ugari (kiskalitako hur-azal asko) eta Mesolitos Aroko tresnak, Neolitos Aroko teknika-zantzu batzuekin goialdean. Bi okupazio-maila bereiz daitezke honetan:

con los que proporcionan los materiales más abundantes recuperados en anteriores campañas durante la excavación del recinto “C”. No se ha reconocido en cambio ningún elemento estructural que se pueda asignar a este momento, por lo que cabe pensar que las piezas procedan bien de un vertedero o bien de un hábitat muy precario, posibilidad ésta que no es descartable dados los testimonios que en tal sentido ofrecen otras zonas cercanas dentro del yacimiento.

*Juan José Cepeda, Iciar López Carreño.*




Aloria. Y barrunbea. Burdin mearen erredukziorako labeak.

Aloria. Recinto Y. Hornos para la reducción de mineral de hierro.

## A.2.1.6. Garazabal 2 lezea (Trucíos - Turtzioz)

Javier Gorrochategui Nietok zuzendua.

Bizkaiko Foru Aldundiak subentzionatua.

## A.2.1.6. Cueva de Garazabal 2 (Trucíos-Turtzioz)

Dirigida por Javier Gorrochategui Nieto.

Subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

*Garazabal Cave. 2 (Trucíos-Turtzioz). Directed by Javier Gorrochategui.* *During the campaign work has continued on a series of structures localised in previous campaigns, which has enabled a study of several hearths show "a high frequency site". The materials recovered in its stratigraphical context are - according to Javier Gorrochategui - "characteristic of Ancient Epipaleolithic, i.e. non-geometric, consisting of bone features of a not very abundant or varied type and stonework where the most representative tool is the back in multiple sizes and varieties, together with raspers, awls, saws and all kinds of subproducts of flint stonework related to the extraction of flakes and small flakes".*

Kanpaina honetan segitu dugu aurreko kanpainetan aurkituriko egitura batzuk lantzen, eta bereziki aztertu ditugu sutondo batzuk, "leku hura maizetan erabili zela" salatzen digutenak. Javier Gorrochateguik idatziriko interbentzio-txostenean adierazten den bezala, kontestu estratigrafikoan azaldu diren materialak "Lehen Epipaleolitos Arokoak dira inondik ere, hau da, ez dago geometrikorik, hezurrezko tresna-motak gutxi eta anitzak dira, eta dortsoak, era eta neurri guztietakoak, dira nagusi harrizko tresnen artean; ageri dira, halaber, arraskailuak, zizelak, zerrak eta sukarrizko xafla eta xaflatxotan landuriko pieza-mota txikiak, era guztietakoak hauek ere".

Durante la campaña se ha continuado trabajando sobre una serie de estructuras localizadas en campañas anteriores, lo que ha permitido estudiar algunos hogares que denotan "una notable frecuentación del lugar". Los materiales recuperados en su contexto estratigráfico son –según consta en el informe de la intervención redactado por Javier Gorrochategui– "características de un Epipaleolítico Antiguo, es decir, no geométrico, compuesto por una industria ósea con tipos poco abundantes y variados y una industria lítica donde el útil más representativo es el dorso, en múltiples tamaños y variedades, acompañado de raspadores, buriles, sierras y todo tipo de subproductos de la talla del sílex relacionados con la extracción de láminas y laminillas".

*Historia Ondarerako Zerbitzua / Servicio de Patrimonio Histórico*
*Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia*

# A.3. **GIPUZKOA / GIPUZKOA**

## A.3.1. *INDUSKETAK*

### A.3.1.1. **Mendikuteko Erdi Aroko gotorlekua (Albiztur)**

V. Indusketa kanpaina

José I. Padilla Lapuentek zuzendua

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoa/Donostia Kutxa Fundazioak subentzionatua.

## A.3.1. *EXCAVACIONES*

### A.3.1.1. **Fortificación medieval de Mendikute (Albiztur)**

V Campaña de Excavaciones.

Dirigida por José I. Padilla Lapuente.

Subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Fundación Gipuzkoa/Donostia Kutxa.

***Medieval fortification at Mendikute (Albiztur). Directed by José I. Padilla Lapuente.***
*The task of excavation during this last campaign has mainly centred around the study of the old levels at the fortification so as to carry out the analysis of the east sector. As firstly supposed, the many contemporaneous alterations, which have considerably affected the ancient stratigraphy of a great part of the fortress area, have not affected this sector much. These circumstances have allowed us to document the meal preparation area in the last phase as a medieval garrison. In spite of the rustic appearance of these structures, features and monetary finds present us with a clear chronology within the first decades of the XIV century as far as use of the three recorded hearths is concerned. They also confirm a likely date for the abandonment of the fortress as being within the second quarter of the same century.*

Joan den udan Mendikuteko kastroan bideratu genuen kanpainan ekin genien berriro aztergai ditugun sektoreetako idusketa lanei. Gure garai honetan eginiko jardueren ondorioz suertatu diren arazo estratigrafiko nagusiak konpondu ondoren, esparru nobleko Aintzin Aroko mailak aztertzen hasi ginen. Halaz ere, garai horretan izan genituen baldintza metereologikoek ez ziguten batere lagundu gure lanean, baldintza hobeagoetan nahikoa azkar egingo genituen zeregin batzuk gauzaten batez ere. Esate baterako, dokumentaturiko sutondoen azterketa arkeometrikoa egiteko lekukoak ateratzeko prozesua erabat moteldu zen; izan ere, laginak aste batetik gora utzi behar izan genituen zeuden lekuetan ezin izan genuelako eguzkiaren

La campaña del pasado verano en el conjunto castral de Mendikute ha reanudado las labores de excavación sobre los últimos sectores en estudio. Resueltos los principales problemas estratigráficos derivados de las actividades contemporáneas, los trabajos han avanzado primordialmente en el estudio de los niveles antiguos del recinto noble. Sin embargo, las condiciones metereológicas del periodo no facilitaron la marcha de los trabajos, especialmente en la ejecución de ciertas operaciones que en condiciones más favorables se hubieran completado con relativa rapidez. Así, por ejemplo, el proceso de extracción de diversos testigos destinados al análisis arqueométrico de los hogares documentados se ralentizó en extremo, ya

orientazioa xehe zehaztu. Baldintza horietan, behin eta berriro saiatu ginen gotorlekuko behealdeko perimetroari zegozkion sektoreak aztertzen.

Halatan, kastroa osatzen duten bi babes gorputzetan aritu gara lanean kanpaina honetan, hau da, behealdeko esparrua edo hasierako perimetroan (II. eremua), eremu hau oso ondo babestua dago eta gotorlekurako sarrerak estaltzen ditu; eta esparru nagusia edo eraikuntza noblean (I. eremua), gotorlekuaren tontorrean bermatua dago esparru honen oin poligonala.

## 1. *Hasierako planteamenduak*

Zera izan da bosgarren kanpainako lanen plangintzaren helburu nagusia, esparru nobleko (I. eremua) sektoreen gaineko indusketa lanei segida ematea. Aldi honetan, perimetroaren ekialdea landu dugu (12. sektorea), perimetroaren erdialdeko eta mendebaldeko sektoreak bukatu ondoren (*Arkeoikuska*-95, 187-198).

Aurreko kanpainan 12. sektorearen hegoaldeko erdialdean egin genituen lanei esker eraikinaren sarrerako eremua aztertu ahal izan genuen. Indusketa prozesuan ez genuen aurkitu Antzin Aroko deposit“uaren testigantzarik, eta egiaztatu genuen esparrua ebakitzen zuen 1936 (AL-3) luebakiak gure garaiko sedimentu batzuk baino ez zituela moztu. Elementu adierazkorragoarik ez zenez ageri, sarrerako eremuak iraulketa oso bat jasan zuela pentsatu genuen, Mendizabal eta Retondok mende hasieran bideratu zuten interbentzioaren garaian seguraski.

Aitzitik, sektorearen iparraldeko eremuan burututako lanek Erdi Aroko mailen oinarrizko sekuentzia baten azterketari ekiteko aukera eskaini ziguten azkenik. Halaz ere, sektoreko estratigrafian ez ziren ageri leku hau abandonatu ondoko mailak, ezta eraikuntza berriro erabili zen garaiko aztarnarik ere eta, are gutxiago, perimetroko egituren suntsiketa prozesuaren arrastorik. Egoera hau ikusita, badirudi bertako depositua estaltzen zuten maila guztiak atera edo garbitu zirela gure garai honetan aztarnategian egindako interbentzioetako batean. Nolanahi ere, eremu honetan bideratu genituen lanei esker, Erdi Aroko soldadu-taldearen azken okupazio garaiko zoladura baten (12.162) erabilera mailak dokumentatu ahal izan genituen nahikoa luze. Tresna kopuru handia atzeman genuen maila horietan. Zoladuraren azpian beste zoladura zaharrago baten (12.191) erabilera mailak dokumentatu genituen eta, kanpaina amaitzear zegoenez, sektore honetako lanak bertan behera utzi genituen behar bezala dokumentatu ondoren.

Sekuentzia estratigrafikoa eta aurkitutako txanponek eskaini zizkiguten erreferentziak ikusita, gotorlekuko maila zaharrenetaraino iristeko aukera izango genuela pentsatu genuen. Horretarako, sektorearen erdialdeko estratigrafian azaldu ziren irregulartasun batzuen hedadura mugatu behar genuen zorua altxatu

que las muestras debieron permanecer en su emplazamiento más de una semana ante la imposibilidad de concretar en detalle la orientación solar. En estas circunstancias, los trabajos debieron retomar en diversas ocasiones el estudio de los sectores relativos al perímetro inferior de la fortificación.

De esta forma, los trabajos de la presente campaña se han desarrollado sobre los dos cuerpos defensivos que componen el conjunto castral. Es decir, sobre el recinto inferior o perímetro inicial (zona II) que, fuertemente defendido, cubre los accesos inmediatos a la fortificación y sobre el recinto principal o construcción noble (zona I), cuya planta poligonal se asienta sobre la cima del emplazamiento.

## 1. *Planteamientos iniciales*

La planificación de la quinta campaña se orientó preferentemente a la continuación de las labores de excavación sobre el recinto noble (zona I). En esta ocasión, los esfuerzos se centraron en el ámbito oriental del perímetro (sector 12), una vez finalizadas las tareas sobre el sector central y occidental del perímetro (*Arkeoikuska-95,* 187-198).

A lo largo de la campaña precedente, los trabajos sobre la mitad meridional del sector 12 habían permitido el estudio del área de acceso al edificio. El proceso de excavación no pudo verificar la existencia de ningún testimonio del depósito antiguo, comprobándose que la trinchera de 1936 (AL.-3) que surcaba el ámbito sólo había truncado una formación sedimentaria de época contemporánea. En ausencia de elementos más explícitos debimos convenir que el área de acceso había sufrido una remoción completa, al parecer, en tiempos de la actuación de Mendizábal y Retondo a principios de siglo.

Por el contrario, los trabajos sobre el área septentrional del sector proporcionaron, finalmente, la posibilidad de afrontar el estudio de una secuencia básica de los niveles de época medieval. Sin embargo, la estratigrafía del sector no registraba los niveles posteriores a la deserción del emplazamiento, ni la probable etapa de reutilización de las construcciones y, mucho menos, el proceso de destrucción de las estructuras del perímetro. Esta situación parece indicar que se ha producido una extracción o limpieza generalizada de los niveles que recubrían del depósito existente en alguna de las actividades contemporáneas registradas en el yacimiento. En cualquier caso, los trabajos sobre el área permitieron documentar, con cierta amplitud, los niveles de utilización de un pavimento (12.162) correspondiente a la etapa final de ocupación de la guarnición medieval. Bajo aquel horizonte, que proporcionó un elevado número de artefactos, se documentaron los niveles de uso de un pavimento más antiguo (12.191) y, dado que la campaña concluía, se decidió suspender los trabajos sobre el sector tras proceder a su documentación.

La secuencia estratigráfica y las referencias aportadas por los elementos monetales permitían conjeturar sobre la posibilidad de alcanzar los niveles más antiguos de la fortificación. Para ello, era necesario delimitar la extensión de ciertas anomalías estratigráficas apreciadas sobre el área central del sector antes de

aurretik. Kanpaina honetan bideratu genituen lanei esker, dokumentaturiko sekuentziaren kronologia zehaztu genuen, eta datu zehatzak aurkitu genituen aldaera haien jatorriari buruz.

proceder a levantar el suelo de referencia. La reanudación de los trabajos en la presente campaña vendría a matizar singularmente la cronología de la secuencia documentada, aportando datos precisos sobre el origen de aquellas alteraciones.




Mendikuteko Erdi Aroko gotorlekua (Albiztur). Esparru noblearen ipar-mendebaldeko eremuaren oin sinplifikatua (12. sektorea). Bertan ikus daitezke hiru sutondoak (12.222, 12.224 eta 12.226) eta gela zahar baten itxitura osatzen zuten bi mehelinen zimentazioen norabidea (MR-18 eta 19).

Fortificación medieval de Mendikute (Albiztur). Planta simplificada del ámbito noroccidental del recinto noble (sector 12), con expresión de la disposición de los tres hogares (12.222, 12.224 y 12.226) y la orientación de las cimentaciones de dos muros medianeros (MR.-18 y 19), que habían constituido el cierre de una antigua estancia.

## 2. Gainaldeko Esparruaren gaineko interbentzioa

Esparruko beste eremu batzuetan gertatu den bezala, 12. sektorearen iparraldeko erdialdeak ere aldaera batzuk izan ditu gure garaian. Kasu honetan aldaera horiek ezin izan ditugu zehazki definitu indusketa prozesuaren amaierara arte. Lur jotako harriak 12.161 atera ondoren, argi geratu zen azkenean sektorearen erdialdeko irregulartasunen jatorria. Izan ere, bertan hobi sakon bat egin zenean, oinarri laua zuen eta elkarrengandik urruntzen ziren alboak, eremuaren gehiena birmoldatu zen (AL.-13). Trunkamendu hura I-ko norabidean barneratzen zen sektorean, ekialdera biratzen zuen eta mendebaldeko itxituraren ondoan bukatzen zen. Egiaztatu genuen, gainera, esparruko sarrera-atetik datorren (AL-3) 1936ko luebakiaren (12.342) luzapena zela trunkamendu hura.

Bestalde, bazirudien Erdi Aroko zoladurak (12.191) ez zuela erlazio egokirik esparruko iparraldeko itxitura gisa erabili ziren egiturekin. Azterketa xehe bat egin ondoren, betetzen zuten deposituen ezaugarriengatik ordura arte sumatu ez genuen bigarren aldaera bat zegoela ikusi genuen. Kasu honetan, luzeran egindako hobi bat zen (12.221), 56/66 cm-ko zabalera zuen, eta iparraldeko hormaren paraleloan hedatzen zen esparruaren IE-ko angelutik aurrera. Hobi honen antolaketa eta betegarri-mailak ikusita (ez dago munizio aztarnarik), Mendizabalek bideratutako interbentzioan (AL-14) egin zela esango genuke.

Nolanahi ere, gure garaian egindako aldaera haiek bigarren mailako eragin bat baino ez zuten izan eremu osoan. Berriro ekin genien aurreko kanpaina amaitu zenean utzi genituen zoladuraren (12.191) gaineko lanei. Zoladura hark (177 kota) lur joa (%90) eta hartxintxak (%10) ageri zituen eta 6 x 4,60 m-ko azalera hartzen zuen. Zoladuraren gainean bloke batzuk azaleratzen ziren. Bloke horiek zoladura osatzen zuten elementuetako bat izango zirela pentsatu genuen. Indusketan aurrera egin genuenean pieza horiek sutondo bat mugatzen zutela zehaztu ahal izan genuen. Era berean, zoladuraren azaleran ageri ziren hare okreak ez ziren kareore baten hondakinak, egitura horren zolarri edo oinarrikoak baizik. Oin karratua eta metro beteko aldea zuen erdiko sutondo hori (12.224) kararrizko bloke batzuk mugatzen zuten, kararri irregularrak ziren eta ia dena kaltzinatuak zeuden. Egiturak zolarriaren alde handi bat kontserbatu zuen (177/179 kota), eta egiaztatu dugu sutondoa jardunean egon zen garai berekoak direla zoladuraren erabilera mailak. Geroago egiaztatu genuen bezala, sutondoa eraiki aurretik eremu osoa birmoldatu zen, gela zaharrago baten hormak bota baitziren eta horma haien zimentazio elementu batzuk sutondo berria eraikitzeko erabili baitziren.

Zoladura hori (12.191) 5/10 cm lodierako estratu homogeno eta trinko baten gainean oinarritzen zen, lur grisaska-beltzaska zuen (%70), harkoskoak eta legarrak (%30), eta tresna gutxi (12.210). Zoladura altxatu

## 2. La intervención sobre el Recinto Superior

Al igual que sucede en otras áreas del recinto, la mitad septentrional del sector 12 también se ha visto afectada por diversas alteraciones contemporáneas, que en este caso no han podido ser definidas con precisión hasta una etapa avanzada del proceso de excavación. La extracción del derrumbe 12.161 permitió aclarar, de modo definitivo, las anomalías correspondientes al área central del sector. En efecto, la realización de una profunda fosa, de base plana y paredes divergentes, había remodelado gran parte del área (AL.-13). Pudo comprobarse, además, que aquel truncamiento, que se adentraba en el sector en dirección N. y giraba hacia levante para morir junto al cierre occidental, correspondía a la prolongación de la trinchera de 1936 (12.342) que proviene de la puerta de acceso al recinto (AL.-3).

Por otra parte, se había observado que el pavimento medieval (12.191) no parecía tener una relación adecuada con las estructuras que sirven de cierre septentrional del recinto. Un examen detallado pudo delimitar una segunda alteración que había pasado desapercibida hasta entonces en razón a las características de los depósitos que la colmataban. En este caso, se trataba de una fosa longitudinal (12.221), de una anchura entre 56/66 cm., que se desplaza en paralelo junto al muro septentrional desde el ángulo NE. del recinto. La disposición y niveles de relleno (con ausencia de restos de munición) sugieren afiliar esta actuación a los trabajos realizados por Mendizábal (AL.-14).

En cualquier caso, aquellas alteraciones contemporáneas sólo habían tenido una repercusión secundaria sobre el conjunto del área. Era el momento de retomar los trabajos sobre el pavimento (12.191) que habíamos preservado al finalizar la campaña precedente. Sobre la superficie de este suelo (cota 177), de tierra batida (90%) y gravillas (10%), que cubría una extensión real de 6 x 4,60 m., emergían, de forma superficial, algunos bloques que interpretamos como elementos integrantes del pavimento. El desarrollo de la excavación habría de precisar que dichas piezas delimitaban un gran hogar. Del mismo modo, las concentraciones de arenas ocres que presentaba la superficie del pavimento no provenían de ningún resto de argamasa, sino de la solera o base de dicha estructura. Este hogar central (12.224), de planta cuadrada de 1 m. de lado, se hallaba definido por diversos bloques de piedra caliza, irregulares y en su mayoría altamente calcinados. La estructura conservaba buena parte de la superficie de la solera (sobre la cota 177/179) y hemos podido comprobar que su fase de actividad es coetánea a los niveles de utilización del pavimento mencionado. Como pudo comprobarse más adelante, la construcción del hogar había sido precedida por una remodelación general del área al desmantelar los muros divisores de una estancia más antigua, parte de cuyos elementos de cimentación sirvieron para conformar el nuevo hogar.

El citado pavimento (12.191) se asentaba sobre un estrato, homogéneo y compacto, de una potencia entre 5/10 cm., de tierras grisáceas a negruzcas (70%), guijarros y gravas (30%), con baja frecuencia de arte-

genuenean, agerian geratu ziren beste bi sutondoren hondakinak, kastroaren ipar-mendebaldeko eremuan eraiki zen gela karratu bati lotuko genizkione sutondo horiek. Lehengo sutondoa angeluzuzena zen (12.222), 90/120 x 58 cm neurtzen zuen, eta hegoaldetik gela ixten zuen hormaren kanpoaldeari eratxikia zegoen. Aldiz, dokumentatu genuen hirugarren egitura gelaren erdialdetik hurbil zegoen, oraingoan sutondo zirkularra zen (12.226), 70 cm inguruko diametroa zuen eta depositiuaren gainean sartutako pieza luze batzuk osatzen zuten. Behin-betiko frogarik ez badugu ere, bi sutondo horiek aldi berean erabiliko zirela uste dugu. Halaz ere, egitura angeluzuzena gelaren erdian dagoen sutondo zirkularra baino geroago eraiki zelako hipotesiari eutsiko diogu oraingoz.

Deskribatu ditugun desberdintasun horiek hor badaude ere, adieraztekoa da, hiru sutondoen eraikuntza prozesuak antza handia duela teknika mailan, egituraren funtzionaltasuna hobetzeko asmoa nabari baita hiruetan. Kasu guztietan, buztin homogeno eta trinkoez osaturiko geruza lodi batek estaltzen du barnealdea eta geruza horrek propietate erregogorrak dituen zolarri edo oinarri bat eratzen du. Oinarri hori 5/6 cm-koa da sutondo karratuan, 6/10 cm-koa sutondo angeluzuzenean, eta 15 cm-ra iristen da sutondo zirkularrean. Zoladurak kolore okre zuriska ageri du (1/2 cm-tan) kaltzinazioaren eraginez, eta gainerako geruza buztintsua, berriz, gorritua dago. Buztinezko multzoak ageri duen graduazioa ez da harritzekoa, antzeko prozesuak dokumentatu baitira zeramika labe batzuen barnean, esate baterako. Bestalde, egitura hauen berezitasuna zera da, inguruko zoladuren plano hurbilean edo berean hedatzen dela zolarria. Horregatik ez da eratu konbustiotik sortutako hondakinen depositu iraunkorrik, eta sutondoen barnean ezin izan dugu horrelako elementurik aurkitu behin eta berriro garbitua izan delako.

Kanpaina honetako azken lana eremuan aurkitutako elementu guztien dokumentazio grafikoa egitea eta sutondo bakoitzetik laginak jasotzea izan zen. Arreta berezia jarri genuen estratigrafien eta harresi egituren arteko erlazioak aztertzen, eta harresi perimetroaren ipar-mendebaldeko angeluan eraikitako bizileku baten aztarnak atzeman genituen. 55 cm inguru lodierako bi mehelinek, eta esparruko babes hormek 2,60 m inguruko gela karratu bat osatzen zuten. Gela horren barnealdean eta kanpoaldean aurkitutako sutondoek, eta eremu osoan hedatzen diren hauts-mailek XIV. mendeko lehen hamarkadan gotorlekuko sukaldeko eremuari zegokion geletako bat dela adierazten digute. Eraberritze lan batzuk egin zituzten arren, mehelinak kendu zituzten espazio erabilgarria zabaltzeko asmoz seguraski, sektore honek antzeko funtzioa bete zuen soldatu-taldeak abandonatu zuen arte.

factos (12.210). Su extracción permitió poner al descubierto los restos correspondientes a dos nuevos hogares, que están vinculados a una estancia cuadrada construida sobre el área noroccidental del recinto castral. En el primer caso, se trataba de un hogar rectangular (12.222), cuyas dimensiones pudieron alcanzar los 90/120 x 58 cm., y fue localizado adosado a la cara externa del muro que cerraba la estancia por mediodía. Por el contrario, la tercera estructura documentada ocupaba una posición próxima al centro de la estancia y corresponde a un hogar circular (12.226), de unos 70 cm. de diámetro, construido a base de piezas alargadas hincadas sobre el depósito. Aunque carecemos de pruebas concluyentes, es posible que ambos hogares pudieran estar en uso simultáneamente. Sin embargo, por el momento nos inclinamos a mantener la hipótesis de que la estructura rectangular es posterior a la utilización del hogar circular que preside la estancia.

Cabe advertir que pese a las diferencias ya descritas, el proceso constructivo de los tres hogares presenta unas claras similitudes técnicas, que muestra una voluntad de mejorar la funcionalidad de la estructura. En todos los casos, el interior está colmatado por una gruesa capa de arcillas homogéneas y compactas hasta constituir una solera o base con propiedades refractarias, cuyo espesor va desde los 5/6 cm. del hogar cuadrado, a los 6/10 cm. del rectangular, llegando a alcanzar los 15 cm. en el hogar circular. La superficie del firme adquiere una tonalidad ocre a blanquecina (en 1/2 cm.) a causa de su calcinación, mientras que el resto de la capa arcillosa presenta una intensa rubefacción. La graduación, que presenta el paquete arcilloso, no es extraña ya que existen ejemplos de procesos similares que se documentan, por ejemplo, en el interior de algunos hornos de cerámica. Por otra parte, la peculiaridad de estas estructuras reside en el hecho de que el horizonte de la solera se desarrolla sobre un plano próximo o igual a los pavimentos circundantes. Ello impide la formación de un depósito estable de residuos procedentes de la combustión, lo que conlleva la imposibilidad de recuperar dentro de los propios hogares dichos elementos, debido a la frecuencia en que se realizan las sucesivas limpiezas.

Los últimos trabajos de la campaña se dirigieron a la documentación gráfica de todos elementos presentes en el área, así como a la recogida de diversas muestras de cada uno de los hogares. Se prestó especial atención al estudio de las relaciones estratigráficas con las estructuras murarias, pudiendo delimitarse los vestigios de una habitación edificada sobre el ángulo noroccidental del perímetro murado. Dos muros medianeros, de unos 55 cm. de grosor, conforman, conjuntamente con las defensas del recinto, una estancia cuadrada de unos 2,60 m. de lado. Los hogares localizados al interior y exterior de esta dependencia, así como los diversos niveles cenicientos de todo el área, parecen confirmar que se trata de una de las estancias pertenecientes al área de cocina de la fortificación en la primera década del siglo XIV. A pesar de las reformas realizadas, que significarán la desaparición de los muros medianeros con vistas a una probable ampliación del espacio útil, el sector continuó teniendo funciones similares hasta la deserción de la guarnición.

## 3. Behealdeko Esparruaren gaineko interbentzioa

Behealdeko perimetroaren gainean (II. eremua) bideraturiko lanak esparruaren ipar-ekialdera bildu ziren nagusiki. Aztertzeko dauden azken sektoreak lantzen segitzea genuen helburu, babes perimetro honetako indusketa osoa amaitu aurretik. Horrenbestez, kastrorako sarrera nagusia den korredore naturalaren (20. sektorea) iparraldeko eremura (23. sektorea) zabaldu genuen indusketa. Aldi berean, lehen aldiz jardun genuen ondoko esparruan, aurreko sektorearen mendibaldean, eta espazio erabilgarri posiblearen barruan, harriek eta esparruaren iparraldeko babesek inguratzen baitute sektore hura.

Bi kasuetan depositu arkeologikoaren alderik irtenenak baino ez ditugu ukitu. 23. sektoreko azaleko mailetan gure garaiko elementu batzuk baino ez genituen aurkitu, eta ez genuen sumatu korredorearen iparraldeko itxitura posiblea definituko zigun elementurik, elementu horrek, hurbileko data batean behin-behineko estalpe bihurtuko zuen espazio hura. Gainaldeko perimetroa babesten duten egituren oinetan dagoen 24. sektorean lur jotako harri pila handi bat garbitu genuean. Esparru noblearen mendebaldeko harresiari zegozkion harri horiek eta sektore osoa estaltzen zuten. Eremu honetan eraikuntza material ugari zegoenez zailtasun handiak izan genituen gure lana bideratzeko, eta horrexegatik, kanpaina amaitzean sektorearen alde bat baino ezin izan genuen garbitu.

## 4. Material arkeologikoak

Aurkikuntza berriek aurreko kanpainetan atzeman genituen objektu arrunten, lantzak, geziak eta era askotako aplikeak esate baterako, zerrenda zabaltzen dute. Nolanahi ere, elementu berriak dagoeneko ezagutzen ditugun objektuen tipologia berekoak dira forma aldetik eta banaketa estratigrafikoari dagokionean fidagarritasun altu samarra eskaintzen dute beren kronologia absoluturari dagokionean. Ildo honettik, kanpaina honetan inbentariatu ditugun zazpi txanponek, lau frantsesak eta hiru gaztelarrak, dataketa fidagarri bat egiteko oinarria ematen digute. Lehen saila tournois dirua da (1410) Louis IX.aren izenean jotakoa (1240/50-1270), eta gainerako piezak Philippe IV le Bel (Frantziako erregea 1285 - 1314, Nafarroako erregea 1274/84-1305) erregearen garaikoak dira. Maria Clua andereak adierazitakoaren arabera zera dira, tournois diru bat (1298) 1290-1295 urteetan joa, obolo tournois bat (1304) 1307-1310 urteetan joa eta obolo bourgeoise bat (1333) 1311. urtean joa. Diru gaztelarrari dagokionean, Alfontso X.aren garaiko (Cuenca, 1252-1284) obolo bat (13810) eta Fernando IV.aren garaiko (Burgos, 1295-1312) bi pepion (1295, 1403) atzeman ditugu.

Berreskuratutako txanpon horiek nahikoa marko kronologiko zehatza eskaintzen digute aztertzen ari garen erabilera mailen dataketari dagokionean. Halaz ere,

## 3. La intervención sobre el Recinto Inferior

Las labores realizadas sobre el perímetro inferior (zona II) se han centrado sobre el área noroeste del recinto. Los objetivos previstos pretendían avanzar en el estudio de los últimos sectores que aún quedan por examinar, antes de dar por concluida la excavación completa de este perímetro defensivo. En consecuencia, los trabajos se dirigieron a ampliar la excavación sobre el área septentrional (sector 23) del corredor natural que sirve de acceso principal al conjunto castral (sector 20). De modo paralelo, se efectuaron los primeros trabajos sobre el ámbito contiguo, a poniente del sector precedente, y dentro del espacio útil posible, ya que aquél queda cercado por las afloraciones rocosas y las defensas septentrionales del recinto.

En ambos casos, los trabajos sólo han afectado las partes más prominentes del depósito arqueológico. La extracción de los niveles superficiales del sector 23 sólo proporcionó algunos elementos contemporáneos, sin que se pudiera apreciar elementos definitorios sobre el posible cierre septentrional del corredor, elemento que hubiera permitido convertir aquel espacio, ya en fechas cercanas, en un cobertizo temporal. Por su parte, la excavación sobre el sector 24, situado al pie de las estructuras que defienden el perímetro superior, acometió el desmonte de un potente derrumbe que procedente de la muralla oriental del recinto noble cubre todo el sector. La gran cantidad de materiales constructivos presentes en el área dificultó el desarrollo de los trabajos, de modo que al finalizar la campaña tan sólo habíamos podido despejar parcialmente el sector.

## 4. Los materiales arqueológicos

Los nuevos hallazgos amplían la nómina de objetos comunes que habíamos recuperado en campañas anteriores, tales como lanzas, dardos y apliques de diversos tipos. Con todo, los nuevos elementos desarrollan la tipología formal de los objetos ya conocidos y ofrecen en relación a su disposición estratigráfica una fiabilidad relativamente alta respecto a su cronología absoluta. En este sentido, la distribución de las siete piezas monetales inventariadas en la presente campaña, cuatro francesas y tres castellanas, ofrecen las bases para una datación fiable. El primer grupo de acuñaciones está compuesto por un dinero tornés (1410) acuñado a nombre de Louis IX (1240/50-1270), mientras las restantes piezas corresponden al reinado de Philippe IV le Bel (r. de Francia 1285-1314; r. de Navarra 1274/84-1305), que han sido identificadas por la Sra. María Clua respectivamente como un dinero tournois (1298), acuñado entre 1290-1295, un óbolo tournois (1304), datado entre 1307-1310 y un óbolo bourgeoise (1333), fechable en 1311. Por su parte, el numerario castellano está representado por un óbolo (1381) de Alfonso X (Cuenca, 1252-1284) y dos pepiones (1295, 1403) de Fernando IV (Burgos, 1295-1312).

El conjunto del monetario recuperado ofrece un marco cronológico bastante preciso por lo que hace referencia a la datación de los niveles de utilización en

kokaera estratigrafikoarengatik hasieran baztertu egin behar dira Alfontso X.aren garaiko oboloa, Felipe Ederraren garaiko tournois dirua (1298) eta Fernando IV.aren garaiko pepionetako bat (1295); izan ere, txanpon horiek gure garaian egindako aldaera batzuk betetzen zituzten hasierako sedimentuei dagozkiela dirudi. Okerren bat gerta litekeen arren, zalantza handirik gabe XIV. mendeko lehen hamarkadetan kokatuko genuke sektorean dokumentatu ditugun sutondoen erabilera sekuentziaren kronologia absolutua. Horrek ez du esan nahi antzinagoko garaietan esparrua sukalde gisa erabili ez zenik, dokumentaturiko azken egiturei baitagokie dataketa hori.

Aurreko urtean maila estratigrafikoetan atzeman genituen txanponek berretsi egiten digute proposaturiko dataketa, eta gotorlekua XIV. mendearen bigarren laurdenean (*Arkeoikuska*-95, 204-205) abandonatu zela adierazten digute. Maila estratigrafiko horiek kanpaina honetan induskatu ditugun estratu eta egitura batzuk ixten zituzten. 12.191 zoladura XIII. mendearen bigarren erdian datatu genuen hasieran Alfontso X.aren garaiko bi txanpon aurkitu genituelako azaleran, baina dataketa hori XIV. mendearen lehen hamarkadetara atzeratu behar dugu kanpaina honetan izandako emaitzak kontuan hartzen baditugu. Datu berrien arabera, sektorearen erdian dagoen sutondo handi ka-

estudio. Sin embargo, deben descartarse inicialmente por su posición estratigráfica tanto el óbolo de Alfonso X (1381), como el dinero tornés de Felipe el Hermoso (1298), así como uno de los pepiones de Fernando IV (1295), ya que parecen formar parte de los sedimentos iniciales que rellenaban diversas alteraciones de época contemporánea. Atendiendo a las posibles desviaciones que pueden aducirse, no es aventurado proponer una cronología absoluta dentro de las primeras décadas del siglo XIV para la secuencia de utilización de los hogares documentados en el sector. Ello no impide que el ámbito viniera siendo utilizado como área de cocina desde época anterior, ya que la datación corresponde a las últimas estructuras documentadas.

Los testimonios monetales recuperados el pasado año en los niveles estratigráficos, que sellaban parte de los estratos y estructuras excavadas en el presente, corroboran la datación propuesta y apuntan una fecha probable para la deserción de la fortificación dentro del segundo cuarto del siglo XIV (*Arkeoikuska-95,* 204-205). La datación del pavimento 12.191, que inicialmente fechamos en la segunda mitad del siglo XIII a raíz de la localización sobre su superficie de dos acuñaciones de Alfonso X, se debe retrotraer hasta las primeras décadas del siglo XIV en función de los resultados obtenidos en la presente campaña. Los nuevos datos confirman que dicho pavimento debió estar



Mendikuteko Erdi Aroko gotorlekua (Albiztur).
Sutondo zirkularraren (12.226) ikuspegia. Sutegi karratu handiaren (12.224) egituren zati batzuk ageri dira irudiaren goi-ezkerraldean. Sutondo hori osatzen duten elementuak neurri batean egitura zaharraren alde baten gainean daudela ikus daiteke.

Fortificación medieval de Mendikute (Albiztur).
Detalle del hogar circular (12.226). En el margen superior izquierdo de la imagen se registra parte de las estructuras correspondientes al gran hogar cuadrado (12.224).
Se puede observar como los elementos que conforman este hogar se superponen parcialmente sobre parte de la antigua estructura.

rratua (12.224) lehen aldiz erabili zen garai berean erabiliko zen zoladura hori. Arrazoi berarengatik, esan dezakegu, eta ez horretarako arrazoirik izan gabe, izena eman zien karguduna desagertu eta hogeita bosten bat urte geroago erabili zirela txanpon horiek.

en uso simultáneamente a la utilización inicial del gran hogar cuadrado (12.224) situado en el centro del sector. Por la misma razón, habremos de suponer, no sin fundamento, que dichas acuñaciones estaban en uso al menos unos veinticinco años después de la desaparición de la autoridad a cuyo nombre se habían acuñado.

Diru frantsesa azaltzea ez da gauza harrigarria kontuan hartzen badugu Nafarroako erresuma hurbil dagoela. Kontuan har bedi 1285. urtean Frantziako Felipe III.a hil ondoren, Felipe bere semea jarri zela capet-en errege-aulkian. Frantziako errege berria Nafarroako legezko erregea zen ordurako, aurretik erabaki bezala, aurreko urtean ezkondu baitzen Nafarroako Juana erreginarekin. Era honetan, Felipe Ederra Nafarroako errege izango zen 1305. urtean Nafarroako koroaren gaineko eskubideen legezko jabea zen erregina hil zen arte, eta azken capet-ei loturik geratu zen erresuma. Hala ere, harritzekoa da Nafarroako beste txanpon batzuk ez azaldu izana, santxete izeneko dirua, esate baterako, mendearen lehen erdialdean diru hori erabili zela adierazten baitigute dokumentu batzuk (Zabalo: 1973, 233). Testigantza arkeologikoen arabera, onartu behar dugu tournes diruaren erabilera ugaritu eta zabaldu egin zela capet-ak iritsi zirenean, frantsesen eragina ere zabaldu zen bezala.

La presencia de moneda francesa no es un hecho sorprendente, si tenemos en cuenta la proximidad del reino navarro. Cabe recordar que a la muerte de Felipe III de Francia en 1285 ascendió al trono de los capeto, su segundo hijo, Felipe. El nuevo soberano francés era ya para entonces legítimo monarca navarro, pues el año anterior, según lo acordado previamente, había desposado con la reina Juana de Navarra. De esta forma, Felipe el Hermoso reinaría sobre el vecino reino hasta la muerte de la reina en 1305, legítima propietaria de los derechos sobre la corona navarra, quedando el reino vinculado a los últimos capetos. Aunque la ausencia de otras acuñaciones navarras, como la serie de dineros sanchetes, cuyo uso parece corroborarse documentalmente a lo largo de la primera mitad de siglo (Zabalo: 1973, 233), no deja de ser curiosa. Habremos de reconocer que el testimonio arqueológico ratifica el hecho de que la circulación de torneses por el reino navarro se había de intensificar y difundir con la llegada de los capetos, de forma paralela al creciente incremento de la influencia francesa.

Aurkitutako fauna hondakinen kopurua gutxitzen joan da azken kanpainetan. Aurreko aldietan bezala, horrelako elementu gehienak inbentariotik kanpo utzi dira behin-behinean, gaur egun egiten ari den azterketa xehearen zain. Azterketa horri amaitu ondoren garai zehatz batean kokatu daitezkeen aleak behar bezala jasoko ditugu zerrenda orokorrean. Halatan, berrehun bat pieza katalogatu dira kanpaina honetan, horren ondoren mila eta bostehunen batera iritsi da inbentarioan jasotako tresna kopurua. Halaz ere, pieza berri horiek ez dituzte nabarmen aldatu lagin multzoak azaltzen zituen joera nagusiak. Horrela, oraindik ere metalezko objektuak dira nagusi (%67), burdinazkoak gehienbat, zeramikazko elementuak askoz ere gutxiago direla egiaztatu dugun bitartean (%9).

El volumen de restos faunísticos recuperados ha disminuido gradualmente a lo largo de las últimas campañas. Como en ocasiones precedentes, la mayor parte de estos elementos se han excluido provisionalmente del inventario en espera de que el análisis detallado, que se viene realizando en la actualidad, discrimine los ejemplares atribuibles que podrán ser incorporados oportunamente al listado general. De este modo, se han catalogado en la presente campaña unas doscientas piezas, que elevan el número global de objetos inventariados en una cifra cercana al millar y medio de artefactos. Sin embargo, la adición de las nuevas piezas no ha modificado sustancialmente las tendencias generales que presentaba el conjunto de la muestra. Así, se mantiene constante la preponderancia de los objetos metálicos (67%), mayoritariamente de tipo férreo, mientras se confirma la reducida presencia de elementos cerámicos (9%).

Erdi Aroko burdinazko materialen zerrendan (%58), zortziehun piezatik gora dira, armei loturiko elementuak biltzen dira (%23), eta horrez gainera, elementu osagarri ugari ere aurki dezakegu, gerriko-belarriak, grapak, errematxeak eta zehazteko zailak diren beste elementu batzuk (%14).

El repertorio de materiales férreos de época medieval (58%), compuesto por más de ochocientas piezas, agrupa elementos propios del armamento (23%), además de una extensa representación de clavos de forja (63%) y un grupo variado de elementos auxiliares, como hebillas, grapas, remaches y otros elementos de difícil atribución (14%).

Ale berriak azaldu dira armamentuari dagozkion piezen artean (lantzak, sastakaiak eta geziak). Pieza horien artean aipatzekoa da hiru lantza mutur aurkitu ditugula, oso zatituak badaude ere, orain arte aurkitu ditugunen motarekin identifikatu daitezke. Lehen zatia pieza handi bati dagokio, lantza-formakoa da, hegalak zabalak ditu eta gorputza ez du txinkoa, luzerako nerbioa ongi markatua du eta gider tubular lodia ageri du euskarri gisa (12.210.1266), orain arte ezagutzen diren beste ale batzuen antzekoa (634.1100). Bigarren pus-

Nuevos ejemplares se incorporan al grupo de piezas relativas al armamento (lanzas, dagas y saetas). Entre ellos cabe destacar la recuperación de tres puntas de lanza que, aunque se presentan en estado fragmentario, pueden identificarse con los tipos más usuales localizados hasta el momento. La primera pieza es un ejemplar de gran porte, de forma lanceolada, pronunciadas aletas y cuerpo no macizo, con acusado nervio longitudinal y grueso enmangue tubular para su fijación (12.210.1266), similar a otros ejemplares cono-

ka lantza baten mutur zorrotza da, erainotz hostoaren formakoa, gorputz fina eta trinkoa du, nerbioa ez du oso markatua eta gider tubularra (12.216.1361) du. Azkenik, hirugarren piezak gorputz trinkoa eta piramide-formakoa du, gider tubularra ez oso markatua oinarrian (12.210.1248), eta aurreko kanpainan aurkitutako pieza baten (814) antzekoa da. Bestalde, baleztа muntatzeko gako batez gainera (12.191.1237), berrogei bat gezi atzeman ditugu, erronboedro formakoak dira gehienak, gorputz estutua eta oinarri tubularra dute. Baleztaz jaurtitzeko gai horiez gainera, beste pieza arinago eta meheago batzuk ere azaldu dira, gorputz konikoa duen gezia (12.210.1214) eta lepo txikiko bira piramidalak (12.210.1238) esate baterako.

Burdina forjatuan landuriko iltzeei dagokienean, bostehun aletik gora atzeman ditugu, T itxura duten motakoak gehienek (%65), disko-formako burua dute beste batzuk (%10) eta zaldien ferraketarako dira beste batzuk (%5).

Erdi Aroan koka ditzakegun metalezko elementu ez burdinazkoen zerrenda handitu da, apaingarri berriak azaldu baitira. Aurrekoetan bezala (*Arkeoikuska* 94, 202), seriean eginiko aplike apaingarri txikiak dira. Oraingoan, beste zati batzuen artean, nabarmentzekoa da seriean eginiko aplike txiki bat, zirkularra da, urrekolorea eta bozeldua, izar oktogonal baten itxurako motiboa ageri du erdian kalatua eta lau zulo ditu finkatzeko (12.214.1339). Beste aplike apaingarri bat atzeman dugu, birgula baten itxurakoa eta obaz osatua (12.216.1302) eta baita buru erdiesferikoa duen tatxet handi bat (12.214.1224) ere.

Inbentarioan jasoriko fauna hondakinak (%9) manipulatu edo berriro erabili direlako hatzak ageri dituen hezurrezko materialak dira oro har. Kontsumorako pieza berriez gainera, elementu berriak azaldu dira aurtengoan. Elementu horiek berretsi egiten dute hezurrezko materialak erabiltzen zituztela tresna desberdinak egiteko, kirtenak (12.216.1360), eskutokiak edo giderrak (12.216.1356). Beste bi paralelepipedoren (12.210.1217, 12.232.1414) aurkikuntzak apaingarri edo objektu ludiko txikien elaborazioaren aurreko aldi batzuen lekukotasuna ematen digu, bai aplike, tarafe edo fitxa moduan.

Azkenik, gure garaiko pieza batzuek (%10) osatzen dute berreskuraturiko materialen multzoa. Haien artetik, aipagarri dira arma labur eta mosketoietarako munizioaren arrastoak, eta kargadore batzuk. Material horiek guztiek erakusten digute gerra zibilaren garaian leku hau okupatu zela behin-behinean. Geroagoko beste elementu batzuk ere azaldu dira.

cidos (634,1100). El segundo fragmento corresponde al extremo de aguzado de una lanza, de forma láurea, de cuerpo fino y macizo, con nervio poco pronunciado y con posible enmangue tubular (12.216.1361). Por último, el tercer ejemplar presenta cuerpo macizo y piramidal, con enmangue tubular poco pronunciado sobre la base (12.210.1248) y es próximo a una pieza recuperada en la pasada campaña (814). Por otra parte, se ha recuperado, además de un gancho para armar ballesta (12.191.1237), una cuarentena de saetas que corresponden en su mayoría al tipo en forma de romboedro con entronque estrangulado y base tubular. Frente a estos proyectiles destinados al uso de la ballesta, aparecen piezas más ligeras y esbeltas, como el dardo de cuerpo cónico (12.210.1214) y las viras piramidales de cuello poco pronunciado (12.210.1238).

Los clavos de forja están representados hasta el presente por más de quinientos ejemplares, que pertenecen mayoritariamente al tipo en forma de T (65%), junto a piezas con cabeza discoidal (10%), y otras destinadas al herraje de cabalgaduras (5%).

El repertorio de elementos metálicos no férreos atribuibles a época medieval se ha ampliado con nuevos elementos ornamentales. Se trata, como en ocasiones precedentes (*Arkeoikuska 94,* 202), de pequeños apliques decorativos de producción seriada. En esta ocasión, destaca, entre otros fragmentos, un aplique seriado, de forma circular, sobredorado y repujado, con motivo central, calado, en forma de estrella octogonal y cuatro perforaciones para su fijación (12.214.1339). Así, como un aplique ornamental a modo de vírgula con ovas (12.216.1302) y una gran tachuela de cabeza semiesférica (12.214.1224).

Los restos faunísticos inventariados (9%) constituyen una muestra selectiva del material óseo que ofrece trazas evidentes de manipulación o reutilización. A los nuevos ejemplos de despiece para el consumo, se suman nuevos elementos que ratifican la recuperación de materiales óseos para la fabricación de útiles diversos, como enmangues (12.216.1360), pomos o asideras (12.216.1356). Dos nuevos paralelepípedos (12.210.1217, 12.232.1414) muestran las facetas previas en la elaboración de pequeños objetos decorativos o lúdicos, ya sea en forma de apliques, tarafes o fichas.

Finalmente, completa el conjunto de materiales un grupo de piezas contemporáneas (10%), entre los que sobresalen los restos de munición para arma corta y mosquetón, y diversos cargadores, que testimonian la reocupación temporal del lugar durante la contienda civil, y diversos elementos de fechas más recientes.

*José I. Padilla Lapuente*

## A.3.1.2. San Martin Buruntzako Eliza (Andoain)

I. Indusketa kanpaina

Alex Ibañez Etxeberriak zuzendua

Andoaingo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

## A.3.1.2. Iglesia de San Martín de Buruntza (Andoain)

I Campaña de Excavación.

Dirigida por Alex Ibáñez Etxeberria.

Subvencionado por el Ayuntamiento de Andoain y la Diputación Foral de Gipuzkoa.

***Church of San Martín de Buruntza (Andoain). Directed by Alex Ibáñez Etxeberria.***

*The Ist Excavation Campaign at the Church of San Martín de Buruntza in Andoain has been aimed at the confirmation of the quality of the archaeological deposit and delimiting the extent of the site. To further these objectives, two survey on the remains localised in the 1995 campaign were carried out at opposite corners of the site. This activity led to the location of the SW corner of the building, including a slanted buttress and of the interior corner of the epistle chapel. Apart from the wall structures, positioned human bodies with funerary offerings have been found, individually in the side chapel and multiply, in the style attributable to the end of the XVI century, in the SW corner of the temple. Neither survey could be concluded. A complete topography of the entire area was also carried out.*

"San Martin Buruntzako Elizako I. Indusketa Kanpaina" honen lehen helburua zera zen, aztarnategia mugatzea eta bertako depositu arkeologikoak eskaintzen zituen aukerak baloratzea. Jakin nahi genuen, halaber, leku horretan nolako erasoak gertatu ziren eta eraso horiek zer-nolako eragina izan zuten. Era berean, ikerketa arkeologikorako metodoen bidez dokumentatzeko aukerak neurtu nahi genituen eta, pixkanaka hondatu ez zedin, leku hori babesteko beharreko neurri zuzentzaileak proposatzeko asmoa genuen. Zehatz adierazteko, kontserbaturiko hondakinek okupatzen zuten azalera, kalitatea, ezaugarriak eta potentzia ezagutu nahi genituen, eta horrez gainera, orubeko sekuentzia estratigrafikoa dokumentatu nahi genuen.

Horretarako, eta bibliografia aztertzeko fasea bideratu ondoren, zundaketak egiten hasi ginen. 21 metro karratuko azalera bat hartu genuen, azalera hori orube osoan zehar banatu genuen ahalik eta lur gehien hartu ahal izateko eta horrekin batean aztarnategiaren ikuspegi zabalago eta globalago bat eskaini ahal izateko.

1. zundaketan 3 x 3 metroko karratu bat egin genuen, karratu horren E-ko ertza 1995eko interbentzioan aurkitutako horma hondakinen gainean kokatu genuen, eta handik M-ko norabidean zabaldu genuen, alde hura elizaren barnealdea izango zela pentsatzen baikenuen. Zundaketa honetan zera zehaztu genuen, 1995eko kanpainan atzeman genuen 104 UE izeneko egitura epistola aldeko alboko kaperaren barnealdeko ertzarekin bat zetorrela absidearen eremuarekin lotzen zen gunean. 90°-ko angelua eratzen zuen horma bat zen egitura hori eta I-H eta M-E norabidea erakusten zuen, kararri landuzko ilara batzuk zituen kanpoaldean eta kararri eta kareorezko betegarri bat barnealdean. Adreilu zati batzuk ageri ziren kareorean nahasirik. Era berean, gizon gazte baten gorputza atzeman genuen zundaketa honetan. Gorputza ia osorik zegoen, lur emateko moduan, etzanda, eskuineko besoa luzean ageri zuen gorputzaren ondoan, eta ezkerreko besoa tolestua ezkerreko eskua sabelaren gainean

El propósito inicial de esta "I Campaña de Excavación en la Iglesia de San Martín de Buruntza", era la delimitación del yacimiento y la valoración de la potencialidad de su depósito arqueológico, así como conocer la naturaleza y nivel de afección de las distintas agresiones. por él sufridas. Asimismo se pretendía calibrar sus posibilidades de documentación mediante métodos de investigación arqueológica, así como proponer las medidas correctoras necesarias que promoviesen su protección, impidiendo su progresivo deterioro. En concreto se planteaba conocer la extensión que ocupan los restos conservados, la calidad de los mismos, sus características y su potencia, así como documentar la secuencia estratigráfica del solar.

Para tal efecto, y una vez encaminada la fase de vaciado bibliográfico, se procedió a la realización de dos sondeos, ocupando una superficie total de 21 metros cuadrados, que permitieran por su distribución, a lo largo de todo el solar, intentar abarcar la mayor cantidad posible de terreno, y con ello ofrecer una visión más amplia y globalizante del yacimiento.

El sondeo N.° 1 consistió en la realización de un cuadrado de 3x3 m., localizando su cantil E. sobre los restos murarios localizados en la intervención de 1995, abriendo el mismo hacia el W, en lo que se presumía en aquel momento que sería el interior de la iglesia. En este sondeo se pudo determinar por un lado que la estructura denominada UE 104, localizada en la campaña de 1995, se correspondía con la esquina interior de la capilla lateral del lado de la epístola en su unión con la zona del ábside, conformado por un muro perfectamente angulado en 90° y orientado en las líneas N-S y W- E, compuesto de un forro de hiladas de sillería de caliza al exterior, con un relleno de caliza y argamasa al interior, en la cual se localizan diversos trozos de ladrillo. Asimismo en este sondeo se localizó el cuerpo en posición de un varón joven, el cual se halla orientado en dirección N-S y que mira hacia el S. El cuerpo, que se halla prácticamente completo, se presenta en posición yacente, con el brazo derecho ex-

gelditu arte, eskapulario bat kontserbatu du lepo inguruan.

2. zundaketan 1. zundaketan atzeman genuen ertzaren aurkakoa bilatzen saiatu ginen elizaren bi ertzak aurkitzeko asmoz. Horregatik, eta 1995eko irterbentzioan jaso bezala, orubearen M-ko eremuan hormaren lerrokadura izan zitekeen harlanduren bat ageri zenez azaleran, harlandu horien inguruan egin genuen zundaketa beren jatorria zehazteko asmoz. Halatan, 4x3 metroko azalera bat ireki genuen eta HM-rantz luzatu genuen pixka bat han aurkitutako horma-bular baten norabidean. Zundaketa honetan 14 metro karratutik gora geratu ziren agerian.

Zundaketa honetan 302 UE elizako eraikinean HM-ko ertzari zegokion horma egitura aurkitu genuen, horma-bular edo ostiko ez-oso bat barne. 104 UE horma bezala, oraingoa ere kararri landuzko ilara bikoitz batek osatzen zuen, eta kararrizko betegarria zuen barnealdean. Elizako H-ko eta M-ko fatxaden hormen oinarria erakusten zuen aurkitutako egiturak.

302 UE egitura horri esker, elizaren barnealdeko espazio bat eta kanpoaldeko espazio bat zehaztu genituen segurtasun osoz. Halatan, 303 UE atzeman genuen elizaren barnealdeko lurrean. Hilobi esparru bat zen, eta bertan giza gorputz batzuk ikus zitezkeen lur

tendido pegado al cuerpo, y el brazo izquierdo ligeramente flexionado hasta dejar la mano izquierda posada sobre el vientre, conservando alrededor del cuello un escapulario.

El Sondeo N.º 2 buscó la esquina contraria localizada en el Sondeo N.º 1, ante la posibilidad de encontrar los dos extremos de la iglesia. Por ello, y ante la existencia en superficie de algún sillar y posible alineación de muro en la zona W. del solar, ya recogidos en la intervención de 1995, se localizó el sondeo alrededor de los mismos, con la intención de que nos permitiera identificar su naturaleza. Así se procedió a abrir una superficie de 4x3 m. con un ligero apéndice hacia el SW. siguiendo la alineación de un estribo localizado. Este sondeo dejó a la vista algo más de 14 metros cuadrados de superficie.

En este sondeo se pudo localizar la estructura muraria correspondiente con la esquina SW de la edificación de la iglesia UE 302, incluyendo un estribo o contrafuerte sesgado. El muro se correspondía al igual que en el caso de UE 104, con un muro de doble forro de sillería de caliza, con el interior relleno de mampostería igualmente de caliza. La estructura localizada presentaba el arranque de los muros de las fachadas S y W de la iglesia.

Esta estructura UE 302, nos permitió delimitar con total seguridad un espacio interior, y otro exterior con respecto a la iglesia. Así localizamos la UE 303 que se corresponde con el terreno interior de la iglesia, el cual se presenta como un espacio de enterramiento, en el



San Martin Buruntzako Eliza (Andoain).
Eraikinaren HM-ko ertzaren ikuspegi orokorra.

Iglesia de S. Martín de Buruntza (Andoain).
Vista general de la esquina SW del edificio.

emateko moduan egokituak, loturarik gabeko giza hezurki ugari ageri zen nahasian, eta era askotako tresneria. Induskatu ditugun 1,5 m2-etan aipatzekoa da bost txanpon atzeman ditugula barreiaturik, eta baita lepokoak, lepoko-gonderak, buru-orratz bat, sekzio karratuko iltzeak eta zeramika beiratuzko hondakin batzuk ere. Txanponei dagokienean, Enrike III.aren garaiko (1572-1598) bi meaja nafar, Felipe III.aren garaiko (1602) bi marabedi eta Felipe IV.aren garaiko (1636) sei marabediko pieza bat atzeman genituen.

Eraikineko hegoaldeko hormaren kanpoaldean 306 UE aurkitu dugu. Buztinezko geruza bat da, oso trinkoa, eta bernezur baten eta perone baten zatiak ageri dira azaleran. Hezurki horien ondoan pertsona heldu baten gorputz baten presentzia sumatzen da kanpoaldean lurperatua. Horrek guztiak baieztatzen digu bibliografiak adierazten duena, eliz ataria ere hilobi gisa aipatzen baitu.

Behin-behineko konklusio gisa, esan beharra dago aztarnategia badagoela egiaztatu dugula, eta bertan depositu arkeologikoa badagoela zalantzarik gabe. XVI. mendearen azkenaldekoak direla esango genuke aztarnategian kontserbatu diren azaleko mailak. XIV. mendeaz geroztik gutxienez tenplua leku horretan zegoela adierazten dute dokumentuek, eta kontuan harturik orain arte bazterreko eremuetan soilik jardun dugula, optimismo handiz begiratzen diegu etorkizunean ikerketa honek eskainiko dizkigun emaitzei.

cual se hallaban colocados en posición diversos cuerpos humanos, entremezclado con multitud de huesos humanos inconexos, y diverso material de ajuar entre el que destacan cinco monedas dispersas por el escaso 1'5 m.[2] que se ha excavado, así como collares, cuentas de collar, un alfiler, clavos de sección cuadrada y diversos restos de cerámica vidriada. Las monedas se corresponden con dos piezas de meaja navarras de Enrique III (1572-1589), dos piezas de un maravedí de Felipe III (1602) y una pieza de seis maravedís resellados de Felipe IV (1636).

Al lado exterior del muro sur del edificio, nos encontramos con UE 306, una capa de arcilla muy compactada, en la cual se observan en superficie restos de una tibia y un fémur en posición que permiten adivinar la presencia de otro cuerpo de un adulto enterrado en la zona exterior, confirmando lo que la bibliografía aporta en el sentido de citar el pórtico exterior también como lugar de enterramiento.

A modo de conclusión, siempre provisional, hemos de citar la confirmación del yacimiento como tal, así como la calidad inequívoca de su depósito arqueológico, el cual nos remite sin duda a finales del sg. XVI como inicio de los niveles superficiales en él conservados. El conocimiento documental de la existencia del templo desde por lo menos el sg. XIV, así como el hecho de estar actuando en zonas marginales del mismo nos lleva a pensar con optimismo en los resultados de futuro que nos pueda ofrecer esta investigación.

*Alex Ibáñez Etxeberria*

## A.3.1.3. Buruntzako Kastroa (Andoain)

V. Indusketa kanpaina

Carlos Olaetxeak zuzendua

Andoaingo Udalak subentzionatua.

## A.3.1.3. Poblado de Buruntza (Andoain)

V Campaña de excavaciones.

Dirigida por Carlos Olaetxea.

Subvencionada por el Ayuntamiento de Andoain.

***Buruntza Settlement (Andoain). Directed by Carlos Olaetxea.***

*This "mini-campaign" of excavations in 1996 brought the Buruntza excavation to a conclusion. The results confirm the previous hypotheses with no new data of importance. The material registered was becoming repetitive and the possibility of finding building remains was considered practically nil and so the excavation was terminated. In the near future the excavation reports for the 5 additional campaigns will be published.*

Egia esan, 1996ko kanpaina lau egun iraun duen "minikanpaina" bat izan da. Aurreko kanpainetan jaso ez genituen datuak biltzen jardun genuen eta sarrerako eremuko indusketa lanak amaitu genituen Buruntza mendiaren oinetan.

Indusketa lanaren zuzendariak Buruntzarako bidea induskatzeko interes handia zuen, indusketa honen A2 eta A4 eremuen artean geratzen zen, hain zuzen ere,

La campaña de 1996 ha sido en realidad una "minicampaña" de cuatro días de duración, que se ha centrado en la recogida de datos pendientes de campañas anteriores y en la terminación de los trabajos de excavación en la zona del camino de acceso a pie al monte Buruntza.

Existía un gran interés por parte del director de la excavación en excavar la parte del camino de acceso a Buruntza que quedaba entre las áreas A2 y A4 de la

alde hori. Alde batetik, material ugari eskaini zuten eremu batzuen ondoko eremua aztertu nahi genuen, eta bestetik, gailurrerako bidea erabat induskatua eta estalia utzi nahi genuen etorkizunerako.

Ekainaren amaieran eta uztailaren hasieran burutu ziren lanak. Indusketa azkar bat bideratu genuen A2 eta A4 eremuen artean utzitako lekukoan, eta induskatzean ateratako lur berarekin estali genuen, gailurreraino zihoan bidea ibiltzeko moduan gera zedin eta ez ia metrobeteko desnibela zuen jauzi bat.

Lortutako emaitzek berretsi digute zeramikazko material ugari dagoela eremu honetan, eta zepa hondakin txiki batzuk gehitu dizkiegu aurreko kanpainetan inguru hauetan aurkitutako materialei. Zeramikazko materialari dagokionean, tipologia aldetik ez dago aldaketa handirik aurreko kanpainetan aurkitutakoen aldean. Oso apurtua zegoen puska handi bat atera genuen gasaz bilduta, eta oraindik ezin jakin izan dugu ontziren baten zein zati den, berritxuratze prozesuan baitago. Guztira 8 bat objektu jaso ditugu inbentarioan, gasaz bildutako zeramikazko zati handi hori barne.

Ez du merezi lan horien ondorioak ateratzeak, indusketaren memoriarekin batera argitaratuko baitira kanpaina guztiei dagozkien konklusio orokorrak.

Bestalde, neke handian lan egin da laborategian aurreko kanpaina guztien betiko inbentarioa idatzi eta inbentarioan jasotako pieza guztiak marraztu ahal izateko argitalpenerako dena prest egon dadin.

Azaleratutako egituren sendotze posiblea. Aztarnategia babesteko lanak:

5 indusketa kanpaina hauek bideratu diren lurraren osaketa ikusirik, babesari loturiko arazoak oso txikiak izango direla uste dugu:

– Aztarnategiak sakonera txikia du: Horregatik 1992ko kanpainan eginiko ebakietan ikus daiteke sakonera hori, terraza hau oinarri naturaletik 40 edo 50 cm baino ez da altxaren alderik altuenean lurreko harriari dagokionean.
– Harresia edo terrazaren eustorma oso txikia da eta lurreko kararrizko harkoskoek osaturiko 2 edo 3 ilara ageri ditu.
– Oinarri naturala trinkoa da: Kararrizko karstalde bat da, oso trinkoa, eta ez du arazo handirik emango zutoinen zulo posibleetatik babesteko.
– Aztarnategia babesteko aspektuei konponbidea emateko, induskaturiko eremua plastikoz itxi dugu eta indusketan ateratako lurrarekin bete ditugu hondatzeko arrisku handiena duten aztarnategiko aldeak.
– Aztarnategi honen babesari loturiko beste aspektu batzuetarako Andoaingo Udalaren laguntza izan dugu, berak sustatu baitu proiektu hau eta bera baita aztarnategiaren azaleraren %90-en jabea.

excavación. En parte se deseaba explorar una zona contigua a otras que habían proporcionado abundante material y por otra parte se quería dejar para el futuro totalmente excavado y cubierto el camino de acceso a la cumbre.

Los trabajos se realizaron entre finales de junio y principios de julio y consistieron en una excavación rápida del testigo dejado entre las áreas A2 y A4 y su posterior recubrimiento con la misma tierra de la excavación con el fin de dejar un camino practicable hasta la cumbre y no un salto de casi un metro de desnivel.

Los resultados obtenidos reconfirmaron la abundancia de material cerámico en esta zona y añadieron algunos pequeños restos de escorias a los ya hallados en campañas anteriores en las proximidades. En cuanto al material cerámico hallado no hay grandes novedades tipológicas respecto a lo hallado en campañas anteriores. Se extrajo un gran fragmento multifracturado mediante la técnica de engasado y aún no se ha podido saber a que parte de alguna vasija corresponde porque se halla en proceso de restauración. En total han sido unos 8 objetos inventariables incluyendo el gran fragmento cerámico engasado.

No merece la pena concluir nada de estos trabajos. Las conclusiones generales que afectan a todas las campañas se publicarán junto con la memoria de la excavación.

Por otra parte se ha trabajado arduamente en el laboratorio para escribir el inventario definitivo de todas las campañas anteriores y dibujar todas las piezas inventariadas con el fin de tener todo dispuesto para la publicación.

Posible consolidación de las estructuras emergidas. Trabajos de protección del yacimiento:

Dada la configuración del terreno en el que se han llevado a cabo las 5 campañas de excavación creemos que los problemas relacionados con este aspecto pueden ser mínimos:

– La profundidad del yacimiento es pequeña: Por lo que se puede observar en los cortes realizados en la campaña de 1992, esta terraza apenas se levanta 40 ó 50 cm. en su parte más alta con respecto a la roca del terreno.
– La muralla o muro de contención de la terraza es de dimensiones muy reducidas y está formada por 2 ó 3 hiladas de cantos calizos del terreno.
– La roca del terreno es compacta: Se trata de un lapiaz calizo muy compacto que no tiene que dar problemas de conservación de posibles agujeros de postes.
– Los aspectos referentes a la protección del yacimiento se han solventado mediante un sellado del área excavada con plástico y relleno de la misma tierra extraída de la excavación en las zonas más sensibles del mismo.
– Para otros aspectos relacionados con la protección de este yacimiento contamos con la colaboración total del Ayuntamiento de Andoain que es quien ha promovido este proyecto y es propietario del 90% de la superficie del yacimiento.

– Horrenbestez, ez da beharrezkoa induskaturiko egiturak sendotzea, orain arteko higadura mailak eta lur jotako aldeek egoera guztiz egonkorrean utzi baitituzte egitura horiek.

### *Aspektu administratiboak*

Andoaingo Udala da jarduera arkeologikoak bideratu diren lurren jabea, eta berak sustatu du proiektu hau. Horrenbestez, erraztasun handiak izan ditugu eskatu beharreko baimenen eta babesaren aldetik, guk geuk eskatuta, arau subsidiarioen barnean sartu baitzen Buruntza Mendiko aztarnategiaren planoa ahalik eta babes hoberena izan dezan.

Aztarnategiak hartzen dituen lurren %50-aren jabea denez, aztarnategian zoritxarreko jarduerarik gerta ez dadin berme-emaile zuzena da Udala. Aztarnategi honek etorkizunean izango duen babesa gutxienez orain artekoa bezain eraginkorra izango dela ziur gaude. Arantzadi Zientzi Elkartea prest dago aztarnategi honen babesari dagokionean Udalak eska dezakeen edozein gauzatan laguntzeko.

– La consolidación de las estructuras excavadas no se hace pues necesaria puesto que el grado de erosión y derrumbamiento existentes hasta el presente las han colocado en una situación completamente estabilizada.

### *Aspectos administrativos*

El propietario de los terrenos sobre los que se han dado las actuaciones arqueológicas es el Ayuntamiento de Andoain, promotor de este proyecto, por lo que las facilidades han sido máximas en los aspectos de autorización y protección, puesto que a instancias de nosotros mismos se incluyó el plano yacimiento del Monte Buruntza en las normas subsidiarias con el objeto de que goce de la mayor protección.

El conocimiento directo del Ayuntamiento, propietario del 50% de los terrenos en el que se asienta el yacimiento, le hace garante de que no haya ninguna desafortunada actuación que puede afectar al yacimiento. Estamos seguros de que en el futuro la protección va a ser tan eficaz por lo menos como hasta el presente. La Sociedad de Ciencias Aranzadi se muestra dispuesta a colaborar en todo lo que solicite el Ayuntamiento a este respecto.

*Carlos Olaetxea*

## A.3.1.4. **Basagaingo Herrigunea (Anoeta)**

III. Indusketa kanpaina

Xabier Peñalverrek zuzendua

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

## A.3.1.4. **Poblado de Basagain (Anoeta)**

III Campaña de excavación.

Dirigida por Xabier Peñalver.

Subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

***Basagain (Anoeta) settlement. Directed by Xabier Peñalver.*** *A report on the work carried out at this site during 1996. As a result of the investigation, an interior stretch of the wall enclosure and some very interesting remains of turned pottery and animal remains were found.*

1996ko irailean zehar burutu dugu aztarnategi honetako hirugarren indusketa kanpaina.

1994an bideratu genuen lehen kanpainan induskatzen hasi ginen Ekialdeko terrazan oinarritu ditugu lan guztiak. Halaz ere, elkarren artean 40 m-ko tartea duten bi eremu desberdin aukeratu ditugu oraingoan Iparralde-Hegoalde norabidean.

Lehen eremuak bigarren kanpainan landu genituen 4. eta 5. bandak ukitzen ditu, eta harresia eta harresiaren gainean, Mendebaldean, dagoen terraza hartzen ditu.

Bigarren eremua 13. eta 14. bandetan dago eta 1x1 m - 2x2 metroko 24. zundaketa hartzen du.

En el curso del mes de septiembre de 1996 se ha llevado a cabo la tercera campaña de excavación en este yacimiento.

La totalidad de los trabajos practicados han afectado a la terraza Este donde ya se viene excavando desde la primera campaña de 1994. Sin embargo, en esta ocasión se han seleccionado dos zonas diferentes separadas entre sí 40 m. en sentido Norte-Sur.

La primera de ellas afecta a las bandas 4 y 5 en donde ya se había trabajado a lo largo de la segunda campaña, abarcando la muralla y la terraza situada al Oeste y sobre la misma.

La segunda, en las bandas 13 y 14, comprendía así mismo uno de los sondeos (el n.º 24) de 1x1 m. a 2x2 m.

Lehen eremuak, Hegoaldeen dagoenak, lodiera estratigrafiko handia ageri du eta material arkeologiko ugari. Koadrikula honen Ekialdean dagoen eremuan egindako indusketari esker, harresiaren barnealdeko hormatala aurkitu dugu. Kanpoaldeko hormatala agerian utzi genuen dagoeneko lehen indusketa kanpainan.

Barnealdeko horma honen ezaugarriak neurri batean desberdinak dira kanpoaldekoaren aldean. Kanpoaldekoa bloke handi samar batzuez egindako ilara batek osatzen du eta hartxabat txiki batzuk erabili dira gero pareta altxatzeko, barnealdean aurkitu dugun horma egiteko, berriz, neurri ertaineko harriak erabili dira, eta oraingoz ez dira azaldu kanpoaldeko hormatalaren gehiengoa osatzen duten hartxabal txikiak.

Bestalde, interes handia eskaintzen dute eremu honetan aurkitutako materialek. Ugari dira zeramikazko hondakinak, eskuz eginak nagusiki (askoz ere gutxiago baitira tornuan landutakoak), eta burdinazko objektuen hondakinak ere azaldu dira, gaur egun berritxuratze fasean daudenak. Fauna hondakinak dira aztarnategi honetako aurkikuntza esanguratsuenak.

Orain arte induskaturiko aztarnategietan ia animalia hondakinik aurkitu ez dugunez, ez genuen ezagutzen jende honen oinarri ekonomikoaren alde handi bat, eta oraingoan, lehen informazio sendoa eskaintzen hasi zaigu aztarnategi hau.

Azterturiko bigarren eremua deskribatu dugunaren Iparraldean dago, eta 13 eta 14 W, 13 eta 14 V eta 13 eta 14 U koadroen alde bat hartzen du, 20 metro karratu guztira. Leku honetan agerian gelditu da lur jotako harresia, eta horrez gainera, zeramikazko eta metalezko objektu ugari eta ikazturiko egur puska batzuk atzeman ditugu.

17 eta 17 S koadroak ukitzen dituen 24. zundaketaren zabalkuntzari dagokionean, adieraztekoa da egur ikatz puska ugari aurkitu ditugula bertan. Oso puska handiak dira eta oraindik zehaztu gabe dauden egituren hondakinak izango dira seguraski.

Kanpaina honetan bideratu ditugun lanen ondorio global gisa, adieraztekoa da induskatzen ari garen Ekialdeko terraza honek interes handia duela, material ugari azaldu baita irekitako koadro guztietan. Bestalde, zeramikazko hondakinen artean mota berriak definitu ditugu, bai eskuz bai tornuan landutakoak. Halaz ere, lehen adierazi dugun bezala, aurkitu dugun material paleontologikoak eskainiko digu informazio berri handiena, aztarnategi honena ez-ezik, Azken Brontzean eta Burdin Aroan Gipuzkoan izandako habitat guztiena ere.

El área primera, situada más al Sur, presenta una importante potencia estratigráfica con abundantes materiales arqueológicos. La excavación de la zona situada más al Este de esta cuadrícula ha permitido localizar el lienzo interior de la muralla. El lienzo exterior ya habría sido sacado a la luz en el curso de la primera campaña.

Las característica de esta pared interior difieren en parte de la exterior; así, mientras que esta última está formada por una hilada base de bloques de considerables dimensiones para continuar levantando la pared mediante pequeñas lajas, en la descubierta ahora en la zona interior las piedras son de tamaño intermedio, no habiéndose localizado de momento las pequeñas lajas que constituyen la mayor parte del lienzo exterior.

Por otra parte, los materiales obtenidos en esta zona ofrecen un gran interés. Si bien los restos cerámicos, principalmente fabricados a mano, siguen siendo frecuentes (más raramente cerámicas a torno), y aparecen así mismo restos de objetos de hierro, hoy en fase de restauración, ha sido el hallazgo de fauna lo más significativo.

La práctica inexistencia de restos animales en los yacimientos hasta ahora excavados hacía que desconociéramos una parte importante de la base económica de estas gente, y que ahora, este yacimiento comienza a aportar las primeras informaciones sólidas.

La segunda de las áreas trabajadas, situada al Norte de la descrita abarca una parte de los cuadros 13 y 14 W, 13 y 14 V y 13 y 14 U con un total de 20 metros cuadrados. Este lugar, además de dejar a la luz el derrumbe de la muralla ha proporcionado numerosos objetos cerámicos y metálicos así como fragmentos de maderas carbonizadas.

Por lo que se refiere a la ampliación del sondeo n.º 24 y que afecta a los cuadros 17 y 17 S, destaca la gran abundancia de maderas carbonizadas de gran tamaño y que muy probablemente corresponden a restos de estructuras aún sin determinar.

Como consideración global de los trabajos practicados en la presenta campaña habría que destacar por una parte el interés que la terraza Este en donde nos hallamos excavando ofrece, con abundantes materiales en todos los cuadros abiertos. Por otra parte los restos cerámicos están permitiendo definir nuevos tipos, tanto a mano como a torno. Sin embargo, y tal y como hemos señalado anteriormente son los hallazgos de material paleontológico los que van a permitir obtener mayor información novedosa, no sólo para este yacimiento sino también para la totalidad de los hábitats del Bronce Final y Edad del Hierro en Gipuzkoa.

*Xabier Peñalver*

## A.3.1.5. Lezetxiki Lezea (Arrasate)

I. Indusketa kanpaina

Alvaro Arrizabalagak zuzendua

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua eta berak ordaindua.

## A.3.1.5. Cueva de Lezetxiki (Arrasate)

I Campaña de excavaciones.

Dirigida por Alvaro Arrizabalaga.

Subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa y con fondos propios.

***Lezetxiki (Arrasate) cave. Directed by Alvaro Arrizabalaga.*** *Renewing the classic excavation of J.M. de Barandiarán and his team at Lezetxiki between 1956 and 1968, a 5 square metre area was opened at the surface of the south section of the site. These new investigations aim to clarify various points relating to chronology and to the extent and cultural description of several levels at Lezetxiki (particularly the foundations and the transition between the Mid- and Late Palaeolithic). A plan to guarantee the mid-term conservation of the site is desirable because of the severe deterioration caused by natural agents, amateur archaelogists and the degeneration of the natural envirnoment.*

1996ko abuztuaren 13tik aurrera bideratu dira lehen landa lanak Lezetxiki aztarnategian, J.M. Barandiaranek eta J. Altunak 1968. urtean zuzendu zuten kanpainaz geroztik ez baita bertan indusketarik burutu. Data horren aurretik, eta lanak bukatu ondoren ere, bisitaldi batzuk egin ditugu aztarnategira indusketa prestatu eta induskaturiko eremuaren kontserbazio egoera egiaztatzeko asmoz. Abuztuko hilabetearen bigarren hamabostaldian eguraldi txarra egin zuelako eta induskatu beharreko azalerak estalki-egiturarik ez zuenez, ez ditugu lanegun guztiak osorik aprobetxatu. Halaz ere, 10 erditaila induskatu ditugu guztira hasieran diseinaturikoa baino indusketa eremu zabalago batean. Izan ere, indusketa hasi bezain laster egin behar izan genuen lehen lana zera izan zen, Barandiaranek egindako indusketaren (1956-1968) koadrikula eta 0 maila berreskuratu.

Ondoren, koadrikula horren egoeraren arabera baloratu zen aztarnategiaren hondatze maila zer-nolakoa zen (Lezetxiki lezea Babesteko Memorian egoera horren berri eman zen eta 1996ko azaroan eman zitzaien memoria hori erakunde eskudunei). Laburbilduta, lezearen ertzean izandako higadurak, eta batez ere, isileko induskatzaileen jardunak (begiratu hutsez ikus daitezke oraindik aitzurrek eta jorraiek deposituaren ekabi batzuetan utzitako arrastoak) deposituaren 20-30 metro kubiko hondatu dituzte. Sedimentuen hondatze hori katastrofikoa da kontuan hartzen badugu suntsituriko banden ondoko bandetan aurkitu zirela neanderthalgo gizonaren bi haginak (lau besterik ez dago Euskal Herri osoan), horrelako materialak ere galdu izango baitira beharbada. Depositu arkeologikoa maila guztietan babestea da bideratu beharreko lehen lana Lezetxiki lezea kontserbatu nahi badugu.

Indusketa bideratzeko bereizi dugun gunean, mendebaldetik plano inklinatuan jaisten den mazela lerroa baino gorago dago aztarnategia, eta puntu batzuetan metro bat lur baino gehiago kendu badugu ere, kanpaina honetan ia ezin izan gara sedimentu arkeologikoraino iritsi. Ib azpimailaren azaleraino baino ez dugu sakondu induskaturiko azaleraren ekialdeko puntuetan.

A partir del 13 de agosto de 1996, se han desarrollado las primeras tareas de campo en el yacimiento de Lezetxiki desde la conclusión de la campaña de 1968, codirigida por J.M. de Barandiarán y J. Altuna. Tanto con anterioridad a esta fecha, como posteriormente a la conclusión de los trabajos, se han efectuado visitas preparatorias de la excavación y de comprobación del estado de conservación del perfil excavado, respectivamente. A causa de la mala meteorología reinante en la segunda quincena del mes de agosto y a la falta de una estructura de cobertura de la superficie de excavación, no todas estas jornadas han podido ser aprovechadas en su integridad. Sin embargo, se ha podido excavar un total de 10 semitallas en una superficie de excavación más amplia de la que habíamos diseñado en un primer momento. De hecho, la primera tarea que debimos asumir nada más comenzar la excavación consistió en la recuperación de la cuadrícula y el nivel 0 de la excavación de Barandiarán (1956-1968).

A continuación, se valoró en función a dicha cuadrícula la magnitud del deterioro del yacimiento (ya detallada en la Memoria de Protección de Lezetxiki, entregada en noviembre de 1996 a las instituciones competentes). En resumen, la erosión del cantil y, sobre todo, la actuación de excavadores furtivos (se observan todavía a simple vista las huellas dejadas por azadas y azadillas en varios cortes del depósito) han destruido entre 20 y 30 metros cúbicos del depósito. Este volumen de sedimento destruido adquiere proporciones catastróficas si consideramos que los dos molares correspondientes a especímenes neanderthales (sólo existen cuatro en el País Vasco) fueron local izados en las bandas limítrofes a las expoliadas y es probable que se hayan perdido también evidencias de este tipo. La protección del depósito a todos los niveles posibles debe constituir una prioridad de cara a garantizar la perduración de Lezetxiki.

Debido al hecho de que en el punto seleccionado para su excavación el yacimiento se incorpora a la línea de ladera que desciende en plano inclinado desde el oeste, a pesar de haber retirado en algunos puntos más de un metro de terreno, prácticamente no se ha incidido en esta campaña sobre sedimento propiamente arqueológico. Sólo se ha alcanzado el techo del subnivel Ib en los puntos más orientales de la superficie excavada.

Indusketaren bigarren aldian lortutako datuak indusketa klasikoetan lortutakoekin alderatzeko xedean, J.M. Barandiaranek 1956-1968 urteetan zehazturiko koadrikularen trazatua eta 0 maila berreskuratzea izan zen gure lehen lana. Indusketa eremutik hurbil, hiru puntu desberdinetan zehaztu genuen 0 mailari zegokion kota, eta horrenbestez, edozein aurkikuntza berrira eraman daiteke hasierako 0 mailaren erreferentzia.

Barandiaranek zehaztutako koadrikula berreskuratu ondoren, induskatu baharreko azalera bereizi genuen. Aztarnategiaren ezaugarriak eta dagoeneko ezagutzen genuen betegarriaren morfologia (okermendu handia zuen hegoaldera, eta okermendu arinagoa ekialdera) kontuan harturik L itxurako morfologia bat aukeratu genuen induskatzeko, eta hegoaldetik eta ekialdetik inguratu genuen Lezetxikiko hondaturiko hegoaldeko perfila. Gainera, induskatu beharreko eremua Lezetxikiko harpeak mugatzen zuen mendebaldean, eta berriro induskaturiko ebakia eta 18. bandako luebakia zituen iparraldean. Lan klasikoetan luebaki horretatik sartzen ziren indusketa eremura.

Hautaturiko bost koadroetan (E20, E22, E24, D24 eta C24) erditaila batzuk induskatu genituen bata bestearen atzetik (10 guztira). Erditaila horietan mendebalderantz ageri den desnibel handia arintzen saiatu ginen. C bandaren gainera mazelako lurra erori ondoren eraturiko deposizio ez arkeologikoek eragiten zuten desnibel hori. Mendebale-ekialdeko norabidea zuen okermendu handia (aipaturiko lur-erortze horiek eragina) berdintzen saiatu ginen ebaki estratigrafikoek eta indusketa klasikoan atzemandako material arkeologikoek zehazten zuten malda natural txikia agerian gera zedin.

Material arkeologiko guztiak I. mailan atzeman ditugu, zehatzago adierazteko, maila horren Ib azpimailaren gainean (Azken Madalen Aldia). Era askotako harrizko elementuak eta landare-ikatz puskak dira, eta guztiak jaso ditugu behin-behineko dataketa absolutua agin ahal izateko. Aipatzekoa da estalkiak tunel moduan izandako kolapso desberdinek Lezetxikiko estratigrafia agerian uzten dutela azpiko maileletatik hasita, eta horrenbestez, maila berrienak ia ez dira ageri induskaturiko eremuan, harpearen hegaletik oso urrun baitago eremu hori. Estratigrafian sakondu ahala finkamenduaren nukleoa hegoaldeko perfilera hurbiltzen joango da, bere garaian hantxe baitzegoen tunelaren hegala ere.

Con el fin de poder equiparar plenamente los datos obtenidos en el segundo período de excavaciones con los de las excavaciones clásicas, nuestro primer esfuerzo se dirigió a recuperar el trazado de la cuadrícula y el nivel 0 fijados por J.M. de Barandiarán entre 1956 y 1968. La cota respectiva hasta el nivel 0 fue consignada en tres puntos diferentes, próximos al área de excavación, de modo que pueda trasferirse la referencia al nivel 0 original a cualquier nuevo hallazgo.

Una vez recuperada la cuadrícula de Barandiarán, se seleccionó la superficie de excavación. Dadas las características del yacimiento y la morfología ya conocida de la deposición de su relleno (fuerte buzamiento hacia el sur, ligero buzamiento hacia el este), fue elegida una morfología en L para la superficie a excavar, bordeando por el sur y el este el deteriorado perfil sur de Lezetxiki. Además, la zona de excavación queda acotada por el oeste por la roca del abrigo de Lezetxiki y por el norte, por el corte sobreexcavado y la trinchera de la banda 18 por la que se accedía al interior del área de excavación durante los trabajos clásicos.

En los cinco cuadros seleccionados (E20, E22, E24, D24 y C24) se procedió a una excavación de sucesivas semitallas (hasta 10), en las que se ha intentado aliviar el importante desnivel hacia el oeste, motivado por la deposición no arqueológica de derrubios de ladera sobre la banda C. Se ha intentado convertir el exagerado buzamiento oeste-este (debido a los mencionados derrubios de ladera) en la leve pendiente natural determinada en función a los cortes estratigráficos y la dispersión de materiales arqueológicos de la excavación clásica.

Las evidencias arqueológicas localizadas corresponden íntegramente al nivel I, en concreto, al techo de su subnivel Ib (Magdaleniense final). Se trata de diferentes evidencias líticas y de restos de carbón vegetal, recogidos para su eventual datación absoluta. Cabe destacar el hecho de que los sucesivos colapsos de la cubierta en túnel jalonan la estratigrafía de Lezetxiki desde sus niveles inferiores, de modo que los niveles más recientes sólo están pobremente representados en la zona excavada, muy alejada ya del resguardo de la visera. A medida que vayamos profundizando en la estratigrafía, el núcleo del asentamiento debe acercarse más y más al perfil sur, como en su día lo estaba la propia visera del túnel.

*Alvaro Arrizabalaga*

## A.3.1.6. Atxurbiko Monumentu Megalitikoa (Ataun)

J.A. Mujika Alustizak zuzendua

Ataungo Udalak subentzionatua eta berak finantzatua.

## A.3.1.6. Monumento Megalítico de Atxurbi (Ataun)

Dirigido por J.A. Mujika Alustiza.

Subvencionado por el Ayuntamiento de Ataun y financiación propia.

*__Atxurbi (Ataun) Megalithic Monument. Directed by J.A. Mujika Alustiza.__ The megalithic monument of Atxurbi (Ataun, Gipuzkoa) is in the same area as the dolmens excavated in recent years although, despite the fact that it is a very visited area near the Urrezulko Armurea dolmen, its existence has not been known until this year. The dolmen cist is unusual in that there are very few of this type of tomb in the area. It has the classic features of a space enclosed by 1 m. long and 0.50 m. wide flags. The tumulus surrounding and covering the grave is just under 6 m. diameter and 0.50 m high. The cist wa completely empty although on the surface of the tumulus there was a small scattering of roughly-hewn chips of flint. The results of C14 dating are awaited to fix chronology although in a nearby similar grave, dating suggests the middle of the II millennium.*

Atxurbiko monumentua izen bereko mendian dago, Urrezulko Armurea trikuharriaren hegoaldean 100 bat metrora, Ormalatzako gailurrerako norabidean dagoen lehen maldaren (eremu lau bat hasten den gunean) oinarrian dago, Ataun eta Idiazabalgo udalerriak bereizten dituen burdin harizko hesiaren ondoan.

L Ugartek eman zizkigun lehen berriak, ote eta iratze artean neurri ertaineko monumentu bat egon zitekeela adierazi baitzigun. Leku horretan zehar mendizaleek joan-etorri ugari egiten duten arren, orain arte monumentu hori ez da identifikatu landaretzak eta sedimentuen deposisio prozesuek izkutuan gorde dutelako seguraski, maldan behera etorri ondoren sedimentu ugari pilatu baita monumentuaren iparraldean. Horrez gainera, aipatzekoa da azaleratze natural ugari dagoela gailurrean, harri-multzo edo pila artifizial ugari baitago eta, azkenik, kontuan eduki behar da monumentua txikia dela.

Uztailaren 9an ekin genion monumentu honetako indusketa lanari eta hilabete bereko 20an bukatu genuen. Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko eta Madrilgo Universidad Complutense unibertsitateko hogei bat ikaslek hartu dute parte lan horietan.

Era honetako aztarnategietan erabili ohi dugun metodologia erabili dugu oraingoan ere. Lehenengo monumentua koadrikulatan bereizi genuen, puntu kardinalekin bat zetozen ardatzak, eta ondoren, indusketa lanari ekin genion. Horretarako, marrazkiak egin eta bakoitzaren informazio grafikoa lortu ondoren, geruzak altxatzen hasi ginen banan-banan.

Azaleko geruza harrotu genuen lehenengo, landare estalkiak eta tumulua eraiki ondoren eratu zen humusak osatzen zuen. Geruza hori iparraldean lodiagoa zen hegoaldean baino, tumuluak berak alde horretan geldiarazi egin baitzituen mazelan bera irristatu ziren materialak. Lehen geruza hori harrotu ondoren, monumentuaren mugak bilatu genituen eta elementu interesgarri batzuk azaldu ziren (ganbara, tumuluaren egituran nolabaiteko antolamendua zegoela adierazten

El monumento de Atxurbi se localiza en el monte del mismo nombre, a unos 100 m. al sur del dolmen de Urrezulko Armurea, en la base de la primera pendiente (en su contacto con otra zona llana) que existe en dirección al collado de Ormalatza, junto a la alambrada que separa los términos municipales de Ataun e Idiazabal.

Las primeras noticias se deben a L. Ugarte, quien nos comunicó la existencia de un posible monumento de dimensiones discretas entre abundante argoma y helechos. Las razones que han impedido su identificación hasta ahora, aún localizándose en un lugar muy transitado por los montañeros, han debido ser el enmascaramiento producido por la vegetación y los procesos de deposición de sedimentos que acarreados por la cuesta se acumulaban sobre su mitad norte. A esto es necesario añadir la abundancia de afloramientos naturales a lo largo de la cresta, la presencia de numerosos morcueros o amontonamientos artificiales y, finalmente, las reducidas dimensiones del propio monumento.

La excavación del monumento se inició el 9 de julio y se finalizó el 20 del mismo mes colaborando en dichos trabajos una veintena de alumnos de la Facultad de Filología, Geografía e Historia (Gasteiz) y de la Universidad Complutense (Madrid).

La metodología de excavación ha sido la que habitualmente hemos utilizado en este tipo de yacimientos. En primer lugar se procedió a cuadricular el monumento de forma que los ejes coincidiesen con los puntos cardinales y a continuación se inició su excavación levantando capas sucesivas una vez que se realizaron los dibujos u obtenido información gráfica de cada una de ellas.

La excavación se inició levantando la capa superficial constituida por el manto vegetal y el humus formado sobre el túmulo después de su construcción. Esta capa era más potente en el lado norte que en el sur, debido a que el propio túmulo había ido reteniendo los materiales que se deslizaban por la ladera. Una vez levantada esta primera capa se delimitó el monumento y se identificaron diferentes elementos de interés (cámara, indicios que indicaban la existencia de

zuten aztarnak, eta abar). Oso azalera txikia induskatu genuen, jatorrizko egiturak osatzen zituzten elementuen kokapena errespetatu nahi baikenuen. Gauza bera egin genuen tumuluaren gainerakoan (hegoaldekoa baino hobeto kontserbatua zegoen iparraldeko erdia ez zen induskatu), eta elkarren ondoan zeuden koadro batzuetan baino ez genuen jo harri naturala edo paleozorua.

Maldaren behealdean eraiki zen monumentua, eremu lau bat hasten den gunean, eta buztin, marga eta hareharrizko pila natural txiki bat zegoen puntu horretan. Bi alde zehatz bereizi genituen indusketan zehar: zista edo ganbara eta tumulua.

Erdialdean ganbara ageri da, esparru angeluzuzen bat da eta 100 cm-ko luzera du alderik altuenean eta 50 cm-ko zabalera. Neurri horiek zertxobait handiagoak ziren oinarrian. 45 cm-ko altuera zuen. Hilobi esparrua osatzen duten zortzi lauzak zangetan sartuak daude, pixka bat makurtuak barnealdera. Ganbararen egonkortasuna ziurtatzeko burualdeko lauzan eta haren aurkakoan bematzen ziren albo ertzetako lauzak. Ganbara osatzen zuen lauzetako batek bakarrik ageri zuen hartxabal txiki bat barnealdean ziri moduan sartua. Lauza gehienek antzeko ezaugarriak eta neurriak zituzten, nabari da arreta handiz aukeratu zituztela. Zorua lauzaz egina da.

Monumentua eraiki zutenean ganbara egin zuten lehenengo. Ondoren, ganbara hori sendotu zuten, eta

cierta organización en la estructura tumular, etc.). La superficie excavada fue muy limitada con el fin de respetar la posición de los elementos que constituían las estructuras originales. Esta actitud también se mantuvo en el resto del túmulo (la mitad norte mejor conservada que la del sur no fue excavada), y sólo en varios cuadros contiguos se profundizó hasta la roca madre o el paleosuelo.

El monumento está construido en la parte baja de la pendiente, en su contacto con un aplanamiento, punto en el que existía un pequeño montículo natural de arcillas, margas y areniscas. Durante la excavación se diferenciaron dos partes bien definidas: la cista o cámara y el túmulo.

En la zona central se observa la cámara, un recinto rectangular cuyas dimensiones son en la parte más alta 100 cm. de longitud y una anchura de 50 cm. En la base, dichas medidas eran algo más amplias. Su altura era de 45 cm. Las ocho losas que conforman el recinto sepulcral están introducidas en zanjas, ligeramente inclinadas hacia el interior. La estabilidad de la cámara se asegura colocando las losas laterales de los extremos apoyadas sobre la de cabecera o la opuesta a ésta. Sólo una de las losas de cámara presentaba una pequeña laja en su cara interior a modo de cuña. Las características y dimensiones de la mayoría de ellas eran muy similares, resultado de una cuidada selección. El suelo estaba enlosado.

La construcción del monumento se inició con la erección de la cámara. A continuación los esfuerzos



Atxurbiko Monumentu Megalitikoa (Ataun). Hilobiaren ikuspegi orokorra azaleko lehen geruza harrotu ondoren.

Monumento Megalítico de Atxurbi (Ataun). Vista general del sepulcro tras la limpieza de la 1.ª capa superficial.

horretarako, hartxabal ugari ezarri zituzten inguruan teilen modura, ezkatak balira bezala, eta erdialdera zuzenduak. Ganbara egituratzeko modu hau, hau da, gehiago edo gutxiago ikusten den gerriko antzeko bat ganbararen inguruan, beste monumentu batzuetan ere deskribatu da, Praalatan edo Aitxun, esate baterako, hurbilenak aipatzeagatik. Ganbararen kanpoaldean zegoen tumuluaren gainerakoa. Tumuluan "peristalito" edo inguruko eraztun gisa egokitu ziren hartxabalak, eta nabari da arretaz kokatu zirela harriak. Horri esker, honen antzeko beste egitura mota batzuk ulertzeko aukera izan dugu, hala-moduan kontserbatu zirelako edo alde batzuk bakarrik kontserbatu zituztelako ezin izan baitziren behar bezala deskribatu.

Tumuluaren jatorrizko diametroak 6 bat metro neurtzen zuen eta altuera ez zen 50 cm-ra iristen erdialdean. Tumulua eraikitzeko, ganbara eraikitzeko bezalaxe, hareharria erabili zen, gailurrean azaleratze txiki asko zegoenez horrelako material ugari baitzegoen leku honetan. Ohi bezala, harrien tamaina aldatu egiten da oinarrian daudenen (handiagoak dira) eta horregatik idusketa hasi zenean azaldu ziren dagoneko, eta betegarri gisa bota zirenen edo egitura sendotzeko sartu zirenen artean, harri horiek txikiagoak ziren eta handien artean sartuta geratu ziren.

Nekropolian aurkitutako tresneriari dagokionean, adieraztekoa da emaitzak oso pobreak izan zirela. Ganbaran ez genuen inolako objekturik aurkitu eta tumuluaren azaleran soilik, eta batzuetan sakonago ere, atzeman genituen harrizko material batzuk. Gehienak taila hondakinak ziren, eta ia ez ziguten informazio interesgarririk eskaini.

Bestalde, tumulu honen kronologia zehaztea lan zaila da oso; izan ere, oso material gutxi aurkitu dugu eta material horren ezaugarriek eta jatorriak ere ez digute gauza handirik adierazten (aurkitutako hondakin gehienak azaleran zeuden). Horregatik, inguru honetan induskatu berri diren beste hilobi batzuekin (Aitxu, Mulisko Gainako zista bikoitza, Onddi) alderatu baino ezin dugu egin, antzeko ezaugarri morfologikoak eta antzeko portaera erakusten baititu. Horrez gainera, ganbararen barnealdean aurkitutako ikatzek tumuluaren dataketa eskainiko digutela espero dugu.

Halaz ere, hilobi honetako indusketak duen interesa zera da, tipologia megalitikoari eta haren kronologia bilakaerari dagokionean berriro ere arazo batzuk planteatzera eraman gaituela. Orain dela urte batzuk, Gernikan ospatu ziren Jardunaldi Megalitikoak (1992-X) zirela-eta, hausnarketa batzuk egin genituen trikuharri bakunei eta zistei begira, baina trikuharri motzak eta luzeak ez genituen definitu, orduan ere orain bezalaxe ez baikenuen datu berririk. Lehenengo, esan behar da bibliografia ez datorrela bat Euskal Herrian eraikitako hilobi mota hauei eman zaizkien izen desberdinei dagokienean (trikuharri bakunak, zista megalitikoak, trikuharri kutxak). Uste dugu ez dela komenigarria beste lurralde batean erabilitako kontzeptu batzuk besterik gabe ekarri eta hemen aplikatzea, horrek epe motzean nahasi baino ez bailuke egingo ikerketa. Bestalde, xeheago definitu behar dira hemen induskatutako egiturak, eta kontuan eduki behar dira aztertzen ari garen

se centraron en su consolidación colocando en torno a ella numerosas lajas imbricadas entre sí, a modo de escamas, y orientadas hacia el centro. Este tipo de estructuración de la cámara con una especie de cinturón circundante más o menos claro ha sido descrito en otros monumentos, pudiendo mencionar entre los más próximos Praalata o Aitxu. Hacia el exterior de él se desarrollaba el resto del túmulo, en el que se observaban lajas dispuestas a modo de "peristalito" o anillo periférico, donde la disposición de las piedras es bastante cuidada, lo que ha permitido la comprensión de otros tipos de estructuras similares que bien por su regular conservación o su parcial observación no habían sido suficientemente descritas.

El diámetro original del túmulo era de unos 6 m. y la altura, en la zona central, apenas alcanza los 50 cm. Para su construcción, al igual que para la cámara, se utilizaron piedras de arenisca, materia prima abundante en el lugar debido a la abundancia de pequeños afloramientos existentes a lo largo de la cresta. El tamaño de las piedras, como es habitual, varía entre los situados en la base (de mayores dimensiones), pero que pueden asomar ya desde el inicio de la excavación, y aquellas otras de menor tamaño arrojadas a modo de relleno o introducidas para consolidar la estructura al quedar embutidas entre las mayores.

En relación al ajuar hallado en la necrópolis hay que indicar que los resultados fueron muy pobres. En la cámara no se recuperó objeto alguno y sólo en la superficie del túmulo, y en algún caso a mayor profundidad se recogieron algunas evidencias líticas, en su mayoría restos de talla, que apenas aportaron información de interés.

Por otra parte en cuanto a la cronología que podríamos atribuirle la tarea es harto difícil debido a la escasez, características y procedencia (la casi totalidad de los restos son superficiales) de las evidencias industriales halladas. Por ello, sólo su comparación con otros sepulcros del entorno más próximo y recientemente excavados (Aitxu, cista doble de Mulisko Gaina, Onddi), de características morfológicas similares y comportamiento semejante pueden ser tenidos en cuenta, además evidentemente de la propia datación que esperamos aportarán los carbones localizados en el interior de la cámara.

No obstante, la excavación de este sepulcro presenta el interés de volvernos a plantear algunos problemas en relación a la tipología megalítica y a su posible evolución cronológica. Hace algunos años, con motivo de las Jornadas Megalíticas celebradas en Gernika (X-1992), aprovechamos la ocasión para hacer algunas reflexiones sobre los dólmenes simples y las cistas, sin entrar en la definición o caracterización de los dólmenes cortos y largos, ya que entonces como hoy no podemos aportar datos novedosos. Una primera constatación es la falta de unanimidad existente en la bibliografía sobre las distintas denominaciones aplicadas (incluso definiciones) a este tipo de sepulcros (dólmenes simples, cistas megalíticas, cofres dolménicos) construidos en Euskal Herria. Creemos que no es conveniente trasladar sin más una serie de conceptos utilizados en otro territorio para su aplicación aquí, ya que a corto plazo acarrea confu-

eremuaren ikerketa tradizioa eta eremu horren ezaugarriak eta prozesu historikoa.

Azken urteetan bideratu diren indusketen ondorioz planteaturiko zailtasunetako bat zera da, trikuharri bakun gisa izendatu edo katalogaturikoen artean, arkitektura aldetik antza handia izanagatik ere, errealitatean gizarte eboluzionatu eta hierarkizatuago batek eraiki zituen monumentuak (zistak edo trikuharri kutxak) bereiztea, hori erakusten baitute hileta erritoek eta kronologiak. Argi dago, aurkitu ziren unean zista gisa (Onddi, Mulisko Gaina) katalogatu ziren hilobi haiek, geroago xehe ezagutu ziren X. Peñalverrek egin zituen indusketa lanei esker, hurbileko trikuharrien ezaugarri berak zituztela (agerian geratzen zen tumulu batek inguratzen zuen ganbara, eta abar), zituzten berezitasun batzuek definitu beharreko monumentu berezi bihurtzen bazituzten ere. Bestalde, adieraztekoa da baratz inguru edo harrizko zirkuluen barnean kokatzen zirela gehienetan, eta erradiokarbonoz egindako dataketan ez dutela data onargarririk eskaini. Hala eta guztiz ere, II. milurtekoaren bigarren erdialdekoak direla pentsa genezake.

Aitxuko (1993) eta Atxurbiko (1996) nekropolietan bideratutako indusketek berrikuntza batzuk eskaini dizkigute aipaturiko Jardunaldi horietan aurreratu genuenaren ildotik. Bi egiturak trikuharri txikiak direla esa genezake, trikuharri txikiek dituzten elementu arkitektoniko berak baitituzte, zehaztapen batzuk egitea komeni bada ere.

– Ganbara monumentuaren erdian dago, eta ohiko trikuharrienak baino neurri txikiagoak ditu. Luzera gorena ez da metrotik gora igarotzen eta ez da 50 cm baino zabalagoa. Ganbararen itxura angeluzuzena da argi eta garbi, eta bestalde, arreta eta zehaztapen handiz eraiki dela sumatzen da. Hala, hartxabalak zangetan sartuak daude, elkarren artean gainjarriak, eta azkenean burualdeko lauzan bermatzen dira ondo kontserbaturiko trikuharri bakun askotan (hilobi korredore batzuen sarreran ere ikusi da gainjartze hori) gertatzen den bezala.

– Tumuluak neurri txikiagoa du (8 m baino gutxiago), baina eraikuntzaren aldetik beste edozein trikuharriren antza du eta elementu arkitektoniko berak ageri ditu (peristalitoa, eta abar.)

Halaz ere, arkitektura zehaztapen horiek ez zirela aski pentsatu genuen era honetako monumentuak trikuharrietatik bereizteko, eta komenigarritzat hartu genuen tresneria, hileta erritoa eta kronologia eraikuntza ezaugarri horien ondoan jartzea. Honako zehaztapen hauek eskaini dizkigute indusketa hauetan lortutako datuek:

– Monumentu hauek, eta lehen aipaturiko beste biek (Onddi, Mulisko Gaina) ere, ganbara hutsik ageri dute trikuharrietan gertatzen ez den bezala, lur iraultze eta miaketa lanak bideratu arren kontserbatu egin baitute hasierako tresneriaren hondakinen bat. Halaz ere,

sión en la investigación. Por otra parte, es necesaria una mayor precisión en la definición de las estructuras aquí excavadas y tener en cuenta la propia tradición investigadora del área que tratamos y las características y proceso histórico del mismo.

Una de las dificultades planteadas a raíz de las excavaciones realizadas los últimos años es el de la diferenciación dentro de los denominados o catalogados como dólmenes simples aquellos monumentos (cistas o cofres dolménicos) que a pesar de su enorme parentesco arquitectónico, en realidad habían sido construidos por una sociedad más evolucionada y jerarquizada, pudiéndose rastrear pruebas de ello en el ritual funerario y en su cronología. Era evidente que algunos sepulcros catalogados como cistas (Onddi, Mulisko Gaina) desde el momento de su descubrimiento, y posteriormente conocidos en detalle gracias a las excavaciones realizadas en ellos por X. Peñalver, tenían una serie de características (cámara rodeada por un túmulo evidente, etc.) que compartían con los dólmenes más próximos, aunque presentaban una serie de peculiaridades que los convertían en monumentos singulares a definir. Por otra parte, es de señalar que su ubicación coincide, preferentemente, con un entorno de "baratz" o círculos de piedras y que no han aportado datación radiocarbónica aceptable, si bien podría pensarse en una fecha correspondiente a la 2.ª mitad del II milenio.

Las excavaciones desarrolladas en las necrópolis de Aitxu (1993) y Atxurbi (1996) aportan ciertas novedades en la línea de lo que adelantamos en las Jornadas mencionadas. Ambas estructuras podrían sucintamente considerarse como dólmenes pequeños, ya que comparten con ellos toda una serie de elementos arquitectónicos, aunque a la vez son necesarias ciertas precisiones.

– Las dimensiones de la cámara, que se localiza en el centro del monumento, son más reducidas que las de los típicos dólmenes. La longitud máxima apenas sobrepasa el metro de longitud y la anchura los 50 cm. La forma de la cámara es claramente rectangular y, por otra parte, es grande el cuidado y precisión que se observa en su construcción. Así las lajas, introducidas en zanjas, se solapan unas con otras, para finalmente apoyarse sobre la de cabecera al igual que en muchos dólmenes simples (en el acceso de algunos sepulcros de corredor se ha señalado también dicho solapamiento) bien conservados.

– El túmulo es de dimensiones más reducidas (menor de 8 m.), pero su construcción se asemeja al de cualquier dolmen y presenta los mismos elementos arquitectónicos (peristalito, etc.).

Sin embargo, juzgábamos que esta serie de precisiones arquitectónicas eran insuficientes para diferenciar este tipo de monumentos de los dólmenes, considerando conveniente que el ajuar, el ritual funerario y la cronología acompañasen a las características constructivas mencionadas. Los datos obtenidos en estas excavaciones aportan las siguientes precisiones:

– Estos monumentos, además de los otros dos mencionados anteriormente (Onddi, Mulisko Gaina), presentan la cámara vacía al contrario de lo observado en los dólmenes, donde a pesar de las remociones y rebuscas conservan algún resto del ajuar inicial. No

esanguratsua da, tumuluaren azpian ohikoa ez den objektu garrantzitsu bat (sukarrizko sastagai bat) aurkitu izana Aitxun.

– Brontze Aroan koka ditzakegu eraikuntza hauek, eta dirudienez, II milurtekoaren erdialdekoak dira eskuetan dugun data bakarra kontuan hartzen badugu. Hala ere, kontrolaturiko data kopurua igoko balitz, eta hori gertatzea gustatuko litzaiguke, milurteko horretan zehar barreiatuko lirateke datak. Oraingoz, Aitxuko tumuluaren oinarrian aurkitutako ikatz puskek (3.530±110 BP), tumulua eraiki aurrekoak ziren ikatz horiek, eskainitako data besterik ez dugu eraikuntza horiek kronologian kokatzeko.

– Ganbararen neurri txikia ikusita, pertsona bakar bat ehorzteko (ez dira hondakin antropologikoak kontserbatu) eraikitako hilobiak direla pentsatzen dugu, beharbada geroago beste intrusioren bat izan bazen ere.

– Monumentu horien eraikuntza gizartean zeuden maila desberdinen beste erakusgarri bat da, eremu horretako gizarte megalitikoen hierarkizazioaren zantzu garbia baita. Gainera, Praalatako trikuharritik 5 metrora beste hilobi hau eraiki izanak, garai hartan hura erabiliko zuten seguraski, indartu egiten du hipotesi hori. Atxurbiko trikuharriari 4.310±110 BP data eman diogu tumuluaren azpian berreskuratutako ikatz puskei esker. Bestalde, trikuharri honen erabilera K.a. I milurtekora arte luzaten dela dirudi, hala erakusten baitute bertan azaldu diren kaltzinaturiko giza hezurkiek. Kurioski, Atxurbiko hilobia Urrezulko Armurea trikuharritik 200 metrora baino ez dago, ezin zehaztu badugu ere bien artean dagoen erlazioa, J.M. Barandiaranek hogeigarren hamarkadan eginiko indusketak ez baitzuen inolako material arkeologikorik eskaini.

obstante, es también significativo que en Aitxu se recuperase un objeto inhabitual (un puñal de sílex), que consideramos de prestigio, bajo el túmulo.

– Se tratan de construcciones encuadrables en la Edad del Bronce, y al parecer por la única fecha que poseemos en torno a la mitad del II milenio, aunque un incremento del número de fechas controladas, por otra parte muy deseable, dispersaría las datas a lo largo del mencionado milenio. Por el momento, sólo la fecha aportada por los restos de carbón existentes en la base de túmulo de Aitxu (3.530±110 BP), previos a su construcción, permiten su adscripción cronológica.

– Por las reducidas dimensiones de la cámara sospechamos que se tratan de sepulcros construidos para una inhumación individual (no se conservan los restos antropológicos), aunque no descartamos alguna intrusión posterior.

– Su construcción debe considerarse como una prueba más en la diferenciación social, un indicio de jerarquización de las sociedades megalíticas de la zona. La erección de este nuevo sepulcro a tan solo 5 m. del dolmen de Praalata, cuando este posiblemente estaba en uso, apoyaría dicha hipótesis. La construcción del mencionado dolmen ha podido datarse en el 4.310±110 BP gracias a los carbones infratumulares recuperados. Por otra parte, su reutilización parece prolongarse hasta el I milenio a. de C., ya que se recuperaron restos óseos humanos calcinados. Curiosamente, el sepulcro de Atxurbi también se localiza a tan sólo 200 del dolmen de Urrezulko Armurea, aunque no podemos concretar el tipo de relación existente entre ambos ya que la excavación realizada en la década de los veinte por J.M. de Barandiarán no aportó evidencia arqueológica alguna.

*J.A. Mujika Alustiza*

## A.3.1.7. Oinazko hilobia (Azpeitia)

Francisco Etxeberria Gabilondok eta Lourdes Herrasti Erlogorrik zuzendua.

Arantzadi Zintzi Elkarteko Antropologia Sailak subentzionatua.

## A.3.1.7. Enterramiento de Oinatz (Azpeitia)

Dirigida por Francisco Etxeberria Gabilondo y Lourdes Herrasti Erlogorri.

Subvencionada por el Departamento de Antropología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

***Oinatz (Azpeitia) Burial Mound. Directed by Francisco Etxeberria Gabilondo and Lourdes Herrasti Erlogorri.*** *The human remains, discovered by chance on a mountain top, proved to be part of a burial site linked to a shrine located nearby and dedicated to worship in the Oinatz district of Azpeitia.*

1996ko Urtarrilaren 19an Lazaro Azkune jaunak Azpeitiko Oinatz auzoan bere familiak duen Oinatz-aundi baserriko lurretan giza hondakin batzuk aurkitu zituela jakinarazi zion Arantzadi Zientzi Elkarteko Prehistoria Sailari.

En fecha 19 de enero de 1996, el Sr. Lázaro Azkune comunica al Departamento de Prehistoria de la Sociedad de Ciencias Aranzadi el hallazgo de unos restos humanos en terrenos de la propiedad de su familia pertenecientes al caserío Oinatz-Aundi en el barrio de Oinatz de la localidad de Azpeitia.

Larre batean ura edukitzeko beira-zuntzezko depositu bat ezartzeko lur-berdintze lanetan ari zirela azaldu diren hondakinak.

Hondakinak azaldu ziren lekua larre bat da, eta karstaldeko kararria ageri zuen azaleran, mendi baten gailurrean (399 m i.m.g.) dago, baserri batzuen eta San Joan ermitaren Iparraldean ehun bat metrora.

Egun batzuk lehenago aurkitu zituzten hondakin horiek oso buztin trinkoek, harri solte batzuk ere ageri ziren, osaturiko lurra iraultzen ari zirela kararrizko hartxabal mehe bat altxatu zutenean. Hasieran aurkitu ziren hezurrak oso zatituak zeuden eta gizon heldu gazte baten burezur batenak ziren. Masailezurraren eta goiko gorputzadarren zatiak ere azaldu ziren.

Gure aldetik, lur harroa kendu eta sedimentua "in situ" mugatu ondoren, pertsona beraren hezurki gehiego zegoela ikusi genuen. Ezkerreko besoa lotura ana-

Los restos habían aparecido al realizar un allanamiento del terreno en un pastizal para colocar un depósito de fibra de vidrio como contenedor de agua.

El lugar donde habían aparecido los restos corresponde a un pastizal en el que aflora la roca caliza, propia del lapiaz, en la cumbre de una montaña (de 399 m. s.n.m) a escasos cien metros al Norte de varios caseríos y de la ermita de San Juan.

El descubrimiento se había producido días antes al remover el terreno de arcillas muy compactadas con algunas piedras sueltas y levantar una laja delgada de roca caliza. Los huesos encontrados en ese primer momento se encuentran fragmentados y pertenecen a un cráneo que identificamos como masculino de edad adulta joven. Además, hay fragmentos de mandíbula y de las extremidades superiores.

Por nuestra parte, al retirar toda la tierra suelta y delimitar el sedimento "in situ", comprobamos que había más restos pertenecientes al mismo individuo que




Oinazko ehorzlekua. Hilobiaren barnean aurkitutako giza hezurkien jatorrizko kokapena. Ezkerreko hanka okerra zuen izterrezurrean haustura diafisorio bat izan zuelako. Hezur-haustura itsatsi ondoren kailu handi bat sortu zitzaion.

Enterramiento de Oinatz. Posición original de los restos humanos hallados en el interior de la tumba. La pierna izquierda presenta una deformidad angulatoria como consecuencia de la consolidación de una fractura de la diáfisis del fémur que se manifiesta con un gran callo de fractura.

tomikoan ageri zen. Horregatik, lan hori egin genuen bitartean gurekin zeuden lurren jabeei adierazi genien aurkikuntza honen berri emen behar zitzaiola Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare Zerbitzuari, leku honetan geratzen den eskeletoaren gainerakoa behar bezala berreskuratu ahal izateko baimena eskatu behar baitzen.

Interesa zuen eremuan plastiko bat ipini ondoren, eta lekua lurrez estali genuen babes-neurri gisa.

Gero, eta beharreko baimena lortu ondoren (5/96 espedientea, Ondare Zerbitzua), 1996ko Otsailaren 3an eta 4an indusketa arkeologikoa bideratu genuen Azpeitiko Antxieta Taldeko kideek lagunduta.

I.m.g. 378 metroko altitudean dago hilobia, San Joan ermitatik ehun bat metrora, I-an dagoen mendiaren gailurrerako norabidean, haraneko gailur batean dagoen bazkarako larre batean.

Hilobia lurrean egin zen kararri eta buztinez osaturiko lurraren zokogune batez baliaturik. Hilobiaren gainean bertako kararriz, ororik gabe, egindako horma bat ezarri zen hilobi hori eraiki ondoko garairen batean, lurren erabileraren muga eratzen zuen horma horrek. Neurri batean hautsi zuen hilobia horma horrek zuen pisuarengatik.

Hilobiak 190 cm luze eta batez-beste 50 cm zabal neurtzen du eta 30 cm-ko sakonera du. 5-10 cm lodierako kararrizko hartxabal lau batzuek osatzen zuten estalkia, hartxabal horiek gainjarriak ageri ziren hilobian zehar. “In situ” aurkitutako hartxabalak neurri batean hautsiak zeuden.

Kararriak eta bertako harri naturalak osatzen zituzten hilobiaren hormak. Esparru angeluzuzena hartzen zuen hilobiak Hegoekialde-Iparmendebalde norabidean.

Barnealdean giza hezurkiak ageri ziren buztin uniforme eta trinko batean nahasiak.

Burezurrari eta beheko gorputzadarrei dagokien eskeleto-materiala iraulitako lur guztia bahetu ondoren oso hautsia aurkitu bagenuen ere, eskeletoaren gainerakoa “in situ” zegoen. Ehorzketa honetan ahoz gora jarri zuten gorpua, eta goiko gorputzadarrak sabelaren gainean. Burua IM-ra zegoen eta beheko gorputzadarrak HE-ra.

Gorputzaren neurriak eta anatomia lotura kontserbatu zuten hondakinak kontuan hartzen baditugu, pentsa daiteke hilobiaren tamainara egokitu zela eta ez dela inolako manipulaziorik gertatu orain aurkitu den arte.

Berrogei bat urteko gizon heldu gazte baten hezurkiak dira, eta bizi zela ezkerreko izterrezurrean haustura diafisario bat izan zuela nabari da. Hezur-haustura itsatsi ondoren kailu bat sortu zitzaion. Nolanahi ere, izterrezur hori okertua eta motzagoa zuen. Horren ondorioz, ezkerreko hanka motzagoa zuen, kanpoaldera

mantenía la conexión anatómica en la extremidad superior izquierda. Por ello explicamos a los propietarios del terreno que nos acompañan en este acto, que era necesario comunicar el hallazgo al Servicio de Patrimonio del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa para solicitar el correspondiente permiso que posibilite la adecuada recuperación del resto del esqueleto que queda en el lugar.

Tras colocar un plástico sobre la zona de interés, cubrimos posteriormente con tierra el lugar como medida de protección.

Posteriormente, y una vez obtenido el permiso correspondiente (Expediente 5/96, Servicio de Patrimonio), en fechas 3 y 4 de febrero de 1996, realizamos una excavación arqueológica contando con la colaboración de los miembros de Antxieta Taldea de Azpeitia.

La tumba se localiza a una altitud de 387 m. s.n.m a unos cien metros de distancia de la ermita de San Juan en dirección a la cumbre del monte que se sitúa al N en un paraje destinado a pastizal que domina como promontorio el valle.

Se trata de una sepultura realizada en el suelo del lugar aprovechando una oquedad del terreno constituido por roca caliza y arcillas. Sobre la misma, en tiempo posterior a su construcción, se había colocado un muro fabricado a piedra seca con rocas calizas del lugar que delimita el uso de los terrenos. Este muro habría provocado la rotura parcial de la tumba por efecto del peso sobre la misma.

La tumba tiene 190 cm. de largo y una media de 50 cm. de ancho con una profundidad de 30 cm. La cubierta estaba constituida por unas lajas planas de roca caliza con espesores variables entre los 5 y los 10 cm. que se solapan a lo largo de la sepultura. Las lajas localizadas “in situ” se encontraban parcialmente fragmentadas.

Las paredes de la tumba estaban formadas por rocas calizas y roca madre del lugar delimitando un espacio rectangular con una orientación Sureste-Noroeste.

En su interior se encontraban los restos humanos envueltos en una arcilla uniforme y muy compacta.

Si bien el material esquelético correspondiente al territorio cefálico y extremidades superiores pudo ser recuperado en estado muy fragmentario tras cribar toda la tierra removida, el resto del esqueleto se localizó “in situ” comprobando que se trataba de una inhumación en posición decúbito supino con las extremidades superiores sobre el abdomen. La cabeza se encontraba al NW y las extremidades inferiores al SE.

Teniendo en cuenta todas las proporciones del cuerpo y los restos hallados en conexión anatómica, se puede considerar que había sido adaptado al tamaño de la tumba sin posteriores manipulaciones hasta el momento del descubrimiento en la actualidad.

Los restos pertenecen a un individuo de sexo masculino y de edad adulta joven de no más de 40 años que había presentado en vida una fractura diafisaria del fémur izquierdo. Esta fractura había consolidado con un firme callo de fractura. De todos modos, existía una desviación angulatoria y un acortamiento del

okertua, eta horrek zailtasunak sortuko zizkion mugitzerakoan.

Beheko gorputzadarretako hezur luzeen neurriak kontuan hartzen baditugu, 160 cm luze neurtuko zuen gizon hark.

Lurperatutakoa gizonezko bat zen, ahoz gora ehortzi zen eta barnealdean ez zen tresneria elementu iraunkorrik ageri. Hilobia angeluzuzena zen, eta E-M norabidea zuen.

Horregatik, ehorzleku hau historiako garai batean kokatu behar bagenu Erdi Aroko kronologia emango genioke, eta kontuan izanik dokumentuen arabera XVI. mendean Oinatz auzoan eraikin erligioso bat zegoela tradizio horri lotuko diogu.

Hori guztiarengatik arrazoizkoa da esatea eraikin erligioso horren inguruetan egindako lurperatzeen testigantza bat dela ehorzleku hau.

fémur. Consiguientemente, la extremidad se encontraba acortada y con una deformidad de rotación externa que tuvo que suponer una repercusión en la funcionalidad de la misma.

Por las medidas obtenidas en los huesos largos de las extremidades inferiores, se puede estimar que su estatura alcanzaba los 160 cm.

Se trata de la inhumación de un individuo varón en posición decúbito supino sin elementos de ajuar perdurables en el interior de una tumba rectangular con una orientación E-W.

Por tal motivo hemos de considerar que este enterramiento corresponde a una época histórica de posible cronología medieval si tenemos en cuenta que hay constancia documental de la existencia de un edificio religioso a principios del siglo XVI en el barrio de Oinatz y a cuya tradición se vincula.

Por todo ello es razonable concluir que el enterramiento es el testimonio de las inhumaciones llevadas a cabo en la periferia de dicho edificio religioso.

*Francisco Etxeberria*

## A.3.1.8. **Iturritxiki (Getaria)**

VI. Indusketa Kanpaina.

Ana M.ª Benito Domínguezek zuzendua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

## A.3.1.8. **Iturritxiki (Getaria)**

VI Campaña de Excavación.

Dirigida por Ana M.ª Benito Domínguez.

Subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

***Iturritxiki (Getaria). Directed by Ana M.ª Benito Domínguez.*** *During this year's campaign a large sandbank was found to partially cover the site, mainly sector C and a large part of B and A, thus obliging the inspection of the area parallel to the site. In the far end of sector B and between here and sector A, two 2.3. type lingots were found. A large anchor, the existence of which had been known from the first campaigns but had remained completely covered in the latest ones, was rediscovered. It is a complete anchor made of iron and with many concretions and measures 2.20 m. Its location and form suggest it may have been the main anchor of a large vessel.*

### *A. Aldian-aldiko berrikuspenak*

Aztarnategi honetan kanpaina desberdinetan bideratu den jarduera arkeologikoaren barnean ohikoa den bezala, urtean zehar urperaldi batzuk egin ditugu aztarnategiaren egoera kontrolatu, hondar-metaketen mugimendua behatu eta aurreko kanpaineten aurkitutako urpeko hondakinen egoera kontrolatu ahal izateko.

Udaberrian egin ziren urperatzeetan hondar-metaketa lodi bat zegoela egiaztatu genuen. Hondar-metaketa horrek neurri batean estaltzen zuen aztarnategia, C sektorean bereziki, eta horregatik, azaleran ez genuen material berririk atzeman.

### *A. Revisiones periódicas*

Como viene siendo habitual dentro de la actividad arqueológica desarrollada en este yacimiento, a través del año se realizan diversas inmersiones destinadas a controlar el situación del yacimiento, observando el desplazamiento de los bancos de arena así como el estado de los restos sumergidos ya localizados en campañas anteriores.

Durante las inmersiones efectuadas en la primavera se constata la existencia de un potente banco de arena que cubre parcialmente el yacimiento, principalmente en el sector C, no localizándose por este motivo ningún nuevo material en superficie.

### B. Material arkeologikoaren trasladoa

Hilabete batzuetan zehar indusketa honetan atzemandako material arkeologikoak eramaten ibili gara Getariako Itsas Salbamendurako Basetik, leku horretan utzi baitziren aurreko kanpainetan, Aldundiak SACEM-en duen biltokiraino. Zehatz adierazteko, 1994. urtera arte bideratu ziren interbentzio arkeologikoetan aurkitutako hondakinak ziren, aurtengo kanpaina barne.

Egoitza berri horretan bi eremutan antolatu dira piezak, batean konkrezioak eta gatzgabetze prozesuan dauden materialak jasotzen dituzten kubetak egokitu ditugu, eta bestean, gatzgabetutako piezak, lehorrean. Gatzgabetutako pieza horiek materialen arabera antolatu ditugu, hau da, lingoteak, harrizko balak, harrizko aingurak, buru-orratzak, giderrak, eta abar, eta ondoren, material mota bakoitzaren barnean dagokion sigla ezarri diogu pieza bakoitzari.

1995 eta 1996ko kanpainetan aurkitutako hondakinak, eta baita interes berezia duten beste material txiki batzuk ere, Arantzadi Zientzi Elkartera eraman dira, eta egoitza horretan utzi dira, halaber, aurreko urteetan berritxuratutako piezak.

### C. Indusketa

Getariatik SACEM-en lokaletara egin den material arkeologikoen garraioa udazkenaren hasieraraino luzatu denez, azaroko hilabetera arte ezin izan da bideratu indusketa kanpaina. Klimatologiari dagokionean, lehen bi egunetan lanerako nahikoa egoera ona izan genuen, baina kanpainaren azkenetan erabat aldatu zuen eta eguraldi txarra izan genuen, hondoko-itsasoa batez ere. Horrek oztopo handiak sortu zizkigun jarduera arkeologikoan eta azkenean bertan behera utzi behar izan genuen lana.

Hondoak erabat egoera desberdina ageri zuen aurreko kanpainaren aldean. Udaberrian egiaztatu genuen bezala hondar metaketa mantentzeaz gainera, izugarri handitu zen eta hondar-metaketa lodi bat eratzen zuen dagoeneko kosta-lerroaren paraleloan. Metaketa horrek hondarrez estaltzen zuen erabat C sektorea eta B eta A sektoreen alderik handiena, eta eremu batzuetan, 1. puntuan esate baterako, 75 cm-tik 100 cm-ra igo zen hondarra aurreko kanpainaren aldean. Egoera honek hondar-metaketaren paraleloan zegoen eremua berrikustera bultzatu gintuen, leku horretan nabarmen jaisten zen hondarraren maila eta zorionez agerian uzten zuen aztarnategiaren eremu handi bat, estalita egoteagatik aurreko kanpainetan ezin izan baikenuen eremu hori berrikusi.

B sektorearen ertzean eta sektore horren eta A sektorearen artean 2.3 motako beste 2 lingote atzeman genituen hondarrezko geruzaren eta harri soltearen gainean.

Hondar-metaketaren okergune txiki batean lehen kanpainetan atzeman zen aingura handi bat azaldu zen berriro ere, azken kanpainetan erabat estalia egon zena. Oraingoan, hondar-zurgagailuari esker erabat agerian utzi dugu, burdinazko aingura oso bat da, erabat konkrezionatua dago eta 2,20 m neurtzen du. Bere

### B. Traslado del material arqueológico

A lo largo de varios meses se ha efectuado el traslado de los materiales arqueológicos de esta excavación desde la Base de Salvamento Marítimo de Getaria, donde habían sido depositado en las campañas anteriores, hasta el almacén que tiene la Diputación en SACEM. Se trata, en concreto de los restos correspondientes a las actuaciones arqueológicas efectuadas hasta 1994, incluida la campaña de ese año.

En la nueva sede se han organizado las piezas en dos zonas, una que alberga las cubetas con las concreciones y materiales en proceso de desalinización y otra donde se han depositado las piezas ya desalinizados, en seco. Estas últimas han sido ordenados según materiales, es decir, lingotes, bolaños, anclas líticas, alfileres, asas, etc., organizándose posteriormente dentro de cada material por su sigla correspondiente.

Los restos procedentes de las campañas de 1995 y 1996, así como algunos materiales de especial interés para la investigación y de reducidas dimensiones se han trasladado a la Sociedad de Ciencias Aranzadi, manteniéndose además en esta sede las piezas ya restauradas en años anteriores.

### C. Excavación

Debido a que el traslado de los materiales arqueológicos desde Getaria a los locales de SACEM, se ha prolongado hasta el inicio del otoño, la campaña de excavación no se ha podido efectuar hasta el mes de noviembre, coincidiendo los primeros días con situación climatológica medianamente óptima para desarrollar el trabajo pero cambiando bruscamente en el final de la campaña con la entrada de mal tiempo, principalmente mar de fondo que dificultó la actividad arqueológica hasta tener que suprimirla.

La situación del fondo era totalmente diferente a la de la campaña anterior, no solo se mantenía la acumulación de arena como ya se había constatado en la primavera, sino que había aumentado en tales proporciones que formaba un potente banco de arena paralelo a la línea de costa que enarenaba totalmente el sector C y gran parte del B y del A, dándose la circunstancia de la existencia en algunas zonas, como en el punto 1 de 75 a 100 cm. de arena respecto a la campaña anterior. Esta situación ha obligado a revisar la zona paralela al banco de arena, donde el descenso de nivel de arena era considerable y afortunadamente dejaba al descubierto un importante área del yacimiento que por haber estado cubierta en campañas anteriores no se había podido revisar.

En el extremo del sector B y entre éste y el A, se localizan sobre lecho de arena y piedra suelta 2 nuevos lingotes del tipo 2.3.

En una pequeña inflexión del banco de arena se redescubre un gran ancla que era conocida desde las primeras campañas y que había permanecido totalmente tapada en las últimas, en esta ocasión, merced al trabajo de la chupona hemos podido descubrirla en su totalidad, tratándose de un ancla completa de hie-

egoera, B eta A sektoreen artean dago, eta itxura ikusita, hurkaren aingura nagusia dela pentsa genezake. Kontuan harturik materialak biltokiratzeko zailtasunak ditugula eta aurrekontu eskasiarengatik aurreko kanpainetan aurkitutako konkrezioen berritxuratze lanak astiro doazela, eta azken kanpainetan egin dugun bezala ikerketarako ezinbestekoak diren edo arriskuan dauden materialak soilik ateratzeko planteamenduari eutsi diogula oraingoan ere, argazkiak egin eta neurriak hartu ondoren, materialak “in situ” uztea erabaki dugu.

Eremu berri batean ontzi handi samar baten zurerriaren hondakin garrantzitsuak aurkitu ditugu ondo kontserbatuak. Hondakin horiek ezin izan ditugu xehe aztertu kanpainaren azken egunetan klimatologia txarra izan dugulako.

rro fuertemente concrecionada, que mide 2,20 m. Su situación a caballo entre el sector B y A, y su forma, parecen indicar que se trata tal vez del ancla mayor de la urca. Debido a la dificultad de almacenamiento de los materiales y a la lentitud por escasez presupuestaria de las labores de restauración de las concreciones halladas en campañas anteriores, así como siguiendo con los planteamientos de las últimas campañas de no extraer más que los materiales estrictamente necesarios para la investigación o los que peligren, se ha optado, tras la toma de fotografías y medidas, por mantenerla “in situ”.

En una zona nueva se han descubierto restos importantes y bien conservados del maderamen de una embarcación de considerable tamaño que no se han podido revisar detenidamente debido a la inestabilidad climatológica de los últimos días de la campaña.

Iturritxiki (Getaria). Urpekaria ikus daiteke ainguraren goiko aldearen ondoan, garbitu eta erabat agerian utzi aurretik kanpainaren hasieran zegoen bezala.




Iturritxiki (Getaria). Buceadora junto a la parte superior del ancla tal y como aparecía al principio de la campaña antes de proceder a su limpieza y descubrimiento completo.

## D. Laborategiko lanak

1993. urtean "Atelier Artemis" berritxuratzeko laborategien laguntzaz planteatu genuen kontserbazio eta berritxuratze planari dagokionean, esan beharra dago lana moteldu egin dela aurreko urteen aldean; izan ere, oraingoan lehentasuna eman zaio beste indusketa batzuetan atzemandako material arkeologiko batzuen berritxuratze lanari, eta orain arte konkrezio txiki baten disekzioa besterik ez dugu egin. Konkrezio hori aztertu ondoren, beste konkrezio batzuen begi-azterketaren bidez aurrikusi genuena egiaztatu dugu, hauxe da, hurkaren kargan, kobrezko materialez gainera, burdinazko beste material batzuk ere bazeudela, armadura piezak eta iltzeak, nagusiki. Oxidazioaren eraginez, burdinazko materiala desagertu egin da, buru lau handia eta sekzio karratuko zurtoina duten tatxet ugariren aztarnak oraindik nabari badira ere.

## D. Trabajos de laboratorio

Respecto al plan de conservación y restauración planteado en 1993 en colaboración con el laboratorio de restauración "Atelier Artemis" hay que decir que, desgraciadamente, debido a la prioridad de restauración de otros materiales arqueológicos procedentes de otras excavaciones se ha ralentizado la labor respecto a años anteriores, habiéndose efectuado hasta la fecha únicamente la disección de una pequeña concreción. Mediante su análisis se ha confirmado lo que ya se presuponía con el análisis visual de algunas concreciones, la existencia en la carga de la urca, además de los materiales derivados del cobre, cargamento de otros productos de hierro, como piezas de armaduras y clavazón, principalmente. Debido a los efectos de la oxidación ha desaparecido el material férrico aunque se reconocen las huellas de múltiples tachuelas de cabeza plana grande con sección de vástago cuadrada.

*Ana M.ª Benito Domínguez*

# A.3.1.9. **Iruroingo Lezea (Mutriku)**

III. Indusketa Kanpaina.

Fran Zumalabe Makirriainek zuzendua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

# A.3.1.9. **Cueva de Iruroin (Mutriku)**

III Campaña de excavación.

Dirigida por Fran Zumalabe Makirriain.

Subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.


***Iruroin Cave (Mutriku). Directed by Fran Zumalabe Makirriain.*** *This time the excavation was centred around investigating further the Palaeolithic level in the area outside the site and interpreting it more clearly. Remains of great interest such as harpoons, darts and flints have been found at this level, corresponding to the end of the Magdalenian period. To this end a series of new quadrants in the exterior of the gallery - contingent with those already excavated in previous campaigns - were opened.*

*The material found show clear prehistoric human presence and habitation at the entrance. Animal remains Indicate their hunting habits and the kind of fauna inhabiting the valley at the time.*


## 1. Indusketaren garapena

Lezearen sarrerako gunean eta barnealdean bideratu dugu III. kanpaina hau.

III. kanpaina honetan aurreko kanpainan ireki eta amaitu gabe utzi genituen koadroetan eta lantzen hasitako beste koadro batzuetan, 11I esate baterako, (ikus planoa) egin dugu lan.

Beste koadro batzuk ireki ditugu kanpoaldean, 7D eta 7E koadroak hain zuzen ere. Koadro horietan guztietan Paleolitos Aroko maila induskatu genuen, gehienetan lana bukatu gabe gelditu bazen ere. Hurrengo kanpainetan amaitzea espero dugu.

Idusketan zehar kata-zundaketa bat egin genuen 11I koadroan, eta harrituta utzi gintuen lanak hasi genituenean azaldu zen harrizko material eta material malakologiko kopuruak.

## 1. Desarrollo de la excavación

Esta III campaña se ha efectuado, tanto en el vestíbulo como en el interior de la cueva.

La zona excavada durante esta III campaña ha comprendido tanto los cuadros abiertos durante la campaña anterior y que no se habían podido concluir, como los trabajos iniciados en cuadros diferentes, como era 11I (ver plano).

Se han abierto nuevos cuadros en el exterior. Estos cuadros son el 7D y 7E. En todos ellos se excava el nivel Paleolítico, no habiéndose finalizado la excavación en la mayoría de ellos, esperando finalizarlos en las campañas próximas.

Durante la excavación se efectuó una cata-sondeo en el cuadro 11I, quedándonos desconcertados por la cantidad de materiales, tanto líticos, óseos como malacológicos que obtuvimos al comenzar los trabajos.

## 2. *Emaitzak*

III. kanpaina honetan kanpoaldeko koadroetan aurkitu dugun maila bakarra Azken Madalen Aldikoa izan liteke, kontuan hartzen baditugu orain arte azaldutako materialak.

Aurreko kanpainetan baino ugariago dira harrizko materialak. Sukarria, orein adarra eta beste material batzuk, hezurkiak eta beste lehengai batzuk erabili dira elementu horietan. Aipagarri dira xaflan eta laskan landutako arraskailuak, era askotako zizelak, xaflatxo dortsodunak, nukleoak, eta abar. Aipatzekoa da, halaber, taila hondakin ugari atzeman direla, horiei esker, harriaren inguruko teknologiari eta kate operatiboei buruzko azterketak egin ahal izango baitira.

Fauna malakologikoaren hondakinak ere azaldu dira, *Littorina Obtusata* eta lapak dira horietan aipagarrienak bitxiak eta ugari samar izateagatik.

Maila honetako lurra beltzaska da, eta estalagmita koladatik eroritako konkrezio karedunekin nahasia ageri da gainaldean.

Fauna hondakinen artean hegazti, hartz, adardun handi eta ardi-ahuntz familiako abereen hondakinak dira nagusi.

III. kanpaina honetan aurkitutako hezur industria interesgarria izan da, azkon zati distal bat eta oreinadarrean eginiko puntzoi edo uki-berritzaile bat, bikain landua, azaldu baitira. Aipagarria da azkonaren dekorazioa, azpiko aldean marrak ageri ditu zeharrean.

9E koadroko mikrougaztunen zutabean ere segitu dugu lanean gero aztertuak izan daitezen.

## 2. *Resultados*

Durante la III campaña en los cuadros exteriores el único nivel obtenido, pudiera ser denominado como Magdaleniense Final, apoyado por los materiales localizados hasta ahora.

Los materiales líticos son mas cuantiosos que en las campañas precedentes. Estas evidencias han sido elaboradas sobre sílex, cuerna de ciervo y otros materiales, tanto óseos como en otras materias primas. Destacan los raspadores sobre lámina y lasca, buriles de distintos tipos, denticulados, laminillas con dorso, núcleos, etc. Es de destacar la gran cantidad de restos de talla con los que se podrán efectuar estudios sobre tecnología y cadenas operativas líticas.

También se dan restos de fauna malacológica sobresaliendo por su rareza y cantidad la Littorina Obtusata y las lapas.

La tierra de este nivel es negruzca y en su parte superior está mezclada con gránulos de concreción calcárea desprendidos de la colada estalagmítica.

Dentro de los restos de fauna destacan los de ave, oso, gran bóvido y los ovi-cápridos.

En esta III campaña la industria de hueso ha resultado interesante, proporcionando un fragmento distal de azagaya y un punzón o retocador elaborado sobre una cuerna de ciervo, de excelente factura. Es destacable la decoración de la azagaya con líneas transversales en su cara dorsal.

También se ha continuado con la columna de micromamíferos del cuadro 9E para su posterior estudio y análisis.

*Fran Zumalabe Makirriain*



Iruroingo Lezea (Mutriku). Kata egiten sarrerako gunearen goialdean.

Cueva de Iruroin (Mutriku). Efectuando la cata en la parte superior del vestíbulo.

## A.3.1.10. **Iritegiko Lezea (Oñati)**

VII. Indusketa Kanpaina.

Eloisa Uribarrik zuzendua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

## A.3.1.10. **Cueva de Iritegi (Oñati)**

VII Campaña de excavación.

Dirigida por Eloisa Uribarri.

Subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*__Iritegi Cave (Oñati). Directed by Eloisa Uribarri.__ The results from the 1996 campaign at this cave are included. Concentrating on X, XI and XII levels, mainly bone remains from both East and West strips of the site.*

1996ko irailaren lehen hamabostaldian bideratu da zazpigarren arkeologia indusketa kanpaina Iritegiko lezean (Oñati, Gipuzkoa). Guztira hamar pertsona aritu dira lanean, Euskal Herriko Unibertsitateko lizentziatuak eta Deustuko Unibertsitateko Donostiako egoitzako ikasleak.

Ireki genuen indusketa eremuaren barnean eta kanpaina honetako indusketa lanei ekin baino lehen, garbi bereizten ziren Mendebaldean zeuden bandak eta Ekialderantz zeudenak. Hala bada, 13. eta 15. bandetako laukietan eta 17. bandako Mendebaldeko erdiaren (H eta G koadroak) alderik handienean azalean utzi genuen X maila. Maila horretako lurrak kolore marroi argia zuen, IX. mailakoaren (lur harroa eta iluna zen ikatz puska ugari zuelako, eta hondakin arkeologiko ugari azaldu ziren bertan, hezurkiak batez ere, eta errekarri ugari ere ageri zuen ) eta XI. mailakoaren (X. mailakoa baino lur argiagoa zen, hori samarra, ertz borobileko kararri txiki ugari ageri zuen eta, gutxiago baziren ere, ertz askoko beste kararri handiago batzuk ere azaldu ziren, ikatz puska eta material arkeologiko urri, hezurkiak nagusiki, aurkitu genuen aurreko mailaren aldean) artekoa.

Irekitako azalerak bi desnibel ditu, Iparraldetik Hegoaldera jaisten da bata eta bestea, handiagoa, Ekialdetik Mendebaldera, XI. mailak lodiera handiagoa baitzuen 13. eta 15. bandetan.

X. maila kendu genuen G15, H15, G13 eta H13 kodroetan eta G17 eta H17 koadroen mendebaldeko erdiaren gehiengoan. Desberdintasunak zeudela nabaritu genuen lehen deskribaturiko bi eremu horietan; Mendebaldeko erdia (13. eta 15. bandak eta 17 bandaren alde bat G eta H koadroetan) ia osorik estaltzen zuten itxurarik gabeko kararri batzuek eta oso azalera irregularra eratzen zuten harri horiek, alde honetako lurra koadrikularen Ekialdekoa baino ilunagoa zen ikatz puska gehiago zegoelako maila honen matrizean. 13 eta 15. bandetako koadroetan sumatzen da gehien desberdintasun hori, koadro horietako lurra harroagoa baita, eta gainera, konkrezio puska ugari eta neurri desberdineko kararri batzuk ageri ditu, eta hareharrizko errekarri batzuk ere azaldu dira. Era berean, eremu honetan Ekialdeko erdian baino hezurki gehiago aurkitu dugu.

La séptima campaña de excavaciones arqueológicas en la cueva de Iritegi (Oñati, Gipuzkoa) se ha desarrollado a lo largo de la primera quincena del mes de septiembre de 1996 y en la misma han participado un total de diez personas, licenciados de la UPV y estudiantes de la Universidad de Deusto, sede de Donostia.

Dentro del área de excavación abierta y previo a los trabajos de excavación de esta campaña, podía establecerse una clara diferenciación entre las bandas situadas más al Oeste y aquellas otras dispuestas hacia el Este. Así, en los cuadros de la banda 13, 15 y buena parte, más de la mitad Oeste de la banda 17 (cuadros H y G) se había dejado en superficie el nivel X, nivel que se caracteriza por poseer una tierra de color marrón claro, de transición entre la del nivel IX (tierra suelta y oscura por la gran cantidad de carbones que contiene, con abundantísimos restos arqueológicos, en especial óseos, y presencia de muchos cantos rodados) y la del nivel XI (tierra más clara que la del nivel X, con cierto matiz amarillento, abundantes calizas de tamaño pequeño con las aristas redondeadas y otras más angulosas y de mayor tamaño aunque en menor número, escasa presencia de carbones y de material arqueológico, consistente fundamentalmente en restos óseos, respecto del nivel anterior).

La superficie abierta presenta un doble desnivel descendente de Norte a Sur y más acusado de Este a Oeste ya que el nivel IX poseía mayor potencia en la banda 13 y 15.

Se procedió a rebajar el nivel X en los cuadros G15, H15, G13, H13 y buena parte de la mitad occidental del cuadro G17 y H17. Se pudo observar diferencias entre las dos áreas arriba descritas; así la mitad Oeste (bandas 13, 15 y parte de la 17 en los cuadros G y H) aparecía cubierta casi en su totalidad por piedras calizas informes que conformaban una superficie muy irregular y con una tierra con matices más oscuros en su color que los situados hacia el Este de la cuadrícula debido a la mayor cantidad de restos carbonosos que se observan en la matriz de este nivel. Así en los cuadros de la banda 13 y 15 donde con mayor claridad se ve esta diferencia, se apreciaba una tierra más suelta, con abundantes fragmentos de concreción y algunas calizas de diverso tamaño así como la presencia de varios cantos rodados de arenisca. Igualmente el número de restos óseos extraídos en esta zona es mayor que la de los restos recuperados en la mitad Este.

Koadrikularen Ekialdeko erdian lur buztintsu bat atera genuen, bikortua zegoen eta konkrezio txiki batzuk zituen buztinean sartuak, ikatz puskak ere azaldu ziren baina Mendebaldeko erdian baino gutxiago, ertz borobileko kararri txikiak, 5 cm-ra iristen ez zirenak, eta ertz zorrotzak zituzten beste kararri handiago batzuk atzeman genituen. Iparraldera sakondu ahala gutxitzen zihoan ikatza, eta lurra zertxobait hondartsuagoa eta argiagoa bihurtzen zen, tartean oso lur buztintzua eta zertxobait ilunatoa ageri bazen ere.

Azkenik, G19 laukian beste lur mota bat sumatu genuen Ekialdeen zeuden sektoreetan, hau da, ertzeko kararrizko blokeen ondoan zeuden sektoreetan. XII. maila deitu diogun maila berri honetan kararri erdidegradatuzko nodulu ugari azaldu dira, nodulu horiek kolore grisaska ematen diote lurrari, oso ikatz gutxi ageri da, puska gutxi batzuk baino ez baitira azaldu lur buztintsu gris-horiska batean.

Irekitako 12 koadroetan bi geruza kendu ondoren, egoera beretsua ageri zen, baina XII. maila G19 koadrora zabaltzen hasia zen eta G17 koadroko 1-2-3 sektoreetan azaltzen zen. Puntu honetan elkarren ondoan zeuden bi lauki bereizi genituen maila horien transizioa behatu ahal izateko, eta horrenbestez, X. maila jo genuen H 15 koadroan eta XI. maila H17 koadroan.

H17 koadroan geruza batzuk kendu genituen 24 cm sakonera jo genuen arte koadroaren erdian. Leku horretan XII. maila azaltzen hasi zen 1-2-3 sektoreetan,

En la mitad Este de la cuadrícula se extrajo una tierra arcillosa que salía en grumos, con pequeños granos de concreción embutidos en la arcilla, presencia de carbón pero menor que en la mitad Oeste, pequeñas calizas de aristas redondeadas e inferiores a los 5 cm. de longitud y otras más grandes con aristas agudas. El carbón iba escaseando a medida que se avanzaba hacia el Norte, mientras la tierra se volvía a la vez algo más arenosa y clara aunque se alternaba con bolsadas de tierra muy arcillosa y algo más oscura.

Por último en el cuadro G19 se pudo apreciar la aparición de un nuevo tipo de tierra en los sectores situados más al Este, es decir, en aquellos sectores que están en contacto con los bloques de roca caliza del cantil. Este nuevo nivel, denominado nivel XII se caracteriza por la abundante presencia de nódulos de caliza semidegradada que aportan un color grisáceo a la tierra y la escasísima presencia de carbón que se limita a unos pocos fragmentos que aparecen en una tierra arcillosa y de color gris amarillento.

Tras rebajar dos lechos en los 12 cuadros abiertos, la tónica seguía siendo similar, aunque el nivel XII comenzaba a extenderse en el cuadro G19 y aparecía ya en los sectores 1-2-3 del G17. En este punto se seleccionaron dos cuadros que estuvieran contiguos y que permitieran observar la transición de estos niveles, por lo que se profundizó en los cuadros H15 con nivel X y H17 con nivel XI.

En H17 se rebajaron varios lechos hasta profundizar 24 cm. en el centro del cuadro, momento en que comenzó a asomar en los sectores 1-2-3 el nivel XII



Iritegiko Lezea (Oñati).

Cueva de Iritegi (Oñati).

koadroaren gainerakoan, berriz, XI. maila ageri zen oraindik. XI. maila horrek lur buztintsua zuen, horixka, eta kararri txiki ugari eta material arkeologiko gutxi atzeman genuen bertan, fauna hondakinak nagusiki. Induskatzen segitu genuenean XII. maila Hegoaldetik Iparraldera luzatzen zela ikusi genuen, eta pixkanaka-pixkanaka gainerako sektoreak ukitzen zituen batez-beste 35 cm-ko sakonerara iritsi arte, sakonera horretan koadro osoan azalean geratzen baitzen XII. maila.

H15 koadroan X. mailak jarraitzen zuen batez-beste 14 cm-ko lodierara iritsi arte. Kota horretan askoz ugariago ziren kararriak, eta XI. maila hasten zen. 10 bat zentimetro beheratu ondoren, kararri erdidegradatuzko noduluak zituen XII. mailako lur grisa azaltzen hasi zen H17 koadroaren ondoko 3-6 sektoreetan, gainerako sektoreak, berriz, XI. mailak estaltzen zituen, lur hori plastikoa eta buztintsua zuen maila horrek eta kararri txiki ugari. Beste 10 cm sakondu genituen, eta kota horretan kararrizko blokeek osaturiko masa batek estaltzen zuen koadroaren Ekialdeko erdia. Aldiz, Mendebaldeko erdian, blokeak soltean zeuden eta txikiagoak ziren, lur hori buztintsua zuten tartean eta fauna hondakin bat ere (belarjale baten hortza). Koadro guztian batez-beste 30 cm sakondu ondoren azaleran gelditu zen XII. maila; maila horrek kubeta bat eratzen du bi koadroetan.

mientras que el resto del cuadro mantenía el nivel XI con tierra arcillosa amarillenta, abundantes calizas pequeñas y escasa presencia de material arqueológico, fauna fundamentalmente. Al seguir excavando se apreció cómo el nivel XII avanzaba desde el Sur hacia el Norte ocupando los restantes sectores paulativamente hasta alcanzar una profundidad media de 35 cm., punto en el que en todo el cuadro quedaba en superficie el nivel XII.

En H15 se mantuvo el nivel X hasta alcanzar una potencia media de 14 cm. En esta cota aumentaba considerablemente el número de calizas, iniciándose el nivel XI; tras rebajar una media de 10 cm. más comenzó a aparecer en los sectores 3-6, contiguos a H17, la tierra gris con nódulos de caliza semidegradada del nivel XII mientras que los sectores restantes quedaban cubiertos con el nivel XI, tierra amarilla plástica y arcillosa con abundantes calizas pequeñas. Se siguió profundizando otros 10 cm. más; a esta cota la mitad Este del cuadro quedó cubierta por una masa compacta de bloques de caliza mientras que en la mitad Oeste los bloques estaban sueltos y eran de menor tamaño, con tierra amarilla arcillosa entre los mismos y que contenía fauna (diente de herbívoro). Tras profundizar una media de 30 cm. en todo el cuadro quedó en superficie el nivel XII; este último nivel forma una cubeta en ambos cuadros.

*Eloisa Uribarri Agirrebengoa*

## A.3.1.11. Aitzbitarte III Lezea (Errenteria)

XI. Indusketa Kanpaina.

Jesus Altunak zuzendua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Errenteriako Udalak subentzionatua.

## A.3.1.11. Cueva de Aitzbitarte III (Rentería)

XI Campaña de Excavaciones.

Dirigida por Jesús Altuna.

Subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Rentería.

***Aitzbitarte III Cave (Errenteria). Directed by Jesús Altuna.*** *During the present campaign, work continued at the entrance area, where it began in 1994. Three levels have been detected so far: the upper level included finds corresponding to the Cantabrian Lower Magdalenian and the other two correponded to the Solutrean and characterised by several pieces and worked remains in rock crystal, as well as flint. We also managed to verify the presence of a Noailles burin, together with typical Solutrean worked items. Among the bone and ornamental features found were two darts, a needle, a bradawl, a perforated fox canine tooth and a litorin shell as well as a bone bead. There were also two human teeth. In one of the areas of the excavation, there was a hearth, with numerous burned bones. Among the fauna, we discovered abundant bovine and chamois bones and antler.*

1996ko kanpaina honetan 1994an irekitako lezearen sarrerako sektorean berriro ekin genion lanari, lezearen barnealdeko indusketa amaitu ondoren (ikus *Arkeoikuska 94* 153. or.).

En la campaña de 1996 se ha continuado trabajando en el sector de la entrada de la cueva abierto el año 1994, una vez concluida la excavación de la zona profunda de la caverna (ver *Arkeoikuska 94* pág. 153).

31-36 bandetan sakondu genuen, 8. geruzatik (III. Maila) behera, geruza horretan utzi baikenuen indusketa 1995ean.

Berehala konturatu ginen 31-33 banden gainean bloke ugari erori zirela III. maila horren deposizioan, 34-36 bandetan, berriz, bloke gutxiago ageri zen, lezean barneratu ahala gelifikazioak eragin txikiagoa izan zuelako seguraski.

31-33 bandetako indusketa bertan behera utzi genuen 11. geruzatik aurrera eta beste banda bat ireki genuen, 37.a, indusketa kanpoaldera zabaltzeko xedean (ikus irudiak).

Barnealdeko bandek gelifrakto gutxiago dute eta askoz ere material arkeologiko gehiago. Era berean, 36-37 bandetan sutondo garrantzitsu bat atzeman genuen.

Azaleratik hasi ginen 37. banda induskatzen eta 31-36 bandetan aurkitutako estratigrafia bera zuela ikusi genuen. Estratigrafia horren berri eman genuen 1995eko memorian, eta horrenbestez, berriro ez dugu adieraziko hemen.

34-37 bandetan lehen aldiz induskatu dira 8-12 geruzak. III. mailari dagozkio guztiak.

Geruza horietan aurkitutako materiala Solutrense kulturari dagokio, horixe baita aztarnategiaren alde honetan ageri dena II. mailatik behera.

Kanpaina honetan aurkitutako pieza garrantzitsuenak adieraziko ditugu orain laburbilduta.

Se comenzó por seguir profundizando en las bandas 31-36, a partir del lecho 8 (Nivel III), donde quedó la excavación en la campaña de 1995.

Pronto se vio que las bandas 31-33 había sufrido una gran caída de bloques durante la deposición del nivel citado, mientras que las 34-36 contenían menos bloques, probablemente por la menor acción de la gelifracción a medida que nos adentramos en la cueva.

Abandonamos así la excavación de las bandas 31-33 a partir del lecho 11 y abrimos una nueva banda, la 37, para ampliar hacia el interior la excavación (ver figuras).

Las bandas más internas contienen, a la vez que menos gelifractos, mucha más cantidad de material arqueológico. Asimismo en las bandas 36-37 se encuentra un importante hogar.

La excavación de la banda 37 comenzó desde la superficie y proporcionó la misma estratigrafía descubierta en las bandas 31-36 y que fue detallada en la memoria de 1995, por lo que no volvemos sobre ella aquí.

En las bandas 34-37 se han excavado también, por vez primera los lechos 8 a 12. Todos ellos siguen perteneciendo al nivel III.

***Directed by Arantza Fernández de Jauregui.*** *The archaeological investigation on the Urbina estate was prompted by the renovation and restoration work being undertaken by the Historical Heritage Service of the Department of Architecture, Town Planning and Environment of the Alava Regional Government. Thus, it has not been a systematic excavation but an archaeological control of those zones affected by the restoration work. This explains why certain zones of undoubted interest - such as the entire nave of the church - have subsoils that have remained undisturbed. The conclusions reached as a result are, thereby, necessarily partial.*

Gaur egun Urbinatarren oinetxearen multzoa eliza batek eta alboko kapera batek, elizaren oinetan eraikiriko dorretxe batek, eta morfologia eta funtzionaltasun desberdineko gela multzo batek, alderik urrunenetan sukalde zaharrak eta labe bat, besteak beste, osatuta dago.

El conjunto del solar de los Urbina se compone en la actualidad de una iglesia y su capilla lateral, una casa-torre a los pies de la primera y un conjunto de dependencias de morfología y funcionalidad diversas entre las que se incluyen las antiguas cocinas y un horno ubicados en sus zonas más periféricas.



Urbinatarren Oinetxea. Interbentzio arkeologikoa.

Casa troncal de los Urbina. Intervención arqueológica.

Lau gunetan bideratu ditugu kontrolak: dorrea, absidea, erdiko kapera eta ondoko gelak. Jardueren ohiko atalei dagokienean, kontestu soilen bidezko erregistroa erabili dugu beti gurean estratigrafia-sistematzat, E.C. Harris-ek azalduriko metodologia-plangintzen arabera. Hirurehundik gora unitate estratigrafiko identifikatu ditugu, baina ez ditugu orriotara guztiak ekarriko, honakoa, ezinbestean, lorturiko emaitzen laburpen bat baino ez baita.

Honako etapa hauetan laburbildu daiteke interbentzio orokorraren sekuentzia:

## 1. XX. mende aurreko egiturak

Kronologikoki zehazten zail den une bati dagozkio, geroago aztergai izango dugun eliza eraki baino lehenagokoak inondik ere, agerian utzi eta dudarik gabe garrantzi handia duten egitura-elementu batzuk, guztiak (planoan kolore gorriz adierazita) eliza-dorrea multzoaren hegoaldean aurkituak: lehenik, funtzio ezezaguneko eta oso gaizki kontserbatu diren bi murru paralelo hauteman daitezke. Bigarrenik, murru hauen mendebaldean, oin lauangeluarreko egitura bat egon zen, eratxikita dauden egungo gelen baitara biltzen zena.

Lehen fase honetako aztarna esanguratsuenak, ordea, elizak mendebaldera ezagutu zuen lehenengo zabalpenean eginiko hegoaldeko hormaren azpian agertu zen egitura erdizirkular bati zegozkion. Zulo txiki bat da eta bertan –ezin zehazta daitekeen une batean– hipokausto batetik desmontaturiko *pilaei* dagozkien adreilu zirkularren kopuru polita metatu zen; ez da ezagutzen hipokaustoaren jatorrizko kokalekua. Egitura-elementu hauek, interbentzio honetan aurkituriko *suspensurae* eta *tubuli* puska batzuekin batera, bide ematen dute hurbilean erromatarren garaiko finkamendu bat izan zelako susmoa izateko, eta berokuntza-sistema batez edo etxeko terma txikiez hornituta egongo zen. Aspalditik eliza honetan dagoen Erromatarren garaiko hilarri garrantzitsu eta ezagunak, eta azaltzen ari garen interbentzioan aurkituriko zeramika hondakinek, nabarmendu baino ez lukete egingo aukera hau.

## 2. Elizaren eraikuntza (XII. m) eta Nekropoliaren sorrera (XII-XIII. mendeak)

Laburpen honetan ezagunak diren dokumentu-erreferentziak bezala kontestu historikoa ere –bukatzear dagoen memoria batean aztertzen dira horiek guztiak– alde batera utziko ditugun arren, egungo eliza (planoan kolore berdez adierazita) XII. menderako eraikita zegoen. Aurreko puntura bilduriko egiturek galdua zuten, ordurako, beren jatorrizko funtzioa, lehen aipaturiko murru paraleloetan hegoaldeen dagoenak izan ezik. Izan ere, tenplutik kanpora sortu zen ehorzlekuen esparrua mugatzen zuen murru horrek, hegoaldetik ixten baitzuen esparrua.

Los controles se han llevado a cabo en cuatro puntos: torre, ábside, capilla lateral y estancias adyacentes. Metodológicamente se ha seguido el sistema estratigráfico de registro por contexto simple de acuerdo con los principios expuestos por E.C. Harris. Han sido más de trescientas las unidades Estratigráficas identificadas aunque no haremos mención a las mismas en el texto por constituir éste una síntesis, forzosamente breve, de los resultados alcanzados.

La secuencia de la intervención global podría resumirse en las siguientes etapas:

## 1. Estructuras anteriores al s. XII

Pertenecientes a un momento difícil de precisar cronológicamente, aunque anterior a la construcción de la iglesia a la que luego nos referiremos, se han exhumado varios elementos estructurales de indudable interés, todos ellos (color rojo en plano) ubicados al sur del conjunto iglesia-torre: en primer lugar, pueden apreciarse dos muros paralelos conservados muy deficientemente y cuya funcionalidad desconocemos. En segundo lugar, y a occidente de estos muros, existió también una estructura de planta cuadrangular, englobada en las actuales dependencias anexas.

Los restos más significativos de esta primera fase, sin embargo, pertenecen a una estructura semicircular que aparece bajo el muro sur de la primera ampliación occidental de la iglesia. Se trata de un pequeño silo en el que –en un momento indeterminado– se almacenó un nutrido número de ladrillos circulares pertenecientes a las pilae desmontadas de un hipocausto cuya localización primitiva se ignora. Estos elementos estructurales, junto a otros fragmentos de suspensurae y tubuli recuperados también en la intervención, permiten sospechar la existencia, en las inmediaciones, de un asentamiento de época romana, provisto bien de un sistema de calefacción o de unas pequeñas termas de carácter doméstico. La importante y conocida estela funeraria romana, ubicada desde antiguo en la iglesia, y los restos cerámicos recuperados en la intervención que comentamos no harían sino redundar en esta posibilidad.

## 2. Construcción de la Iglesia (s.XII) y nacimiento de la Necrópolis (ss. XII-XIII)

Aunque en este breve resumen obviemos tanto las referencias documentales conocidas como su contextualización histórica –todo ello objeto de estudio en una memoria de próxima finalización–, puede afirmarse que la actual iglesia (color verde en el plano) está construida ya en el siglo XII. Para entonces, las estructuras recogidas en el punto anterior habían perdido ya su función originaria, a excepción del más meridional de los muros paralelos a los que nos hemos referido. En efecto, este muro delimitaba el área de enterramientos que nació al exterior del templo, cerrándolo por su lado más meridional.

Hilerri-esparru hau zabaldu egin zen hurrengo bi mendeetan zehar tenpluaren inguru guztian barrena, nahiz eta orain artean hegoaldeko eta mendebaldeko hilobi batzuk baino ez ditugun agerian utzi (planoan kolore urdin ilunaz adierazita). Garai horretan bertan, elizaren oinetan, oin gutxi gora-behera lauangeluarreko egitura bat eratxiki zen (kolore urdin iluna), gaurko egunean dorretxearen atal bat osatzen duena, alegia. Urbinatarren oinetxearen bilakera ulertzeko guztiz datu interesgarriak eskaini zituen barneko esparruan bideratu genuen indusketak. Esate baterako, jada ez dagoen murruak mendebaldetik ixten zuen jatorrizko esparru hau. Kanpoan geratzen ziren interbentzio arkeologikoan agerian geratu diren hartxabalezko hilobiak, gaur egun dorretxearen barruan daudenak, hain zuzen ere.

Este ámbito cementerial se extendió durante las dos centurias siguientes por toda la periferia del templo, aunque se hayan exhumado únicamente algunas de las sepulturas de su lado meridional y occidental (color azul oscuro en plano). Es en este mismo período cuando, a los pies de la iglesia, se adosa una estructura de planta aproximadamente cuadrangular (color azul oscuro) que, en la actualidad, forma parte de la casa-torre. La excavación de su recinto interior ofreció datos del máximo interés para comprender la evolución del solar de los Urbina. Como, por ejemplo, el muro hoy desaparecido que –por occidente– cerraba este primitivo espacio. A su exterior quedarían las sepulturas de lajas que ha exhumado la intervención arqueológica y que, hoy en día, quedan en el interior de la casa-torre.

Urbinatarren Oinetxea.
Hipokaustotik desmontaturiko “pilaez” eginiko egitura erdizirkularra.



Casa troncal de los Urbina.
Estructura semicircular con los “pilae” desmontados del hipocausto.

### 3. Egungo Dorretxearen eta Alboko Kaperaren eraikuntza (XIV. m)

XIV. mendea, dokumentu-iturriei esker ondo dakigun bezala, oso eraikuntza aldi oparoa izan zen urbinatarren orubean.

Elizari, hegoaldetik, hileta izaerako kapera bat eratxiki zitzaion. Hura eraikitzeko, lurra berdindu egin zuten kareazko geruza baten bidez, eta estali egin ziren, horrenbestean, aurreko garaietako ehorzlekuak. Eraiki ondoren, kapera honetara ekarri zituzten lau aldeak agerian zituzten aurreko garaietako ehorzketa batzuk, urbinatarrei zegozkionak betiere.

Mende honetako bigarren obra –garrantzitsuena ezbairik gabe–, dorretxera mugatu zen. Dorretxea eraiki ahal izateko, aurreko mendean elizaren oinetan eraikiriko egituraren mendebaldeko horma eraitsi zuten; horrenbestean, zabaldu egin zen esparrua atal batean (planoan kolore laranjaz adierazita), eta gaur egungo oina izan zen azken emaitza.

Berritze lan biak (kapera eta dorretxea) une historiko berekoak direlakoan gaude, hots, hilerria abandonatu egin zen garaikoak; izan ere, egiturak ehorzlekuen gainean egokitu ziren, oinaren zimentuak egokitzeko suntsitu egin zirela erakusten dutelako eta, azkenik, ehorzketa nobleenak barrunbeko hileta-kapera berrira eraman zituztelako, arestian adierazi dugun bezala.

### 3. Construcción de la actual Casa-Torre y la Capilla Lateral (s. XIV)

El siglo XIV, como sabemos por documentación, constituyó un período constructivamente muy activo en el solar de los Urbina.

La iglesia recibirá, por su lado meridional, el adosamiento de una capilla de carácter funerario. Para su construcción, se niveló previamente el terreno mediante una capa de cal que cubrió los anteriores enterramientos. A esta capilla, una vez construida, se trasladaron algunos enterramientos exentos de período anterior pertenecientes a la familia.

La segunda de las obras de este siglo –y la más importante– se circunscribió a la casa-torre. Para su construcción se procedió al derribo del muro occidental del anexo que, en el período anterior, se había adosado a los pies de la iglesia, ampliándose el espacio en un tramo más (color naranja en plano) y dando como resultado final la planta que actualmente conocemos.

Hemos considerado que ambas reformas (capilla y casa-torre) responden a un mismo momento histórico coincidente con el abandono del cementerio, abandono evidenciado por la superposición de las estructuras sobre los enterramientos, por el corte de algunos de ellos para la cimentación de la planta y, finalmente, por el traslado de los enterramientos más nobles al interior de la nueva capilla funeraria, tal y como comentábamos anteriormente.

### 4. Urbinatarren Multzoaren azken itxura

Ondorengo garaietako konponketa edo egokitze lanen ondorioz, urbinatarren multzoak berritze lanei ekiterakoan zuen azken itxura eskaintzen digu (planoan kolore urdin argiaz adierazita).

Hileta-kapera mendebaldera zabaldu zen, eta alde hura ixten zuen horma eraitsi zuten horretarako. Haren ondoan gela berriak eraiki ziren, etxekoak denak, eta sukaldea, labe-gela eta bestelako gelak egokitu ziren horietan.

Laburbilduta, Urbinatarren oinetxea interes handiko finkamendua dela esan liteke, denbora luzez iraun baitu zutik. Bildu ditugun datu arkeologikoen aniztasunak bide emango digu dudarik gabe oso interesgarria izango den azterketa historikoa, osatzen ari dena gaur egun, burura eramateko.

### 5. Configuración final del Conjunto de Urbina

En época posterior, sucesivas reformas (color azul claro en plano) van a configurar el aspecto final que tenía el conjunto de los Urbina cuando se ha procedido a su restauración.

La capilla funeraria sufrirá una ampliación hacia occidente, derribándose para ello el muro que la cerraba por este lado. Junto a ello, se construirán también nuevas estancias, todas ellas de carácter doméstico, y que servirán para cocina, horno y otras dependencias.

En resumen, puede afirmarse que Urbina constituye un asentamiento del máximo interés por su larga perduración en el tiempo. La variedad de los datos arqueológicos recogidos permitirá la realización de un estudio histórico de indudable interés, actualmente en curso.

*Arantza Fernández de Jaúregui*

## B.1.1.3. **Irvña/Veleia Hiria (Iruña)**

I. interbentzio arkeologikoa A eta B *impluvium*-etan

Eliseo Gil Zubillagak zuzendua.

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

## B.1.1.3. **Ciudad de Irvña/Veleia (Iruña de Oca)**

I Intervención arqueológica en relación a los impluvia A y B.

Dirigida por Eliseo Gil Zubillaga.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.


*City of Irvña/Velaia (Iruña de Oca). Directed by Eliseo Gil Zubillaga.*

*As a result of the replacing of the mosaic paving in the city of Iruña/Velaia, it has been necessary to initiate an archaeological investigation primarily aimed at:*

*1. Delimit the areas from an archaeological viewpoint.*

*Contextualise the architectural remains affected in their respective buildings.*

*The most important result is the significant advance we have made in our knowledge of urban habitation spaces in Iruña/Velaia, of their typology, chronology and evolution and of their renovations and re-occupations. It was thus observed that there was a continuous occupation from the middle of the I century AD to the beginning of the V century AD.*


### *Aurretikoak*

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak eta Hezkuntza eta Kultura Ministeritzako Instituto del Patrimonio Histórico Español[1] delakoak, elkarkidetza lan bat adostu zuten Iruña/Veleiako aztarnategian dauden bi zoladura mosaikoz eginak berriro ere osatzeko, sendotzeko eta kokatzeko. Horrenbestez, dagokion interbentzio arkeologikoa bideratzeko agindua luzatu zigun Arabako Foru Aldundiko Museoen Zerbitzuak.

Lanari ekin behar genionerako mosaikoetako bat erauzia zuen enpresa aditu batek, eta, luze gabe, bigarren zoladura altxatzeko asmoa zuten; jarraian, eta ondo sendotu ondoren, berriro ere kokatu behar zituzten mosaiko biak, horretarako beharrezkoak ziren interbentzio arkeologikoak bideratuz.

Gure aldetik, harremanetan jarri ginen lanok ukitzen zuten Aldundiko Zerbitzuekin (Museoak, Arkitektura eta Birgaitze lanak), koordinazio gorena eta aurrikusiriko jarduera ahalik eta eraginkorrena izateko xedean.

### *Helburuak:*

Bi helburu nagusi zituen gure interbentzioak:

1. A Mosaikoa delakoa –60. urteetan[2] ustekabean aurkitua–, kontestu baten baitan kokatu behar genuen, eta ahalik eta zehatzen, zoladura egon zen etxebizitzaren ezaugarriak definitu nahi genituen; bestalde, mosaikoa berriro ere kokatzeko aurrikusi zen interbentzio arkeologikoaren zuzeneko eraginak gutxitu edo leundu nahi genituen.

[1] Lehen, Instituto de Conservación y Restauración de Bienes Culturales (ICRBC).

[2] Fariña, J. (1966): *Un nuevo silo en el Oppidum de Iruña (Trespuentes-Alava). E.A.A.* agerkarian, Arabako Foru Aldundiak argitaratua, Gasteiz, 162-163 orrialdeak.

### *Antecedentes*

El Dpto. de Cultura y Euskera de la D.F.A. y el Instituto del Patrimonio Histórico Español[1], del Ministerio de Educación y Cultura, concertaron una colaboración para el arranque, consolidación y reubicación de dos pavimentos de mosaico existentes en el yacimiento de Iruña/Veleia. Así por parte del Servicio de Museos de esa D.F.A., se nos encargó la realización de la correspondiente intervención arqueológica.

En el momento de partida de nuestro trabajo ya se había procedido al levantamiento –por parte de una empresa especializada–, de uno de los mosaicos, estando previsto en un futuro inmediato el levantamiento del segundo pavimento; así como la recolocación de los mismos –una vez consolidados–, con las intervenciones arquitectónicas necesarias.

Por nuestra parte iniciamos conversaciones con los responsables de los Servicios Forales implicados (Museos, Arquitectura y Restauración), en aras a conseguir la máxima coordinación y eficacia en la proyectada actuación.

### *Objetivos*

Nuestra intervención se orientó a cubrir dos objetivos principales:

1. En el denominado Mosaico A –localizado fortuitamente en los años 60[2]–, se trataba de contextualizarlo, definiendo –lo más ajustadamente posible–, las características de la vivienda a la que pertenecía el pavimento, y paliar los efectos de la intervención arquitectónica proyectada para reubicar el mosaico.

[1] Antes Instituto de Conservación y Restauración de Bienes Culturales (ICRBC).

[2] Fariña, J. (1966): *Un nuevo silo en el Oppidum de Iruña (Trespuentes-Alava).* En *E.A.A.* 1, Ed. D.F.A., Vitoria. Págs. 162-163.

2. B Mosaikoa delakoan –Nietoren[3] L sektoreari dagokiona–, inguruko estratigrafiaren ezaugarriak utzi nahi genituen agerian etorkizunean bideratu beharreko interbentzio arkeologikoa zehaztearren.

2. En el Mosaico B –correspondiente al sector L de Nieto[3]–, se pretendía conocer las características de su estratigrafía circundante, de cara a precisar la futura intervención arqueológica.

### *Interbentzioaren diseinua*

A Mosaikoaren kasuan, perimetro osoan eta erdigunetik kanpoalderanzko indusketa proposatu genuen –gogora ekar dezagun zoladura honetaz ezagutzen zen gauza bakarra, haren azpian zegoen zisternarekin (huts baten ondorioz silo[4] gisa interpretatu zena) zuen harremana baino ez zela–. Mosaikoz zolaturiko zisternaren multzoa zein eraikuntza unitateari zegokion –hiriko etxebizitza bati seguruenik– kontestualizatzea zuen helburu indusketak. Halaber, eraikuntza hauek ezagutu zuten okupazio, eraikuntza eta estratigrafia sekuentzia utzi nahi genuen agerian. Bukatzeko, dokumentuetara jasoko genituen mosaikoa berriro ere egokitzeko bideratuko ziren arkitektura izaerako interbentziogune puntualak.

B Mosaikoaren sektorean: Nietok azalera osoa eta perimetroko korridore estu bat baino ez zituen garbitu, eta azpiko zisterna –huts baten ondorioz silo[5] gisa interpretatu zena) hustu zuen, baina hori guztia kronologia eta estratigrafia mailako zehaztapenik eman gabe[6]. Kasu honetan, zundaketa estratigrafiko batzuk bideratzea proiektatu genuen, nagusiki alde honetako potentzial arkeologikoa neurtzeko. Hartara, zeharo zehaztatuko genuke etorkizunean eta zabalean bideratu beharreko interbentzioaren diseinua, hau da, leku hartan aurkituriko mosaikoaren zoladura altxatzean, sendotzean eta berriro ere egokitzean.

### *Diseño de la intervención*

En el caso del Mosaico A, propusimos una excavación perimetral en extensión –recordemos que de este pavimento, solamente se conocía su relación con la cisterna existente bajo él, erróneamente interpretada como un silo[4]–. Dicha excavación pretendía contextualizar el conjunto de la cisterna pavimentada con mosaico en la unidad constructiva –presumiblemente una vivienda urbana– de la que formaba parte. Así mismo se buscaba conocer la secuencia estratigráfica, constructiva y de ocupación de estas edificaciones. Finalmente se preveía documentar y desafectar, desde el punto de vista arqueológico, aquellas zonas puntuales sobre las que se iban a realizar intervenciones arquitectónicas relacionadas con la recolocación del mosaico.

En el sector del Mosaico B, del que nieto se limitó a despejar su superficie y un estrecho pasillo perimetral, así como a vaciar la cisterna subyacente –interpretada incorrectamente como silo[5]–, todo ello sin precisiones cronológicas o estratigráficas[6]. En este caso, proyectamos la realización de una serie de sondeos estratigráficos, destinados fundamentalmente a evaluar el potencial arqueológico de este área. Así podríamos ajustar al máximo el diseño de una futura intervención en extensión, cuando se levantara, consolidara y recolocara el pavimento de mosaico allí hallado.

### *Emaitzak*

A Mosaikoaren sektorean, 5. zenbakia eman diogu sektore honi (aztarnategi hau ikertzeko gure programari jarraiki betiere), 250 metro karratu ukitu ditugu, eta honako emaitza hauek lortu ditugu:

– Estratigrafia mailan eta zaharrenetik berrienaraino sailkaturik:

– Erdi Azken Brontze-Azken Brontze Aroko Mailak: garai horietakoak dira errauts multzo lodi batzuk (planoan kolore grisaz adierazita), zabortegiak ziur asko, eta zeramika eta fauna-hondakin ugari zegoen bertan. Errauts-gune hauek zuzeneko eragina nozitu zuten Burdin Aroko eta erromatarren garaiko eraikuntzen ondorioz, desagertu egin ziren alde batzuk eta beste batzuk kontserbatu egin ziren etxebizitzen zimentuen artean.

### *Resultados*

En el sector del Mosaico A, al que hemos denominado 5 (de acuerdo a nuestro programa de investigación sobre este yacimiento), hemos intervenido en unos 250 metros cuadrados, obteniendo los siguientes resultados:

– A nivel estratigráfico, y ordenado de más antiguo a más reciente:

– Niveles de un Bronce Medio Avanzado-Bronce Final, a los que corresponden unos potentes cenizales (señalado en color gris en el plano), seguramente basureros, en los que se amortizó gran cantidad de cerámica y restos de fauna. Estos cenizales se vieron afectados por las construcciones subsiguientes, tanto de la Edad del Hierro como de época romana, llegando a desaparecer en algunas zonas, y conservándose en otras, entre los cimientos de las viviendas.

---

[3] Nieto, G. (1958): *El oppidum de Iruña (Alava).* Arabako Foru Aldundiak argitaratua, Gasteiz.

[4] Fariña, J. (1966): Aipaturiko obra.

[5] Interpretazio honek zuzeneko ondorioa izan zuen ondoko egileengan (Fariña, 1966); huts baten ondorioz, silotzat hartzen ziren Iruñako etxebizitza nagusietako patioen azpian erromatarren garaian zeuden zisterna edo ur-zuloak, euri urak biltzekoak, alegia.

[6] Nieto, G. (1958): Aipaturiko obra.

[3] Nieto, G. (1958): *El oppidum de Iruña (Alava).* Ed. D.F.A., Vitoria.

[4] Fariña, J. (1966): op. cit.

[5] Interpretación que ha influido en posteriores autores (Fariña, 1966), denominando erróneamente como silos las cisternas o aljibes -destinados a almacenar agua de lluvia- existentes bajo los patios de las principales viviendas de Iruña en época romana.

[6] Nieto, G. (1958): Op. cit.

– Azken Brontze-Burdin Aroko mailak: garai horietakoak dira egitura hondakinak, hots, paramentu bihurriko eraikinen zimentuetako zapata batzuk (planoan kolore berde ilunez adierazita daude egitura horiek). Aurreko errauts-guneen gainean eraiki ziren baina oso nahasita daude ondoko erromatarren garaiko eraikuntzen ondorioz; gune jakin batzuetan baino ez dira kontserbatzen, erromatarren garaiko eraikuntzen zimentuen artean, alegia.

– Goi Inperioko mailak: garai horretakoak dira sektore honetan aurkituriko arkitektura hondakin gehienak. Lau fase edo garai nagusi bereiz daitezke:

1. garaia. Flaviotarren garaia: lehenengo *domus* edo hiriko etxebizitza eraiki zuten erdiko patio baten inguruan (“1. zisterna” eta planoan kolore gorriz adierazten diren beste egiturak).

2. garaia. Flaviotarren azken garaia-antoninotarren lehen garaia. Amaiera eman zitzaion aurreko etxebizitzari.

3. garaia. Lehen antoninotarren garaia: bigarren *domus* bat eraiki zuten, handiagoa eta dotoreagoa, zisternaz (“2. zisterna” eta planoan kolore urdinaz adierazita dauden beste egiturak) hornituriko patioaren inguruan antolatua; dagoeneko ezaguna dugu zisternaren zoladura mosaikoz egina.

4. garaia. Lehenengo antoninotarrak: alde batean baino ez zioten amaiera eman bigarren *domus*-ari; hots, fatxada nagusiaren ezkerreko *taberna* osatu zuten (ikus planoan “ezkerreko taberna”), eta seguru asko lur-zorua 30 cm-tan goratu zuten patioko zoladuraren altuerare-

– Niveles del Bronce Final–Edad del Hierro, a los que corresponden restos estructurales, en concreto unas zapatas de cimentación de edificaciones de paramentos curvos (estructuras señaladas en color verde oscuro en el plano). Se construyeron sobre los cenizales precedentes y están muy afectadas por las posteriores edificaciones de época romana, conservándose puntualmente entre los cimientos de éstas.

– Niveles altoimperiales. A ellos pertenecen la mayor parte de los restos arquitectónicos de este sector. Pueden dividirse en cuatro fases principales:

1.ª fase. Época flavia: construcción de una primera domus o vivienda urbana, articulada en torno a un pequeño patio central (“cisterna 1” y demás estructuras en color rojo que se señalan en plano).

2.ª fase. Final flavios-principio antoninos. Amortización completa de la vivienda precedente.

3.ª fase. Época de los primeros antoninos: Construcción de una segunda domus, más amplia y de mayor nivel, organizada en torno al patio con cisterna (“cisterna 2” y demás estructuras en color azul que se señalan en plano) cuyo pavimento de mosaico nos era conocido.

4.ª fase. Primeros antoninos: amortización puntual de la segunda domus, concretamente de la taberna izquierda de su fachada principal ver en plano “taberna izda.”, probablemente se recrece el suelo unos 30 cm., para armonizarlo con la altura del pavimento del



Irvña/Veleia hiria (Iruña). 5. sektoreko egituren ikuspegi orokorra.

Ciudad de Irvña/Veleia (Iruña de Oca). Vista general de las estructuras del sector 5.

kin berdintzeko. Betegarrian aztarna ugari geratu ziren agerian (Tritium-eko sigillatak, beirazko baxera, argimutil italiarrak eta hezur hondakinak, besteak beste).

– Behe Inperioko mailak. Hiria okupatuta egon zen azken garaietan (K.o. IV. mendearen 2. erditik V. mendearen 1. erdira arte) berriro ere erabili ziren Goi Inperioko *domus*-eko gelak, fatxada nagusiaren eskubiko *taberna* bereziki (ikus planoan "eskubiko taberna"); alde hau –jatorrizko lur–zoruaren maila gordeaz– etxe-esparru gisa erabili zuten, eta, besteak beste, zeramika arruntak, erromatarren azken garaiko sigillata eta argimutilak azaldu ziren bertan. Azkenik, etxebizitza, neurri batean bederen, suntsitu egin zela egiaztatu dugu.

– Arkitektura mailan, eta Goi Inperioko ondoz ondoko *domus*-etara mugatuz, honako datu hauek jaso ditugu:

Ikusi dugun bezala, elkarren ondoan eraiki zituzten etxebizitza biren aurrean gaude. Eskema orokor berbera aurkezten duten arren –patio irekia, dagokion zisterna barne, eta inguruko gelak), ez ziren modu berean eraiki.

Lehenengo *domus*-ean dagoeneko ezagunak ditugu zisternaren oinaren atal bat, patioaren eta inguruko gelen arteko tartea, eta gela horietako baten parte bat. *Domus*-a zeharo desmuntatu zen, ur-zuloa ere bete egin zen eta, horrenbestean, berdindua geratu zen ur-zuloaren gainazala bigarren etxebizitza eraikitzeari ekin aurretik. Zisterna eustormez hornituta zegoen, *opus caementitium* enkofratuaren bidez eginak, garbitzeko baketoiak edo hagak barne. Kararrizko zapataren zimentazioak dira beste atalak. Zati batzuetan kontserbatu egiten dira, zokaloa hasiera duen mailan hain zuzen ere, horma-pinturaren bidezko estalkien aztarnak.

Ugariagoak dira bigarren *domus*-aren gaineko datuak. Erdiko patioa –eta harekin batera inguruko gelak–, zabaldu egin zuten, eta aurreko patioak halako bi hartzen zuen. Etxebizitza osoa mendebaldera eraman zuten eta handitu egin ziren gelak. Iparralde-hegoalde luzatzen da etxearen ardatz nagusia. Hegoaldeko fatxadan *fauces* edo ezkaratza zabaltzen da eta alde banatan bi *tabernae* simetriko (ikus planoa), ezkerrekoak *opus caementitium*-ez eginiko zoladura kontserbatzen du. Jarraian, etxearen erdialdean, patio irekia edo *impluvium*-a zegoen, mosaikoz eginiko zoladura eta dagokion zisternaz hornituta. Patioaren aldeetara gutxi gora-behera karratuak ziren bi *cubicula*-ko bi multzo zeuden, zerbitzurako bi hutsartez osatuak, horiek guztiak buztin trinkoko zoladurez eginak. Jarraian, eta zoladura berberaz, patioa eta alboko *cubicula*-k artikulatzen dituen esparru angeluzuzena zabaltzen da (ikus planoa), eta huraxe litzateke etxeko gela nagusia, espazio lauangeluar zabal bat alegia. *Domus* osoak terrazan egina dirudi, hegoaldetik (garaiagoa baita) iparraldera mailakatua. Kurioski, lurzorurik "nobleena" patioko mosaiko geometrikoari legokioke, eta ondoren *tabernae*-tako hormigoizko zolarriak dira zoru landuenak.

patio. En el relleno se incluye un buen lote de evidencias (sigillatas de Tritium, vajilla de vidrio, lucernas itálicas, industria ósea, etc.).

– Niveles bajoimperiales. Durante las últimas fases de la vida de la ciudad (2.ª mitad del siglo IV-1.ª mitad del siglo V d.C.) se constata la reutilización de estancias de la domus altoimperial, en concreto la taberna derecha de la fachada principal (ver en plano "taberna dcha.", que es utilizada –con su nivel de suelo original–, como ámbito doméstico, al que se adscribe un buen lote de cerámica común, sigillata tardía, lucernas, etc. Finalmente se registra la destrucción –al menos parcial– de la vivienda.

– A nivel arquitectónico, y centrándonos en las sucesivas domus altoimperiales, hemos obtenido los siguientes datos:

Como hemos visto nos encontramos ante dos viviendas sucesivas. Si bien su esquema general es el mismo –patio abierto, con su correspondiente cisterna y habitaciones perimetrales–, su ejecución presenta importantes variaciones.

De la primera de ellas conocemos parte de la planta de su cisterna, la separación entre el patio y las habitaciones perimetrales, y parte de alguna de estas estancias. La domus fue totalmente desmontada, rellenándose incluso su aljibe, de modo que su superficie quedó allanada antes de iniciar la construcción de la segunda vivienda. La cisterna poseía muros de contención, obtenidos mediante opus cæmentitium encofrado, con sus correspondientes baquetones de limpieza. El resto de los trazados corresponden a cimentaciones de zapata de mampuestos de caliza. En algunas ocasiones se conservan –a nivel de arranque de zócalo–, indicios de revestimientos pictóricos murales.

Más abundantes son los datos sobre la segunda domus. El patio central –y con él las habitaciones perimetrales–, se amplia, duplicándose su extensión con relación al más antiguo. Toda la vivienda se desplaza hacia el oeste, tomando las diversas estancias mayor tamaño. El eje principal de la casa es básicamente norte-sur. Así en la fachada sur tenemos las fauces, flanqueadas por al menos dos tabernæ simétricas (ver plano), de las cuales la izquierda conserva pavimentación en opus cæmentitium. A continuación –en el centro de la casa–, el módulo compuesto por el patio abierto o impluvium –dotado de su pavimento de mosaico y correspondiente cisterna–. A sus lados dos conjuntos de dos cubículas más o menos cuadradas, complementadas por dos pequeños huecos de servicio rectangulares, todas ellas con pavimentos en arcilla compactada. Le sigue un espacio rectangular de distribución (ver plano) –con la misma pavimentación–, que articula el patio y sus cubículas laterales, con lo que sería la estancia principal de la vivienda –un amplio espacio cuadrangular–. A sus lados nuevamente, al menos dos huecos de servicio de planta rectangular –todos ellos con pavimentación de tierra–. Toda la domus, parece estar construida en terrazas, escalonadas de sur –mayor altura– a norte. Curiosamente el más "noble" de los suelos sería el correspondiente al sencillo mosaico geométrico del patio, seguido de las soleras de hormigón de las tabernæ.

B Mosaikoaren sektorean, 6. zenbakia eman diogu sektore honi (aztarnategi hau ikertzeko gure programari jarraiki betiere), 4 metro karratuko lau zundaketa egin ditugu *impluvium* ezagunaren inguruetan, eta honako emaitza hauek lortu ditugu:

– Estratigrafia mailan eta zaharrenetik berrienaraino sailkaturik:

– Bigarren Burdin Aroko mailak: Garai horretan eraiki, okupatu eta eraitsi zuten hondoa kubeta baten gisara, lurreko harri bizian hondoraturik alegia, ondoko Atxa herrigunean aurkiturikoen antzera (Gil, 1995), zuen etxebizitza bat. Eraikin honetan tresneria multzo bat aurkitu genuen, horien artean aipagarri zeltiberiarmotako zeramika tipikoak.

– Goi Inperiko mailak: Patio irekiko *domus* handi bat eraiki eta okupatu zuten eta patio horretan zeuden urzuloa eta bere zoladura mosaikoz egina.

– Behe Inperioko mailak: Berriro ere erabili zituzten aipaturiko *domus*-eko gela batzuk eta, ondoren, eraitsi egin zuten *domus*-a. Garai honetakoa da kultura materialaren elementu multzo bat (besteak beste, erromatarren azken garaiko sigillatak, zeramika arruntak eta metalezko tresnak).

En el sector del Mosaico B, al que hemos denominado 6 (de acuerdo a nuestro programa de investigación sobre este yacimiento), hemos realizado cuatro sondeos perimetrales al impluvium conocido, de 4 metros cuadrados, obteniendo los siguientes resultados:

– A nivel estratigráfico, y ordenado de más antiguo a más reciente:

– Niveles de la II Edad del Hierro. A los que corresponden las fases de construcción, ocupación y destrucción de una vivienda con el fondo en cubeta, rehundido en la roca base del terreno, al estilo de las detectadas en el vecino poblado de Atxa (Gil, 1995). A esta edificación se asocian elementos de ajuar, entre los que destacan las características cerámicas de tipo celtibérico.

– Niveles altoimperiales. Pertenecen a la construcción y ocupación de una gran domus de patio abierto, a la que corresponden el aljibe y su pavimento de mosaico.

– Niveles bajoimperiales. Se adscriben a la reutilización de diversas estancias de la citada domus, así como a la destrucción de la misma. Se asocian a estas fases un buen lote de elementos de cultura material (entre ellos, sigillatas tardías, cerámicas comunes, instrumental metálico, etc.).




Irvña/Veleia hiria (Iruña). 5. sektoreko egituren sekuentzien irudikapena, estratigrafia-erregistroak zehaztuta.

Ciudad de Irvña/Veleia (Iruña de Oca). Representación secuencial de las estructuras del sector 5 determinadas por el registro estratigráfico.

– Arkitektura mailan, eta Goi Inperioko *domus*-ari dagokionean, honako datu hauek jaso ditugu:

Eraikuntzari bagagozkio, munta handiagokoa da, patio arkupeduna erakusten du, angeluetan lau koloma-oinarri bereizten dira eta perimetroko korridore estu bat *impluvium*-aren eta gelen artean. 5. sektoreko ondoz ondoko *domus*-etako zisternak *opus caementitium* enkofratuaren bidez egin baziren –erdi-puntuko gangaren bidezko estalkia guztiz kontserbatu den laginaren kasuan–, eustormen eta bi kolomek eutsiriko estalki lauen bidez bideratu zen honako honetan. Ipar-ekialdeko angeluan, kolomaren euskarriaren ondoan, Nietoren[7] taldeak ezin hauteman izan zuen ur-zuloaren gainezkabidea –berunazko hoditeria– aurkitu genuen. Halaber, hodi hori korridorean hustutzen zela egiaztatu dugu, eta korridorearen buztin zanpatuko zolaren azpian ur-hustuketa errazteko hartxabal irregularreko geruza bat egokitu zuten. Sarrera izan dugun perimetroko gelek (hegoaldean eta ekialdean), trinkoturiko buztinezko zoladurak aurkezten zituzten. Etxebizitza, halaber, terrazetan zegoen antolatuta, patioaren hegoaldeko gelak bereizten zituen eustormaren altxaera garrantzitsuak erakusten duen bezala.

Laburbilduta, askoz hobe ezagutzen ditugu Goi Inperioaren garaian Iruña/Veleiako hirian eraiki ziren hiriko etxebizitzak. Hiri-egitura hauek zabalean eta xehetasunez ezagutzeko ikerketetan oraindik urrats garrantzitsuak eman behar diren arren, dagoeneko hainbat alderdi aurreratu ditzakegu. Iruñako hiri ortogonala sortu zenetik –Augustoren eta julio/klaudiotarren garaien artean–, berritze lan ugari burutu ziren hirian Goi Inperioaren garaian edilek bideratzen zuten jarduera eta bizkortasunaren erakusgarri. Patio irekiaren eta inguruko gelen etxebizitza-eredua guztiz indarrean zegoen garai hartan. Indusketa lanei esker, dagoeneko lau etxebizitza ezagutzen ditugu: bata Nietoren[8] 6/L sektorean, beste bi 5. sektorean (azken interbentzio honetan geronek dokumentatu ditugun ondoz ondoko *domus*-ak), eta bestea gure 1. sektorean. Bukatzeko bada beste etxebizitza bat, eta hari dagokio erromatarren azken garaiko esparruko murruetatik kanpora dagoen zisterna, hegoaldeko atearen hegoaldera dagoena alegia. Bost etxebizitza hauetatik lauk beren *impluvium*-aren azpian dute zisterna, baina 1. sektoreko zisterna soila da, hau da, ez dago *impluvium*-aren egituraz hornituta.

Etxebizitza hauek –neurri batean bederen– erabili egin zituzten Iruña/Veleiako hiriak bizirik iraun zuen artean (K.o. IV. mende bukaera-V. mende hasiera bitartean), 5. sektorean bideratu dugun interbentzioak edo 2. eta 4. sektoreetan bideraturiko ikerketa lanek agerian utzi duten bezala.

Bukatzeko, landa-lanei amaiera eman ondoren, eta Arkitektura Zerbitzuko arduradunekin elkarlanean, A mosaikoa egokituta hura babestuko duen estalkiaren lau euskarriak zein lekutan kokatuko diren –arkeologiaren ikuspuntutik gune desafektatuak– zehaztu genuen.

– A nivel arquitectónico, hemos documentado lo siguiente referido a la domus altoimperial:

Su modelo constructivo es de mayor porte, presentando un sencillo patio porticado, con cuatro bases de columna en los ángulos y un estrecho pasillo perimetral entre el impluvium y las diversas estancias. Mientras que la cisternas de las sucesivas domus del sector 5, se resolvían mediante obra de opus cæmentitium –con la cubierta en bóveda de medio punto en el caso del ejemplar conservado íntegramente–, en esta vivienda se realizan mediante muros de contención y cubierta plana, soportada por dos columnas. En el ángulo noreste, junto al apoyo de la columna, hemos detectado el aliviadero de la cisterna –una tubería de plomo–, que paso inadvertido al equipo de Nieto[7] Así mismo, hemos comprobado que dicho tubo desaguaba al pasillo, bajo cuyo firme de arcilla apisonada se colocó una capa de lajas irregulares para favorecer el drenaje. Las habitaciones perimetrales a las que hemos accedido (al sur y al este) presentaban pavimentos de arcilla compactada. La casa se articula igualmente en terrazas, como pone de manifiesto el importante levante que aún se conserva del muro de contención, que separaba las estancias del sur del patio.

En resumen, hemos avanzado notablemente en el conocimiento de las viviendas urbanas que fueron construidas en la ciudad de Iruña/Veleia durante su etapa altoimperial. Aunque aún sea necesario avanzar en nuestras investigaciones para conocer en detalle y extensión estas importantes estructuras urbanas, podemos avanzar ya una serie de cuestiones. A partir de la etapa fundacional del urbanismo ortogonal de Iruña –entre época augustea y julio/claudia–, se suceden en la ciudad frecuentes reformas que testimonian una importante vitalidad y actividad edilicia en época altoimperial. El modelo de casa con patio abierto y habitaciones perimetrales está plenamente vigente. De él conocemos ya cuatro viviendas a través de las excavaciones: una en el sector 6/L de Nieto[8], dos en el sector 5 (las sucesivas domus documentadas por nosotros en esta última intervención), y una en nuestro sector 1. Finalmente existe otra vivienda, cuya cisterna se encuentra extramuros del recinto tardío, al sur de la puerta sur. De estas cinco viviendas, cuatro presentan cisterna bajo su impluvium, correspondiendo la del sector 1, a un tipo más sencillo sin esta instalación.

Estas viviendas permanecen –al menos parcialmente– en uso hasta el final de la vida urbana en Iruña/Veleia (en torno a fines del siglo IV–inicios del V d.C.), como se documenta en nuestra intervención del sector 5, o en los trabajos de investigación en los sectores 2 y 4.

Finalmente, al término de los trabajos de campo, en colaboración con los responsables del Servicio de Arquitectura, procedimos a la elección de aquellos lugares –desafectados desde el punto de vista arqueológico–, sobre los que se colocarán los cuatro apoyos de la cubierta que protegerá al mosaico A, una vez recolocado.

*Eliseo Gil Zubillaga*

[7] NIETO, G. (1958): Aipaturiko obra.
[8] NIETO, G. (1958): Aipaturiko obra.

[7] NIETO, G. (1958): Op. cit.
[8] NIETO, G. (1958): Op. cit.

## B.1.1.4. La Llanako aztarnategia (Bastida)

II. Indusketa kanpaina.

Luis Gil Zubillagak zuzendua

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

## B.1.1.4. Yacimiento de la Llana (Labastida)

II Campaña de Excavaciones.

Dirigida por Luis Gil Zubillaga.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

*La Llana (Labastida) Site. Directed by Luis Gil Zubillaga. The second campaign of emergency archaeological excavations in the gravel pit where the "La Llana" site was identified was prompted by the appearance of five new storage silos which, in the light of the recovered material, can be attributed to the height of the Medieval period (XI - XIII centuries).*

*The finds, as in the previous excavations, are basically abundant animal remains and turned pottery. The chronology of these silos, used as dumps from the material recovered, can be fixeded at the height of the Medieval period (XI - XIII centuries).*

### 1. *Interbentzio arkeologikoaren arrazoia*

Aztarnategi[9] honetan Erdi Aroko beste bost silo agerian geratu izanak, legartza erauzteko frontea behera etorri baitzen euriek eraginda, bide eman zuen otsailean bigarren premiazko interbentzio arkeologikoari ekin geniezaion.

### 2. *Indusketaren emaitzak*

Premiazko interbentzio arkeologikoan zehar, beste lau silo induskatu genituen "in situ" eta legartza erauzteko frontean. Halaber, garbitu egin genituen gure interbentzioa bideratu aurretik ezezagun batzuk induskatu zuten bosgarren silo baten hondakinak.

Lanen metodologia 1995eko indusketa kanpainan erabilirikoa bezalakoa izan zen.

Induskaturiko silo guztiek, 1995ean aurkiturikoek bezalaxe, ezaugarri homogeno multzo bati erantzuten diote: Udare-antzeko tipologia, harrizko betegarri sendoa –trakets landuriko silarri txikiak batzutan–, antzeko neurriak eta beste; batez ere fauna hondakinak aurkitu dira horietan, eta kopuru apalagoan, Erdi Aroko eta tornuan eginiko zeramika puskak, eta harrizko nahiz metalezko materialak.

### 3. *Premiazko bi kanpainen gaineko balorazioa:*

Aurreko kanpainan esan genuen bezalaxe, silo hauek Mutilluriko herrigunearekin dute zerikusia; Mutilluriko herrigunea XI-XIII. mendeetan dokumentatzen da eta Narciso Herguetak mende hasieran induskatu zuen hango nekropolia –gaur egun zeharo suntsituta dago, ondoko San Martin ermita bezala, nahiz eta oraindik kontserbatu egiten den haren toponimoa–.

1995 eta 1996. urteetan bideraturiko premiazko indusketa lanetan zehar hamar silotako multzoa induskatuta, lan hauetan aurkituriko materialei buruzko datu orokor batzuk eskain ditzakegu; material horiek Erdi Aroan bete betean bizi zen giza-komunitate batek

[9] Aztarnategia non dagoen jakiteko, ikus *1995eko Arkeoikuska,* 292-295 orrialdeak.

### 1. *Causas de la intervención arqueológica*

La aparición de cinco nuevos silos medievales en este yacimiento[9] a causa del derrumbe del frente de extracción de la gravera producido por las lluvias, dio lugar a una segunda intervención arqueológica de urgencia en el mes de febrero.

### 2. *Resultado de la excavación:*

Durante la intervención arqueológica de urgencia fueron excavados cuatro nuevos silos localizados "in situ" en el frente de extracción de gravas. También se procedió a limpiar los restos de un quinto silo que fue excavado por furtivos antes de nuestra intervención.

La metodología de los trabajos fue la misma empleada en la anterior campaña de excavaciones de 1995.

Todos los silos excavados parecen responder, al igual que los localizados en 1995, a una serie de características homogéneas: Tipología piriforme, fuerte relleno de piedras –que en algunos casos son sillarejos de tosca labra–, dimensiones similares, etc. y han proporcionado sobre todo restos de fauna, y en menor volumen, de cerámica medieval torneada, material lítico y metálico.

### 4. *Valoración de las dos campañas de urgencia*

Como ya indicamos anteriormente, consideramos que estos silos deben ponerse en relación con la aldea de Mutilluri, documentada en los siglos XI-XIII, y cuya necrópolis –hoy día destruida, al igual que la cercana ermita de San Martín, cuyo topónimo aún se conserva– fue excavada a principios de siglo por Narciso Hergueta.

A través de la excavación de un conjunto de diez silos en las campañas de excavación de urgencia de 1995 y 1996, podemos ofrecer una serie de datos globales acerca de los materiales recuperados en estos trabajos, y que muestran el tipo de objetos y restos

[9] Para su localización, ver *Arkeoikuska 95,* pp. 292-295.

aleak metatzeko egitura batzuetara botatzen zituen objektu eta hondakin-motak erakusten dituzte, egitura horiek zabortegi bilakatu zirelako erakusgarri.

Siloak zertarako erabili ziren alderdiari bagagozkio, oso betegarri desberdinak aukitzen ditugu; batzuek, hirugarren eta hamargarren siloek, esaterako, betegarri sendoa erakusten duten artean, besteetan bi edo hiru aztarna baino ez ditugu aurkitu.

Aurkituriko fauna hondakinei dagokienean, silo hauek zabortegi gisa erabili zirela egiaztatu dugu, kontsumituriko animalia hondakinez gainera (behi, ardi-ahuntz, txerri, oilo, ibaietako txirla eta gisako hondakinak), beste animalia batzuen haratustel osoak (txerriak, oiloak, harrapariak, zakurrak, katuak) bota baitzituzten siloen barnera.

Kopuruaren aldetik, zeramikazko hondakina da, fauna hondakinaren atzetik, indusketan agerian utziriko material garrantzitsuena. Aztarnategian aurkituriko formen errepertorioari dagokionean, txarroak eta eltzeak dira nagusi, eta proportzio txiki batean tornu txikian edo tornetan parte handi batean landurikoak.

Desgrasante finaz, mikaz, eta buztin dekantatuan eginikoa da ore-motarik arruntena. Nagusiki su erreduktorean erre ziren eta, ondoren, oxidazioz; “sandwich” delako ore-mota osatzen da horrenbestean, baina badira, halaber, kopuru apalagoan ordea, oxidazioz eta su erreduktorean erretakoak.

Dekorazio teknikak, bestalde, une horretan ohikoak zirenak dira, hots, uhin antzeko lerroak eta “ur tanten” bidezko ziztadak, arrastoak, eta oxidoen bidezko pinturak.

que una comunidad humana del plenomedievo arrojaba a unas estructuras de almacenaje de grano que habían pasado a convertirse en basureros.

En lo que a las pautas de utilización de refiere, los silos muestran un volumen de relleno muy desigual, al presentar algunos un fuerte relleno, como es el caso de los silos tres y diez, por ejemplo, mientras otros apenas poseen dos o tres evidencias.

En lo que a la fauna recuperada se refiere, constatamos como estos silos son utilizados como vertederos, en los cuales se arrojan tanto restos de animales consumidos (vaca, ovicaprinos, cerdos, gallinas, almejas de río, etc.) como las carroñas enteras de otros (cerdos, pollos, rapaces, perros, gatos, etc.).

Los restos cerámicos constituyen, tras la fauna, el segundo material cuantitativamente más importante localizado en excavación. El repertorio de formas presentes en el yacimiento se compone básicamente de jarras y ollas, y en muy pequeña proporción hallamos muy mayoritariamente mediante torno bajo o torneta.

El tipo de pasta más habitual es el realizado en arcilla muy decantada con fino desgrasante micáceo. El modo de cocción predominante es el reductor con post-cocción oxidante, que da lugar a las conocidas pastas tipo “sandwich”, aunque también están presentes en menor medida las cocciones oxidantes y reductoras.

Las técnicas decorativas presentes son las habituales en estos momentos, con ejemplos de líneas onduladas y “gotas de agua” incisas, impresiones, y pintura realizada con óxidos.



La Llanako aztarnategian bideraturiko indusketa lanen ikuspegia.

Vista de los trabajos de excavación del yacimiento de La Llana.

Kopuruaren aldetik oso gutxi ziren arren, garrantzitsua ematen du harrizko materialak. Batzutan leungailu baten puskak dira edo kronologia zehazten zail diren taila-hondakinak, agian Erdi Aroan ere erabiliko zirenak, baina aurkitu ere aurkitu genituen historiaurreko pieza batzuk, enbor eta hegal hasberriko gezi mutur bat, laskak eta iduneko bat; material horiek Mutilluriko herriguneko biztanleek “bitxitzat” jotzen zuten izaera profilaktiko edo fetitxistako materialaren depositua adierazten omen dute.

Garrantzi txikikoa da metalezko materiala, eta zepa puska bat, sekzio angeluzuzeneko zurtoin bat eta iduneko txiki bat, burdinazkoak guztiak, baino ez genituen aurkitu.

Konklusio gisa, esan dezagun, uzten soberakinak metatzeko biltegi gisa siloen erabilera bertan behera uzteko fenomeno orokorra eta geografian oso hedatua, Erdi Aro bete betean egin zena, eta ondorengo garaietan silo horiek etxeko zabortegi gisa erabili izana, “feudal-motako produkzio harremanen zabalkundearen, eta soberakina banatzeko orduan eraldakuntzarekin zerikusia duten egitura-aldaketen eta familia-unitateek erreserbak nola baliatzen zituztenarekin bat etor daitezkeenak[10]”, ondorio gisa interpretatu dutela egile batzuk. Gure aburuz eta hipotesi gisa, fenomenoaren azalpen orokorra emateko irizpide onargarria da.

Aunque numéricamente escasa, la presencia de material lítico, parece significativa. En algunos casos se trata de fragmentos de pulimento o de restos de talla de dudosa adscripción cronológica, quizá incluso de uso en época medieval, pero también encontramos piezas propias de la prehistoria reciente, como una punta de flecha de pedúnculo y aletas incipientes, lascas, un colgante, etc. que parecen hacer referencia a un depósito de carácter profiláctico o fetichista de un material considerado “curioso” por los habitantes de la aldea de Mutilluri.

El material metálico es poco significativo, y se reduce a algún fragmento de escoria, un vástago de sección rectangular y un pequeño colgante, todos ellos de hierro.

Interbentzioaren lehen fasea orubean zegoen zaborra eraistera eta garbitzera mugatu zen; lan hori guztia arkeologo baten begiradapean garatu zen. Bigarren fasean bi kata edo zundaketa zabaldu ziren, orubearen zeharrean eta luzeran, espazio honetan hiri-zoruaren okupazioaren bilakaeraren, kronologia erlatiboaren eta izaeraren berri emango lituzketen egiturak aurkitzeko xedean. Gisa honetan zundaturiko azalerak, 26. eta 28. zenbakiak batuta guztizkoaren %30 hartzen zuen kasik.

Burura eramandako lehen katak (A), luzeran zabalduak, higiezinak utzi zituen agerian, eta gaurko egunean bezalaxe, zuzenean bermatzen ziren kaleari begira eta ordenaturik, gutxienez aurrealdearen bi-herenak okupatuz gutxi gora-behera. Baliteke, gibelaldeko herena, sakonera handiagoa hartzen duena, emendatu izanaren ondorio izatea, kontuan badugu hiru etxebizitza-egituretan hautemandako antzekotasuna, baina jaso ditugun aztarnak ez dira behin betikoak alderdi honi dagokionean.

B katan edo orubearen zeharkako zundaketan lortu ditugu daturik interesgarrienak. Gaur egun ezagutzen ditugun hiru higiezinek (elkarren ondoan dauden etxebizitzak eta 26. zenbakiari eratxikitakoa) hartzen duten lur-zorupean duda egiteko modurik uzten ez duten aurreko garaietako bi higiezin aurkitu ditugu. 26. zenbakikoak egokiera garbiagoa erakusten du; alde txiki batzuk medio, egungo etxeak hartzen zuen espazio berean bermatzen zen eta, itxura batean, 28. zenbakian aurrez zegoen eraikin bati eratxikita eta haren gainean bermatuta zegoen bien arteko mehelinari erreparatzen badiogu. Bere barneko espazio erabilgarria 3,50 m-koa izango zen gutxi gora-behera; izan ere, garai bereko 26. zenbakikoari eratxikitakoak (altuera txikiagoa duen eta estuagoa den pabiloi luzanga bat, kantoiaren paraleloan luzatzen dena) alde nabarmenak ageri ditu bere zorupeko mailen antolakuntzan (kantoitik dagoen sarrerako enkatxuaren azpian ez zen jatorrizko lur-eremuaren aldaparoa egokitu zelako aztarnarik aurkitu, eta lur-ere-

## B.1.2.2. **Erdiko-kale, 26-28 (Artziniega)**

Dirigido por M.ª José Torrecilla Gorbea.

Financiado por Constructora Veulsa, S.A.

La intervención arqueológica realizada en los números 26 y 28 de Erdiko-kale, se enmarca dentro de las actuaciones contempladas por el artículo 45.5. de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco. En este caso, la rehabilitación de estos dos inmuebles por parte de sus propietarios, la constructora Veulsa, S.A., afectaba de manera notable al subsuelo de los solares ocupados incluidos en la delimitación de zona arqueológica de la villa de Artziniega. La intervención tenía por objeto el sondeo del potencial arqueológico de los solares, su interpretación estratigráfica y la salvaguarda de cuantos indicios de carácter histórico pudiesen obtenerse para una mejor comprensión de la evolución del conjunto del suelo urbano en general y de estos solares en particular.

La primera fase de intervención se desarrolló en el derribo y vaciado del escombro del solar, supervisado directamente por el arqueólogo. La segunda fase corresponde a la realización de dos catas o sondeos, transversal y longitudinalmente al solar, al objeto de localizar estructuras constructivas que diesen cuenta del carácter, cronología relativa y evolución de la ocupación del suelo urbano en este espacio. La superficie sondeada por este medio es casi un 30% del total de ambos números 26 y 28.

La primera de las catas realizadas (A), en sentido longitudinal, permitió establecer la presencia de inmuebles que, como en época actual, se asentaban directamente ordenados hacia la calle, ocupando aproximadamente los dos tercios delanteros, como mínimo. Es probable que, el tercio trasero, que adquiere mayor profundidad, pueda haber sido fruto del recrecimiento, si tenemos en cuenta el paralelismo observado en las tres estructuras de habitación detectadas, pero los indicios obtenidos no son determinantes a este respecto.

Los datos más interesantes se han obtenido en la cata B o sondeo transversal del solar. De los tres inmuebles conocidos en nuestros días (dos casa contiguas y un anexo a la n.º 26, de menor altura y anchura), el subsuelo ha deparado el hallazgo con claridad de dos preexistentes. El n.º 26 parece ser el que presenta una disposición más clara; con ligeras diferencias se asienta en prácticamente el mismo espacio que ocupó la actual y, al parecer, adosada y apoyada a una preexistente en la zona del n.º 28 a juzgar por el muro medianero entre ambas. El espacio útil interno de ésta sería aproximadamente de unos 3,50 m. habida cuenta del hecho de que el anexo del coetáneo n.º 26 (un alargado pabellón de menor altura y más estrecho, paralelo al cantón) presenta discordancias evidentes en el escalonamiento de su subsuelo (bajo el encachado de acceso desde el cantón no existían indicios de readecuación de la pendiente original del terreno, y su altura relativa respecto al “interior de la

muaren altuera erlatiboa 30 cm gorago dago, benetako "etxearen barnealdeko" altueraren aldera). Bat ez etortze edo homogenotasun gabezia hau areagotu egiten da kontuan badugu kantoiaren "aldaparen" araberako norabidea hartzen duela eta eguzkiaren argia ere kantoiaren arabera hartzen duela.

Bestalde, eta 26. zenbakian aurrez zegoen higiezin honi dagokionean, parte handi batean okupatuko zuen landu gabeko harriz eta adreilu erregogorrez eginiko labe batek, eta haren neurri gorenak gainditu egiten du 2 m-ko luzera; labearen ganbarak 1,25 m diametro hartzen zuen oinarrian. Gure iritziz, elementu hau ez dagokio labeari berari, labearen tiroari baizik, eta kota beheragoan egongo litzateke, eraikinaren gibelaldeko herenean alegia. Zoritxarrez, aro garaikidean etxebizitzan eginiko berritze lanen batek suntsitu egingo zuen elementu hau, eta espazioa pareta batez, landu gabeko harriz eta adreilu modernoez, modu irregularrean eratuta, itxi zuten. Hala eta guztiz ere, elementu hauen estratigrafia-harremanetan oinarrituta, honako ondorio honetara hel gaitezke: aipaturiko tiroa ez zen aztertzen ari garen gelako jatorrizko elementua, ondoko garaietan bideraturiko berritze lan baten ondorioa baizik. Horrenbestez, elementu horren alboko pareta edo estalkia Iparraldeko mehelinari egokitzen zaio, haren lodieraz baliatzen da eta behar den makurdura lortzeko aukera ematen zuten piezak baino ez zituzten erantsi.

Elementu honi buruzko dokumentu iturriak ez dira batere zehatzak. Joan den mendearen bukaeran Industria eta Merkataritzaren gaineko Estatistiken arabera (1887-1888) bazen gozogile bat, Manuel Garavilla Urrutia alegia, Posta Kaleko (gaur egungo Erdikokale kalea) 26. zenbakian. Itxura batean, horixe da geronek aztertu ditugun urte haietako eta 20. urteetako orubeetan industria jarduera bat garatu zen orube bakarra. Hala eta guztiz ere, hiriko finken gaineko estatistika datarik gabeko baten arabera (urte beretsuetan egina behar zuen, A.M.A. 84 Kutxa, 6. leg.), 4 "labe eta galdara" zeuden Artziniegan, Beheko-Kalearen egungo okindegiaren azpian bata, Denda eta Goiko-Kalean zehaztu gabeko leku batean bestea, eta beste bi Posta kalean, Ramon Gorbearena eta Manuela Rubinarena, hurrenez hurren.

Nolanahi ere, udalerrian bertan jasoriko ahozko informazioaren arabera, bazen alde honetan errementari bat bere sutegiarekin, baina 28. zenbakiko gibelaldean kokatzen dute. Ildo honetatik, jada 1888. urteko dokumentu batean aipatzen da Posta kalean albaitari-errementari bat egokitu izana, Juan Lobo alegia, 44. zenbakian bizi zena, eta 1902. urtera arte itxaron behar dugu Faustino Arechavala Isusquiza delako bat, "soldatapeko errementaria" zena, 22. zenbakian bizi zena eta haren deiturak jasoriko ahozko informazioarekin bat zetozenak, dokumentu batean aipatuta irakurtzeko. Kurioski, 22. zenbakiari ere atxiki zaizkio Remigio Martínez Nanclares ("latorri" eta janari saltzaile gisa emana zuen alta) eta Fructuoso Gaviña Moguruza ("soldatapeko zurgina") jaunen lokalak. Izan ere, estatistikak ez du zehazten soilik etxebizitza bat ote zen, ala higiezin horretan ere beren jardunbide profesionalak garatu ote zituzten. Gure ustez soilik etxebizitza bat izan zen eta baliteke gozogintzarako tailerra eta bere

casa" propiamente dicha es de alrededor de 30 cm. más, discordancia reforzada por el hecho de que, además, se orienta y solea en función de la "caída" del cantón.

Por otro lado, y en lo que se refiere a este inmueble preexistente del 26, buena parte se hallaría ocupado, además, por un horno de forro de mampuesto y ladrillo refractario, cuyas dimensiones extremas superan los 2 m. y cuya cámara es de 1,25 m. de diámetro aproximado en la base. Nos inclinamos a pensar que este elemento corresponde en realidad no al horno propiamente dicho, sino al tiro del mismo, que se encontraría situado en cota inferior, en el tercio trasero de la construcción. Lamentablemente, alguna de las reformas de época contemporánea de la casa habrían mutilado este elemento, y el espacio se encontraba tabicado y cerrado irregularmente con mampuesto y ladrillo moderno. De hecho, lo que si parece desprenderse de las relaciones estratigráficas de estos elementos, es que dicho tiro no fue un elemento original de la habitación que nos ocupa, sino fruto de una reforma posterior. Así, una de sus paredes laterales o forros se adapta al muro medianil del Norte, aprovechando su grosor y añadiendo apenas las piezas que permiten dar la curvatura requerida.

Respecto a este elemento las noticias documentales no son excesivamente precisas. A fines del siglo pasado las Estadísticas de Industria y Comercio (1887-1888) señalan la presencia, en el n.º 26 de la Calle del Correo (que corresponde a esta de Erdiko-kale) de un confitero, Manuel Garavilla Urrutia. Esta parece ser la única actividad industrial relacionada con los solares que estudiamos entre esta fecha y las primeras décadas del 20. Sin embargo, una estadística sin fecha sobre fincas urbanas (que debe corresponder a esta misma cronología, A.M.A. Caja 84, leg 6) señala para Artziniega un total de 4 "hornos y coladeros", uno de ellos de la panadería actual en la Calle de Abajo, otro indeterminado en la Calle del Comercio y de Arriba, y nada menos que dos en la calle del Correo, propiedad de Ramón Gorbea y Manuela Rubina respectivamente.

No obstante, la información oral recogida en el propio municipio señala para esta zona la presencia de un herrero, con su fragua, si bien la sitúan espacialmente en la zaguera del n.º 28. En relación a esto, ya en 1888 aparece una primera referencia documental a un veterinario herrador en Correo, Juan Lobo, que vive en el n.º 44, y no es hasta 1902 que, en el n.º 22, se menciona un Faustino Arechavala Isusquiza, "herrero a jornal", cuyos apellidos coinciden con las informaciones orales recogidas. Curiosamente, a ese mismo número 22, se adscriben también Remigio Martínez Nanclares (dado de alta como "ojalatero" y ultramarinos), y Fructuoso Gaviña Moguruza, "carpintero a jornal". De hecho la estadística no aclara si se trata del lugar de residencia, exclusivamente, o sin el inmueble de referencia desarrollan además su actividad profesional. Creemos que debe tratarse de los primeros, y no es improbable, que el obrador de confitería y su horno fuese reutilizado para tiro de la fragua. En cual-

labea sutegiaren tiro gisa berrerabili izana. Nolanahi ere, eta elementuak ezagutu duen zatiketa gogoan izanik, teknikaren ikuspegitik eginiko alderaketek eta erabiliriko materialek (adreiluak nagusiki) eramaten gaituzte XIX. mendeko azken urteetan kokatzera.

28. zenbakiari dagokionean, konplexuagoa da interpretazio zehatza egitea. Barnealdean 6,5 m-ko zabalera erabilgarria duen higiezin baten aurrean gaude. Hegoaldetik 30. zenbakiko eraikinari eratxikitzen zaio eta harekin batera erabiltzen du zimentaziorako horma. Iparraldean, berriz, 80 cm zabal den horma bat hautematen da, eta 25 cm-ko beste errenkada bat eransten zaio, 26. zenbakiko etxearen mehelinari dagokiona alegia. Barneko esparru hau bi bloketan bereizten da; lehenengoa, Iparraldeari begira, %11ko aldapa duen arrapala bat da, harzola irregularrekoa, eta zuzenean lotuko zituen goiko kalea eraikinaren gibelaldearekin edo ikuiluekin (ahozko informazioak “Arechavalaren sutegia” kokatzen duen tokia). Albo batean, kalearen paraleloan, bi horma laburrek lurpeko esparru bat mugatzen dute, sotoa edo antzekoa zena, eta harmaila bikoitzeko igarobide estu batez iristen zen bertara; garai batean eta azaletik bederen, kararrizko hartxabalez egon behar zuen egokitua, eta buztin naturalaren gainean bermatuko ziren hartxabal horiek. Izan ere, esparru honetako zorua garbituta oraindik bertan zirauten hartxabal gutxi horiek kendu ondoren, herri-zeramika puska batzuk geratu ziren agerian, zeramika beiratua eta metalezko bi botoi, horietarik bat Bigarren Gerra Karlistako ofizial baten uniformeari zegokiona, hain zuzen ere.

28. zenbakiko etxeak eta garai bereko 26. zenbakiko jatorrizkoak gaurko egunekoa ez bezalako garapena ezagutu zuten altueran, agerian utzi ditugun elementuei eta arrapalari erreparatzen badiegu. 28. zenbakiko higiezinean egiaztatu dugun bezala, barneranzko arrapala baten bidez berdintzen zen aldaparoa, gaur egungo mailaren aldera metro bete beheragо zegoen, eta horrek zeharo baldintzatuko zuen goiko solairuetako zoruen egokiera. Geroago, joan den mendearen azken laurdenean seguru asko, berritze lan sakonak ezagutu zituzten etxe biek, espazioak berregokitu zituzten, eta kalearen mailan zegoen sarrerarako solairu nagusia eguzkiaren argia jasotzeko moduan egokitu zuten; horrenbestez, praktikan galdu egin zuten beren erabilera sotoa edo 28. zenbakiko gela txikiak bezala (solairu berria horma labur baten gainean, aurrekoen paraleloan garatzen zenaren gainean bermatuko zen), 26. zenbakiko labearen tiroa bermatzen zen espazioak ere. Eskaileren bidez errazten zen beste solairuetarako eta gibelaldeko eremurako komunikazioa.

Bestelako aztarnarik ezean eta agerian utziriko materialak urriak izanik, esan genezake orube hauetako banaketak, aldaketa gutxi batzuk tartean, bere horretan iraun duela joan den mendetik gaur egunera arte, eta eraikuntzak eta bertan bideraturiko berritze lanak espazio beretsuan bideratu zirela. Eztabaidagarria da gibelaldean baratzak egon izana, proposatzen dugun data horretatik aurrera bederen, baina ez da ezinezkoa eta beharbada egungo terraza itxurakoak bezala, jatorrizko higiezinen aurrealdean egiaztatu dugunak ere, zirkustantzia hori iradokitzen digute; aipaturiko kasu horretan, gibelaldeko patio txiki baten antzeko zerbait egongo zen antolatuta, espazio hori XIX.

quier caso, y teniendo en cuenta la mutilación sufrida por el elemento, la comparación técnica del mismo y los materiales utilizados (fundamentalmente el ladrillo) nos inducen a otorgarle una cronología en torno a las últimas décadas del XIX.

En lo que se refiere al número 28, la interpretación es algo más complicada. Tenemos un inmueble de alrededor de 6,5 m. de ancho útil interno. Por el lado Sur se adosa y comparte el muro de cimentación con el número 30. Por el Norte se observa la presencia de un muro de 80 cm. de espesor al que se adosa otra hilada de 25 cm., que corresponde al medianil de la casa n.º 26. Este espacio interno se encuentra compartimentado en dos bloques diferenciados: el primero de ellos, hacia el Norte, es una rampa de un 11% de desnivel, de empedrado irregular, que debía poner en relación directa la calle de arriba con la zona trasera o cuadras (el lugar donde la información oral sitúa “la fragua de Arechavala”). En su costado, y en paralelo a la calle, sendos muros cortos delimitan un soterrado espacio, destinado al parecer a bodega o similar, al que se accedía por un estrecho paso de doble peldaño y que, en el pasado, debió estar acondicionado someramente con lajas de piedra caliza, apoyadas directamente en la arcilla natural. Precisamente, la limpieza del suelo de este lugar, retiradas las escasas lajas que habían sobrevivido, deparó el hallazgo de algunos fragmentos de cerámica popular, vidriada y dos botones de metal, uno de los cuales corresponde a un uniforme de oficial de la Segunda Guerra Carlista.

Esta casa n.º 28 y su coetánea original del n.º 26 debían desarrollarse en altura de distinta forma a las que hemos conocido en época actual, a juzgar por la rampa y los elementos que hemos exhumado, caso del número 28 se suavizaba a través de una rampa interna, situado cuando menos a casi 1 m. por debajo del nivel actual, lo que variaría notablemente la disposición de los suelos de las plantas superiores. Posteriormente, y deducimos como fecha probable, el último cuarto del siglo pasado, ambas casas sufrieron sendas reformas que readecuaron los espacios, soleando la planta principal de acceso al nivel de calle, lo que anuló a efectos prácticos tanto la pequeña bodega o habitación del 28 (apoyando el nuevo piso en un muro corto paralelo a los anteriores), como el espacio sobre el que se asentaba el tiro del horno del 26, resolviendo con escaleras la comunicación tanto con las otras plantas como con la zona zaguera.

A falta de indicios excluyentes y por la escasez del material exhumado, podemos concluir que la lotización de estos solares ha debido permanecer, con pocas variaciones, desde el siglo pasado hasta nuestros días, sucediéndose las casas y sus reformas sobre un espacio similar. La presencia de huertas zagueras es discutible, al menos desde esa fecha que proponemos, pero no imposible y quizá tanto el escalonamiento actual, como el que hemos constatado en la delantera de los inmuebles originales hagan referencia a esta circunstancia; en dicho caso, se desarrollaría algo así como un pequeño patio trasero, espacio que las actividades comerciales-artesanales del XIX ganaron

mendeko merkataritza-artisautza jarduerek irabaziko zuten aiseago lan egiteko, goiko solairuetan zabaldu egingo zuten bizitzeko esparru erabilgarria, eta aldi berean, guztia osatu egingo zuten goiko solairuei etxebizitzarako solairu erabilgarria erantsiz; bestalde, multzoa osatzeko, 26. zenbakikoari beste gorputz bat eratxiki zioten. Tamalez, ondorioak ez du aurreko aldietan biziriko egoera behar bezala islatzen eta, bereziki, hiria osatu zen lehenengo garaietako garapenari eta fundazioari buruzkoak jakiteko aztarna gutxi eskaintzen du; horretarako, beharrezkoa litzateke aurreko kronologiako higiezinen gaineko zundaketa lanak egitea.

para su desahogo, ampliando la planta útil de habitación en los pisos superiores, y que se vería a su vez completado con la creación del añadido la planta útil de habitación en los pisos superiores, y que se vería a su vez completado por la creación del añadido al n.º 26. Lamentablemente, el resultado es poco expresivo de la situación vivida en etapas anteriores y, en especial, de las más cercanas a la fundación y desarrollo de los primeros tiempos de la villa, para lo que sería deseable el sondeo de inmuebles de cronología menos reciente.

*M.ª José Torrecilla Gorbea*

## B.1.2.3. **El Hornazo (Beranturi)**

José Ángel Apellániz Gonzálezek zuzendua.

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

## B.1.2.3. **El Hornazo (Berantevilla)**

Dirigido por José Ángel Apellániz González.

Subvencionado por la Diputación Foral de Álava.

***El Hornazo (Berantevilla). Directed by José Ángel Apellániz González.***
*The chance discovery of a grave in the subsoil of a crop field in the municipal borough of Berantevilla, prompted an emergency investigation to enable an analysis and subsequent historical contextualisation to be carried out. The excavation of the burial chamber has shown the existence of a medieval christian necropolis not catalogued to date. It may have served a now disappeared village which some historians ascribe to "San Roman de Verantevilla", already recorded at the beginning of the XII century and depopulated during the XVI century.*

Erdi Aroko hilobi bat aurkitu izanak eragin zuen interbentzioa. Hilobia ustekabean aurkitu zuten, Beranturiko eta Aramiñongo udalerriek muga egiten duten laborantzarako finka batean luberriketa-lan mekanikoak bideratzen ari zirenean. Itxura batean goldearen mutur batek estalkia eta hilobiko alboko hartxabaletako bat erauzi zituen eta agerian geratu zen haren barrunbean giza-eskeleto bat. Egoera horren aurrean, lurjabeak gertaeraren berri eman zion Arabako Arkeologia Museoari eta honek Ondare S.C. enpresari agindu zizkion, premiazko izaeraz, aurkituriko hondakinen gaineko azterketa eta biltze lanak.

### *1. Egoera*

El Hornazo izenaz ezagutzen den laborantzarako finka zabal baten gainazaletik 45 cm-ko sakoneran agertu zen hilobia. Aurkikuntzaren gaineko lehen azterketa batek argi utzi zuen goldeak ez zuela ehorzketan halako inpakturik eragin. Hilobiaren egiturak nozitu zituen kalte handienak, estalkiaren parte handi bat suntsitu egin zen eta jatorrizko kontestutik kanpora geratu zen alboko hartxabal bertikaletako bat. Barrunbean gordetzen zuen gizaki bakarraren eskeletoa osorik zegoen, burezurra baino ez zuen hautsita.

La intervención vino motivada por el descubrimiento de una sepultura medieval de forma fortuita, mientras se procedía a la roturación mecánica de una finca agrícola, sita en el límite del término municipal de Berantevilla con el de Armiñón. Al parecer, la reja del arado enganchó la parte superior de la cubierta y una de las lajas laterales de la tumba, observando la existencia de un esqueleto humano en su interior. Ante tal circunstancia, el propietario notificó el hecho al Museo de Arqueología de Álava, que decidió encargar con carácter de urgencia a Ondare S.C. las tareas de análisis y recuperación de los restos localizados.

### *1. Grado de afectación*

La sepultura apareció a unos 45 cm. de la superficie de una extensa finca de cultivo, conocida con el nombre de El Hornazo. El primer reconocimiento del hallazgo evidenció que el impacto del arado sobre el enterramiento no era muy acusado. El mayor deterioro se produjo sobre la estructura de la tumba, rompiéndose buena parte de la cubierta y con una de las lajas verticales laterales fuera de su contexto original. El esqueleto del único individuo que contenía su interior se presentaba completo, sólo con el cráneo roto.

## 2. *Helburua eta metodoa*

Behar bezala erregistratzearren, hilobiaren induskeetan oinarritu zen interbentzioa, eskeletoa altxa genuen eta haren ezaugarriak bildu genituen. Landa-lanei amaiera emateko, eta egituraren hondoa arkeologiaren aldetik antzua zen substratu batean bermatzen zela egiaztatu ondoren, finkako laborantza-lur berberaz estali genuen zundaketak eragindako zuloa. Halaber, beste ehorzketa batzuk bilatu genituen agerian geratu zenaren ondoan, eta azkenik, aurkikuntza hori historian zehar kontestualizatzeko xedean, bibliografietara jo genuen; izan ere, aztarnategi horretako izaerari eta esparruari buruzko datu osagarriak bildu genituen. Kasu hauetan ohikoa den erregistro-sistema erabili dugu, hau da, Edward C. Harrisek azalduriko estratigrafia-sistemari jarraiki, betiere interbentzioaren ezaugarri bereziei behar bezala egokituta, aztertu genituen hilobiegitura eta ukituriko eremuko estratigrafia.

## 2. *Objeto y método*

La intervención consistió en la excavación de la sepultura, para su registro adecuado, levantando el esqueleto y anotando sus características. El trabajo de campo quedó ultimado con la comprobación del asiento de la estructura sobre un substrato arqueológicamente estéril y la posterior cubrición del sondeo con la misma tierra de labor de la finca. También se intentó determinar la presencia de otros enterramientos junto al ya descubierto, y por último, contextualizar históricamente el hallazgo por medio de la revisión bibliográfica, que aportó algunos datos complementarios sobre el carácter y ámbitos del yacimiento en el que se enmarca. El sistema de registro utilizado fue el habitual en estos casos, es decir, el análisis de la estructura funeraria y de la estratigrafía del área afectada siguiendo el sistema estratigráfico teorizado por Edward C. Harris, convenientemente adaptado a las particulares características de la intervención.



El Hornazo (Beranturi). Hilobia eta agerian utzitako giza-hondakinak.

El Hornazo (Berantevilla). La sepultura y los restos humanos descubiertos.

## 3. Ehorzketaren ezaugarri arkeologikoak

### 3.1. Estratigrafia

Aztarnategiak ez du batere estratigrafia sekuentzia konplexua erakusten, 9 unitate estratigrafiko bereizi dira, ia guztiak hilobia eraiki zen uneari eta erabili zen garaiari dagozkionak, hura estaltzen zuen laborantzalurra (1. U.E.) eta hilobia bera bermatzen zen geruza naturala (7. U.E.) izan ezik. Estalkiko harlauzek (9. U.E.), bertikalean egokituriko hartxabalek (4. U.E.) eta oinarriko harlauza batzuk (5. U.E.) zehazten zuten egitura. Hilobia egituratu baino lehen, hobi bat zabaldu zuten (3. eta 8. U.E.ak) jatorrizko lur-zoruaren gainean (2. U.E.). Logikoa denez, ondoren hilotza egokitu zuten, induskaturiko eskeletoari zegozkion hondakinak alegia, eta barnealdea lurrez bete zuten geroago (6. U.E.).

### 3.2. Hilobiaren tipologia

Neurri apalean, trapezio itxurako planta zuen hilobiak, zabalagoa zen burualdean oinetan baino, 2 m-koa zuen luzera gorena eta 60 cm-ko zabalera, gutxi gora-behera. Oinarrian egokituriko bi harlauza leunek osatzen zuten, bitxia dena benetan, eta geruza naturalean bermatzen ziren. Oinarriko kararrizko harlauzetan bertikalean egokituriko hartxabal batzuk bermatzen ziren, eta horien artean aipagarri dira, duten neurriengatik eta ondo landuta daudelako, albo banatako mendebaldean altxatzen direnak. Estalkia, itxura batean, gutxienez bi harlauza desberdinek osatua zegoen.

Hasiera batean, badirudi ehorzlekua modu isolatuan eraiki zutela, ordena jakin bati jarraitu gabe, induskaturiko hilobiaren ondoan ez baikenuen hilobierrenkadarik hauteman. Nolanahi ere, inguruetan beste ehorzketa batzuk izan zirelako informazioak jaso genituen, ustez honakoaren antzekoak liratekeenak, eta beraz, geronek induskaturikoa nekropoli batean dagoela egiaztatu genuen.

### 3.3. Giza-hondakinak eta materialak

Osorik dago zenduaren eskeletoa, hezurrak bere tokian eta, eskuarki, kontserbazio egoera balekoan, hezurren porositatearen eta eskeletoa modu bortitzean azaleratu izanaren ondorioz. Gorpua ahoz gora ipini zuten, zangoak elkarren ondoan eta besoak artikulaturik (besoak toraxen gainean eta paraleloan egokituak). Burua gorputzaren luzerako ardatzetik alboratua zegoen, eta beharbada gorpua haragirik gabe geratu zenean gertatuko zen, hilobiaren barrunbean ez baitzegoen buruari eutsiko zioten alboko harririk bat ere.

Zenduaren ezaugarri antropologikoei dagokienean, pertsona heldu bat zela esan behar dugu, arra seguru asko. Eskeletoa, oro har, ekialde-mendebalde luzatzen zen, burezurra mendebaldeari begira, kristauen hilerrietan ohikoa denez. Bestalde, ez zegoen zenduari edo balizko hilobi-depositaured legokiokeen tresna bakar bat ere. Aipagarria da, halaber, zendua hilobian uzteko modua, izan ere, ez zuten lurrez estali estalkia ipini baino lehen. Zegoen lur gutxi hori kanpotik iragaziko zen

## 3. Características arqueológicas del enterramiento

### 3.1. Estratigrafía

El yacimiento presenta una secuencia estratigráfica muy sencilla, identificándose 9 UU.EE. diferentes, casi todas ellas relacionadas con el momento de construcción y uso de la sepultura, a excepción de la tierra de cultivo que la cubría (U.E. 1), y del estrato natural sobre el que se asentaba (U.E. 9). La estructura quedaba definida por las losas de la cubierta (U.E. 7), las lajas verticales (U.E. 4) y unas losas de base (U.E. 5). De forma previa a la conformación de la estructura se practicó una fosa (UU.EE. 3 y 8) sobre la superficie de terreno original (U.E. 2). Lógicamente con posterioridad, fueron depositados el difunto, cuyos restos correspondían al esqueleto excavado, y el leve relleno del interior (U.E. 6).

### 3.2. Tipología funeraria

La sepultura poseía una planta ligeramente trapecial, más ancha en la cabecera que en la parte de los pies, con una longitud máxima de 2 m. y una anchura de 60 cm. aproximadamente. Se formaba con dos losas planas de base, hecho éste un tanto peculiar, que asentaban sobre un estrato natural. Sobre las losas calizas de base apoyaban varias lajas verticales, destacando por sus proporciones y factura las más occidentales en cada flanco. La cubierta daba la sensación de que constaba de, al menos, dos losas distintas.

En principio, el enterramiento parecía haberse construido de forma individual, sin seguir un orden concreto ya que no se observaron alineaciones de tumbas de forma contigua a la excavada. Ahora bien, sí se obtuvieron informaciones sobre la existencia de otros enterramientos en las inmediaciones, suponemos que de características similares a éste, confirmando su pertenencia a una necrópolis.

### 3.3. Restos humanos y materiales

El esqueleto del difunto se presentaba completo, en perfecta conexión anatómica y en un regular estado de conservación general, debido a la porosidad de los huesos y a su descubrimiento violento. Se colocó en posición de decúbito supino, con los pies juntos y las extremidades superiores articuladas (con los brazos sobre el tórax y paralelos entre sí). La cabeza se encontraba algo desplazada del eje longitudinal del cuerpo, puede que al ladearse cuando se fue descarnando el cadáver y al no existir en el interior de la tumba piedras a los lados que la aguantaran (piedras orejeras).

Sobre las características antropológicas del finado, señalar su correspondencia con un individuo adulto y de sexo probablemente masculino. La orientación del esqueleto respondía a un sentido global este-oeste, con el cráneo en este último extremo, como suele ser habitual en los cementerios cristianos, y como prueba también la ausencia absoluta de cualquier tipo de objeto perteneciente al ajuar personal del cadáver o a un posible depósito funerario. Cabe destacar la deposi-

mendeetan zehar, baina ez zen eskeletoa guztiz estaltzera iritsi. Hala eta guztiz ere, kare biziko geruza sendo batez estali zuten gorpua, eta hezur batzuen azalak zuriz tindatu ziren, pertsona hori balizko izurri baten ondorioz hil zelako erakusgarri daitekeena; kare bizia gorpuaren deskonposizioa azkartzeko erabiliko zuten heriotza eragin zuen agentea akabatzeko xedean.

Interbentzioan zehar dokumentaturiko arkeologia aztarna bakarra osatzen zuen eskeletoak, ez baikenuen material aztarnarik (ez zeramikarik, ez eraikuntza izaerako egiturarik) aurkitu ez hilobiaren inguruetan induskaturiko eremuan ez eta luberriketa-lanek ukitu zuten gainazalean ere. Alderdi hau ere nabarmentzekoa da, ezohikoa baita material arrastorik ez egotea.

## 4. *Historia-mailako interpretazioa*

Historia-arkeologiaren ikuspuntutik bistakoa da induskaturiko hilobia Erdi Aroko kristauen nekropoli batekoa dena; nekropolia aspaldian bertan izango zen tenpluari lotuta egongo zen eta tenplu hori herri txiki

ción del individuo sin cubrirlo de tierra antes de colocar la cubierta. La poca tierra existente se iría filtrando desde el exterior a lo largo de los siglos, no llegando a colmatar del todo el esqueleto. Sin embargo, el cadáver fue recubierto de una importante capa de cal viva, que incluso llegó a teñir algunos huesos de blanco superficialmente, hecho éste que hace pensar en la posible muerte del individuo por alguna afección epidémica, al objeto de acelerar la descomposición del cuerpo para, de esta forma, eliminar el agente causante de la misma.

El esqueleto constituyó prácticamente la única evidencia arqueológica documentada durante la intervención, no observándose resto material alguno (ni cerámico, ni constructivo, etc.), en las inmediaciones de la tumba dentro del área excavada ni en la superficie de la finca roturada, aspecto éste que también destaca por ser bastante inusual.

## 4. *Contextualización histórica*

Desde un punto de vista histórico-arqueológico, es evidente que la sepultura excavada pertenece a una necrópolis medieval cristiana, asociada a la existencia en el pasado de un templo y, posiblemente, de una




**Fig. 1: En planta, estructura de la sepultura, con la parte de la losa de cubierta que permanecía *in situ*.**

**Fig. 2: Sección estratigráfica (A—B) de la sepultura.**

El Hornazo (Beranturi). Induskaturiko hilobiaren planta eta sekzioa.

El Hornazo (Berantevilla). Planta y sección de la sepultura excavada.

bateko biztanleek erabiliko zuten. Eremu horretako toponimiak eta bestelako notiziek agerian utzitako nekropoliaren inguruan behar zuen tenpluari buruzko aztarna batzuk eskaini dizkigute. Aurrera egin baino lehen, esan dezagun bilduriko informazioak behin behinekoak direla, interbentzioak hartzen zuen hedadura txikia zelako eta etorkizunean bideratu beharreko jardueren eta azterken emaitzen zain egon behar dugulako.

San Roman izena da, nekropoliaren Iparraldera eta Ekialdera dauden ondoz ondoko finkak izendatzeko erabiltzen den izena alegia, toponimorik deigarriena. Badirudi bertan egon omen zen ermita bati egiten diola erreferentzia; ermita 1748. urteko dokumentu batean aipatzen da eta ordurako behera etorria zen edo zeharo desagertu zen. «Mojonera Berantevilla-Armiñon,...» (G. López de Guereñu, 1974, 479. orrialdea) delako aurkientzan kokatu izana, aztertzen ari garen aurkientzarekin bat datorrela egiaztatzen dugu; izan ere, aipaturiko bi udalerriak bereizten dituzten mugarrietako batetik metro gutxitara dago geuk induskaturiko eremua.

Bestalde, gogoan eduki behar da Saturnino Ruiz de Loizagak (1982, 137-138. orrialdeak) Beranturiko elizaz edo monasterioaz ari zenean egin zuen iruzkina. Haren iritziz, Araban X. eta XII. mendeetan fundatu zen azkenekoa izan zen Beranturiko monasterioa eta haren esanetan Çpudiera muy bien haberse llamado de San Román, ermita desaparecida, ya que las restantes ermitas de esta localidad –San Vicente, Santa María de Lacorzanilla, Nuestra Señora de Lezama– han existido posteriormente ...».

Iraganean egiazki nekropoli bat eta eliza bat izan baziren, derrigorrez behar zuen herrigune bat ere; herrigune horretako biztanleei nekropoli horretan lur emango zieten, Micaela J. Portillak iradokitzen duen bezala (1991, 264 eta 265. orrialdeak); egile horren arabera San Roman eliza «Beranturiko herriguneko parrokia» zen, eta beraz, ez zen izen bereko hiriko parrokia. Finkaren gainazalean eraikuntza eta material arrastorik ez dagoenez, hilerria eta tenplua etxebizitzetatik urrutirago zeudela pentsatu behar dugu. Ez zuen parerik tenplua eta nekropolia egokitzeko aukeratu zuten aurkientzak: ibar leun baten erdialdean eta Zadorra ibaiaren azken ataleko ertzetik hurbil, Ebrora isuri baino lehen. Herriguneak Lautada eta Errioxa batzen zituen Santiago-Bidearen ondoan behar zuen, Zadorra ibaiaren ezkerraldeko lurretan barrena igarotzen zen eta Estabeluko herria Lakortzana eta Zanbrana herriekin lotzen zuen Camino Ancho (Bide Zabala) delako bidean, alegia (M.J. Portilla, 1991, 300. orrialdea).

Beranturiko San Roman herriguneari buruzko informaziorik kasik ez badago, are gutxiago herriaren balizko desagerpenari eta hura eragin zuen arrazoiei buruzko informaziorik. Gertaera hori Arabak eta inguruko eskualdeek Behe Erdi Aroan zehar bizi izan zuten baldintza sozio-ekonomikoek eraginda gauzatuko zen, krisialdi orokorreko dinamikan murgilduta baitzeuden, 1510. urtean bertako eliza ermita baino ez zela kontuan badugu. Herriguneari dagokionean, gogoan eduki behar da Gaztelako Fernando IV.ak 1299. urtean fundatu zuela Beranturiko hiribildua, eta horrek, dudarik gabe, inguruetako biztanleak erakarri zituela.

pequeña aldea al que servía. La toponimia de la zona y otras noticias han aportado ciertas pistas sobre el templo que debió situarse en las inmediaciones de la necrópolis descubierta. Antes de seguir, señalar que las informaciones recavadas han de tomarse con la debida provisionalidad, dada la escasa magnitud de la intervención realizada y a la espera de actuaciones y análisis futuros.

El término de San Román, utilizado para denominar las fincas contiguas por el N. y E. a la de la necrópolis, es el topónimo que más llama la atención. Parece hacer referencia a la existencia de una ermita, citada en un documento 1748 y que ya para ese año pudo encontrarse arruinada o desaparecida. El hecho de situarla en la «Mojonera Berantevilla-Armiñón,...» (G. López de Guereñu, 1974, p. 479), la identifica con el lugar que nos ocupa, a escasos metros de uno de los mojones de piedra que separa los términos municipales de las localidades citadas.

Por otro lado, sobre el término de San Román conviene tener en cuenta lo apuntado por Saturnino Ruiz de Loizaga (1982, pp. 137 y 138) al hablar del monasterio o iglesia de Berantevilla. Según él, el monasterio de Berantevilla fue el último de los fundados en Álava entre los siglos X y XII, y «pudiera muy bien haberse llamado de San Román, ermita desaparecida, ya que las restantes ermitas de esta localidad –San Vicente, Santa María de Lacorzanilla, N. S. de Lezama– han existido posteriormente...».

La propia realidad pasada de una necrópolis y de una iglesia lleva implícita la existencia de una población, cuyos individuos fueron enterrados en ella, tal y como apunta Micaela J. Portilla (1991, pp. 264 y 265), que identifica la iglesia de San Román con la «parroquia de la aldea de Verantevilla», distinta a la de la villa de su nombre. Al ser casi nulas las evidencias constructivas y materiales en la superficie de la finca, es fácil suponer que el cementerio y el templo pudieron estar situados algo más alejados de las viviendas. El lugar elegido para el templo y la necrópolis era privilegiado: en la parte media de una suave vaguada y cercana a la orilla del río Zadorra en su tramo final, antes de su desembocadura en el Ebro. La aldea pudo asentarse junto al camino jacobeo que unía La Llanada con La Rioja, el llamado Camino Ancho que discurría por las tierras de la margen izquierda del Zadorra y que conectaba Estavillo con Lacorzanilla y Zambrana (M.J. Portilla, 1991, p. 300).

Si apenas se tienen informaciones de la aldea de San Román de Verantevilla, menos datos aún se manejan sobre la posible desaparición del mismo y las causas que lo pudieron provocar. Tal acontecimiento pudo venir motivado por la coyuntura socioeconómica que vivieron Álava y las comarcas limítrofes en la Baja Edad Media, inmersas en una dinámica de crisis generalizada, según se desprende de la condición de ermita de su iglesia en 1510. Por lo que a esta aldea respecta, además habría que tener en cuenta el hecho de la fundación de la villa de Berantevilla en 1299 por Fernando IV de Castilla, que sin duda atrajo a los habitantes de otros lugares próximos.

## B.1.2.4. Peracho (Kripan)

Eliseo Gil Zubillagak zuzendua.

Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

## B.1.2.4. Peracho (Cripán)

Dirigida por Eliseo Gil Zubillaga.

Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

***Peracho (Cripán). Directed by Eliseo Gil Zubillaga.*** *During work on changing the type of crop on land near Peracho (Cripán), a series of pottery remains appeared attributable to recent Prehistoric period. In order to assess the size and level of conservation of the site, an archaeological investigation was carried out –using stratigraphical surveys– before the agricultural work was resumed. A significant amount of pottery remains was found –presumably originating from a single deposit– and attributable to a late Bronze age period with great decorative style. This find is a new and interesting one within the hollow deposits phenomena.*

### *Aurretikoak*

Peracho izeneko aurkientzan (Kripan) dagoen finka batean laboreak aldatzeko lanetan zehar –zehatz esateko, hondotik lurra "ateratzeko" lanetan, txandakako laborantza utzi eta etorkizunean mahasti bat egokitzeko–, Historiaurre hurbilekoak litezkeen zeramika-hondakin batzuk agertu ziren. Zoilo Calleja jaunak eginiko txostenari esker izan genuen horren berri, eta aztarnategiaren munta eta kontserbazio egoera ebaluatzeko interbentzio arkeologiko bat diseinatu genuen. Interbentzio hori –zundaketa estratigrafikoetan oinarrituriko kanpaina– laborantza lanak amaitu aurretik eraman genuen burura.

### *Interbentzioaren garapena eta emaitzak*

Gainazalean edozein motatako arkeologia arrastoren bat (errautsak eta zeramika puskak nagusiki) hauteman genuen finkako gune guztietan zundaketa lanak bideratu genituen sistematikoki. 11 zundaketa egin ge-

### *Antecedentes*

Durante las labores de cambio de cultivo de una finca sita en el término de Peracho (Cripán), –concretamente al "desfondar", para pasar de cultivo rotativo a una futura plantación de viñedo–, aparecieron una serie de restos cerámicos atribuibles a la Prehistoria reciente. A través del informe de D. Zoilo Calleja, tuvimos conocimiento del hecho, y diseñamos una intervención arqueológica a fin de evaluar la entidad y conservación del yacimiento. Dicha intervención –consistente en una campaña de sondeos estratigráficos–, fue realizada antes de culminar los trabajos agrícolas.

### *Desarrollo y resultados de la intervención*

Procedimos al sondeado sistemático de todos aquellos puntos de la finca en la que se detectaban en superficie indicios arqueológicos de algún tipo (fundamentalmente cenizas y fragmentos cerámicos). Con-



Perachoko aurkientzaren ikuspegia, Assatik Kripanera bidetik ikusia.

Vista del emplazamiento de Peracho desde la carretera de Assa a Cripán.

nituen guztira (lauk 2 x 2 metro hartzen zuten eta zazpik 1 x 1 m). Zoritxarrez, finkaren jabe asmo onekoek zeramika puska gehienak jaso zituzten aurkikuntza erraztu zuen jatorrizko multzotik, eta lur-eremu horretan barreiaturik zeuden gainerako piezak hondotik lurra ateratzeko makineriak berak barreiatu zituen puskak ziren. Horrenbestez, zundaketa guztiak antzuak gertatu ziren arkeologiaren ikuspuntutik; buztin eta humuseko geruzak azaldu ziren –nahasi zirelako arrastoak ageri zituztenak–, eta aipaturiko buztinetaraino eta lureremuko harrizko geruza osatzen zuten hare-multzoraino, 30 eta 80 cm bitarteko bataz-besteko sakoneran, sakondu genuen. Hala eta guztiz ere, zeramika puska txiki batzuk aurkitu genuen geruza horietan, eta lagungarri izango ditugu jatorrizko objektu-multzoaren azterketa osatzeko orduan. Aztarna gehienak agertu ziren gunearen erdian bideraturiko 10. zundaketa izan zen guztietan interesgarriena. Bertan, gainazaletik 40 cm-ko sakoneran gutxi gora-behera, jatorrizko deposituko zeramika puska batzuk aurkitu genituen. Zeramikaz eginiko ontzi-puska batzuk ziren eta gehienak materialen bat edukitzeko ontzi handiei zegozkien; aberats dekoratuta zeuden, aplikazio plastikoen bidez (hatzez edota azkazalez eginiko lokarriak agerian, piezen azalean sare-itxurakoak marraztuz, bular-mutur ugari, bakarturik edota aurrekoekin tartekaturik,…). La Hoyako (Biasteri)[11] herrigunearen fundazioko mailetan, Los Goros (Oto Goien)[12] izeneko haitzuloetako depositu batzuetan, edo Solacueva Lakozmontekoan (Jokano)[13], edo hobietan egokituriko depositu eztabaidagarrietan, La Paulekoan esaterako (Arbigano)[14], edo Santa Maria Estarronakoan[15] aukiturikoekin antz handia dute. Kronologiaren aldetik, aukera zabal baten baitan kokatu behar dugu multzo hau, eta muturreko datak Solacuevako (K.a. 1760±100) eta Bizkarko (K.a. 670±100)[16] aztarnategietako datazioek iradokitzen dituzte; kulturaren aldetik, berriz, depositu-mota hau Cogotas I[17] aztarnategian aurkituriko deposituarekin jarri da harremanetan. Beraz, aurkikuntza garrantzitsua da, eta hobietan egokituriko depositu hauen fenomenoaren esparru geografikoa zabalagoa dela pentsatzeko aukera eskaintzen du.

cretamente llevamos a cabo 11 sondeos –cuatro de 2 x 2 m. y siete de 1 x 1). Desafortunadamente, los bienintencionados propietarios de la finca habían recogido la gran mayoría de los fragmentos cerámicos del conjunto original que motivó el hallazgo, de tal manera que el resto de las piezas esparcidas por el terreno correspondían a la dispersión del mismo por la maquinaria de desfonde. Prácticamente todos los sondeos fueron, en consecuencia, inexpresivos desde el punto de vista arqueológico, apareciendo diferentes capas de arcillas y humus –con claras evidencias de volteado–, llegando bien hasta las citadas arcillas, bien hasta los bancales de arenisca constitutivos del sustrato rocoso del terreno, con unas profundidades medias que oscilaban entre los 30 y los 80 cm. Aun con todo, recuperamos en ellos algunos pequeños fragmentos cerámicos, que contribuirán a completar el estudio del lote original. El sondeo más satisfactorio fue el n.º 10, que ubicamos en la zona nuclear de aparición de evidencias. así aún restaban –a unos 40 cm. de la superficie del terreno–, los restos del depósito originario. Éste estaba constituido por una serie de recipientes cerámicos cuya tipología más característica es el gran contenedor de almacenaje, con gran riqueza decorativa, en base a aplicaciones plásticas (cordones con digitaciones y/o ungulaciones trazando retículas en la superficie de las piezas, pezones múltiples, en solitario o combinados con los anteriores, etc.). Sus paralelos más cercanos estarían entre el ajuar de los niveles fundacionales del poblado de La Hoya (Laguardia)[11], ciertos depósitos en cuevas como Los Goros (Hueto Arriba)[12] o Solacueva de Lakozmonte (Jócano)[13], así como entre los controvertidos depósitos en hoyos, como los de La Paul (Arbígano)[14] o el de Santa María de Estarrona[15], con el que encontramos grandes similitudes. Cronológicamente se movería dentro de un amplio abanico de posibilidades, cuyas fechas extremas vendrían dadas por las fechaciones de Solacueva, con un 1760±100 a.C. y Bizkar, con un 670±100 a.C.[16], culturalmente este fenómeno de depósitos ha sido puesto en relación con la facies de Cogotas I[17]. Se trata pues de un interesante hallazgo, que permite además ampliar el ámbito geográfico de este mundo de los depósitos en hoyo.

*Eliseo Gil Zubillaga*

---

[11] LLANOS, A. (1983): *La Hoya. Un poblado del primer milenio antes de Cristo.* Arabako Foru Aldundiak argitaratua, Gasteiz.

[12] Llanos, A. (1991b): Dos nuevos yacimientos del horizonte Cogotas I, en Alava. El dep–sito en hoyo de “La Paul” y Cueva de Los Goros. *Saileko Koadernoak. Historiaurrea-Arkeologia, 4.* Eusko Ikaskuntzak argitaratua, Donostia. 219-238. orrialdeak.

[13] LLANOS, A. (1991a): Solacueva Lakozmonteko haitzuloan bideraturiko indusketak (Jokano-Araba). 1980-1981eko kanpainak. *Saileko Koadernoak. Historiaurrea-Arkeologia, 4.* Eusko Ikaskuntzak argitaratua, Donostia. 121-155. orrialdeak.

[14] LLANOS, A. (1991b). Aipaturiko obra.

[15] BALDEÓN, A. (1984). Premiazko indusketa. Santa Maria Estarronakoa. 1984ko Arkeoikuska. Eusko Jaurlaritzak argitaratua, Gasteiz. 79-80. orrialdeak.

[16] LLANOS, A. (1991b). Aipaturiko obra.

[17] LLANOS, A. (1991b). Aipaturiko obra.

[11] LLANOS, A. (1983): *La Hoya. Un poblado del primer milenio antes de Cristo.* Ed. D.F.A., Vitoria-Gasteiz.

[12] LLANOS, A. (1991b): Dos nuevos yacimientos del horizonte Cogotas I, en Alava. El depósito en hoyo de “La Paul” y Cueva de Los Goros. En *Cuadernos de Sección. Prehistoria-Arqueología,* 4. Ed. Eusko Ikaskuntza, Donostia. Págs. 219-238.

[13] LLANOS, A. (1991a): Excavaciones en la cavidad de Solacueva de Lakozmonte (Jócano-Alava). Campañas de 1980-1981. En *Cuadernos de Sección. Prehistoria-Arqueología,* 4. Ed. Eusko Ikaskuntza, Donostia. Págs. 121-155.

[14] LLANOS, A. (1991b). Op. cit.

[15] BALDEÓN, A. (1984): Excavaciones de urgencia. Santa María de Estarrona. En *Arkeoikuska, 84.* Ed. Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. Págs. 79-80.

[16] LLANOS, A. (1991b). Op. cit.

[17] LLANOS, A. (1991b). Op. cit.

## B.1.2.5. Interbentzio Arkeologikoa (Burgelu)

Paquita Sáenz de Urturi Rodríguezek zuzendua.

Tomás Fernández de Lapeñak eta Arabako Foru Aldundiak finantzatua.

## B.1.2.5. Intervención Arqueológica (Elburgo)

Dirigida por Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez.

Financiada por Tomás Fernández de Lapeña y Diputación Foral de Álava.


***Archeological Investigation (Elburgo). Directed by Paquita Sáenz de Urturi Rodríguez.*** *Archaeological controls using survey techniques were carried out at a site located to the south of the town, near the drinking trough, prior to any excavation in the Archaeological Zone of the Town of Elburgo.*

*Two 3 x 1 m. surveys were carried out in a zone earmarked for the building of houses and with negative results.*

*After lifting off the surface vegetation, digging took place to the blue limestone level (-1.50 m.) without finding anything of archaeological interest except an old cane.*


Burgeluko Hiribilduko Gune Arkeologikoan edozein jarduerari ekin aurretik bideratu beharreko kontrol arkeologikoen markoan betiere, zundaketa batzuk egin genituen herriaren hegoaldean dagoen orube batean, askaren ondoan alegia.

3 x metro beteko bi zundaketa eraman genituen burura txalet bat eraikitzeko asmoa zegoen gune batean. Emaitzak negatiboak izan ziren erabat.

Landare-geruza altxa ondoren, lapitzaren mailaraino sakondu genuen (-1,50 m); hala eta guztiz ere, ez genuen muntako aztarna arkeologikorik aurkitu, tutu zahar bat baino ez.

En el marco de los controles arqueológicos previos a cualquier actuación en la Zona Arqueológica de la Villa de Elburgo, se realizaron sondeos en un solar situado al sur del pueblo, junto al abrevadero.

Se llevaron a cabo dos sondeos de 3 x 1 m. En la zona proyectada para la construcción de un chalet con resultados negativos.

Tras levantar la capa vegetal se profundizó hasta el nivel de cayuela (-1,50 m) sin encontrar evidencias arqueológicas de entidad, salvo un caño antiguo.

*Paquita Sáenz de Urturi*

## B.1.2.6. Logroñoko Bideko harriak (Biasteri)

José Ángel Apellániz Gonzálezek zuzendua.

Arabako Foru Aldundiko Obra Publiko, Garraio eta Ingurugirorako Sailak finantzatua.

## B.1.2.6. Las pilas del Camino de Logroño (Laguardia)

Dirigido por José Ángel Apellániz González.

Financiado por el Departamento de Obras Públicas, Transportes y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava.


***Logroño Road (Laguardia). Directed by José Ángel Apellániz González.*** *The urgent archaeological assessment of the surface areas affected by a road improvement project near the Alavese-Riojan town of Laguardia, gave rise to the discovery of a Roman site previously uncatalogued. According to data from the investigation, this archaeological site could correspond to a late Imperial agricultural settlement and was to be wholly affected by the roadworks. Also a small farming complex was identified (consisting of two buildings, stone deposits and a canal), provisionally attributable to the XVIII or IX centuries and of an ethnographic cultural interest.*


### *1. Aurretikoak*

Arabako Foru Aldundiko Obra Publiko eta Garraioetarako Sailak Biasterin (Araba) A-124 errepidearen eta A-3216 eta A-3210 errepideen arteko bidegurutzea ordenatzeko eta bertan hobekuntza lanak egiteko erai-

### *1. Antecedentes*

El desarrollo por parte del Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Álava, de un Proyecto de construcción de ordenación y mejora de la intersección de la carretera A-124 con las

kuntza Proiektu bat garatu zuen. Proiektu horrek alde horretan egon zitezkeen ondareen interesa baloratuko lukeen eta neurri zuzentzaile egokiak proposatuko lituzkeen ikerketa proiektu baten planteamendua ekarri zuen.

Ondare S.C. enpresak bideraturiko arkeologia izaerako peritaje lanak behar beharrezkoak ziren kontuan baditugu aurrikusiriko lanen ezaugarriak eta aukeraturiko eremuaren garrantzi historikoa: hots, Biasteriko hiribildua fundatu zen (XII. m.) muinoaren hegoaldeko mazelaren hasieran dagoen bidegurutze garrantzitsua da; bertan ermita bat (Nuestra Señora del Cántaro Ama Birjina gurtzeko) izan zen jaso genituen dokumentu iturrien arabera, eta harrizko egitura angeluzuzen batzuk dokumentatzen ziren (ustezko hilobiak). Alde hau, gainera, La Iglesia (Eliza) aztarnategitik (1987. urteaz geroztik ezaguna E. Gil Zubillagak eta I. Filloy Nievak bideraturiko premiazko lanei esker) hurbil samar dago.

Jarraian, obrek ukitu beharreko eremuaren gaineko begi-miaketa sistematikoa bideratu ondoren, eta hiru katez eta zundaketa batez eremu horretako zorupeko arkeologia potentziala zehaztu ondoren, lorturiko emaitzak azalduko ditugu. Esan beharra dago, obrarako planak zehazturiko mugen barnean orain arte katalogatu ez den aztarnategi arkeologiko bat aurkitu genuela, garrantzitsua izan daitekeena eta kronologiaren aldetik bezala kulturaren aldetik ere, Errioxa-Arabako esparru geografikoan erromatarrak egon ziren aldian kokatu beharra dagoela.

## 2. Burura eramandako jarduerak

Lehenik, eta landa-lanei ekin aurretik, liburu eta dokumentuak xehe-xehe aztertu genituen ukitu beharreko eremuaren inguruetan iraganean ondare-elementuak egon ote ziren jakiteko, baina ez genuen datu esanguratsurik bildu. Hala eta guztiz ere, geroago bideraturiko miaketek (begi-miaketak eta kata eta zundaketa txikien bidez eginikoak), agerian utzi zituzten bi puntu interesgarri: arkeologia izaerakoa bata eta etnografia izaerakoa, bestea.

### 2.1. Begi-miaketa sistematikoa

Errepideak etorkizunean gurutzatuko diren gunean zeramika puska ugari aurkitu genituen, eta erromatarren garaikoak ziren horietarik batzuk, zalantzarik gabe. Aztarna hauek gutxi gora-behera 2 metroko aldaparoa eta 20 metroko luzera zuen gizakiak eginiko lubakian aurkitu genituen, eta aipaturiko lubakiak isleta edo oinezkoentzako babesgune txiki bat (belarrez estalia eta aspaldian landu gabea) inguratzen zuen hegoaldetik. Logroñorako errepideak (E), Eltziegorako errepideak (I) eta landa-bide batek (H eta M) mugatzen zuten isleta hori.

Bigarrenik, aurreko eremuaren hegoaldera, obrek ukitu beharreko esparruaren barnean betiere, eraikin batzuk egiaztatu genituen, nekazal izaerakoak itxura batean, eta etxebizitza baten eta eratxikiriko biltegi edo bihitegi baten hondakiak zirela ematen zuen. Eraikinen hegoaldera hesiz inguraturiko espazio angeluzuzena

A-3216 y A-3210 en Laguardia (Álava), hizo necesario el planteamiento de un proyecto de investigación que valorase el interés de los posibles restos patrimoniales existentes en el lugar y propusiera las medidas correctoras adecuadas.

El peritaje arqueológico, llevado a cabo por Ondare S.C., era necesario considerando las propias características de las obras previstas y la singular relevancia histórica del lugar elegido: un importante cruce de caminos en el inicio de la ladera sur del promontorio sobre el que se fundó la villa de Laguardia en el siglo XII, donde se tenían noticias de la posible existencia de una ermita (dedicada a Nuestra Señora del Cántaro) y donde se documentaban unas estructuras rectangulares de piedra (como posibles sepulturas). Esta zona, además, estaba relativamente cercana al yacimiento romano de La Iglesia (conocido desde 1987 gracias a los trabajos de urgencia desarrollados por E. Gil Zubillaga e I. Filloy Nieva).

Se exponen, a continuación, los resultados obtenidos tras la realización de la prospección visual sistemática y la determinación, por medio de tres catas y un sondeo, del potencial arqueológico del subsuelo en las diferentes zonas afectadas por las obras. Señalar aquí la localización, dentro de los límites fijados por el plan de obra, de un yacimiento arqueológico no catalogado hasta el momento, de una entidad que se podría calificar de importante, y que se adscribe cronológica y culturalmente al período de presencia romana en el ámbito geográfico riojano-alavés.

## 2. Actuaciones realizadas

En primer lugar, y como paso previo al inicio de los trabajos de campo, se realizó una revisión bibliográfica exhaustiva para documentar la presencia en el pasado de elementos patrimoniales en las proximidades del área afectada, que no aportó datos significativos. Sin embargo, las posteriores prospecciones realizadas (visual y por medio de pequeñas catas y sondeos), pusieron de manifiesto la existencia de dos puntos de interés: uno de relevancia arqueológica, y otro menor, de carácter etnográfico.

### 2.1. Prospección visual sistemática

En el espacio del futuro cruce de intersección vial se localizaron abundantes fragmentos cerámicos, algunos de ellos de indudable cronología romana. Estas evidencias se recogieron en un corte artificial de unos 2 metros de desnivel y 20 de longitud, que bordea por el lado sureste a una pequeña isleta triangular (cubierta de hierba y desde hace años no cultivada). La isleta quedaba delimitada por las carreteras de Logroño, al E.; de Elciego, al N.; y por un camino rural, al S. y W.

En segundo lugar, y al sur del área anterior se constató la existencia, dentro de los límites de las obras, de unas edificaciones de aparente carácter agropecuario, que parecían corresponder a los restos de una vivienda y a un almacén o granero adosado. Al sur de los edificios se extendía un espacio rectangular

zabaltzen zen, eta bertan hareharrizko kanalizazio batzuk eta material bereko bi egitura angeluzuzen, landaretzak ia zeharo izkutatuak, aurkitu genituen; egitura horiek ez ziren hilobiak, inondik ere, eta garbitu ondoren, ura biltzeko deposituak zirela egiaztatu genuen.

Agerian utzitako aztarna arkeologikoen ("A" deituriko Gunean) eta etnografikoen ("B" deituriko Gunean) arabera, bestela jardun genuen bi alde horietan izaera desberdinekoak baitziren; nolanahi ere, helburua betiere berbera zen, hots, aurkituriko hondakinen munta eta garrantzia egiaztatu nahi genuen.

cercado, en el que se localizaron una serie de canalizaciones de piedra arenisca, así como dos estructuras rectangulares del mismo material, semiocultas por la vegetación, y que, lejos de interpretarse como sepulturas, su limpieza posterior demostró su utilidad como depósitos para agua.

En función de las evidencias arqueológicas (en la denominada Zona "A") y etnográficas (en la denominada Zona "B") descubiertas, se decidió intervenir en ambos lugares de forma diferente debido a su carácter específico, aunque con el mismo objetivo de verificar la entidad e importancia de los restos observados.




Logroñoko Bideko Harriak (Biasteri). 1. zundaketako sekzioak.

Las pilas del Camino de Logroño (Laguardia). Secciones del sondeo n.º 1.

### 2.2. *“A” Gunean bideraturiko lanak*

Erromatarren garaiko aztarnak aurkituta bi kata bideratu genituen aztarnategi arkeologiko bat ba ote zegoen egiaztatzeko. Lehenengo zeramika puskak bildu ziren isleta edo oinezkoentzako babesgunearen hegoaldeko ezpondan bideratu genuen lehen kata, eta Logroñorako errepidearen bestaldean, ez oso urrutira, bigarrena. Lubakian bideraturiko katan (1. Kata) erromatarren garaiko aztarna arkeologikoak, garrantzitsuak neurri batean, egiaztatu genituen, baina ez genuen deus aurkitu beste katan (2. Kata). Kata hauek burura eraman eta aztarnategi arkeologiko bat bazegoela egiaztatu ondoren (lehenengo kataren ondorioz jasoriko behin behineko emaitzak kontuan izanik), zundaketa bat egitea deliberatu genuen isletaren iparraldeko muturretik hurbil (1. Zundaketa), aztarnategia isleta osora zabaltzen ote zen ala ezponda ondoko eremura mugatzen ote zen egiaztatzeko eta aztarnategiaren ezaugarriei buruzko datu gehiago lortzeko.

1. Katan eta 1. Zundaketan estratigrafia sekuentzia beretsu eta soil bat hauteman genuen, eta erromatarren garaiko Unitate Estratigrafiko batzuk ageri zituen oso trinko zegoen eta arkeologiaren ikuspuntutik antzua zen laborantza-lurraren mailaren azpian (30 eta 40 cm bitarteko sakoneran). Bi une jakinetan koka ditzakegu halako interesa agertzen duten aztarnak: finkamenduaren okupazio eta jarduera aldiari dagokiona bata (I-a Aldia), eta abandonatu edota suntsitu zen aldiari dagokiona, bestea (I-b Aldia).

Lehen aldikoak dira, besteak beste, ondo landutako horma baten aurriak, lur eta kareazko ustezko zoru bat, eta material batzuk (zeramika puskak, Terra Sigillata Hispánica Tardía motakoak, eta eraikuntzarako elementuak, teila lauak edo tegulak nagusiki) (1. Kata). 1. Zundaketan, bestalde, zutoin bat egokitzeko zuloa, harri xehatuzko ustezko zorua eta hareharrizko bloke angeluzuzen bat, aurpegiak zizelez landurik, balizko teilatuari eusteko elementuaren oinarritzat erabili ahal izan zena, dokumentatu genituen. Indusketa biotan, aldi honetako depositu-unitateen baitan, ikatz hondakin ugari bildu genituen, finkamendua bapatean suntsitu zela, suteren batek eraginda, pentsatzera garamatzatenak.

### 2.2. *Trabajos sobre la Zona “A”*

La localización de restos romanos aconsejó la realización de dos catas para confirmar la existencia o no de un yacimiento arqueológico. La primera se llevó a cabo sobre el talud sur de la isleta donde se recogieron los primeros fragmentos cerámicos, y la segunda, al otro lado de la carretera de Logroño, en un punto no muy distante. Tan sólo en la cata realizada en el corte (Cata n.º 1) se confirmaron restos arqueológicos romanos de entidad significativa, siendo negativos los resultados obtenidos en la otra (Cata n.º 2). Con posterioridad a la realización de estas catas y tras la confirmación de la existencia de un yacimiento arqueológico (según los resultados provisionales de la primera de ellas), se decidió practicar un sondeo junto al extremo N. de la isleta (Sondeo n.º 1), al objeto de determinar si el yacimiento se extendía por toda ella o sólo en la zona inmediata al talud y para obtener más datos sobre sus características particulares.

En la Cata n.º 1 y el Sondeo n.º 1 se detectó una secuencia estratigráfica similar y muy simple, con una serie de Unidades Estratigráficas de época romana, por debajo un nivel de tierra de labor muy compacta y arqueológicamente irrelevante (de entre 30 y 40 cm. de profundidad). Los restos de interés se podían adscribir a dos momentos diferentes: uno relativo al período de actividad del asentamiento (Fase I-a); y otro correspondiente a su abandono y/o destrucción (Fase I-b).

De la primera fase cabe destacar, los restos de un muro de buena factura, un posible suelo de tierra y cal, y diversos materiales (fragmentos de cerámica, del tipo Terra Sigillata Hispánica Tardía, y elementos constructivos, sobre todo tejas planas o tégulas) (Cata n.º 1). En el Sondeo n.º 1, por su parte, se documentaron un agujero de poste, otro posible suelo de tierra batida y un gran bloque rectangular de piedra arenisca y tallado en sus caras, que pudo utilizarse como base de algún elemento sustentante para una posible techumbre. En ambas excavaciones se observaron, dentro de las unidades de depósito de esta fase, numerosos restos de carbones, que inducían a pensar en una destrucción súbita del asentamiento, provocada por la acción de algún incendio.

### 2.3. *“B” Gunean bideraturiko lanak*

Beste kata bat (3. Kata) burutu genuen hesiz inguraturiko esparruaren barnean, eta helburu bikoitza zuen lan horrek: batetik, erromatarren garaiko aztarnategia alde honetaraino hedatzen ote zen egiaztatu nahi genuen; eta bestetik, arestian aipaturiko depositu eta kanalizaziotik hurbil dagoen lur-zoruan tinkaturiko harrizko bi errenkada paraleloak zertarako ziren jakin nahi genuen. Azkenean, alde horretako zorupean erromatarren garaiko aztarnarik ez zegoela erakutsi zuten emaitzek, eta harrizko bi errenkadek inolako garrantzirik ez zutela, finka osatzen zuten bi aldeen arteko mugarriak baino ez baitziren, iparraldeko errenkada hegoaldekoa baino altuxeago egonik. Bestalde, alde horretako harrizko kanalizazioa eta deposituak garbitu genituen beren ezaugarriak jasotzeko eta funtzionalitatea eta interesa zehazteko.

### 2.3. *Trabajos sobre la Zona “B”*

Se decidió realizar una nueva cata (Cata n.º 3) dentro del espacio cercado, con un doble objetivo: por un lado, comprobar si el yacimiento romano se extendía o no hasta esta zona; y por otro, conocer la utilidad de 2 hileras paralelas de piedras hincadas en el suelo, cerca de los depósitos y de la canalización citados con anterioridad. Finalmente, los resultados demostraron que no había en el subsuelo del lugar resto alguno del yacimiento romano y que las 2 hileras de piedra carecían de interés, al ser una simple separación física entre las dos partes que formaban la finca, la septentrional algo más elevada que la meridional. Por otro lado, se acometió la limpieza de la canalización de piedra y de los depósitos existentes en la zona, para anotar sus características y determinar su funcionalidad e interés.

## 3. Kontestualizazioa eta emaitzen gaineko balorazioa

### 3.1. Erromatarren garaiko aztarnategia

Orain artean bideraturiko lanen munta txikia kontuan izanik, ugari dira aurkituriko aztarnategitik atera daitezkeen izaera historikoko datuak. Hala eta guztiz ere, erratzeko arriskurik gabe esan dezakegu Kristo ondoko lehenengo mendeetako giza okupazio baten hondakinen aurrean gaudela; datu hau, berez, oso interesgarria da zientziaren begietan.

Aztarnategiaren hedadurari dagokionean, arestian aipaturiko errepideen eta landa-bidearen arteko isletak okupatzen duen espazioan baino ez dela kontserbatzen iruditzen zaigu. Hala eta guztiz ere, logikoa da jatorrian finkamendu honek askoz ere zabalagoa behar zuela pentsatzea, baina denboraren joanean ezagutu dituen aldaketen ondorioz (batez ere Eltziegora eta Logroñora iristen diren errepideen eraikuntza, XVIII. eta XIX. mendeetan eginak), erraz ulertzen da aipaturiko neurrietara mugatu ahal izana.

Ezer gutxi esan dezakegu interbentzioan dokumentaturiko egituren inguruan, eta oraingoz ezin zehazta dezakegu zein okupazio-motari dagozkion, ezta finkamenduaren izaera ere. Oraindik ezin baieztatu dezakegu nekazal izaerako finkamendua ote zen, *villa* erromatar baten (handiagoa noski) osagarria agian, baina orain artean agerian utzitako aztarnek halaxe iradokitzen dute. Nolanahi ere, esan beharra dago katan zundaketan ez bezalako eraikuntza-elementuak aurkitu genituela, okupatuak izan ziren bi alde desberdinak bailiran, seguru asko batak (zundaketan agerian geratu zenak) bestearen ordea hartuko zuelako.

Terra Sigillata Hispánica Tardía (T.S.H.T.) zeramikamotako ontzi puskak, tornuan eginak eta dekorazio motiborik gabeak, zera erakusten du a priori, Behe Inperioari loturiko finkamendu baten aurrean gaudela (K.o. III. mendetik IV. mendearen bigarren erdira arte), baina baliteke ondoko garaietan ere erabili izana (IV. mendearen bigarren erditik V. mendera arte).

Ezin aipatu gabe utzi hurbil dagoen La Iglesia (Eliza) aztarnategi erromatarra, aztertzen ari garen lekutik lerro zuzenean 400 bat metrora dagoena. Oso interesgarria litzateke finkamendu bien artean zegokeen harremana zehaztu ahal izatea, eta horrenbestean, Errioxa-Arabako lurretan, prozesu historiko luze baten baitan, Arabako eta Ebro Garaiko lurraldeetan bideraturiko erromanizazioan zehar esaterako, osatu egingo genuke erromatarren presentziari buruz gaur egun dakiguna. Ildo honetatik, esan dezagun garai berekoak izan litezkeela finkamendu biak, eta ezin baztertu daiteke bien harteko harremana are estuagoa izana.

Bukatzeko, esan baherra dago alde hau ezagutzen den toponimoaz baliatu garela agerian utzitako aztarnategiari izena emateko: Las Pilas del Camino de Logroño (Logroñoko Bideko Harriak).

## 3. Contextualización y valoración de los resultados

### 3.1. El yacimiento arqueológico romano

Teniendo en cuenta la escasa entidad de los trabajos realizados hasta el momento, no son muchos los datos de carácter histórico que se pueden extraer del yacimiento descubierto. Sin embargo, sí se puede afirmar sin riesgo de equivocación, que nos encontramos ante los restos de una ocupación humana de los primeros siglos de nuestra era, hecho éste que de por sí presenta un considerable interés científico.

Por lo que respecta a la extensión del yacimiento, cabe decir que parece conservarse únicamente en el espacio ocupado por la isleta comprendida entre las diversas carreteras y el camino rural citados. Sin embargo, parece lógico pensar que este asentamiento debió de ser en origen bastante más amplio, pero las alteraciones sufridas a lo largo del tiempo (sobre todo la construcción de las carreteras que se dirigen a Elciego y a Logroño a lo largo de los siglos XVIII y XIX), sin duda lo han podido reducir a los límites señalados.

Es poco lo que se puede decir de las estructuras documentadas en la intervención, no pudiendo establecerse por ahora a qué tipo de ocupación pudieron corresponder, ni el carácter del asentamiento. Es todavía aventurado hablar de un establecimiento de carácter agrícola, quizás perteneciente a una villa romana (de magnitudes mayores), aunque lo descubierto hasta ahora pueda apuntar en tal dirección. No obstante, conviene matizar que en la cata se evidencian elementos constructivos diferenciados de los del sondeo, que hacen pensar en dos zonas de ocupación diferenciadas, probablemente una (la del sondeo) subsidiaria de la otra.

La presencia de fragmentos de recipientes cerámicos del tipo Terra Sigillata Hispánica Tardía (T.S.H.T.), elaborados a torno y sin presentar motivos decorativos, demuestra a priori, que nos encontramos ante un asentamiento adscrito al Bajo Imperio (siglo III a segunda mitad del IV d.C.), sin descartar tampoco su pertenencia a momentos algo posteriores (desde la segunda mitad del siglo IV al siglo V).

No podemos dejar de mencionar aquí la cercanía de otro yacimiento romano denominado La Iglesia, ubicado a unos 400 metros en línea recta del lugar objeto de análisis. Sería muy interesante poder llegar a establecer el grado de relación que pudieron mantener ambos, de cara a aumentar los conocimientos actuales sobre la presencia romana en las tierras riojanoalavesas, dentro de un proceso histórico amplio, como es el de la romanización del territorio de Álava y del Alto Ebro. En este sentido, indicar que estos asentamientos pudieron coexistir en la misma época, no descartándose incluso, una relación más directa entre ambos.

Por último, indicar que para la denominación del yacimiento descubierto se ha decidido utilizar el topónimo menor con el que se conoce a la zona: Las Pilas del Camino de Logroño.

### 3.2. *Nekazal izaerako multzoa*

Lehen adierazi bezala, ia zeharo behera etorri diren eraikinek berek, ur depositurk eta depositauk hornitzen dituen kanalizazioak osatua da multzo hau. Horren guztiaren gainean ere ezer gutxi esan dezakegu oraingoz, eta hiriari buruzko dokumentazio idatzia aztertu zain gaude, hortik datu interesgarriren bat jaso baitezakegu. Zalantzak zalantza, esan dezagun, eraikinen eraikuntza tipologiari erreparatuz gero eta denboraren joanean ezagutuko zuen erabilera kontuan izanik, multzoa ez dela XIX. mendea edo XVIII. mende bukaerakoa baino zaharragoa; jakin badakigu 1895. urtean bertan zela, halaxe adierazten baitu etxeko harlandu batean eginiko inskripzio batek.

## 4. *Etorkizunean bideratu beharreko obrek izango duten eragina*

Kontuan baditugu aztarnategiaren kokalekua eta haren gutxi gora-beherako hedadura, handia da errepidea hobetzeko eta egokitzeko etorkizuneko obrek erromatarren garaiko aztarnategian izango duten eragina. Horrenbestez, zuzeneko arriskupean dago isletaren hegoaldeko erdia baino gehiago. Gainerakoa (iparraldeko herena), hasiera batean zuzeneko eraginetatik salbu geratzen dena, zuzeneko ondorioak ezagutu ditzake obrarako makineria astunaren joan-etorriengatik. Guztia gogoan izanik, aztarnategiak hartzen duen esparrutik 425 metro karratu gutxi gora-behera egongo da suntsitua izateko arrisku bizian.

"B" Guneko nekazal izaerako multzoari dagokionean, esan dezagun Eltziego eta La Puebla de Labarka lotuko dituen errepidearen trazaera berriak, arestian adieraziriko nekazal produktuen biltegiaren eta depositutuetako baten erabateko desagerpena ekarriko duela, eta ez da baztertzen etxebizitzaren aurriak, kanalizazioa eta beste depositua nahastua izateko aukera, zortasunpeko alde batean baitaude horiek guztiak.

Lorturiko emaitza arkeologikoak eta, aurreko ondorioez gainera, proiektaturiko obraren ezaugarriak kontuan izanik, neurri zuzentzaile batzuk zehaztu dira, desberdinak eta hautemandako gune interesgarri bakoitzari begira itxuratuak.

### 3.2. *El conjunto agropecuario*

Como ya se ha señalado, este conjunto lo forman las propias edificaciones semiderruidas, los depósitos de agua y la canalización que los surte. De todo ello, también es poco lo que se puede indicar por el momento, esperando a una posterior revisión de la documentación escrita sobre la villa y que podría aportar algún dato de interés. Tan sólo anotar con las debidas reservas, que, por la tipología constructiva de las edificaciones y su posible uso a lo largo del tiempo, este conjunto no se remontaría más allá del siglo XIX o quizás de las últimas décadas del XVIII, asegurando su existencia en 1895, como muestra una inscripción realizada uno de los sillares de la casa.

## 4. *Grado de afectación de las futuras obras*

El grado de afectación de las futuras obras de mejora y acondicionamiento vial sobre el yacimiento arqueológico romano, se puede calificar de alto según se desprende de la ubicación y extensión aproximada del mismo. De esta forma, se observa la amenaza directa sobre más de la mitad meridional de la isleta. El resto de este espacio (tercio septentrional), si bien en principio no parece tan afectado, si lo puede llegar a estar por efecto del tránsito de la maquinaria pesada de la obra. Teniendo en cuenta lo anterior, se estima en unos 425 metros cuadrados la superficie de terreno del yacimiento que corre grave peligro de destrucción.

Con respecto al conjunto agropecuario de la Zona "B", señalar que el nuevo trazado que va unir la carretera de Elciego con la de Lapuebla de Labarca, supone la desaparición total del almacén agrícola y de uno de los depósitos apuntados, sin descartar la alteración de los restos de la vivienda, la canalización y del otro depósito, al situarse en una zona de servidumbre.

De los resultados arqueológicos obtenidos y teniendo en cuenta las conclusiones anteriores y las características de la obra proyectada, se han determinado una serie de medidas correctoras, diferenciadas para cada una de las zonas de interés detectadas.

*José Ángel Apellániz González, Javier Fernández Bordegarai*

## B.1.2.7. Dolores Sáiz de Tapia kalea, 21 (Biasteri)

Rebeca Marina Lópezek zuzendua.

José Antonio Mateo Rández promotore pribatuak eta Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

## B.1.2.7. C/ Dolores Sáiz de Tapia, 21 (Laguardia)

Dirigida por Rebeca Marina López.

Subvencionada por el promotor privado –José Antonio Mateo Rández– y por la Diputación Foral de Álava.

***21, Dolores Sáiz de Tapia street, (Laguardia). Directed by Rebeca Marina López.***
*The dwelling is located at 21, Dolores Sáiz de Tapia street in the Old Quarter of Laguardia, declared an Archaeological Zone on 24 November 1995 and scheduled as a Monument Complex.*

*The dwelling has an area of approximately 14 square metres and, given the limited space of the room under investigation, a single survey of 1 m. x 1 m. was carried out which was subsequently extended towards the north.*

*An urban renewal project aimed at clearing the whole space and dropping the floor level by at least 1 metre which would destroy the subsoil stratigraphy. The archaeological survey gave the following stratigraphic sequence: present floor, previously used floor and natural rock hardcore stratum. Also the existence of a wall structure related to the medieval gothic enclosures was noted.*

Gogoan izanik Euskal Kulturaren Ondarerako 1990ko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Ebazpen bat aldarrikatu zuen 1995eko azaroaren 24an Kultura, Gazteria eta Kiroletarako Kontseilariordeak; horren arabera, hasiera ematen zaio Biasteriko Hirigune Historikoko Gune Arkeologikoa Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusira, Monumentu-Multzoaren kategoriaz, biltzeko espedienteari[18].

Ebazpen honen ondorioz, laugarren puntuan adierazten den bezala, arkeologia jarduera bat bideratu behar da arkeologia gune hau ukitu dezakeen edozein obraren aurrean.

Aurkezturiko proiektuan beharrezkotzat jotzen zen zundaketa arkeologiko bat burura eramatea.

Honako ezaugarri hauetan oinarritzen zen, zorupeko multzo arkeologikoa neurtzeko xedean, orube honetan zundaketa bideratzeko interesa:

1.º Lanek ukituko duten gela aspaldidanik erabili zen biltegi gisa, egurra gordetzeko nagusiki, eta horixe da orain artean eman zaion erabilera. Biltegi-erabilerari esker, ez da aspaldi honetan zorupea modu nabarmenean nahasi, eta ez dugu bertan berritze lanak egin izanaren berririk.

2.º Erdi Aroko lotizazioak edo zatiketak okupaturiko eremuaren baitan dago esparru hau.

3.º Burura eramango ziren lanek esparru hau guztia hustutzea ekarriko zuten lehenik, eta gutxienez metro betean sakonduko zen.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, zorupeko estratigrafiaren (ziur asko aspaldi honetan nahasketa garrantzitsurik ezagutu ez duena) etorkizuneko suntsiketaren aurrean, egokitzat jo genuen zundaketa arkeologiko bat bideratzea; zundaketa karratua izango zen, aldeak metro bete, baina interbentzioak eska zitzakeen baldintzen arabera, zabaldu egin zitekeen.

[18] E.A.O., 236. zenbakia, 1995eko abenduaren 13an.

Teniendo como base la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco se ha elaborado la Resolución 24 de noviembre de 1995, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa expediente para la inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco a favor de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Laguardia (Álava), con la categoría de Conjunto Monumental[18].

Esta resolución implica, como señala en su punto cuarto, que ante cualquier tipo de obras que afecten a esta zona arqueológica se hace necesaria una actuación arqueológica.

En el proyecto presentado se estimaba necesario llevar a cabo un sondeo arqueológico.

El interés que presentaba este solar para la realización de un sondeo con el fin de evaluar el potencial arqueológico del subsuelo se basaba en las siguientes circunstancias:

1.º El habitáculo objeto de las obras ha sido utilizado desde hace mucho tiempo como almacén, fundamentalmente de leña, actividad que desempeñaba en la actualidad. Este uso como almacén hace que no haya sido alterado su subsuelo de manera importante en épocas recientes no conociéndose obras que lo afectasen modernamente.

2.º Este espacio se situaría dentro del área ocupada por la lotización de época medieval.

3.º Las obras que se van a llevar a cabo prevén vaciar todo este espacio bajando una altura de un metro por lo menos.

Por estos motivos, ante la futura destrucción de la estratigrafía del subsuelo, previsiblemente no alterada de manera grave en épocas recientes, se consideró oportuna la realización de un sondeo arqueológico con unas dimensiones cuadradas de un metro de lado, susceptible de ampliación atendiendo a las circunstancias que la intervención requiriese.

[18] B.O.P.V. n.º 236, miércoles 13 de diciembre de 1995.

Aztertu beharreko gelaren neurri txikiak eraman gintuen metro karratuko zundaketa karratua egitera.

Las dimensiones del sondeo, 1 m. x 1 m., se fijaron atendiendo a las reducidas proporciones del habitáculo objeto de la intervención.

## *Kokalekua*

Dolores Sáiz de Tapia kalean dago, 21. zenbakian, interbentzio arkeologikoak ukitu behar zuen higiezina. Bertako orubea, Migeloa kale nagusiko 26. zenbakiko eraikinaren gibelaldea da gaur egun.

Biasteriko Urbanizazioa Birgaitzeko Plan Berezian, honelaxe dago erregistratua eraikin hau, 06. Etxadia, 13. U.E.: 1.º, erabilera zehatzik gabeko lokala; 2.º, ordenaziotik kanpora dagoen eraikina; eta 3.º, sotorik gabea.

Birgaitzeko baldintzen laburpenari dagokionean: 1.º, katalogatu gabeko eraikina; 2.º, eraikuntza izaerako berreraikuntza interbentzio-mota; 3.º, dagoen eraikinaren eraispena, baimenduriko interbentzio gisa; eta 4.º, ez dago kontserbatua izateko halako interesa aurkezten duen elementurik.

Gutxi gora-behera 14 metro karratu hartzen ditu gela honetako azalerak. Esparru itxia da: iparraldetik orube bereko patioarekin egiten du muga; hegoaldetik Dolores Sáiz de Tapia kaleko 23. zenbakiko eraikinarekin; mendebaldetik Dolores Sáiz de Tapia kalearekin; eta ekialdetik ogia egiteko labe zaharra, orain dela gutxi beste labe moderno batez ordezkatu zena, zegoen gelarekin.

Landu gabeko harri irregularrek osatzen dituzte hormetako itxiturak, landu gabeko harriak hareharrizkoak dira eta ez daude zizelez landuta, eta kareorea ageri dute junturetan, iparraldean izan ezik, adreilu modernoz eginiko pareta estu bat dena, zementuz estalia baina ekialdeko hormara heltzen ez dena, gelarako sarrera eratuz. Erabileratik kanpora dago Dolores Sáiz de Tapia kalera ematen duen sarrera.

## *Localización*

El inmueble objeto de la intervención arqueológica se sitúa en la calle Dolores Sáiz de Tapia n.º 21, cuyo solar es actualmente la trasera de la edificación del n.º 26 de la calle mayor de Migueloa.

En el Plan Especial de Rehabilitación Urbana de Laguardia, esta edificación, Manzana 06, U.E. 13, está registrada como: 1.º, local sin uso concreto; 2.º, edificación fuera de ordenación; y 3.º, sin bodega.

En cuanto al resumen de condiciones de rehabilitación: 1.º, como edificio no catalogado; 2.º, la reedificación como tipo de intervención constructiva; 3.º, el derribo de la edificación existente como intervención permitida; y 4.º, ningún elemento de interés a conservar.

El área de esta estancia es de aproximadamente 14 metros cuadrados.Se trata de un espacio cerrado que limita por el norte con el patio perteneciente al mismo solar; por el sur con la edificación n.º 23 de la c/ Dolores Sáiz de Tapia; por el oeste con la calle Dolores Sáiz de Tapia; por el este con otra estancia dónde se hallaba el antiguo horno de pan que fue sustituido por otro moderno en una reciente obra.

Los cierres murarios son de mampostería irregular, los mampuestos son de naturaleza arenisca y no se encuentran tallados, con argamasa en las juntas, excepto el del lado norte que es una pared estrecha de ladrillo moderno revestido de cemento que no llega hasta el muro este constituyendo el vano de ingreso a la estancia. El acceso desde la puerta de la c/ Dolores Sáiz de Tapia está fuera de uso.

## *Balorazio historiko-arkeologikoa eta Konklusioak*

Azaleko garbiketa baten bidez bazterrera eraman genuen zoruan metaturiko materiala eta garbi utzi genuen lokalaren erdialdeko (14 metro karratuko guztizko azaleran) gune txiki bat, metro karratuko zundaketa bideratzeko asmoa genuen gunea alegia.

Arkeologia prozesuan agerian utziriko unitate estratigrafikoen zerrenda –kontestu soilen bidezko erregistroa erabili dugu beti gurean estratigrafia–sistematzat, E.C. Harris-ek[19] azalduriko metodologia-plangintzen arabera betiere-, azaltzen dugu jarraian eta laburbildurik:

Lehenengo U.E., 1. Kontestua, egurrez, lur harro hautseztatuaz eta hondakin modernoez (plastikoak eta) osaturiko depositua da, 20 cm lodi, eta modu homogenoan estaltzen zuen zundaturiko azalera guztia.

## *Valoración histórico-arqueológica y Conclusiones*

Una somera limpieza había apartado el material acumulado en el suelo quedando despejada una pequeña zona en el centro del local (de un área total de unos 14 metros cuadrados) donde habíamos previsto hacer el sondeo de dimensiones cuadradas de 1 metro de lado.

La relación de las unidades estratigráficas halladas en el proceso arqueológico –Sistema Estratigráfico de Registro por contexto simple, de acuerdo con los planteamientos metodológicos expuestos por E.C. Harris[19]– son las que de manera resumida se exponen a continuación:

La primera U.E., Contexto 1, es un depósito compuesto por maderas, tierra muy suelta polvorosa y desperdicios modernos (plásticos, etc.) de unos 20 cm., que cubría de manera homogénea toda la superficie del sondeo.

---

[19] HARRIS, E.C. Principles of archeological sratigraphy. London, 1979.

[19] HARRIS, E.C. Principles of archeological sratigraphy. London 1979.

Behean dago 2. Kontestua, harri xehatuzko lur-geruza mehea (zentimetro 1 gutxi gora-behera), trinkoa, kolorez marroi iluna, errauts eta ikatz arrastoak ageri zituena eta plano horizontalean modu homogenoan hedatzen zena zundaketa osoan zehar. Aurrez erabili zen zorua osatzen zuen geruza honek.

Gainazal gutxi gora-behera erregularra osatzen zuten harrizko oinarrian (1001. Eraikuntza-elementua) bermatzen zen zoru hori.

Zoruko harriei erreparatuz gero, agerikoa zen desberdintasun nabarmen bat: zundaketaren iparraldeko harriak neurri ertainekoak ziren, eta ekialdetik mendebaldera egokituta zeuden; beste harriak txikiagoak ziren eta beren artean desberdinak bai formari dagokionean bai neurrien araberako egokieran ere (ikus krokisa). Azken harri horien artean baziren, hutsarte bat beteaz, teila puskak. Nolanahi ere, zundaketan agerian geratu ziren harri guztiak altuera berean agertu ziren eta azalera homogenoa eratzen zuten.

Harriak altxatzen hasi ginen hegoaldetik. Zundaketan agerian geraturiko harri guztiak, zundaketaren iparraldeko neurri handiagokoak izan ezik, piramide itxurakoak ziren eta lurrean tinkatuta zeuden, erpina behera eta, bataz-beste, 20 cm-ko altuera hartzen zuten. Beraz, egiaztatu egiten da adokinezko zorua lortzeko helburua zuena.

Adokin itxurako harri hauek altxa ondoren, argi eta garbi geratu zen iparraldeko muturreko lau harriak lerroan ondo ipiniak zeudela horma-egituraren bat osa-

Bajo éste, el Contexto 2, una fina capa (aproximadamente 1 cm.) de tierra batida compacta de color marrón oscuro con restos de cenizas y carbones que se extendía en un plano horizontal bastante regular por todo el sondeo. Esta capa constituía el piso o suelo de uso anterior.

Este suelo se acomodaba sobre una base de piedras dispuestas formando una superficie más o menos regular, Elemento Constructivo 1001.

Dentro de las piedras del firme se observaba una diferencia: en la parte norte del sondeo las piedras eran de tamaño medio y parecían estar colocadas con orientación este-oeste, el resto de las piedras eran de menor tamaño y más irregulares entre ellas tanto por su forma y disposición como por sus tamaños (ver croquis), entre ellas rellenando algún hueco estaban colocados fragmentos de teja. Pero todas las piedras visibles en el sondeo estaban a la misma altura formando una superficie homogénea.

Se levantaron las piedras comenzando por el lado sur. Todas las aparecidas en el sondeo excepto las de mayor tamaño del lado norte del sondeo, eran de forma piramidal encontrándose hincadas, con su vértice hacia abajo y con una altura media de 20 cm. Confirmándose así que su finalidad era la de conseguir un suelo adoquinado.

Una vez levantadas estas piedras adoquinadas quedaba claro que las cuatro piedras del límite norte estaban perfectamente alineadas formando algún tipo



Dolores Sáiz de Tapía, 21 (Biasteri). 1002. E.E. horma, eta gaineko oinarria, 1003. E.E.

C/ Dolores Sáiz de Tapia, 21 (Laguardia). Muro, E.C.1002, y la base situada encima, E.C. 1003.

tuz (1002. Eraikuntza-elementua). Bere horretan utzi genituen egitura egiaztatu ahal izateko.

Bestalde, adokinen azpian depositu bat zegoen, 3. Kontestua, lur kolorez marroi iluna, trinkoa, eta baldosarako adreilu zaharraren puskak eta burdinazko iltze bat aurkitu genuen depositu horretan. 12 eta 16 cm bitarteko sakonera zuen deposituak. Adokinak egokitzeko oinarria osatuko zuen lur-zoru honek.

Azpian lur hori trinkoagoa ageri zen, antzua arkeologiaren ikuspuntutik, eta eremuko geruza naturalari zegokion, 4. Kontestua, gizakiak ukitu gabea, kaskailua *(cascajo)* deitua: lur hori sedimentu-jatorrikoa da, eta kolorez horaila eta beigea den lur buztintsuaz, errekarriak tartean, osatua dago. 60 eta 65 cm bitarteko sakoneran dago lur hori gaurko zoruaren mailaren aldera.

Harri biziko geruzarainoko sekuentzia estratigrafikoa egiaztatu ondoren, zundaketaren mugak zabaltzea deliberatu genuen iparraldean agerturiko balizko egitura osorik ikusi ahal izateko.

Zabalpenari iparralderantz eman genion hasiera, eta agerian geratu zen hegoaldeko hormataleko landu gabeko harriak baino ikusten ez ziren hormaren zabalera osoa, eta ezaugarri beretsuak zituzten iparraldeko hormataleko harriak. Hormaren gainean zeuden unitate estratigrafikoak (1. eta 2. Kontestuak) hasiera batean zehazturiko zundaketaren baitara biltzen ziren unitate estratigrafikoen jarraipenak ziren.

Egituraren horma-izaera eta haren ekialdetik mendebalderako egokiera egiaztatu ondoren, garbiketa lanei ekin genien gelaren barruan hormak zuen trazaera osoaren gaineko jarraipena egiteko eta denboran kokatzeko egungo eraikinaren horma desberdinen aurrean (lehenagokoa, ondorengoa edo garai berekoa).

Zundaketaren zabalpenarekin eta garbiketa lanen ondorioz, agerian geratu zen horma, 1002. Eraikuntza-elementua alegia. Hormak, mendebaldetik ez zuen ez oztopatzen ezta ukitzen ere Dolores Sáiz de Tapia kaleari begira dagoen fatxadako eraikinaren barne-horma. 6-7 zentimetro bitarteko tartea zegoen bien artean, eta distantzia horretara agertu zen landu gabeko harrizko horma mugituta zegoen, aurpegien lerroa gorde gabe alegia. Ez zegoen, beraz, jatorrizko posizioan.

Ekialdetik, gela hau mugatzen duen paretatik atalik hurbilenean, trazaera bihurritzen zuten nahasketa batzuk aurkezten zituen hormak, baina nahikoa uniformea zen bestela.

Nahasketa hauek hormaren iparraldeko erdiaren gainean landu gabeko harri irregularreko plataforma eskuairaz egokitua (1003. Eraikuntza-elementua) izanaren ondorio dira; plataformak 10-15 cm-ko altuera zuen eta lurraz batutako neurri txikiko hareharriz egina zen. Zuzenean hormaren gainean bermatzen zen eta plataforma hori egokitu zutenean landu gabeko harri batzuk mugitu eta behera etorri ziren. Mendebaldeko muturrean bezala, ekialdean ere horma honek ez zuen ez oztopatzen ezta ukitzen ere pareta, eta 5 cm-ko tartea zegoen bien artean.

Horma guztira 3 m luze zen eta 0,70 cm zabal. Gaur egun errenkada bakar batek osatua da, lehe-

de estructura muraria, Elemento Constructivo 1002. Se mantuvieron en su lugar a fin de comprobar su estructura.

Por otra parte, debajo de los adoquines existía un depósito, Contexto 3, de tierra marrón oscura compacta en la que aparecieron varios fragmentos de ladrillo antiguo de baldosa y un clavo de hierro. Este depósito tenía una profundidad que oscilaba entre los 12 y los 16 cm. Constituiría esta tierra la base de preparación para colocar los adoquines.

Por debajo aparecía ya una tierra amarillenta más compacta, estéril arqueológicamente y que se correspondía con el estrato natural geológico, Contexto 4 no alterado por la acción humana, es el llamado cascajo, de origen sedimentario compuesto por una tierra arcillosa de color amarillento beige con intrusiones de cantos rodados. Se encuentra a una profundidad que oscila entre los 60 y 65 cm. respecto al suelo actual.

Al haber comprobado la secuencia estratigráfica hasta el estrato natural rocoso se decidió ampliar los límites del sondeo para ver en su totalidad la posible estructura aparecida en el lado norte.

La ampliación se inició hacia el norte, saliendo a la luz la anchura total del muro del que antes sólo se apreciaba los mampuestos de la cara sur, siendo los de la cara norte de similares características. Las U.E. (Contextos 1 y 2) situadas encima de esta parte del muro eran la continuación de las encontradas sobre la parte englobada dentro del sondeo marcado originalmente.

Una vez confirmado el carácter murario de la estructura, así como su orientación siguiendo un eje este-oeste, se realizó una limpieza para poder seguir la totalidad del trazado del muro dentro de la estancia y establecer su relación temporal (antero posterioridad o contemporaneidad) con respecto a los diferentes muros de la edificación actual.

Con la ampliación y limpieza quedó al descubierto el muro, Elemento Constructivo 1002. Por el lado oeste el muro no trababa ni tenía contacto con cara interna del muro de la edificación de fachada a la c/ Dolores Sáiz de Tapia. Entre ambos había una distancia de unos 6 a 7 cm. y el mampuesto del muro descubierto que se quedaba a esta distancia se presentaba movido no respetando la alineación de la caras. No estaba en su posición original.

Por el lado este, en el tramo más cercano a la pared que delimita esta estancia, el muro presentaba una serie de alteraciones que irregularizaban su trazado, bastante uniforme en el resto.

Estas alteraciones se debían a que sobre la mitad norte del muro se colocó una plataforma escuadrada de mampostería irregular, Elemento Constructivo 1003, de 10 a 15 cm. de altura, con mampuestos de naturaleza arenisca de tamaño pequeño rejunteados con tierra. Esta base apoyaba directamente sobre el muro y en su colocación se movieron y vencieron varios de los mampuestos. Al igual que lo observado en el extremo oeste, en el este el muro tampoco tenía trabazón ni contacto con la pared de la que le separaban unos 5 cm.

La longitud total del muro es de 3 m. y la anchura 0,70 m. Está compuesto en la actualidad por una so-

nengoak, landu gabeko harriz egina, landu gabeko hareharriz hain zuzen ere, eta lurrez batuta daude. 20 cm-ko altuera ageri du.

## *Konklusioak*

Honako ondorio hauetara iritsi gara zundaketa arkeologikoa burura eraman ondoren:

Zorupeko sekuentzia estratigrafikoa: Azaletik sakonerantz eginik, honako geruza hauek bereizten ziren:

1. Gaurko egunean erabiltzen den zorua. 20 cm lodi da eta egur puska ugari eta oso lur harroa erakusten ditu.

2. Lehenagotik erabili zen zorua. Zentimetro bat lodi zen, harri xehatuzko lur kolorez marroi iluna, trinkoa, eta errautsez eta egur-ikatz hondakinez nahasita. Zoru hau Dolores S‡iz de Tapia kaleari zabaltzen zaion sarreraren atalase-mailaren kota berean zegoen. Beraz, egungo orube-atala okupatzen duen etxearen eraikuntzaren garai berekoa da zoru hori, eta eraikuntza haren arrastoak oraindik hauteman daitezke fatxadan, ezkerraldeko harrizko janban eta sarrerako zurezko ataburuan, hain zuzen ere. Datu zehatzagorik ez dugun arren, XVIII. mendearen 2. erdia - XIX. mendea bitarteko kronologia ematen diogu zoru horri eta hipotesi gisa betiere. Eraikuntza eta dekorazio mailako ezaugarrietan oinarritzen gara baieztapen hori egiteko. Halaber, kontuan eduki dugu alboko eraikinekin izan duen lotura. Zoruko harrien azpian 15 cm-ko lur trinkoa ageri zen, kolorez marroi iluna, eta bertan adokinak egokitzeko prestatua zegoen.

3. Harrizko geruza naturala, matriz hareatsu eta limotsuzko konglomeratua, zentimetro eta dezimetroko tamaina duten alez osatua, kolorez hori antzekoa eta errekarriak tarteka.

1002. Eraikuntza-elementua, aurreko eraikinaren horma.

Aipaturiko adokinak altuera berean egokitu ziren, eta agerian utziriko aurreko garaiko hormaz baliatu ziren horretarako.

Eraikuntza mailako ezaugarriei erreparatzen badiegu, elementu honek ez zuen bigarren mailako edo etxebizitza baten espazioa banatzeko pareta osatzen; izan ere, horma bat zen, eraikin baten horma nagusia hain zuzen ere. Gutxi gora-behera, egungo esparruaren erdiko ardatzean aurkitzen da (ikus krokisa).

Baina, kontuan badugu, indusketa lanetatik lorturiko emaitzei kasu eginez betiere, horma hau espazio honetako itxitura eta mendebaldeko itxitura edo kaleari ematen dion fatxadaren pareta baino lehenagokoa dela, eta gainera, gaur egun ikusten dugun eraikineko zoruak baino lehenagokoa dela, zera esan dezakegu, eremu horretan gaur egunera arte mantenduriko lotizazioarekin edo banaketarekin bat ez datorren espazioa okupatzen zuen eraikin baten hormetako bat dela. Oso bestelakoa den lotizazioaren araberakoa da.

Kronologiari dagokionean, horma hau Erdi Aroko lotizazio edo banaketari legokiokeela uste dugu.

la hilada, la primera, de mampostería concertada con mampuestos irregulares de naturaleza arenisca no trabajados, rejunteados con tierra. La altura del muro es de 20 cm.

## *Conclusiones*

Del resultado del sondeo arqueológico extraemos las siguientes conclusiones:

Secuencia estratigráfica del subsuelo: Se componía en orden inverso a su deposición de:

1. El suelo actual de uso. 20 cm. de fragmentos de madera y tierra muy suelta.

2. El suelo de uso anterior, 1 cm. de tierra batida marrón oscura compacta mezclada con cenizas y restos de carbón vegetal. Formada sobre el firme de piedras a modo de adoquinado irregular. El suelo se encontraba a la misma cota que el umbral del acceso de la c/ Dolores Sáiz de Tapia. Por lo tanto constituye el suelo contemporáneo con la edificación de la casa que ocupa el lote actual, de la que quedan restos en la fachada, en la jamba pétrea izquierda y dintel de madera del acceso. A pesar de carecer de datos más concretos, como hipótesis damos la siguiente cronología a este suelo, 2.ª mitad del siglo XVIII - siglo XIX. Para ello nos basamos en las características constructivas y decorativas, así como en su relación con las edificaciones anexas. Bajo las piedras del suelo 15 cm. de tierra marrón oscura compacta que se corresponden con la preparación para la colocación del adoquinado.

3. Estrato natural rocoso, conglomerado de grano centimétrico y decimétrico de matriz arenosa y limosa, de color amarillento con intrusiones de cantos rodados.

Elemento constructivo 1002, muro de carga de una edificación anterior.

El adoquinado mencionado se colocó a la misma altura y aprovechando la existencia previa del muro descubierto.

Este elemento, por sus características constructivas no tuvo como objeto constituir una pared secundaria o de división interna de algún espacio de la vivienda, su finalidad constructiva fue la de ser un muro de carga, uno de los muros maestros de una edificación. Se encuentra aproximadamente en el eje central del recinto actual (ver croquis).

Ahora bien, teniendo en cuenta que según lo que se desprende de la excavación, este muro es anterior en el tiempo tanto al cierre este del recinto como al cierre oeste o pared de fachada a la calle, y asimismo a los suelos del recinto que observamos actualmente; se deduce que este muro corresponde a una de las paredes externas de una edificación que ocupaba un espacio que no se corresponde con la lotización mantenida hasta hoy en esta zona. Se corresponde con una lotización muy diferente.

En cuanto a su adscripción cronológica, como posibilidad proponemos que este muro se correspondiera con la lotización de época medieval.

## B.1.2.8. Rua Mayor de Peralta, 8 (Biasteri)

Rebeca Marina Lópezek eta Carlos Crespo Beisteguik zuzendua.

José Antonio Alegre Benito promotore pribatuak eta Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

## B.1.2.8. Rua Mayor de Peralta, 8 (Laguardia)

Dirigida por Rebeca Marina López y Carlos Crespo Beistegui.

Subvencionada por el promotor privado –Jose Antonio Alegre Benito– y por la Diputación Foral de Álava.

***N.° 8, Rua Mayor de Peralta street, (Laguardia). Directed by Rebeca Marina López and Carlos Crespo Beistegui.*** *The dwelling is located at N.° 8, Rua Mayor de Peralta street, in the Old Quarter of Laguardia (Alava), declared an Archaeological Zone on 24 November 1995 and scheduled as a Monument Complex.*

*The dwelling has a surface area of approximately 50 square metres and so two 1.50 m. x 1.50 m. surveys were carried out as well as a third beside a stretch of wall.*

*The following stratigraphic sequence was obtained as a result: present concrete floor with its preparation base, floor of previous usage, a layer of earth and the rock hardcore stratum.*

La segunda bodega o sótano es más espaciosa que esta primera (±160 cm. de altura) y sus límites los forman sendos muros de mampostería (US.16, US.18, US.39, US.40) con enfoscado de cemento (US.52). A diferencia de la bodega 1 esta bodega 2 presenta un nivel de suelo por debajo del nivel de calle, desnivel que salva mediante dos escalones construidos en piedra arenisca de irregulares proporciones y en bastante mal estado (US.53). El suelo de esta bodega, arcilloso, se cubre colocando sobre una delgada capa de mortero un nivel de ladrillos macizos del tipo romano (US.41).

La lonja correspondiente a esta parcela se situaría a nivel con respecto de la entrada principal, esto es, del acceso desde la calle Víctor Chávarri. Desde este punto, la parcela tiene una lectura de lonja y hueco de portal junto a la pared oeste siendo el suelo de la lonja de embaldosado (US.34) sobre solera de hormigón (US.33).

Dicha solera de hormigón apoya directamente sobre los niveles inferiores de la parcela que tratamos, a saber, las dos bodegas y el único nivel de cimentación que, localizado en las proximidades del ángulo noroeste de la lonja, presenta claras diferencias constructivas con respecto a las definidas con anterioridad (US.23 y US.24).

Fue en esta zona de lonja donde se procedió a la apertura de una zanja que, siguiendo las pautas marcadas por lo objetivos de la intervención arqueológica se inició con una anchura de 1 m. y en dirección suroeste-noreste a partir del muro de hormigón (US.30) y el límite del forjado de hormigón (US.44) detectado bajo el embaldosado que cubría la zona (US.34).

La aparición bajo una capa de relleno similar a la de la parcela 1 aunque de menor potencia y con mayor cantidad de arena de playa (US.32) de varias estructuras murarias motivó el que se abriera toda la zona en el espacio delimitado por el muro de fachada (US.19) y una de las vigas de hormigón del encofrado (US.44).

Realizada la limpieza de la zona sondeada, se observan varias estructuras murarias con diferentes tipologías constructivas. Así, bajo el zócalo que delimita la finca con la calle (US.54) y sirviendo de base a aquél, se localiza un potente muro de mampostería (±80 cms.) construido con piedras de mediano y gran tamaño unidas mediante un mortero a base de arena de playa y cascote mezclado con tierra y piedra menuda (US.20). Este muro se apoya así mismo, sobre la roca natural (US.25) buscando nivelar el terreno. Ningún resto de muro de similares características se asocian a éste descrito excepto un pequeño murete que parece delimitarlo parcialmente por su zona Norte (US.21). Sin embargo, el murete se haya incompleto y tan sólo se

rri batean mugatzen duela ematen duen horma txiki bat izan ezik (US. 21). Halaz ere, horma txiki hori ez dago osorik eta lehen ilarako harri batzuk baino ez ditu kontserbatu; izan ere, eremu horretan guztiz aldatua dago lurra eta obra egin ondoko zabor eta harrizko betegarri-maila batek betetzen du (US. 32).

Ekialdeko fatxada-hormaren ondoko esparru hori ixten du tamaina ertaineko harriz egindako horma txiki batek (US. 24). Horma txiki hori osatzen zuen zementuzko morteroak erakusten digu eraikuntza ez dela Aro Modernoa baino lehenagokoa. Horma txiki hori zutabe baten oinarrian (US. 23) bermatzen da zuzenean, eta zutabe-oinarri hori landu gabeko harriz egindako horman (US. 16) eta harri naturalean (US. 25) bermatzen da era berean. Harri landu gabeaz eginiko horma horrek orubea zeharkatzen du eta bi lursailak banatzen ditu.

Zanga honetan aurkitu genuen azken egitura beste zutabe baten oinarria (US. 22) izan da, oinarri hori US. 16 unitatean bermatzen zen, harri naturalaren gainean eraiki zen lurraren maila berdindu nahian, eta ia gorputz oso bat eratzen zuen aurreko egiturarekin (US. 23). Bi egitura horiek bereizten dituzte, halaber, eraikitzeko erabilitako mortero desberdinek eta materialen tipologiak, tamaina handiko harriak erabili baitira bigarren zutabearen oinarri honetan (US. 22). Azken oinarri hori US. 20 hormari lotuko genioke eraikuntza mota kontuan hartzen badugu.

### *Balorazioa*

Azterturiko orubean aurkitu ditugun egiturak eta egituren hondakinek bi eraikin zeudela adierazten digute, eta gaur egun Víctor Chavarri kaleko 20. orubea osatzen duten lursailak okupatzen zituztela eraikin horiek. Adreilu bikoitzez eginiko horma bat atzeman genuen landu gabeko harrizko horma baten oinarrian bermatua eta horma horrek zutoin sistema baten bidez bi lursailetan zatitzen zuen orubea. Bi eraikin horiek egon zirela berresten du horrek ere, eta lehen aipatu dugun bezala, bere egitura kargak bi zutabe horien eta beren horma perimetralen artean banatzen zituen eraikin bat zegoela adierazten digu.

Garai hurbileko hondakin adierazten digute eraikuntza bakar batek okupatu zuela bi lursailen espazio osoa, horixe erakusten baitute bertan erabilitako zementuzko eta hormigoizko materialek. Gure egunetaraino iritsi den eraikina izango zen hori. Eraikin horren horma perimetralak galdu dira bertan izandako sutearen eta eraistearen ondoren.

1. lursailean azaldutako hondakinei dagokienean, bertan ageri zen maila erreak, interbentzioa burututako esparru osoan nabarmentzen den buztinezko mailak eta harri naturalak, eta zimentazio zokalo bat izango zenaren hondakinek pentsarazten digute maila hori eraikuntza baten lehen eraikuntza maila izango zela, baina ezin dugu eraikuntza horren kronologia zehaztu ez dugulako hura jakiteko datu zehatzik. Adieraztekoa da material urritasuna dela zundaketa bideratu dugun eremuetan nabarmentzen den ezaugarria. Aurkitu dugun materiala betegarriz osatutako mailan zegoen guztia, eta ez da XVIII. mendea baino lehenagokoa.

conservan algunas de las piedras de su primera hilada, todo ello en una zona en la que el terreno ha sido profundamente alterado y colmatado por un nivel de relleno de desecho de obra y piedras (US.32).

Cerrando este espacio junto al muro de fachada E, un pequeño muro de piedras de mediano tamaño (US.24) cuyo mortero cementado nos indica que se trata de una construcción cuando menos moderna. Este murete apoya directamente sobre una base de pilar (US.23) que apoya a su vez en el muro de mampostería (US.16) que recorre el solar dividiendo las dos parcelas y sobre la propia roca madre (US.25).

La última estructura detectada en esta zanja es otra base de pilar (US.22) que, apoyando en la US.16 y construida sobre la roca madre buscando nivelar el terreno, casi conforma un todo con la estructura anterior (US.23). Ambas estructuras, sin embargo, quedan diferenciadas por el tipo de mortero utilizado en su construcción y por la propia tipología de los materiales que en esta segunda base de pilar (US.22) lo configuran piedras de gran tamaño. Esta última podría relacionarse, por su tipo de construcción, con el muro US.20.

### *Valoración*

Las estructuras y los restos de estructuras localizados en el solar intervenido evidencian la presencia de dos edificios que ocuparon independientemente cada una de las parcelas que hoy en día configuran el solar n.º 20 de la calle Víctor Chávarri. La presencia de un muro doble de ladrillo que, sobre una base de muro de mampostería divide, mediante un sistema de postes el solar en dos parcelas reafirma este hecho al tiempo que nos habla, tal y como hemos comentado con anterioridad, de un edificio que reparte sus cargas de estructura entes estos postes y sus muros perimetrales.

Los restos más recientes, evidenciados por la utilización de materiales cementados y hormigón, nos hablan de una ocupación del espacio total de las dos parcelas por una única edificación que sería la que ha llegado hasta nosotros y de la que restan, sustancialmente, los muros perimetrales del edificio tras su incendio y demolición.

Respecto a los restos aparecidos en la parcela 1 el nivel de quemado, junto a un nivel de arcillas dominante en todo el espacio intervenido y a la roca madre, así como los restos de lo que pudo haber sido un zócalo de cimentación pueden inducirnos a pensar que éste fuese el primitivo nivel edificatorio correspondiente a una construcción de la que no podemos aventurar su cronología por carecer de datos que pudieran desvelarla. Indicar a este respecto que la escasez de material es la característica en las zonas sondeadas y que el localizado, todo él en el nivel de relleno, no se retrotrae en el tiempo más allá del s. XVIII.

# B.2.3. *OBREN KONTROLAK*

## B.2.3.1. **Bekokale kalea, 24 (Areatza)**

M.ª José Torrecillak zuzendua

Kontrol arkeologiko bat izan da Areatzako *villako* Bekokale kaleko 24. orubean premiazko izaeraz burututako interbentzioa. Egungo higiezina eraberritzeko proiektuaren arabera zimentazio zapatak egokitzeko eginiko hondeaketa, eta hondakin urak bideratzeko eta atzealdeko horma berritzeko eginiko atzeko zanga miatzen, erregistratzen eta laginak jasotzen jardun genuen kontrol horretan.

Eraberritu beharreko eraikinak okupatzen du kontrol honen gai den orubearen azaleraren erdia baino gehiago: egitura herrikoia eta oin sakoneko baserri bat da eraikin hori (8,5 x 15 m inguru), interes handiko elementurik ez du ageri, Bekokaleko aldameneko eraikuntzen aldean erakusten duen itxura uniformatua izan ezik. Atzealdean baratze bat du ibairano iristen dena, eraikina baino pixka bat zabalagoa da (10 bat metro inguru), eta luzeran pixka bat motzagoa (12 bat metro). Gainera, baratze esparru horren bi aldeetan bi kaleska estu ageri dira, eta kaleska horiei esker, kaletik ibai ertzeraino joan daiteke eskuinaldetik eta ezkerraldetik.

Baina, azken ezaugarri horrek ere ez du kasu hau bereizten edo nabarmentzen Bekokaleko etxe-multzoan honen aurreko zenbakietan ageri den banaketari dagokionean. Gehienetan, honen aurreko azken 10-12 zenbakietan espazio libreak errepikatu egiten dira, aldaketa txiki batzuk ageri badituzte ere, bizileku eraikuntzen bi aldeetan eta horma txiki batzuk mugatzen dituzte atzealdeko baratzeak haien perimetroaren gehiengoan.

Hondeaketaren gainean eta orubean bideratutako lehen atontze lanek agerian utzi zuten sekuentzia estratigrafikoaren erregistroan soilik egin dugu kontrola. Zimentazio zapatak (bost guztira) kata gisa hartu ditugu, eta bakoitzari identifikazio hizki bat ezarri diogu A-tik hasi (bostetan handiena da hau eta eraikitako esparruaren hondoan dago, Ipar-Ekialdeko muturrean) eta E-raino. 7 metro inguruko esparru bat hartzen dute guztira. Atzealdeko horma eraberritzeko eta zimentatzeko eginiko zangari dagokionean, zeharreko ebaki estratigrafiko gisa hartu dugu.

Laburbilduta adieraziko ditugu bereizitako unitate estratigrafikoen erlazioan izandako emaitzak –zazpi dira guztira–, horietatik A Katan zehaztu dugu erlazio kopuru handiena. Kata hori neurri handieneko zapatari dagokio (1,30 metro zabal x 1,60 metro luze gutxi gora behera), eta gainera sakonera handiena duen multzoa da orubearen antolamenduarengatik. Bost zapata horiek ikusi ondoren, lur naturalak malda txiki bat duela egiaztatu dugu ibairantz (harri lapitzezko beta bat edo 4. U.E. da eta buztin horiska edo 6. U.E.-rekin nahasten da goialdeko eremuan), malda hori handiagoa da etxearen Iparraldeko muturraren azken herenean. Eremu horretan 5. U.E. azaltzen da, hondarrez eta har-

# B.2.3. *CONTROLES DE OBRAS*

## B.2.3.1. **C/ Bekokale, 24 (Areatza)**

Dirigido por M.ª José Torrecilla.

La intervención realizada, con carácter de urgencia en el solar n.º 24 de Bekokale, de la villa de Areatza, ha sido un control arqueológico. Dicho control se ha ocupado de la supervisión, registro y muestreo del vaciado practicado para las zapatas de cimentación del proyecto de rehabilitación del inmueble actual y de la zanja zaguera para las aguas residuales y muro trasero.

El solar objeto de control se encuentra ocupado en algo más de la mitad de su superficie por el edificio objeto de rehabilitación: un caserío de factura popular y planta profunda (alrededor de 8,5 x 15 m.), sin elementos de interés destacables, salvo su uniformado aspecto respecto a las construcciones adyacentes de Bekokale. En su trasera, hasta alcanzar el río, presenta una huerta de anchura algo mayor que el edificio (unos 10 m. aproximadamente) y algo más corta en desarrollo longitudinal (unos 12 m.). Además, a ambos lados de dicho espacio, aparecen estrechos callejones de paso que permiten, a derecha e izquierda, acceder desde la calle hasta la propia orilla del río.

Pero, ni siquiera éste último rasgo singulariza el caso con respecto a la lotización que se observa en la propia manzana de Bekokale en los números que lo preceden. Casi por regla general, en los últimos 10 a 12 números anteriores se repite con variaciones la presencia de espacios libres a los lados de las construcciones de habitación y pequeños muros que limitan las huertas traseras en buena parte de su perímetro.

El control se ha efectuado exclusivamente sobre el vaciado y registro de la sucesión estratigráfica puesta al descubierto en los primeros trabajos de acondicionamiento del solar. Las zapatas de cimentación (cinco en total) se han tratado a modo de catas, y se han identificado correlativamente desde la A (la mayor de ellas y situada al fondo del espacio edificado, en el extremo Noreste) hasta la E. En total afectan a un espacio de unos 7 metros cuadrados. En cuanto a la zanja practicada para renovar y cimentar el muro zaguero, se ha tratado a modo de corte estratigráfico transversal.

Resumiremos escuetamente los resultados en la relación de las unidades estratigráficas diferenciadas –un número de 7–, de las cuales el mayor número de relaciones se ha establecido en la Cata A que, además de corresponder a la zapata de mayores dimensiones (aproximadamente 1,30 de ancho x 1,60 m. de largo), es también el conjunto de mayor profundidad, por la propia disposición del solar. Y esto último porque el conjunto de las 5 zapatas nos ha permitido comprobar el suave declive del terreno natural hacia el río (una veta de cayuela o U.E.4, que en su zona superior se asocia a arcilla amarillenta o U.E.6), que se acentúa precisamente en el tercio final del extremo Norte de la

koskoz osatua, alubioi-terraza bat izango dena seguraski.

Bi unitatetan atzeman ditugu, ordea, aztarnarik garrantzitsuenak. Alde batetik, 3. U.E. deitu duguna, ikatzez, lur orbanduz eta harri txikiez osaturiko geruza da, eta material kopuru handia atzeman dugu bertan (unitate horretakoak dira jaso ditugun zeramika puskak, fauna hezur hondakinak, metalezko elementu batzuk É), eta nabarmentzekoa da, halaber, azaldu den zepa kopuru handia. Potentzia handiagoan ageri da A Katan (55 cm inguru azaleratik oinarrira alderik zabalenean), potentzia txikiagoa du C (Hego-Mendebaldeko ertza) eta D (erdialdea, Ekialdean) katetan eta ez da batere ageri B eta E katetan (hain zuzen ere bi kata horietan berehala azaleratzen da kararria, 129 metro inguruko kotan itsas mailatik gora).

Bigarrenez, 1. U.E edo azaleko substratua dugu, geruza hau orubearen multzo osoan azaldu da zaborra kendu ondoren. Geruza honek oso osaketa, kolore eta ehundura uniformea ageri du, eta nabarmentzekoa da –zapatetan eta hormaren ebakian egiaztatu den bezala–, lur jotako aurreko eraikinen batekoak izango diren harri kopuru handia azaldu zela bertan. Ezaugarririk interesgarriena zera da, harri horiek aurpegi landuak ageri dituztela neurri handi batean (batean, hiru eta sei aurpegi ere), eta beste askok azaleko atontze lan bat egin dela erakusten dute beren azalera berdintzeko. Geruza honek, gainera, ohi ez bezalako lodiera du (90-95 cm-tik hasi eta 1,40 metro ingururaino), eta lodiera hori handitu egiten da Iparralderantz.

Konklusio gisa, adieraztekoa da, bideratutako kontrol honetan garrantzi bereziko aurkikuntzarik ez badugu egin ere, lortutako erregistro estratigrafikoak eremu hau hobeto ezagutzen lagunduko digula. Eta hori beharbada orube honi dagokionean gauzarik interesgarriena bere kokalekua delako; izan ere, kaleak eratzen duen bihurgune luze batean dago eta Arragoetarekin elkartzen da, eta tradizioaren arabera, Erdi Aroko villaren lehenengo zabaltze prozesuei lotzen zaie eremu hori.

Gure ustez, eremu honetako hirigintza definitzen duten ezaugarrien (Uparan eta Arratia ibaien elkargunea da, probetxamendu energetiko hidraulikoaren hondakinak ditu hurbil eta irregularrak dira Elizarainoko bihurgunea deskribatzen duten orubeak …), eta lortutako matriz estratigrafikoaren azaleko ebaluazio bat egin, eta aurreko interbentzio batekin alderatu ondoren (Basterretxea, 1994, Goikokale), eta bidea luzaten duen kalearen izena (“arragoak” aipatzen ditu garbi) kontuan hartzen badugu, ez genuke baztertuko agerian utzitako elementu estratigrafiko batzuk burdinaren ekoizpenari (bai ekoizpen zuzena edo bai manufakturari lotututakoa, sutegi motakoa) loturiko iragan batean kokatzeko aukera. Halaz ere, dokumentu iturriak errepasatu ondoren egiaztatu nahi dugun susmo xume bat besterik ez da hori, beste hipotesi batzuk ere ez baitira ahantzi behar. Hipotesi horietakoren baten arabera, baserriaren izen herrikoiarekin, “txaparroetxea”, lotuko lirateke aurkitutako eraikuntza materialen hondakinak (harri landuak). Izen horrek joan den mendean gertatutako “uholde” izugarri bat aipatzen du, urak igo eta gai-

casa, y donde aparecerá la U.E.5, unidad de arena y cantos que queremos poner en relación con una terraza aluvial.

Dos unidades, sin embargo, proporcionan los indicios más interesantes. Por un lado la que denominamos U.E.3, una capa de carbones y tierra manchada, piedras pequeñas y gran cantidad de hallazgos (a ésta corresponden las cerámicas recogidas, restos óseos de fauna, algunos metales...), y en la que destaca la presencia de abundantes fragmentos de escoria. Se presenta en potencia mayor en la Cata A (unos 55 cm. de la superficie a la base en su zona más ancha), menos en las catas C (esquina Suroeste) y D (medio, al lado Este) y no aparece en las catas B y E (precisamente estas dos últimas presentan el afloramiento calizo de forma inmediata, en torno a la cota 129 m sobre el nivel del mar).

En segundo lugar, y tratándose de una capa que aparece en todo el conjunto del solar, tenemos la U.E.1, o sustrato superficial, una vez retirado el escombro. Esta capa, de composición, coloración y textura muy uniformes, presenta la particularidad de contener en cantidad muy apreciable –como se ha constatado tanto en las zapatas como en el corte de muro–, piedras que proceden de alguna construcción precedente arruinada. Su característica más interesante es el hecho de que en buena parte presentan caras trabajadas (en uno, tres e incluso 6 lados), y en otros muchos casos huellas de una somera labor de acondicionamiento para regularizar su superficie. Esta capa, además, ofrece una potencia inusitada (desde los 90-95 cm. hasta alrededor de 1,40 m.), que aumenta también en dirección Norte.

En conclusión aunque el control practicado no ha deparado hallazgos de carácter espectacular, el registro estratigráfico obtenido ayudará a completar el mejor conocimiento de esta zona. Y ello porque quizá lo más interesante respecto a este solar es su ubicación, precisamente en una prolongada curva que describe la calle, confluyendo con Arragoeta, y que tradicionalmente se atribuye a los más tempranos procesos de expansión de la villa medieval.

A nuestro juicio, y en una somera evaluación de los rasgos definitorios del urbanismo en esta zona (confluencia de los ríos Uparan y Arratia, proximidad de restos de aprovechamiento energético hidráulico, manifiesta irregularidad de los solares que describen la curva hasta la Iglesia...) de la matriz estratigráfica obtenida, de su comparación con una intervención anterior (Basterretxea, 1994, Goikokale), y de la denominación de la calle que prolonga el vial (en clara referencia a las «arragoas»), no descartaríamos la posible adscripción de algunos de los elementos estratigráficos exhumados a un pasado ligado a la producción ferrona (bien directa o bien relacionada con la manufactura, tipo fragua). Sin embargo es apenas una sospecha que pretendemos contrastar con el repaso a fuentes documentales, y sin olvidar otras hipótesis. Alguna de éstas podría poner en relación los restos materiales de construcciones (piedras trabajadas) con el nombre popular del caserío –”txaparroetxea”. Éste hace referencia a un tremendo «aguaducho» del siglo pasado en el que, la subida y desbordamiento de las aguas, arras-

nezka egin zutenean aziendak, tresnak eta etxeak arrastan ekarri baitzituen eremu honetaraino, herrigunean zuen kokalekuarengatik uren hustubide maturala baitzen. Aztertzen ari garen etxe honetan pilatu ziren eta dikea sortu zuten arrastan ekarritako objektuek eta azienda hilek, eta aurreko eta atzeko ateak bota behar izan ziren kalea hustu zedin.

tró ganado, enseres y casas hasta esta zona, desagüe natural por su posición dentro del casco. En la casa que nos ocupa fue donde se concentraron y crearon dique los objetos y animales muertos acumulados, obligando a practicar el derribo de la puerta anterior y posterior de la casa para que desaguara la calle.

*M.ª José Torrecilla*

# B.3. **GIPUZKOA / GIPUZKOA**

## B.3.1. *INDUSKETAK*

### B.3.1.1. **Embeltran kalea, 3 (Donostia)**

Miren Ayerbe Irizarrek zuzendua

Embeltran 3. orubeko jabekideek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

## B.3.1. *EXCAVACIONES*

### B.3.1.1. **C/ Embeltrán, 3 (Donostia-San Sebastián)**

Dirigida por Miren Ayerbe Irízar.

Subvencionada por Copropietarios Embeltrán n.º 3 y la Diputación Foral de Gipuzkoa.

***3, Embeltrán street (Donostia-San Sebastián). Directed by Miren Ayerbe Irízar.***

*Throughout 1996 several archaeological investigations were carried out in such a way to adapt themselves to building work being carried out at 3, Embeltrán street (Donostia-San Sebastián)in one of the blocks of dwellings where the most important of the city's tower-houses are located.*

*A series of unaltered modern and medieval levels with abundant archaeological material has been identified, dated by coins found and associated clearly to medieval origin structures.*

Donostiako alde zaharrean dagoen Enbeltran kaleko 3. zenbakian eraikin berri bat eraiki behar zutelaeta, interbentzio arkeologiko bat planifikatu genuen obraren exekuziorako proiektuari egokituriko fase batzuen arabera.

Jarduera arkeologiko hau egin berria denez, une honetan datu orokorrak baino ezin ditugu eskaini memoria eta azterketa osoa amaitzeko zain baikaude.

Ukituriko orubea eta inguruak Engómez familiarenak izan ziren Behe Inperioaren garaitik hasita, familia horrek izan baitzituen probestutza-eskubideak belaunaldi batzuetan zehar eta familia nabarmenetako bat izan baitzen Donostiako historian. Geroago, garrantzi txikiagoa ez zuen San Millango Markesaren maiorazkoaren eskuetara igaro zen.

Con motivo de la construcción de una nueva edificación en el inmueble de la calle Embeltrán n.º 3, sito en la parte vieja donostiarra, planificamos una intervención arqueológica en varias fases adaptadas al proyecto de ejecución de obra.

Dada la cercanía en la realización de esta actuación arqueológica, en este momento sólo estamos en disposición de ofrecer datos generales a la espera de finalizar la memoria y estudio completo.

El solar afectado y los inmediatos pertenecieron desde época bajoimperial a la familia Engómez, detentadora del prebostazgo de la villa durante varias generaciones y una de las más señaladas en la historia de San Sebastián, pasando posteriormente a formar parte del no menos significativo mayorazgo del Marqués de San Millán.

Orube honetatik hurbil zeuden puntu desberdinetan azken urteetan bideratutako jarduera arkeologikoek argi erakutsi zuten Erdi Aroko *villaren* H aurrealdean zegoen etxe-multzo honek potentzial arkeologiko handia zuela. Zehatz adierazteko, kontuan hartu beharreko alderdi batzuk elkartzen ziren orube honetan, hau da, bere kokalekua, *villaren* Erdi Aroko harresiak eta eraikuntza garrantzitsu batzuek (dorretxeak) okupatzen zuten espazio batean dago, eta aldameneko orubeetan hondakin arkeologikoak kontserbatu dira. Horrez gainera, adieraztekoa da sotooinik ez zuela, eta horrenbestez, ia aldaketarik ez duela jasan zorupeak.

Hasiera batean, obra proiektuari egokituriko jarduera arkeologikoa zera zen, zapatak zeuden zangetan kontrol arkeologiko bat egitea eta M-ko mehelina garbitzea metro bat inguruko altueran (zapaten lodiera), hori guztia, orubearen estratigrafia erregistratu eta aurreko eraikuntzari loturiko egitura arkeologiko posibleen hondakinak atzemateko xedean. Hasierako jarduera arkeologiko honetan emaitza positiboak izan genituenez, zundaketa arkeologiko puntual bat bideratu genuen orubearen hego-ekialdeko muturrean. Azkenik, soto-oin bat egitea erabaki zelako obra proiektua aldatu ondoren, indusketa arkeologiko bat egin genuen zabaleran. 1996ko urriko hilabete osoan zehar bideratu zen azken fase hori.

Las distintas actuaciones arqueológicas realizadas en diversos puntos cercanos a este solar en los últimos años habían puesto de relieve el alto potencial arqueológico de esta manzana de casas situada en el frente S de la villa medieval. Concretamente, en este solar confluían una serie de aspectos a tener en cuenta como son su localización en un espacio ocupado por la muralla medieval de la villa y por edificaciones importantes (casas-torres) y la conservación de restos arqueológicos en los solares adyacentes a lo que se unía la inexistencia de planta sótano que nos indicaba una escasa alteración en el subsuelo.

En un principio, la actuación arqueológica ajustada al proyecto de obra se limitaba a un control arqueológico de las zanjas donde se ubicaban las zapatas y a la limpieza del medianil W con los objetivos de registrar la estratigrafía del solar en una altura de 1 m. aproximadamente (potencia de las zapatas) y de localizar restos de posibles estructuras arqueológicas relacionadas con la edificación anterior, respectivamente. Los resultados positivos obtenidos en esta inicial actuación arqueológica propiciaron la realización de un sondeo arqueológico puntual en el extremo sudeste del solar que culminó con la realización de una excavación arqueológica en área tras la variación del proyecto de obra al contemplar la ejecución de una planta sótano. Esta última fase se desarrolló durante todo el mes de octubre de 1996.



Embeltran kalea, 3 (Donostia). Orubearen ikuspegi orokorra, I-ko fatxadaren zimentazioa ikus daiteke bertan. M-ko mehelinean irekitako arku zorrotz samarra ageri da ezkerraldean.

C/ Embeltrán, 3 (Donostia-San Sebastián). Vista general del solar donde se aprecia la cimentación de la fachada N. A la izquierda, se aprecia el arco ligeramente apuntado abierto en el medianil W.

## *Emaitzak*

Egiturei dagokienean, Erdi Aroko harresiaren zati bat atzeman genuen zimentaziorako eta aurreko eraikinaren H-ko fatxada osatzeko berriro erabili zena. Aparejuan sumatzen diren aldeek ematen dute izandako bilakaeraren berri, landu gabeko harria errekarriekin nahasia ageri zen behealdean eta hareharri landuarekin nahasia goiko aldean. Kanpoaldera txaranbeldua ageri zen bao batek eta horman sartua zegoen lodiera handiko zurezko zati batek pentsarazten digute harresiak bere babes funtzioa galdu zuenean erabilia izan zela.

M-ko mehelina eskuz garbitu ondoren, hareharri landuz eginiko ia hogei erregistro atzeman genituen eskaileraren erdiko eskailera-begian, bigarren eta hirugarren oinen artean, eta bao dinteldunen eta itxien hondakinak ere atzeman genituen aurreko eraikinari zegozkionak. Indusketa arkeologikoa bideratu zen bi-

## *Resultados*

En cuanto a la estructuras, se localizó parte de la muralla medieval reaprovechada como cimentación y como parte de la fachada S de la anterior edificación. Las diferencias observadas en su aparejo, alternando mampostería de caliza con cantos rodados en la parte inferior con sillería de arenisca en la superior, denotan su evolución. La presencia de un vano abocinado hacia el exterior y de un fragmento de madera de gran grosor embutido en este muro nos induce a pensar en su utilización en el momento en que la muralla medieval ha perdido su función defensiva.

La limpieza manual del medianil W de la edificación tuvo como resultado el registro de casi una veintena de hiladas de sillería de arenisca en el hueco central de la escalera entre la segunda y tercera planta, así como restos de vanos adintelados y cegados relacionados con la edificación anterior. Durante la excavación ar-



Embeltran kalea, 3 (Donostia). Erdi Aroko harresiaren zati bat, eraikinaren behe oineko H-ko fatxadan aurkitutakoa.

C/ Embeltrán, 3 (Donostia-San Sebastián). Fragmento de muralla medieval localizado en la fachada S de la planta baja del inmueble.

tartean agerian utzi genuen arku zorrotz samar bat mehelin horren behealdean.

Indusketa arkeologiko honetan oin lauangeluarreko bi egitura atzeman genituen, kubeta modukoak, biltoki funtzioren bati loturik egongo zirenak seguraski. Kubeta horiek landu gabeko kararriz eginak ziren eta orubearen M-ko muturrean zeuden. Era berean, 2,70 metroko kota batean beste egitura bat atzeman genuen, itxura zirkularreko harri lauez egina zen eta esparru lauangeluar bat eratzen zuen interpretatzeko zaila. Egitura horri loturik, beste egitura bat azaldu zen luzeran egokituriko zurez egina. Zur horiek erabat erreak zeuden, estalki batekoak izango ziren beharbada.

Material hondakinei dagokienean, behin-betiko inbentarioa osatzeko zain bagaude ere, zeramika da material arkeologiko ugariena. Zeramika horren kronologiari dagokionean, gure garaitik hasi (euskal zeramika arrunta, zeramika esmaltatua, zeramika lapurtarra, eta abar.), eta Aro Modernoko (anforetoak, eta abar.), Erdi Aroko (zeramika grisa, zeramika beiratu berdea, zeramita pintatua, eta abar.), eta erromatarren garaiko (aipagarri dira zeramika sigillata hispanica, metopa estiloko dekorazioa ageri duena K.o. I. eta II. mendeen ingurukoa, eta zeramika dekoratu arrunta) zeramika zatiak azaldu dira.

Bigarren maila batean metalezko materialak nabarmentzen dira. Haien artean, aipagarri dira atzeman ditugun 44 txanponak (28 Erdi Arokoak dira). Kronologiari dagokionean XIX, mendearen hasieratik hasi (Isabel II.a, 1868) eta XII. mendera bitartekoak dira (Alfontso I.a 1104 - 1134). K.o. IV. mendeko txanpon erromatar bat da guztietan aipagarriena.

Multzo hori osatzen dute bertan aurkitutako beste material batzuk, kalibre desberdineko kainoi balak, iltze handiak, gerriko-belarriak, eta abar. Bereziki aipagarria da atzeman dugun urrezko eraztuna, inkripzio laburtu bat erakusten du eraztun horrek patriarka-gurutzeek bereizia.

Azkenik, fauna hondakinak dira material urrienak, haien artean aipagarri dira haragijaleen hondakinak, horiek baitira ugarienak, eta iktiofauna hondakinak hurrena.

### *Konklusioa*

Indusketa honen garrantzia zera da, Aro Modernoko eta Erdi Aroko mailek osaturiko sekuentzia estratigrafiko bat atzeman dugula aldatu gabea, eta maila horietan material arkeologiko ugari azaldu dela Erdi Aroko jatorri argia duten egiturei loturik Donostiako alde zaharra bezalako leku batean, alde honetako zorupeak aldaketa handiak izan baititu historian zehar jasan behar izan dituen sute izugarrien eraginez. Material horren kronologia zehaztu ahal izan dugu aurkitutako txanponei esker.

queológica se exhumó un arco ligeramente apuntado abierto en la parte inferior de este medianil.

Durante la excavación arqueológica se descubrieron dos estructuras de planta cuadrangular, a modo de cubetas, probablemente relacionadas con alguna función de almacenaje. Realizadas en mampostería de caliza se situaban en el extremo W. del solar. Del mismo modo, a una cota de - 2.70 m. se registró otra estructura a base de piedras planas de forma circular que definían un espacio rectangular, de difícil interpretación. Asociada a la misma, apareció una estructura formada por maderas longitudinales totalmente quemadas que podrían responder a una cubierta.

En cuanto a los vestigios materiales, a falta de completar el inventario definitivo, la cerámica es el material arqueológico más abundante, abarcando cronologías desde época contemporánea (cerámica popular vasca, esmaltada, laburdina, etc.), moderna (anforetas, etc.), medieval (cerámica gris, vidriada verde, pintada, etc.) hasta época romana (destacando tanto la sigillata hispánica con una decoración en estilo de metopas aproximadamente del s. I y II d. C. y cerámica común decorada).

En un segundo orden destacan los materiales metálicos. Entre ellos mención especial tienen las 44 monedas halladas (28 de época medieval) de cronologías que abarcan desde principios del s. XIX (Isabel II, 1868) hasta el s. XII (Alfonso I 1104-1134), destacando una moneda romana del s. IV d. C.

Completan este grupo, balas de cañón de distinto calibre, clavos de grandes dimensiones, hebillas, etc. Mención especial tiene la anilla de oro con una inscripción abreviada separada por cruces patadas.

Finalmente, los restos de fauna son los menos numerosos destacando los carnívoros, representados en mayor volumen, seguidos de los restos de ictiofauna.

### *Conclusión*

La importancia de esta excavación radica en el hallazgo de una secuencia estratigráfica inalterada de niveles modernos y medievales con abundante material arqueológico, datado cronológicamente por las monedas halladas, y asociado a estructuras de claro origen medieval en una zona como la parte vieja donostiarra cuyo subsuelo está alterado por los devastadores incendios sufridos a lo largo de su historia.

*Miren Ayerbe, César Fernández Antuña*

### B.3.1.2. Salbatore Parrokia Eliza (Getaria)

Mercedes Urteaga Artigasek zuzendua

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

### B.3.1.2. Iglesia parroquial de San Salvador (Getaria)

Dirigido por M.ª Mercedes Urteaga Artigas.

Subvencionado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

***San Salvador parish church (Getaria). Directed by Mª Mercedes Urteaga Artigas.***

*The archaeological investigation was prompted by the rebuilding work of the church which involved the installation of a new heating system which would affect the archaeological remains conserved in the subsoil, particularly those deposits on the west side.*

*The investigation has uncovered family burials attributable to the XVIII century: a well-built flagstone structure occupying the west half of the temple. Below this a "flag-tomb" grave was found, occupying the same surface area and excavated from a deposit of Roman material.*

*Part of the discovered remains were left open to public view, once the restoration was over.*

Elizan eraberritze obra batzuk egin behar zirela-eta, Jarduera arkeologiko bat bideratu genuen bertan. Berogailu sistema berri baten instalazioa zegoen proiektu horren barnean, eta obrak ukitu egiten zituen zorupean kontserbaturiko hondakin arkeologikoak, mendebaldeko depposituak batez ere.

Ikerketa honek agerian utzi du ehorzleku familiarra, XVIII. mendean datatu daitekeena. Harlanduz eraikitako egitura bat da, ondo landua, eta elizaren Mendebaldeko erdia hartzen du. Egitura horren azpian "hartxabalezko hilobiek" osaturiko nekropoli bat azaldu zen, nekropoli horrek beste egituraren azalera hartzen zuen gutxienez, eta erromatarren garaiko materialen depositu baten gainean induskatu zen.

Aurkitutako hondakinetako batzuk agerian geratuko dira higiezin honetako eraberritze lana amaitu ondoren.

La actuación arqueológica vino motivada por las obras de restauración de la iglesia, en cuyo proyecto se incluía la instalación de un nuevo sistema de calefacción que afectaba a los restos arqueológicos conservados en el subsuelo, especialmente a los depósitos de la zona occidental.

La investigación ha dejado al descubierto los enterramientos familiares, fechable en el siglo XVIII. Se trata e una estructura construida en sillería bien trabajado que ocupa la mitad Oeste del templo. Bajo esta se localizó una necrópolis de "tumbas de laja", que ocupa la misma superficie por lo menos, excavada sobre un depósito con materiales romanos.

Parte de los restos descubiertos quedarán visibles una vez finalizada la restauración del inmueble.

*Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa*

## B.3.2. *ZUNDAKETAK*

### B.3.2.1. Aitzeterdi Baserria (Alkiza)

M.ª José Torrecilla Gorbeak eta Alberto Santana Ezquerrak zuzendua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

Aitzeterdi baserriak interes historiko-artistiko handia du; izan ere, XV. mendearen amaierako landa higiezinen zerrendan (hau da, Euskal Herrian kontserbatu di-

## B.3.2. *SONDEOS*

### B.3.2.1. Caserío Aitzeterdi (Alkiza)

Dirigido por M.ª José Torrecilla Gorbea y Alberto Santana Ezquerra.

Financiado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El caserío Aitzeterdi es un ejemplar de gran interés histórico-artístico, por cuanto reúne una serie de indicios materiales que avalan su inclusión en la nómina

ren mota horretako eraikinen artean) sartzeko aukera ematen duten aztarna material batzuk biltzen ditu. Horrekin batean, esan behar da baserri honek gure egunetaraino iraun duela aldaketa batzuk ezinbestean egin behar izan badira ere, aldaketa horietan, edo eraikina berregokitu da ustiapenerako (XVI. mendearen lehen erdialdean berritu zen) edo eraikina edertu egin dute garaiko gustuaren arabera, egoitza eta apaingarri intereseko elementuak gehituz (errenazimenduko jarduera). Horren guztiaren emaitza, orubearen jabeek edo maizterrek gure herri-arkitekturaren: baserria, nukleo tipikoan eta topikoan gainditutako etapa desberdinen testigantza bere arkitekturan jaso duen multzo bat da. Horrenbestez, Aitzeterdin bideratutako lana gure landa ondarea hobeto ulertu ahal izateko aztarnak aztertu eta egiaztatzeko, eta nagusiki, higiezin honen bilakaera historiko-artistikoa zehazteko proiektu orokor baten barnean dago.

Eraikin honen barnean zehaztu dugun elementurik zaharrena karga-horma edo zeharrean eginiko suhesi baten paramentu gotikoa da, paramentu horrek atzeko hormartea eraikinaren gainekotik bereizten du eta kanpoaldera garbi azaltzen da landutako harrizko kantoi gisa. Horma lodi hau XV-XVI. mendeetan eraikiko zen, aparejuaren kalitatea eta piezak antolatzeko sistema kontuan hartzen baditugu. Hormak ia ez du jarraipenik fabrikaren alboetan, hala ere, harekin lotura izango dute harri naturalean zuzenean bermatzen diren beheko ilaretako batzuk.

Lehen eraikin honen gainean, eraiki eta handik urte gutxira lurra jo izango zuen eraikin honek ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, eraikiko zen 1530 - 1540 urteen artean oinarrian gaur egunera arte iraun duen baserria. Bere zurezko egiturak baserri-dolare tipologiari erantzuten dio, Alberto Santanak ondo definitu eta aztertu zuena. Bertan, higiezinaren egitura orokorra, eta neurriak ere, sagardo prentsa izugarri beten presentziari egokitu zaizkio.

Dolareak edo prentsak simetria ardatza eta baserriaren bi altuerak okupatzen zituen garai hartan. Ia 10 metro luzeko palankaren beso horizontal bat izango zuen, gutxienez 5 metroko altuera izango zuen torloju bertikal baten birari esker mugitzen zena, eta era berean, harrizko kontrapisu batek eutsiko zion edo zurezko urkila edo baraila sendo batek lotuko zuen lurrera, baina hori ezin izan dugu zundaketa arkeologiko honetan definitu mende honen erdialdean eginiko hobi septiko bat zegoelako bertan. Era berean, desagertu egin dira dolarearen gainerako habe elementuak, neurri batean moztuak ageri diren dolarearen bi doikuntza bernia izan ezik. Beste kasu askotan bezala, funtsezko egitura elementuak dira, eta desagertutako dolarearen kokalekua, bere funtzionaltasuna eta aspektu orokorrak zehaztapen handiz jakiteko bide ematen dute.

Kurioski, XVI. mendearen lehen erdialde horretan eraiki zen eraikin handiari osagarri bat eratxikiko zitzaion handik gutxira, eta horrek osatuko zuen gaur egungo baserriaren itxura. Errenazimendu garaian gertatu zen hori osagarri horren apaingarriek adierazten duten bezala: atzealdean eratxikitako gorputz bat zen, galeria irten bikain batek osatua, zurezko armazoia

de inmuebles rurales de fines del XV –es decir, entre los primeros de su género conservados en el País Vasco–, a la par que se perpetuará hasta nuestros días con los cambios imprescindibles que, bien han readecuado el edificio para la explotación (renovación de la primera mitad del XVI) o bien lo han embellecido al gusto de la época, añadiéndole elementos de interés residencial y ornamental (actuación renacentista). Lo que resulta de todo ello es un conjunto que recoge en su propia arquitectura el testimonio de las distintas etapas que los propietarios e inquilinos del solar han superado en el núcleo típico y tópico de nuestra arquitectura vernacular: el caserío. El trabajo desarrollado en Aitzeterdi, por lo tanto, se enmarca dentro de un proyecto general de estudio y contrastación de indicios para la mejor comprensión de nuestro patrimonio rural, y en particular para determinar la evolución histórico-artística de este inmueble.

El elemento más antiguo identificado dentro de él es el paramento gótico de un muro de carga, o cortafuegos transversal, que separa la crujía trasera del resto del edificio y que se manifiesta nítidamente al exterior en forma de esquinazos de piedra labrada. Esta gruesa pared, por la calidad de su aparejo y el sistema de ordenación de las piezas, debió erigirse a caballo entre los siglos XV-XVI. Apenas presenta continuidad en los laterales de la fábrica, si bien deben estar en relación con él algunas de las hiladas bajas de la misma, asentadas directamente en los afloramientos de la roca natural.

Sobre este primitivo edificio, que debió arruinarse a los pocos años de su construcción por causas que desconocemos, se alzaría entre 1530-40 el caserío que, básicamente, perdura hasta la actualidad. Su estructura de carpintería portante responde a la tipología de caserío-lagar, bien definida y estudiada por Alberto Santana. En él, tanto la estructura general del inmueble, como sus dimensiones, obedecen a la presencia de una monumental prensa de sidra.

El lagar o prensa ocupaba entonces el eje de simetría y las dos alturas del caserío. Debió contar con un brazo de palanca horizontal de casi 10 m. de largo, accionado gracias al giro de un tornillo vertical de unos 5 m. de altura como mínimo, que a su vez debía lastrarse mediante un gran contrapeso de piedra o sujetarse a tierra con una gruesa horquilla o mordaza de madera, extremo éste que el sondeo arqueológico no ha podido definir al coincidir con la presencia de un pozo séptico realizado a mediados de este siglo. Igualmente, el resto de los elementos del lagar de viga han desaparecido, salvo dos bernias de reglaje del lagar, parcialmente mutiladas. Como en otros muchos casos, son elementos estructurales esenciales que permiten conjeturar, con mucha precisión la ubicación exacta de lo ya desaparecido, su funcionalidad y aspectos generales.

Curiosamente, el notable edificio erigido en esa primera mitad del S.XVI, conocerá muy poco tiempo después un adosamiento que completará la imagen formal del caserío actual. Se produjo en época renacentista, como lo delata la filiación ornamental del añadido: un cuerpo zaguero adosado que se resuelve en una excepcional galería volada, construida con entra-

zuen eta kanpoaldera irekia zegoen material bereko sei bao konopialen bidez. Elementu horrek, zalantzarik gabe, espero ez genuen egoitza kultuaren izaera ematen dio, hasiera batean landa eta nekazal etxea baizik ez den eraikuntza honi, eta hertsiki horren paralelismorik edo antzeko beste eraikuntzarik ez dugu.

Definitu dugun itxura formal eta funtzional horren ondoren, Aitzeterdin ez zen berritze lan handirik egin XVIII. mendera arte, mende horretan erabat berritu zen ordurarte fatxada nagusia izan zena –ezustean lurra joko zuen?–, eta goitik behera aldatu zen kargarako arranpala edo mandio zubi bat erantsi zitzaionean, material-mugimendu handiak egin eta lur-betegarriak egokitu baitziren. Une horretan bertan, gainera, baoetako asko eta ikuilurako sarrera berritu ziren, eta errenazimenduko galeriaren azpian zegoen aterpe edo apiriko arkupeduneko baoak itxi ziren.

Mende honen erdialdean bideratu zen azken interbentzio historikoa. Interbentzio horretan jatorrizko zurezko egitura zaharraren pieza batzuk aldatu ziren edo besterik gabe kendu ziren, estalkiko zinbriak, zutoin batzuk eta dolareko zura barne.

Agerian geratu zen estratigrafiaren azterketa lana Alberto Santanaren kargu egon da eta horixe izan da lanik handiena. Txostenean jasotako datuak egiaztatzeko eta zabaltzeko tresna gisa hartu genuen indusketaren baliabidea. Hain zuzen ere, bere antzinatasuna, zorupea oso gutxi aldatua zegoela adierazten zuten aztarnak, Urbian miaturiko aldaera antropikoekin forma aldetik zuen antza eta Igartubeitin lortutako emaitzak ikusita, hartu genuen proiektuan jasotzeko erabakia.

Agerian geratu zen estratigrafiari edo indusketari dagokionean, emaitzak prestatze prozesuan daude, baina dagoeneko egiaztatu ditugun ezaugarriak baieztatzen dituzte. Halaz ere, enklabe honen erabilera bizileku gisa kronologian atzera eramateko aukerak oraingoz ez dira baieztatu, ez barnealdean ez inguruan eginiko bi katetan (kata horietan aurkitutako materialek XVI.-XVII. mendeez gerozko datak adierazten dituztela dirudi). Nolanahi ere, barnealdeko zoruaren azterketa osatzen duten beste datu batzuk egiaztatu ditugu, barnealde horretan azaleratzen zen karstaldeak ia ez zuen egokitzerik izan XIX. mendearen amaiera - XX. mendearen lehen erdialdera arte. Data horien inguruan egingo ziren, hala sumatu ditugun lurra berdintzeko saioak, nola azaleratzeetako bat lehertzeko ahalegina, ikuiluaren hondo haretsuaren beheratzea azalera berdinago eta horizontalago bat lotzeko eta eremu ibilienak estaltzen dituen azaleko herri-harzola landu gabea.

mado de madera y abierta al exterior con seis vanos conopiales del mismo material. Un elemento, sin duda, que añade un inesperado carácter de residencia culta a una construcción, en principio, meramente rural y agropecuaria y para la que, estrictamente, no contamos con ningún paralelismo o ejemplar similar.

Aitzeterdi, definida ya su apariencia formal y funcional, no sufrirá reformas de importancia hasta que, ya a fines del XVIII, se rehaga íntegramente lo que, hasta esa fecha, fue la fachada principal –arruinamiento fortuito?– y se alterará por completo al añadirle una rampa de carga de pajar o mandio zubia, con gran movimiento de materiales y tierra de relleno. En ese mismo momento, además, se reformarán muchos de los vanos y el acceso a la cuadra, y se cierran los bajos de la socarreña o zaguán porticado existente bajo la galería renacentista.

A mediados del presente siglo se produjo una última intervención histórica, que ha supuesto la sustitución o simple eliminación de muchas de las piezas de la vieja estructura de carpintería original, incluidas las cerchas de cubierta, algunos postes y el maderamen del lagar.

El resultado del estudio de estratigrafía emergente, a cargo de Alberto Santana, compone el grueso del trabajo, contemplándose el recurso a la excavación como un instrumento tanto de comprobación como de ampliación de los datos del informe. Fue precisamente su antigüedad y los indicios de la poca alteración del subsuelo, unido a las similitudes formales con alteraciones antrópicas prospectadas en Urbia y los resultados obtenidos en Igartubeiti, lo que aconsejó su inclusión en el proyecto.

En lo que a la exhumación estratigráfica o excavación se refiere, los resultados están en proceso de elaboración, si bien vienen a confirmar las características ya descritas, aunque las expectativas de retrotraer cronológicamente la utilización del enclave para habitación humana, por el momento no se han visto confirmadas, ni en el interior ni en las dos catas realizadas en el entorno (cuyos materiales parecen indicar fechas posteriores al XVI-XVII). En cualquier caso se han constatado algunos otros datos que completan el estudio del suelo interno, en el que los afloramientos del lapiaz habían recibido hasta fines del XIX-primera mitad del XX, una casi nula adecuación. En torno a esas fechas situamos tanto los intentos de regularización descubiertos, como la pretendida voladura de uno de los afloramientos, el rebajamiento del fondo arcilloso de la cuadra para obtener una superficie más regular y horizontal y el somero y basto empedrado popular que cubre las zonas más transitadas.

*M.ª José Torrecilla Gorbea, Alberto Santana Ezquerra*

### B.3.2.2. Santifer orubea (Irun)

Mercedes Urteaga Artigasek zuzendua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

### B.3.2.2. Solar Santifer (Irún)

Dirigido por M.ª Mercedes Urteaga Artigas.

Financiada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Santifer Site (Irun). Directed by M.ª Mercedes Urteaga Artigas. An archaeological project within Irun's Archaeological Interest Zone investigation programme. The site is located in the Santiago street area where, in 1992, remains of the harbour infrastructure of Oiasso were discovered.*

*Before the building work started surveys to assess the archaeological depth of the site were carried out. The results were negative from an archaeological point of view.*

Irunen Interes Arkeologikoa duen Eremuaren ikerketarako programaren barnean sartu genuen interbentzio arkeologiko hau. Orube hau Santiago kaleraren inguruetan dago, eta 1992. urtean Oiassoko portu azpiegituraren hondakinak atzeman genituen kale horretan.

Obrak hasi baino lehen zundaketa batzuk egin genituen orubearen potentzia arkeologikoa baloratu ahal izateko. Arkeologiaren ikuspegiaren aldetik emaitzak negatiboak izan ziren.

Intervención arqueológica encuadrada en el programa de investigación de la Zona de Interés Arqueológico de Irún. El solar está situado en el entorno de la C/ Santiago, donde en 1992 se descubrieron restos de la infraestructura portuaria de Oiasso.

Antes del inicio de las obras se realizaron sondeos de valoración del potencia arqueológico del solar. Desde el punto de vista arqueológico los resultados fueron negativos.

*Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa*

### B.3.2.3. Mendikokale, 10 - 12 (Oñati)

Eloisa Uribarrik zuzendua.

Promociones BEREZANO, S.A. elkarteak finantzatua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

### B.3.2.3. Mendikokale, 10-12 (Oñati)

Dirigida por Eloísa Uríbarri.

Financiada por Promociones BEREZANO, S.A.

Subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*10 - 12, Mendikokale (Oñati). Directed by Eloísa Uríbarri. Between 13 and 24 May 1996 a total of four archaeological surveys at N.º 10 and 12 Mendikokale in Oñati were carried out, reflecting the compartmentalisation of both buildings. The results do not present either features or structures prior to the Contemporary Age (end of the XVIII - beginning of the XIX centuries) as rebuilding in both buildings in their latest stage of occupation has done away with any vestiges that may have existed.*

1996ko maiatzaren 13tik 24ra lau zundaketa arkeologiko egin genituen guztira Oñatiko Mendikokale kaleko 10. eta 12. zenbakietan, bi eraikuntza unitate horiek erakusten zuten banaketa kontuan harturik betiere. Bideratu genituen lanen emaitzek ez ziguten Gure Garaia baino lehenagoko materialik eta egiturarik eskaini; izan ere, bi eraikin horiek azken okupazio fasean jasan dituzten eraberritze lanek desagertarazi dituzte bertan egon zitezkeen aztarna guztiak.

Entre los días 13 y 24 de mayo de 1996 se han efectuado un total de cuatro sondeos arqueológicos en los números 10 y 12 de Mendikokale de Oñati atendiendo a la compartimentación que presentaban ambas unidades edificatorias. Los resultados de los trabajos llevados a cabo no aportaron materiales ni estructuras anteriores a la Edad Contemporánea, ya que las remodelaciones sufridas por ambos edificios en su última fase de ocupación han hecho desaparecer los vestigios que pudieran contener.

*Eloísa Uríbarri Agirrebengoa*

## B.3.2.4. Kale Nagusia, 17. Iturriaga Etxea (Orio)

Alfredo Morazak zuzendua.

Hermanos Zelaya Larrañagak subentzionatua.

## B.3.2.4. Kale Nagusia, 17. Casa Iturriaga (Orio)

Dirigida por Alfredo Moraza.

Subvencionada por Hermanos Zelaya Larrañaga.

*__17, High Street, Casa Iturriaga (Orio). Directed by Alfredo Moraza.__ N.º 17 in the High Street is a terraced building in the Old Historic Quarter of the seafaring village of Orio, founded in the second half of the XIV century. The investigation was prompted by the rebuilding work started in the house, three surveys inside the building and a stratigraphic reading of the existing wall structure being carried out. The result of the investigation have identified the remains of an isolated building with a slight separation (0.60 m.) from the adjoining houses which, at the end of XV and beginning of the XVI centuries, approximately, underwent considerable alterations which subsumed the adjacent lands and a part of the street, becoming an example of a simple Renaissance palace.*

Kale Nagusiko 17. orubean, Iturriaga Jauregia izenaz ere ezagutzen da eraikin hori, interbentzio arkeologiko bat bideratu genuen jabeek eraikinean eraberritzen lan batzuk egin behar zituztela-eta etxebizitza gisa kontserbatu ahal izateko. Uztailaren 28ko 338/1994 Dekretuak ukitzen zuen eraikina. Dekretu horrek Kultur Ondasun aldarrikatu zuen Orioko Hirigune Historikoa eta Multzo Monumental kategoria eman zion. Dekretu horren arabera, kasu honetan edozein aldaketa egitea debekatua zegoen eraikinaren bolumetria osaketa eta bere lerrokadurak ukitu behar baziren.

Egungo Orioko hiriguneko alde altuenean dago orube hau, Hirigune Historikoaren barnean, eta leku pribilegiatua okupatzen du hirigune horren barnean, bere bi kale nagusien, Kale Nagusia edo Donostiara zihoan errepide zaharra eta Urdaire Kalea, Usurbilera eta Lasartera zihoana, bidegurutzean baitago justu. Puntu horretan plazatxo bat eratzen du eta horrek handiagotu egiten du bertan kokatzen diren eraikinen dotorezia.

Jarduera arkeologikorako plana bi fase osagarritan oinarritu zen nagusiki, alde batetik, zundaketa arkeologikoak egin genituen, eta bestetik, agerian zeuden egituren irakurketa estratigrafikoa bideratu genuen. Interbentzio honetan lortu genituen datuak artxibo eta zentru dokumental desberdinetan (Donostiako eta Iruñeako Diozesiarrak, Herrialdeko Artxibo Historikoa, Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Udal Artxiboa, eta abar) eginiko kontsulten bidez lortutakoekin egiaztatu genituen.

La intervención arqueológica efectuada en el solar de Kale Nagusia 17, conocido también bajo la denominación de Palacio Iturriaga, estuvo originada en las labores de rehabilitación del edificio abordadas por sus propietarios con el fin de su conversión en vivienda. El edificio estaba afectado por el Decreto 338/1994, de 28 de julio, por el que se declaraba su Casco Histórico como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental, estableciéndose para este presente caso la prohibición de cualquier alteración de su configuración volumétrica y de sus alineaciones).

Este solar se localiza en la parte alta del actual núcleo urbano de Orio, dentro de su Casco Histórico, ocupando un lugar privilegiado dentro de este último, justo en la intersección entre dos de sus arterias principales, Kale Nagusia, o antigua vía que le comunicaba con San Sebastián, y Urdaire Kalea, que llevaba hacia Usurbil y Lasarte, formando en ese punto una pequeña plazoleta que realza la elegancia de los edificios situados en ella.

El plan de actuación arqueológica se llevó a cabo básicamente en dos fases complementarias, por un lado la ejecución de los sondeos arqueológicos y del otro la lectura estratigráfica de las estructuras emergentes. Cuyos datos se contrastaron, por su parte, con los obtenidos a través de la consulta efectuada en diversos archivos y centros documentales (Diocesanos de San Sebastián y Pamplona, Histórico Provincial, General de Gipuzkoa, Municipal, etc.).

### *Zundaketa Arkeologikoak*

Zundaketa arkeologiko desberdinak, hiru izan ziren guztira, Harris kontestuen araberako erregistro estratigrafikorako sistemari jarraiki bideratu genituen, eta zegozkien argazki eta planimetria erreportaien bidez osatu genituen.

#### *1. Zundaketa*

Eraikinaren Ipar-ekialdeko muturrean, 19. etxetik bereizten duen mehelinaren hormatalaren ondoan, justu fabriketan desberdintasun argia nabari zen puntuan egin genuen 1. zundaketa. Interbentzio honetan unita-

### *Sondeos Arqueológicos*

La ejecución de los diferentes sondeos arqueológicos, en número de tres, se llevó a cabo siguiendo el sistema de registro estratigráfico por contextos Harris, complementado con sus correspondientes reportajes fotográfico y planimétrico.

#### *Sondeo n.º 1*

El sondeo número 1 se situó en el extremo Noreste del edificio, pegante al lienzo de muro medianil con la casa n.º 19, justo en el punto donde se observaba una clara diferencia de las fábricas. En la intervención

te estratigrafiko batzuk bereizi ahal izan genituen, gaineko mailak (101-102 U.E.) jatorrian bere gainean egokitu zen eta eraikina hondeatu zenean altxatu zen oholtza batentzako prestaturiko zoru antzeko batekoak izango siren seguraski. Eraikinaren azken erabilera fasearekin lotuko genuke lan hori. Gaineko maila horien azpian etxearen barneko hustubidea edo euri-urak jasotzeko kanal arrunt baten hondakinak egiaztatu genituen, kanal horren bidez eraikuntzaren kanpoaldera (103 U.E.) irteten ziren berriro urak lur naturalaren berezko maldaz baliaturik (104. U.E.).

Interesgarria da egiaztatzea azaldutako egiturak baino garrantzitsuagoak izango direla beharbada oraindik egiaztatu ez ditugunak. Mehelinean sumaturiko paramentu desberdintasun garbiek pentsarazten ziguten, edo gutxienez suposatzen genuen, paramentu horiek luzapen edo antzeko bat izan zezaketela Mendebalderantz. Zundaketak garbi erakutsi zuen bi eraikuntza errealitate desberdin zeudela, alde batetik, mehelinarena, eta bestetik, orubearen barnealdekoa, biak erlazionaturik egon arren ez baitzeuden zuzenean lotuak. Aspektu hauek luzeago landuko ditugu sektore honetako irakurketa estratigrafikoa aztertzerakoan.

*2. Zundaketa*

2. zundaketa etxearen Hego-Mendebaldeko angeluan bideratu genuen, 15. etxetik bereizten duen mehelinaren ondoan. Zundaketaren neurriak bi metro karratu izan ziren hasieran, eta geroago beste metro karratu bat zabaldu genuen fatxada nagusiaren eta mehelinaren elkargunera iritsi ginen arte. Kronologia aldetik berrienak ziren mailak, hormigoizko zolarria (201. U.E.) eta betegarria (202. U.E.) altxatu ondoren, 0,60 metro zabaleko horma bat zegoela egiaztatu genuen luzeran kataren norabide berean, I-H norabidea zuen gutxi gora behera eta egungo mehelinaren paraleloan luzatzen zen baina hura ukitu gabe. Mehelinaren ondoan beste horma baten hasiera sumatu genuen, egungo fatxadaren paraleloan luzatzen zen horma hori eta mehelinaren azpian sartzen zen. Hareharrizko blokeez eginiko bi ilara zituen horma horrek, itxuraz landu gabeak ziren, eta barnealdeko esparrua harri puska txiki batzuek osatzen zuten oso kareore trinko batez nahasiak. Horma hau zoru naturalaren (209. U.E.) gainean oinarritzen da zuzenean, eta 0,44 metroko garapena du bertikalean. Eraikinaren barnealdean ere maila desberdinak egiaztatu genituen, elkarren artean oso antzekoak, eta maila horietan era askotako material arkeologikoa atzeman genuen. Material horien kronologia erlatiboa nahikoa modernoa zen, eta eraikuntza okupatzen zuten biztanleek garaturiko jarduerarekin lotura zuzena izango zuten.

Zundaketa honen bidez lortutako datuek informazio garrantzitsuak eskaintzen dizkigute orube honetan izandako eraldaketei buruz. Daturik garrantzitsuena gaineko maila batek ixten zuen jatorrizko mehelin horren presentzia da. Mehelin hori XVIII. mendearen bigarren erdialdean datatu ahal izan dugu bertan aurkitu genuen txanponari esker, eta dataketa hori bera izango dute, halaber, atzeman ditugun gainerako material arkeologikoek, nagusiki zeramikak. Argi nabari da ha-

se pudieron distinguir una serie de unidades estratigráficas, donde sus niveles superiores (U.E. 101-102) pertenecen casi con toda certeza a una especie suelo de preparación para el tablamento dispuesto originalmente encima suyo y levantado durante el vaciado del edificio. Labor relacionada con las últimas fases de ocupación del edificio. Por debajo de los mismos se pudo constatar los restos de un sencillo canal de desagüe interno de la casa o de recogida de las aguas pluviales que las reconducía hacia el exterior de la edificación (U.E. 103), aprovechándose de la propia pendiente natural del terreno natural (U.E. 104).

Resulta interesante comprobar que más que las estructuras aparecidas, sean quizás más relevantes las que no se han podido constatar. Las claras diferencias de paramento observadas en el muro medianil hacían pensar, o al menos presuponer, que las mismas pudieran haber tenido una especie de prolongación o similar hacia el Oeste. El sondeo dejó patente la existencia de dos realidades constructivas distintas, por una lado la del mencionado medianil y por otro la del interior del solar, estando ambas relacionadas pero no directamente enlazadas; Aspectos éstos sobre los que incidiremos más largamente a la hora de tratar la lectura estratigráfica de ese sector.

*Sondeo n.º 2*

El Sondeo número 2 se ubicó en ángulo Suroeste de la casa, pegante al muro medianil con la casa n.º 15. Las dimensiones iniciales del mismo serán de dos metros cuadrados, ampliándose posteriormente en otro metro cuadrado más hasta alcanzar la intersección entre la fachada principal y el muro medianil. Levantados los niveles cronológicamente más recientes, solera de hormigón (U.E. 201) y relleno (U.E. 202), se pudo constatar la presencia de un muro de 0,60 metros de anchura dispuesto longitudinalmente al sentido de la cata, con una dirección aproximada N.-S., que discurría paralelo pero no en contacto con el actual medianil, junto al que se percibía el arranque de otro paralelo a la actual fachada bajo la cual se introducía. El mismo estaba formado por una doble alineación de bloques de arenisca, aparentemente no labrados, con el espacio interno formado por pequeños fragmentos pétreos amalgamados con una argamasa muy compacta. Este muro se apoyaba directamente sobre el suelo natural (U.E. 209), contando con un desarrollo vertical de 0’44 metros. En la parte interior del edifico se constataron asimismo distintos niveles muy semejantes entre si conteniendo diverso material arqueológico de una cronología relativa bastante moderna y que pueden estar directamente relacionados con la propia actividad desarrollada por los moradores de la edificación.

Los datos ofrecidos por este sondeo aportan importantes informaciones sobre las transformaciones operadas en este solar, en el que el dato más significativos es la presencia de ese primitivo muro medianil sellado por otro nivel superior, datado gracias a la moneda localizada en él en la segunda mitad del siglo XVIII, datación que podría perfectamente corresponderse con el resto de materiales arqueológicos registrados, fundamentalmente cerámicos. Evidenciando la

sierako orubeak zabaltze prozesu bat izan zuela bai luzeran bai zeharrean, eta horrek aurreko egiturak suntsitu zituen.

### 3. Zundaketa

3. Zundaketa, bigarrena bezala, etxearen Mendebaldeko hormatalean bideratu genuen, baina aurrekoak baino neurri zertxobait txikiagoak zituen (0,80 bider 0,50 metro). Zundaketa honen bidez 2. Zundaketan aurkitutako hondakinak, eta bereziki, mehelinak luzapenik ote zuen egiaztatu nahi genuen. Hala bada, hormigoizko zolarriaren (301. U.E.) eta betegarri-maila edo lurraren maila berdindu baten (302. U.E.) azpian landu gabeko harriz eginiko horma baten hondakinak (303. U.E.) atzeman genituen. Harrizko bloke handiek osatzen zuten horma hori, 0,65 metroko zabalera zuen gutxi gora behera, eta neurri batean izkutatua zegoen mehelinaren zokaloaren (304. U.E.) azpian. Dituen neurri txikiek ez dute biderik ematen zundaketa honetan

existencia de un proceso de ampliación del primitivo solar tanto longitudinal como transversalmente, arrasando las estructuras previas.

### Sondeo n.º 3

El Sondeo número 3 se ubicó como el anterior también pegante al lienzo Oeste de la casa con unas dimensiones sensiblemente más reducidas (0’80 por 0’50 metros), destinado a certificar si los restos descubiertos en el Sondeo n.º 2, y en especial ese muro medianil, tenían su prolongación. De este modo y bajo la solera de hormigón (U.E. 301) y un nivel de relleno o nivelación del terreno (U.E. 302) se localizaron los restos de un muro de mampostería (U.E. 303) formado por grandes bloque pétreos, con una anchura aproximada de 0’65 metros que se encontraba parcialmente oculto bajo el zócalo del medianil (U.E. 304). Lo reducido de sus dimensiones no permite afirmar con absoluta certeza que los restos localizados en es-



Kale Nagusia, 17. Iturriaga Etxea (Orio). 2. Zundaketaren ikuspegi orokorra. Jatorrizko mehelina (204. U.E.).

Kale Nagusia, 17. Casa Iturriaga (Orio). Perspectiva general del Sondeo n.º 2. Muro medianil primitivo (U.E. 204).

aurkitutako hondakinak 2. zundaketan deskribaturikoei dagozkiela ziurtasun osoz baieztatzeko, jatorrizko mehelinari dagokionean bezeziki, baina egituran ageri duen antza ikusita hori baieztatu daitekeela uste dugu.

### *Agerian geratutako U.E.-en irakurketa estratigrafikoa*

Jarduera arkeologikorako planak bi azterketa diszi-plina zehazten zituen aldez aurretik, alde batetik, zundaketak egitea, eta bestalde, azaleratutako egituren irakurketa xehea bideratzea. Bi disziplina horiek batera eginez gero behin baino gehiagotan ikusi dugu oso tresna baliagarria dela gertaera arkeologikoa ulertu eta interpretatzeko garaian, interbentzio honetan gertatu den bezala.

Estratigrafiaren irakurketa kanpoaldeko bi fatxadetan oinarritu zen nagusiki, eta barnealdeko hormetan ere datu esanguratsu batzuk bildu genituen, barnealdean lan hori egiteko eraikina osorik hondeatu arte itxaron behar izan bagenuen ere. Metodologiari dagokionean, elementu bakoitzari zenbaki partikular bat eman genion, unitate estratigrafikoa deitua, eta bakoitzaren deskripzio xehea egin genuen. Osagarri gisa eta ikuspegi globala errazteko xedean bi fatxada nagusien planoak egin genituen, eta elementu esanguratsuenen argazkiak ere egin genituen.

Mehelinen artean kokaturiko eraikinak oin trapezoidal samarra ageri du gaur egun, aurrealdeko fatxadan baino pixka bat zabalagoa atzealdekoan, aurretik atzera zabaltzen baitoa arian-arian (8,66 metro Kale Nagusian eta 9,30 metro Ikastetxean), eta 12,05 metro inguruko luzera du. Oin hori ikustezin bihurtzen da gainera atzealdeko fatxada horretan osagarri berezi bat dagoelako eratxikia, komunaren funtzioak beteko zituena seguraski. Estalkia hiru isurialdekoa da, eta erdiko gailurra fatxada nagusiaren paraleloan egokitua du, atzealdeko erdia, berriz, bi isurialdeko beste teilatu batean banatzen da, baina oraingo honek atzealdeko fatxadaren perpendikularrean ageri du gailurra.

Azterturiko lau fatxada horietako bakoitzaren irakurketari dagokionean, kanpoaldeko bi fatxada eta bi mehelin izan dira, xehetasun gehiegitan sartu gabe saiatuko gara lortutako datuen laburpen bat egiten. Oraingoz oso zaila da orube honen hasierako okupazioa noiz izan zen zehaztea, zoru azpian bideratutako interbentzio arkeologikoak ez baitigu nahikoa datu eskaini okupazio horren ezaugarriak definitzeko. Aztarna horien arabera, gaur egun kontserbaturiko hondakinik zaharrena 17. orube hau 19.etik bereizten duen egungo mehelina (601. U.E.) izan daitekeela dirudi. Gaur egungo eraikuntzako harri angeluar gisa kontserbatu da mehelin hori aldameneko eraikuntzari zegokion eta orain aztertzen ari garena okupatu gabe zegoela edo gutxienez hutsik zegoen aldi batean egingo zen. Muga egiten zuen eraikin horrek gaur egungoak baino neurri txikixeagoak izango zituen (bi heren gutxi gora behera). Bere dataketa zehazteko orduan arazo handiak sortzen zaizkigu, baina erabili zen fabrika mota kontuan hartzen badugu, teknika mailan apareju gotiko gisa

te sondeo se correspondan con los ya descritos en el n.º 2, en especial a lo que al primitivo muro medianil se refiere, pero similitudes en cuanto su factura así apetece confirmarlo.

### *Lectura estratigráfica de las UU.EE. emergentes*

El plan de actuación arqueológica establecía a priori dos disciplinas de estudio, la ejecución de los sondeos y por otro lado la lectura detallada de las estructuras emergentes. Ambas disciplinas combinadas se han demostrado en múltiples ocasiones como un valioso instrumento a la hora de comprender e interpretar el hecho arqueológico, tal y como ha ocurrido en esta presente intervención.

La lectura estratigráfica se centró fundamentalmente en las dos fachadas exteriores, tomándose también algunos datos significativos en las interiores, aunque para ello hubo de esperar a un vaciado completo del edificio para poder abordar la misma. Metodológicamente a cada elemento se le concedió una numeración particular denominada unidad estratigráfica con su correspondiente y detallada descripción. De un modo complementario y para facilitar su visión global se efectuó un levantamiento planimétrico de cada una de las dos fachadas principales, acompañado en los elementos más significativos con su correspondiente reportaje fotográfico.

El edificio, situado entre medianeras, presenta en la actualidad una planta ligeramente trapezoidal, algo más ancha por su fachada trasera que por la principal al abrirse paulatinamente (8'66 metros en Kale Nagusia por 9'30 en el Colegio), siendo su longitud aproximada de cerca de 12'05. Esa planta queda además desdibujada debido a la existencia en esa fachada trasera de un curioso anexo que ha tenido las funciones de excusado. La cubierta, por su parte, será a tres aguas, con el caballete central dispuesto paralelo a la fachada principal, mientras que la mitad trasera se subdivide a su vez en un nuevo tejado a dos aguas, pero esta vez con el caballete perpendicular a la fachada trasera.

Sin entrar en excesivo detalle respecto a la lectura detallada de cada una de las cuatro fachadas analizadas, dos exteriores y dos medianeras, vamos a intentar hacer una síntesis de los datos obtenidos. Resulta por el momento muy difícil establecer el momento inicial de ocupación de este solar, ya que la intervención arqueológica efectuada en el subsuelo no ha arrojado los datos suficientes que permitan definir las características de la misma. En función de esos indicios parece quedar patente que el más antiguo de los restos actualmente conservados pudo bien ser el actual muro medianil con el n.º 19 (U.E. 601), a modo de piedra angular de la edificación que hoy contemplamos, perteneciente a la edificación adyacente y ejecutado cuando el presente no se encontraba ocupado o por lo menos temporalmente vacío. Ese edificio frontero contaba con unas dimensiones ligeramente inferiores a las actuales (dos terceras partes aproximadamente). Su datación plantea mayores problemas, pero a juzgar por el tipo de fábrica con la que está ejecutado, el co-

ezagutzen da, XVI. mendea baino lehenagoko une batean kokatuko genuke gutxi gora behera, zehaztapen gehiago ezin eman badugu ere.

Horrekin batean, baina ez derrigorrez garai berean, Kale Nagusia 17ko egungo orubean eraikin bat altxa zela egiaztatu dugu dagoeneako. Eraikuntza horren hondakinak agerian utzi genituen jadanik zundaketak bideratu genituenean, aipaturiko mehelin horrekin (204. U.E.) eta fatxada nagusian zehar dagokion luzapenarekin batean. Gaur egun egiaztatzen denaren aurretik beste zatiketa bat egon zela adierazten du eraikuntza horrek. Zatiketa hura ez zetorren bat jauregiaren gaur egungo fatxadarekin, aurreratuagoa eta estuagoa baita hau, ezta 15. orubetik bereizten duen mehelinarekin ere, metro erdi bat Ekialderago baitago orain. Aurrekoan gertatu den bezala, eraikuntza honen kronologia posiblea ere inkognika bat da, eta bi elementuak garaikideak izateko aukera hor badago ere, fabrikan nabari diren desberdintasunek ez dute aukera hori batere indartzen.

Nolanahi ere, aztarna guztiek adierazten dutenaren arabera, nahikoa antzinako une batean orube hau erabat zehaztua zegoen dagoeneko mugei dagokienean, kronologia aldetik zehaztapenik ezin egin badugu ere, baina horrek ez du derrigorrez esan nahi garai hartan okupatu zenik. Orioko hiri fenomenoaren azterketa

nocido técnicamente como aparejo gótico, ésta puede situarse aproximadamente en un momento anterior al siglo XVI, sin mayores especificaciones.

Paralelamente, aunque no necesariamente de una manera coetánea, se constata ya el levantamiento en el solar actual de Kale Nagusia 17 de una edificación. Los restos de esta construcción quedaron ya al descubierto durante la ejecución de los sondeos, con el señalado muro medianil (U.E. 204) y su correspondiente prolongación por la fachada principal. Esta edificación apunta a una lotización previa a la hoy constatable, no correspondiéndose con la actual fachada del palacio, más adelantada y estrecha, ni con el muro medianil con el n.º 15, al situarse medio metro más hacia el Este. Al igual que el anterior su posible cronología es toda una incógnita, pudiéndose barajar la posibilidad que establezca una relación de coetaneidad entre ambos elementos, aunque las diferencias de fábrica no parece encaminarnos por esa opción.

Sea como fuere todo parece indicar que el presente solar aparece ya desde un momento relativamente antiguo, aunque sin precisiones cronológicas, perfectamente delimitado en cuanto a sus límites se corresponde, sin que ello conlleve necesariamente la ocupación del mismo. La detallada observación del fe-




Kale Nagusia, 17. Iturriaga Etxea (Orio). Fatxada nagusiaren irakurketa estratigrafikoa.

Kale Nagusia, 17. Casa Iturriaga (Orio). Lectura estratigráfica de la fachada principal.

xeheak bide ematen du eraikuntza zahar hori berreraiki zelako hipotesia kontuan hartzeko, baina lehen esan dugun bezala eraikin horrek ez du derrigorrez jatorrizkoa izan beharrik. Hipotesi horren arabera, eraikin bakan baten aurrean egongo ginateke, hau da, eraikin horren alboetako hormek ez dute loturarik aldameneko eraikinetako hormekin, gutxi gora behera metro eta erdiko espazio libre txiki batek bereizten baitzituen. Espazio hori ez zen pertsonentzako igarobidea, argia sartzeko baizik, eta horrenbestez, aireztapena eta uren isurketa bideratzeko. Honen antzeko adibide batzuk egiaztatu ditugu Orioko *villako* eta Gipuzkoako lurraldeko puntu desberdinetan, eta horrek argitu eta arrazoituko luke 19. eraikinaren akabera eta 15. eraikinetik bereizten duen mehelinaren lekualdaketa. Azterketa horien guztien ondoren lortuko genukeen irudiak etxebizitza hori berreraikitzeko bide emango liguke, beheko oina harlanduan egina izango zuen, sarrerak nolabaiteko kalitatea izango zuen, dobela batez erremataturiko erdi puntuko arku batek osatzen zuen sarrera hori, eta armarria ere bazuen. Goiko solairuak landu gabeko harrizko horma arrunt batzuez egingo ziren, zurezko egituraren bat izango zuten eta seguraski harlandu edo antzeko batek inguratuko zituen baoak. Ondorio horiek atera daitezke etxe honetatik hurbil dauden beste adibide batzuei esker (ikus kale honetako 12. etxea), baina batez ere, gaur egungo atzealdeko fatxadarekin (501. - 504. U.E.) forma aldetik antza handiak dituela egiaztatu delako. Horrek guztiak garai berean eraikiko zirela pentsarazten digu.

Forma aldetik etxearen bilakaerak eraldaketa nabarmena izango zuen geroago, eskuetan ditugun datu historikoen arabera, aldaketa hori XVI. mendearen lehen erdialde inguruan gertatuko zen. Aldaketa hori zera izan zen batez ere, eraikinak zituen lehen mugak nabarmen zabaldu zirela, bai azaleran bai altueran. Horren ondorioz, fatxada nagusia aurreratu egin zen kale aldera eta 15. eta 17. eraikinen artean irekitako espazio librera (argia sartzeko), eta kale zatia eta espazio libre hori orube honen barnean geratu ziren. Ez dakigu zer gertatu zen beste mehelinarekin. Zabaltze hori egiteko lehen eraikinaren eraikuntza hondakinak ahalik eta gehien aprobetxatu zirela dirudi, batez ere, sarrerako baoa (402. U.E.) eta haren ondoan zegoen lehioa (415. U.E.), eta baita harlandu gehienak ere. Horrek arrazoituko lituzte beheko oineko hormetan eta goiko solairuetako hormetan pikatuan dauden aldeak; izan ere, behe oin horretan bi pikatu motak ageri dira nahasian eta lehenengoan eta bigarrenean, berriz, pikatu mota bakar bat baino ez da erabili. Ingenieritzaren ikuspegiaren aldetik, lan zail samarra izateaz gainera, bereziki aipatzekoa da iruzur eginez espazio publikoa nola okupatu zen probetxamendu partikularrerako. Halaz ere, horrek ez gaitu asko harritu behar, gauza bera dokumentatu baita sarritan lurraldeko Erdi Aroko herriguneetan, eta hori berresten da Orioko *villako* leinu nagusietako baten aurrean gaudelako, leinu horiek aginpide guztiak kontrolatzen zituztenez, haien aldetik ere nolabaiteko laguntza izaten baitzuten. Altueran ere oin bat gehiago erantsi zitzaion eraikinari, hori nabariagoa zen atzealdeko fatxadan (514. U.E.) aurrekoan baino. Aurreko fatxadan oin hori erabat berreraiki zela dirudi eta

nómeno urbano oriotarra permite apuntar una posible hipótesis de reconstrucción de esa antigua edificación, que como hemos dicho anteriormente no tiene que ser necesariamente la original, y según la cual nos encontraríamos ante un edificio aislado, es decir cuyos muros laterales no llegan a contactar con los de las edificaciones contiguas sino que se encuentran separados por un pequeño espacio libre, aproximadamente medio metro, el cual no está destinado al paso de personas sino a modo de servidumbre de luz y destinado por tanto a favorecer la ventilación y el vertido de aguas. Ejemplos semejantes se han podido certificar en diferentes puntos de la villa de Orio y del territorio guipuzcoano, ello explicaría el acabado del edificio n.º 19 y el desplazamiento del medianil con el n.º 15 verificado. La imagen resultante nos permitiría efectuar la reconstrucción de esa vivienda con su planta inferior labrada con sillería y un acceso de cierta calidad con arco de medio punto rematado por una dovela con escudo. Los pisos superiores pudieron haberse ejecutado a base de un sencillo muro de mampostería con algún tipo de entramado de madera y muy posiblemente los vanos recercados con algún tipo de sillar o similar. La altura de esta fachada sería también inferior a la actual con una planta menos. Estas deducciones pueden efectuarse gracias a la existencia de otros ejemplos similares próximos a esta casa (vid el n.º 12 de la misma calle), pero fundamentalmente a través de la constatación de las enormes similitudes formales existentes con la actual fachada trasera (U.E. 501-504), lo que hace pensar que estarían ejecutadas en un momento coetáneo.

La evolución formal de la casa experimentará posteriormente una destacada transformación, la cual a juzgar por los datos históricos disponibles debe situarse en torno a la primera mitad del siglo XVI. Esta alteración se concretará fundamentalmente en una sensible ampliación de los primitivos límites, tanto en superficie como en altura. Con motivo de ello la fachada principal avanzará hacia la calle y el espacio libre abierto entre los n.º 15 y 17 (servidumbre de luz), los cuales pasarán a formar parte del presente solar, desconociéndose lo que ocurrirá con el otro medianil. La operación se llevará a cabo al parecer reaprovechando al máximo los restos constructivos de la primitiva edificación, básicamente el vano de acceso (U.E. 402) y el ventanal situado junto a él (U.E. 415), así como buena parte de sus sillares, lo que explicaría las diferencias de picado existentes entre los de la planta baja y los de las superiores, observándose en esa planta baja entremezclados los dos tipos mientras que la primera y segunda están ejecutadas en exclusiva bajo un mismo tipo. Aparte de suponer una operación relativamente complicada desde el punto de vista ingenieril, destaca especialmente la ocupación fraudulenta que se efectúa del espacio público para un aprovechamiento particular. No ha de extrañarnos, sin embargo, esta práctica ya que la misma aparece documentada con cierta frecuencia en otros núcleos medievales del territorio y queda refrendada por el hecho de encontrarnos ante uno de los principales linajes de la villa de Orio, quienes controlan los resortes de poder y por tanto encuentran una cierta complicidad por parte de éstos. El edifico ganará también en altura una

maila handiagoa eman zitzaiola, arrunta baina dotore orekatua baitzegoen. Era berean, sakonki aldatu zen eta berriro antolatu zen solairuen barnealdeko banaketa, eta egindako erreformei egokitu zen. Eraikuntza hau, berriro aprobetxatu zena, Arrazubiatarren ondarearen barnean egon zen. Arrazubiatarrek beren armak grabaturik utzi zituzten sarrerako giltzarrian (403. U.E.), eta beste leinu ez garrantzi txikiagoko batekin, Iturriagatarrekin, elkartuko ziren une historiko nabarmen horretan. Iturriagatarrek bideratu zuten hemen adierazi dugun berreraikitze garratzitsu hori eta denbora joan ahala gaur egun duen izena eman zioten.

planta más, más evidente en la fachada trasera (U.E. 514) que en la delantera, donde al parecer se procederá a reconstruir totalmente la misma dándole un rango mayor, sencilla pero elegantemente equilibrada. Llevándose además a cabo una profunda reordenación de la distribución interna de los pisos al interior, adaptada a las reformas operadas. Esta edificación, la reaprovechada, había formado parte del legado patrimonial de los Arrazubia, quienes dejarán gravadas sus armas sobre la clave del mismo acceso (U.E. 403), quienes enlazarán en este señalado momento histórico con otro no menos destacado linaje, el de los Iturriaga, quienes procederán a la importante reconstrucción aquí señalada y con el transcurso del tiempo terminarán por darle su actual denominación.

Oro har, sorturiko eraikinaren maila nabarmen handitu zen hala maila koantitatiboan, azalera horizontala eta bertikala handitu zituen, nola koalitatiboan, kalitate handiko harlandua, osaketaren aldetik harmonia handikoa eta dekorazio motiboez ez oso kargatua, erabili zen fatxada nagusia eraikitzeko. Aurrekoarekin haustekо baino jarraitzeko ikuspegi batetik begiratuta egin zen eraikuntza, aurreko elementuak (sarrerako arkua, 19. etxetik bereizten zuen mehelina, eta abar) etxean kokatzen ahalegindu baitziren. Horrek guztiak pentsarazten digu etxebizitzari garrantzi handiagoa emateko asmoz bideratu zela eraldatze hori, leinu jabearen kalitateari eta garrantziari hobeto egokitzeko, alegia, eta arkitekturaren bidez argi utzi zuten beren egoera sozioekonomikoa lasaia zela. Hau da, etxebizitza arrunt batenak baino hiriko jauregi prototipo baten ezaugarriak eman zizkioten.

Globalmente la edificación resultante habrá experimentado una sensible elevación de su grado tanto a nivel cuantitativo, aumentando sensiblemente su superficie horizontal y vertical, como a nivel cualitativo, empleando para su fachada principal una fábrica de sillería de gran calidad, muy armoniosa compositivamente y no excesivamente cargada con distintos motivos decorativos. Concebida la misma más desde una perspectiva de continuidad que de ruptura, con todo lo precedente, de ahí que se intente integrar en la casa aquellos elementos previos (arco de acceso, medianil con el n.º 19, etc.). Todo ello nos hace pensar en una transformación operada con destino a una mayor dignificación de la vivienda, más acorde a la calidad y posición del linaje propietario, patentizando de una forma arquitectónica una situación de claro desahogo socioeconómico. Es decir, con unas características más próximas al prototipo de palacio urbano que al de la casa común.

Geroago egindako berritze lanek ez zuten gehiegi aldatu hemen adierazi dugun eraikuntza eskema hori, jarduera txiki batzuk baino ez baitziren bideratu: fatxada nagusiko armarria (411. U.E.), atzealdeko fatxadako baoak aldatu ziren, eta abar. Aldaketa horietan garrantzitsuena zera izan zen, Ipar-mendebaldeko muturrean eratxiki zitzaion osagarria edo eranskina (517. U.E.), komun gisa erabili zena. Osagarri hori egiteko aldameneko eraikinaren hedapen espazioa okupatu zen.

Las reformas operadas posteriormente no alteraran sensiblemente ese esquema edificatorio aquí expresado, reduciéndose a pequeñas actuaciones: escudo de la fachada principal (U.E. 411), alteraciones de los vanos de la fachada trasera, etc. Siendo de todos ellos la más significativa la ejecución del anexo o bastarda que se le adhiere por su extremo Noroeste (U.E. 517), empleado como excusado y el cual se lleva a cabo a costa del previsible espacio de expansión de la edificación inmediatamente contigua.

Iturriagatarren leinuari dagokionean, adieraztekoa da jatorriz bizkaitarra zela, une goiztiar batean iritsiko ziren Orioko *villara* eta alde hartako familia batzuekin elkartu ziren, XV. mendearen lehen erdialdean dokumentatu da dagoeneko beren presentzia. XVI. mendearen erdialdean Joan Lopez de Iturriaga kontularia eta Maria Lopez de Arrazubia ezkondu ziren, eta honek, beste ondasun batzuen artean, bere deitura zuen etxea, interbentzio arkeologiko honen gai dena, aportatu zuen ezkontzara. Une hartan (1563) "Lopeyçarena" izena zuen etxeak. Etxearen maila nabarmen handitu zen, ez soilik aipatu ditugun berritze horiek egin zirelako, baizik eta 1610. urtean Pablo de Iturriaga eskribauak sortu zuen maiorazkoaren ondare nagusi bihurtu zelako. Etxe horren deskripzioak ez du bere identifikazioari dagokionean zalantzarik uzten: "... casas prinçipales donde vivimos que son en la plaça publica desta dicha villa con su huerta pegante a ella çercada de paredes de cal y canto ...".

En referencia al linaje de los Iturriaga, de origen vizcaíno debieron arribar en un momento temprano a la villa de Orio, enlazando con varias familias de la zona, estando ya documentada su presencia durante la primera mitad del siglo XV. A mediados del siglo XVI tendrá lugar el enlace entre el contador Joan López de Iturriaga y María López de Arrazubia, aportando ésta al matrimonio, entre otros bienes, la casa de su apellido y objeto de la presente intervención arqueológica, la cual en ese momento aparece denominada como "Lopeyçarena" (1563), cuyo rango se elevará sensiblemente no sólo con motivo de las reformas ya señaladas sino también por el hecho de convertirse en el bien principal del mayorazgo fundado en el año 1610 por parte del escribano Pablo de Iturriaga. La descripción que se efectúa de la misma no deja dudas sobre su identificación: "…casas prinçipales donde vivimos que son en la plaça publica desta dicha villa con su huerta pegante a ella çercada de paredes de cal y canto...".

Iturriagatarren eta Orioren arteko, eta horrenbestez, beren bizileku nagusia izango zenaren arteko loturaren historia ia bi mendetan zehar luzatuko da, XVII. mendea jadanik aurrera zihoala Azpeitira bizitzera joan ziren arte. Garai horretan familiaren bizilekua izan zen eraikina berritzeaz gainera, merkatari eta burdin ekoizle garrantzitsu bihurtu ziren Iturriagatarrak, eta itsas *villako* dignitate soziopolitiko handienak izatera iritsi ziren. Familiak alde egin zuenean nolabait jaitsi egin zen eraikinaren garrantzia, eta jabetza soil bihurtu zen beste maila berezirik gabe, handik aurrera errentan eman zitzaien pertsona desberdinei, eta egoera hori mantendu egin da gorabehera batzuekin egungo erreforma egin baino lehentxoagora arte.

La historia de vinculación entre los Iturriaga y Orio, y por extensión la que sería su residencia principal, se prolongará durante casi dos siglos, antes de pasar a residir a la localidad de Azpeitia ya avanzado el siglo XVII. En ese período no sólo reformarán la edificación que se convertirá en residencia de la familia sino que también se asentarán como firmes comerciantes y productores de hierro, alcanzando las más altas dignidades sociopolíticas de la villa marinera. Este señalado traslado supondrá una cierta rebaja de su importancia relativa, transformándose en una mera propiedad más sin otro rasgo especial, la cual será subarrendada a diferentes, situación que con más o menos altibajos se ha mantenido hasta fechas próximas a su actual reforma.

*Alfredo Moraza*

## B.3.2.5. **Zurbano kalea (Segura)**

M.ª Mercedes Urteaga Artigasek zuzendua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak subentzionatua.

## B.3.2.5. **C/ Zurbano, 25 (Segura)**

Dirigida por M.ª Mercedes Urteaga Artigas.

Subvencionada por la Diputación de Gipuzkoa.

***25, Zurbano street (Segura). Directed by M.ª Mercedes Urteaga Artigas.*** *Archaeological investigation prompted by the construction of new housing on the site. It is located within the Historic Old Quarter of medieval origin in the town of Segura.*

*The archaeological work uncovered several deposits linked with metallurgical activity. From the material recovered the chronology can be fixed prior to the fire of 1645.*

Orube honetan etxebizitza eraikin berri bat eraikitzeko proiektua zela-eta, interbentzio arkeologiko bat bideratu genuen bertan. Segurako *villako* Erdi Aroko Herrigune Historikoaren barnean dago orube hau.

Arkeologia lanek agerian utzi zituzten jarduera metalurgikoarekin loturiko depositu arkeologiko batzuk. Depositu horietan atzemandako materialak 1645. urteko sutea baino lehenagoko garaietan kokatuko genituzte.

Intervención arqueológica motivada por el proyecto de construcción de un nuevo edificio de viviendas en este solar. El mismo se encuentra dentro del Casco Histórico de origen medieval de la villa de Segura.

Las labores arqueológicas dejaron al descubierto diversos depósitos arqueológicos relacionados con actividades metalúrgicas. Por los materiales asociados a los mismos se podrían datar en fechas anteriores al incendio de 1645.

*Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa*

## B.3.2.6. RC.4 Eremua eta Herriko Etxea (Tolosa)

Carlos Olaetxeak zuzendua.

Tolosako Udaleko Hirigintza Batzordeak subentzionatua.

## B.3.2.6. Área RC.4 y Casa Consistorial (Tolosa)

Dirigida por Carlos Olaetxea.

Subvencionada por la Comisión de Urbanismo del Ayuntamiento de Tolosa.

*RC.4 Area and The Council House (Tolosa). Directed by Carlos Olaetxea. Prompted by town planning projects in the Old Historic of Tolosa and in accordance with the Basque Cultural Heritage legislation, new surveys were carried out at several points of the town founded in 1256 by Alfonso X. As a result, wall structures corresponding to medieval enclosures and the perimeter wall on the east side of the town were identified.*

Tolosako Herrigune Historikoan Udalak bultzaturiko obra batzuk egin behar direla-eta, eta kontuan harturik Euskal Kultur Ondarearen legeria, 1995 eta 1996 urteetan proiektu arkeologiko bat bideratu genuen RC.4 eremuko depositu arkeologikoaren kalitatea eta kontserbazioa zehazteko asmoz. 1256. urtean Alfontso X.ak sortu zuen villako harresi barrutiaren barnealdeko Ekiadeko ertzean dago hiri eremu hau.

Interbentzio arkeologiko batzuk bideratu ditugu ukituriko orube eta higiezin desberdinetan.

### *Aranburuko Lorategietako interbentzioa*

Andra Mariko Parrokia Elizaren Hegoaldeko alboak, Aranburuko Jauregiak eta Oria ibaiaren ibilguak muga-

Con motivo de la planificación de diversas obras promovidas por el Ayuntamiento en el Casco Histórico de Tolosa y en observancia a la legislación de Patrimonio Cultural Vasco, se desarrolló entre los años 1995 y 1996 un proyecto arqueológico con el objeto de determinar la calidad y conservación del depósito arqueológico en el área RC.4. Este área urbana se sitúa en el borde Este del interior del recinto murado de la villa fundada en el año 1256 por Alfonso X.

Las intervenciones realizadas se han dispersado por los diferentes solares e inmuebles afectados.

### *Intervención en los Jardines de Aranburu*

Los jardines de Aranburu se ubican en el espacio limitado por el lateral Sur de la Iglesia Parroquial de



RC. 4 Eremua eta Herriko Etxea (Tolosa). Harresiko hormatala Tolosako Herrigune Historikoko Ekialdeko ertzean.

Área RC. 4 y Casa Consistorial (Tolosa). Lienzo de la muralla en el borde Este del Casco Histórico de Tolosa.

tzen duten espazioaren barnean daude Aranburuko Lorategiak. Interbentzio honetan zundaketa-kata batzuk bideratu genituen eta kata horietan azaldu ziren harresi egituren irakurketa estratigrafikoa bideratu genuen.

1. Zundaketak 4 metro x 4 metro neurtzen zuen, eta *villako* harresiaren barnealdearen ondoan egin genuen, eremu horretan funtzio bikoitza betetzen zuen harresiaren trazatuak, hau da, babes funtzioa eta ibaia bideratzea. Interbentzio honetan hamar unitate estratigrafiko dokumentatu genituen, horietako bost unitate estratigrafiko itxiturari zegozkion. Landu gabeko harri arruntaz eginiko fabrika bat ageri zen gaineko 0,6 metroetan, kararri landuzko paramentu bat 1,60 metroko sakoneraraino eta errekarrizko zimentazio bat materialbetegarriaren gainean egina. Fauna hondakinak atzeman genituen 3 metroko sakonera bitarte.

Harresiaren kanpoaldeko ertza libre geratzen da eta bi kanal paralelo ditu muga, "Real Fábrica de Armas" fabrikaren azpiegitura hidraulikoari dagokiona bata eta "Boinas Elosegui" txapel fabrikarenari dagokiona bestea. Eremu honetan garbi bereizten dira landu gabeko harrizko eta kararri landuzko fabrika desberdinak. Trazatuaren luzapena bat dator Andra Mariko Parrokia Elizaren atzealdeko mugarekin, horixe da hoberen kontserbatu den Tolosako *villako* harresi zatia, eta XIV. mendekoak dira hari dagozkion lehen aipamenak.

Lorategiaren eta Errotako kaleskaren mugan 25 metroko luzera eta 3 metroko altuera gorena duen harresi egitura bat dago. Kalitate handiko kararri landuan egina dago alde batzuetan, eta arkitektur elementu garrantzitsuak ageri ditu, bao alakatu bat eta arku dobeladun baten hondakinak. Kronologiari dagokionean, XVI. mendeko eraikin garrantzitsu bateko behe oinari lotuko genizkioke elementu horiek. Harresi egituraren irakurketa estratigrafikoa eta dagozkion planoak egin ditugu.

Lorategiaren eta Errotako kaleskako murruaren arteko eremuan egin genuen 2. zundaketa, 4 m x 4 m-koa, harresi egitura perpendikularrak aurkitzeko asmoz. Indusketa arkeologikoan zehar 22 unitate estratigrafiko azaldu ziren, unitate horien artean aipagarri da murru bat atzeman genuela kaleskaren perpendikularrean. Murrua Ekialdeko ertzean zehar luzatzen zenez, 9. zundaketa egin genuen, 2. zundaketatik metro batzuetara, orubearen atzeko itxitura hipotetiko bat azaltzen ote zen egiaztatzeko.

